


apirila ■ 2022

EAE-KO ETORKIN ATZERRITARREI BURUZKO INKESTAREN AZTERKETA (EABI 2018)

Biztanle etorkinen integrazioari buruzko joerak eta erronkak Euskadin

Julia Shershneva, Maite Fouassier Zamalloa (koord.)



CIP. Biblioteca Universitaria

Biztanle etorkinen integrazioari buruzko joerak eta erronkak Euskadin [Recurso electrónico]: EAEko etorkin atzerritarrei buruzko inkestaren azterketa (EABI) 2018 / Julia Shershneva, Maite Fouassier Zamalloa (koord.). – Datos. – Bilbo: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2022. – 1 recurso en línea : PDF (320 p.)

En la cub.: Ikuspegi - Observatorio Vasco de Inmigración ; Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea ; Eusko Jaurlaritza, Berditasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila = Gobierno Vasco, Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-408-0.

1. Inmigrantes - País Vasco - Siglo XXI. 2. País Vasco - Emigración e inmigración - Siglo XXI. 3. Discriminación - Opinión pública. I. Shershneva, Julia, coord. II. Fouassier Zamalloa, Maite, coord. III. Ikuspegi, Observatorio Vasco de Inmigración.

(0.034)314.7(460.15)

(0.034)316.647.82(460.15)

Argitaraldi elektronikoa

Urtea eta lekua:	2022, Bilbo
Argitaratzailea:	Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
Diseinua eta maketazioa:	Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia Emilia Oleaga Páramo /// www.emiliaoleaga.com
Dokumentazioa:	Antonio Gómez, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia
Itzulpena:	Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L. Maramara* taldea
Azaleko argazkia:	Kamil Kalkan
ISBN:	978-84-1319-408-0



AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
1. Etorkin atzerritarren prekaritatea eta desberdintasuna Euskadin: gizarteratzeko politikaren erronkak	
Luis Sanzo	9
2. EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanle-kolektibo handien ezaugarri nagusiak	
Lía González, Iraide Fernández eta Maite Fouassier	33
3. EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen seme-alaben baldintzak eta prozesu sozialak	
Irune Ruiz, Beatriz Otero eta Maite Fouassier	77
4. Okupazioa eta enplegua: hobekuntzak espazio desberdinean?	
Rubén Lasheras	97
5. EAeko atzerritar jatorriko biztanleen egoera etxebizitzari dagokionez	
Cristina Lavía	137
6. Atzerritar jatorriko biztanleen osasuna eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea Euskadin: bilakaera, jatorriaren arabera desberdintasunak eta desberdintasun sozialak	
Antía Domínguez-Rodríguez eta Yolanda González-Rábago	159
7. Etorkinak hezkuntza-sistemaren bidez gizarteratzea Euskadin?	
Izaskun Andueza eta Marcela Bejarano	179

8. Parte-hartzea, gizarte-harremanak eta integrazioaren pertzepzio subjektiboa	
Oier Ochoa de Aspuru eta Arkaitz Fullaondo	217
9. Bizikidetzeta, hautemandako diskriminazioa eta estereotipoak	
Julia Shershneva, Peio Salazar eta Taide Arteta	237
10. Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna	
José Antonio Oleaga	273
Epilogo. Bultzada instituzionala integrazio sozialerako	
Xabier Aierdi	301



Aurkezpena

Biztanle etorkinen integrazioari buruzko joerak eta erronkak Euskadin. EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren azterketa (EABI 2018) izena duen lan honek atzerritar jatorriko pertsonak Euskadin, hainbat eremutan, nola integratzen diren eta prozesu horrek zer zailtasun eta oztopo dituen aztertzen du. Helburua hori izanik, EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren datuak aztertu dira. Inkesta hori Eusko Jaurlaritzak EAEn bizi diren atzerritarrei egindako estatistika eragiketa ofiziala da, eta informazio ugari eskaintzen digu hiru alditan, zehazki 2010., 2014. eta 2018. urteetan.

Inkesta honen 2018ko edizioko lagin eraginkorra 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko 2.418 pertsonakoa da, eta horrek esan nahi du lagin errore maximo batekin lan egin behar dela, +/- % 1,20koa, 165.153 pertsonako unibertso estimatu baterako. Lagin eraginkor horrek 4.732 atzerritar jatorriko pertsonen buruzko informazioa ematen du (Em = +/- % 2,15, 211.208 pertsonako biztanleria estimatuarentzat), etxebizitzan edo establezimenduan jatorri atzerritarreko pertsonak dituzten 2.418 bizikidetzaren unitateetatik datozenak (Em = +/- % 4,62, 95.651 etxetako unibertso estimatu baterako).

EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren helburua da EAEko atzerritar jatorriko biztanleen bizi baldintzak ezagutzeko, aztertzea eta ebaluatzea, eta informazio zabala ematea haien ezaugarri demografiko, sozial eta ekonomiko nagusiei buruz, immigrazioaren eta migrazio proiektuaren arrazoiei buruz eta hezkuntza eta lan premiei buruz. Beraz, oso tresna erabilgarri bat da, eta aukera ematen du, alde batetik, jatorri atzerritarreko biztanleriaren egoeraren diagnostiko eguneratua lortzeko, eta, bestetik, jarraipena egiteko eta euskal gizartearen integrazioa joerak eta erronkak antzemateko.

Horretarako, Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak, 2017an, EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren monografiko bat egin zuen, *El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi* izenekoa. Bertan, integrazio prozesuen bilakaera eta krisiak prozesu horietan dituen eragina eta ondorioak aztertzen ziren. Lan honek, beraz, jarraipena eman nahi dio 2018ko inkestari, edizio horren datu eguneratuak eskainita. Gainera, atzerritar jatorriko biztanleriaren kolektiboen integrazio prozesuak ezagutzea du helburu, bai eta izan daitezkeen erronkak eta esku hartzeko ildoak eta kudeaketa politiko eta soziala identifikatzea ere.

Argitalpen honen egiturari dagokionez, monografiko bat da. Nazioarteko migrazioen eremuan adituak diren hainbat pertsonak parte hartzen dute, eta integrazio prozesuekin lotutako hainbat eremuren inguruan aztertu eta hausnartzen dute. Eremu horien artean, garrantzitsuentzat jotzen ditugunak hautatu dira, hala nola enpleguarekin, etxebizitzarekin, hezkuntzarekin eta osasunaren arloarekin lotutako gaiak, Eusko Jaurlaritzaren Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kultura Arteko VI. Planaren (2022-2025) ardatz estrategikoekin bat datozenak. Era berean, ikerketak parte hartzean, gizarte harremanetan eta diskriminazioan ere jartzen du arreta, baita atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaben integrazioarekin lotutako alderdietan ere.

Zehazki, hamar kapitulu ditugu argitalpen honetan. Lehenengoa, Luis Sanzok eginga, euskal gizartearen etorkizunerako garrantzitsuak diren bi gairi buruzkoa da. Alde batetik, Euskadiko pobreziaarekin eta gizarte desberdintasunarekin lotutako gai batzuk planteatzen ditu. Bestalde, atzerritar jatorriko biztanleriaren pobrezia eta prekaritatearen aurka borrokatzeko funtsezko elementu batzuk ere aurkezten dira –EAEk datozen urteetan parez pare izango duen erronka sozialetako bat da hori–.

Bigarren kapituluan, Lía Gonzálezek, Iraide Fernándezek eta Maite Fouassierrek landutakoan, EAEko atzerritar jatorriko biztanleen kolektibo handien panoramika deskriptiboa egiten da, haien integrazio prozesuaren hiru dimentsio erreferentziatzat hartuta: hezkuntzako –heziketa-maila eta gainkualifikazioa–, lanekoa –okupazioa, kontratu mota eta diru iturria– eta soziala –integrazioaren pertzepzioa, jasandako arrazakeria kasuak eta egoera ekonomikoaren pertzepzioa–.

Hirugarren atalean, Irune Ruizek, Beatriz Oterok eta Maite Fouassierrek atzerritar jatorriko pertsonen baldintzak eta gizarte prozesuak jorratzen dituzte. Azken batean, kontua da jatorri atzerritarra duzten euskal etxeak ezaugarritzea, eta kolektiboa hobekien mugatzen eta definitzen duten aldagai soziodemografikoak aztertzea. Ondoren, egileak hezkuntzaren, gizartearen eta lanaren, integrazio prozesuen, aniztasunaren eta diotenez jasan dituzten diskriminazio egoeren esparruan gelditzen dira.

Laugarren atalean, Ruben Lasherasek atzerritar jatorriko biztanleen errealitate soziolaboralari buruzko hausnarketa egiten du. Okupazioari eta enpleguari buruzko datu batzuk azaltzeaz gain, EAEn jaiotako biztanleekiko konparazioa ere egin da. Jarraian, hainbat gai aztertzen dira, hala nola enplegua, joan-etorrien eragile gisa, sarbide tipologiak; lan esperientzia; enplegu kopurua; enplegu irregularra; lanetara egokitzea; egoera arazotsuak; alderdi positiboak eta beste errealitate batzuk, hala nola enpresa porrota, enplegu zerbitzu publikoetako arreta eta itxaropenak.

Bosgarren kapitulua atzerritar jatorriko pertsonen bizitegi egoerari buruzkoa da. EAeko Etorrin Atzerritarrei buruzko 2018ko Inkestak eskaintzen dituen datuen azterketatik abiatuta, Cristina Lavíak etxebizitza eskuratzearekin zerikusia duten alderdiak aztertzen ditu, edukitze erregiminen banaketaren, ekipamenduaren egoeraren eta etxebizitzaren kalitatearen bidez, baita etxebizitzak dakarren gastu ekonomikoaren eta etxebizitzari lotutako zailtasunen bidez ere. Egileak ondo adierazten duen bezala, etxebizitza egoerak ulertzen lagun dezaketen profilak bilatzen dira kapituluan, eta etxebizitzari buruzko adierazleak kolektiboaren beste ezaugarri garrantzitsu batzuekin lotzen dira. Gainera, lortutako adierazle nagusien denbora bilakaeraren perspektibaren bat ematen da.

Seigarren kapituluak osasunaren eta atzerritarrek osasun zerbitzuetarako duten sarbidearen panoramika bat erakusten ditu, osasun arloko ekitatearen ikuspegitik. Zehazki, Antía Domínguez-Rodríguezek eta Yolanda González-Rábago osasun egoeraren eta osasun zerbitzuetarako sarbidearen bilakaera aztertu dute, bai estali gabeko osasun premiei eta sarbide oztopoei dagokienez, bai hainbat asistentzia mailatan jasotako osasun arretari dagokionez, eta erreferentzia gisa hartu dute EAeko Etorrin Atzerritarrei buruzko 2014ko eta 2018ko Inkesta, jatorri taldeen eta sexuaren arabera. Bestalde, osasun egoera orokorrean eta osasun arretarako sarbidean 2018an dauden desberdintasun sozialen egoera aztertzen dute, sexuaren arabera.

Zazpigarren kapitulua atzerritar jatorriko etorkinak Euskadiko hezkuntza sistemari sartzeko moduari buruzkoa da, bai eta hezkuntza sistemaren gizarte emaitzei buruzkoa ere. Izaskun Anduezaentzat eta Marcela Bejaranorentzat, EAeko Etorrin Atzerritarrei buruzko Inkestak ematen duen informazioa oso baliotsua da, bestela eskuratu ezin diren datu eskusiboak lor baitaitezke, hala nola hezkuntza esperientzian ezarri diren harremanen motak, Euskadiko berezko hizkuntzak ikasteko prozesuei buruzko xehetasun paregabeak edo hezkuntza sistema berezi hori osatzen duten hizkuntza ereduen artean aukeratzeko orduan jaso zuten orientazioari buruzkoak.

Zortzigarren kapituluak gizarte harremanak eta parte hartzea aztertzen ditu, integrazioaren bi dimentsio baitira. Oier Ochoa de Aspuruaren eta Arkaitz Fullaondoren aburuz, bi dimentsioak oso lotuta daude kapital sozialaren kontzeptuarekin eta kapital sozial handiagoa jatorri atzerritarreko pertsonen

integrazio handiagoarekin lotzen duen hipotesiarekin. Horregatik, lan honetan, parte hartze sozial eta politikoak atzerritarren gizarte harremanen aniztasunean eta integrazioaren pertzepzio subjektiboan duen eragina aurkezten da.

Bederatzigarren kapitulua Julia Shershnevak, Peio Salazarrek eta Taide Artetak egin dute, eta atzerritar jatorriko pertsonak jasaten dituzten diskriminazio eta gaitzespen esperientzietan eta EAEn bizi diren bertako biztanleen eta etorkinen balorazioan oinarritzen da. Horrela, atzerritar jatorrikoek larritasun txikiagoko egoeren, estereotipoen eta aurreiritzien eta diskriminazio egoera larrienen aurrean duten esposizioa aztertzen da hainbat eremutan; lanaren, hezkuntzaren eta gizarte harremanen eremuetan, hain zuzen ere.

Eta, azkenik, hamargarren kapitulua inklusioaren eta gizarte integrazioaren indize sintetikoari buruzkoa da. José Antonio Oleagak egin du 2018ko inkesta horretan eskuragarri dauden datuetan oinarrituta. Tresna analitiko bat da, eta atzerritar jatorriko biztanleria eta euskal gizartearen integrazioa prozesuak nola garatzen ari diren jakiteko kalitatezko informazioa ematen du. Era berean, atzerritar jatorriko pertsona guztien gizarte integrazioa prozesu horiek hobetzeko gizarte politikak diseinatzeko behar den tresna bat da.

EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestan sartutako hainbat eremutan sakontzeko monografia honen amaiera gisa, Xabier Aierdiren azken gogoeta bat dugu, immigrazioa aztergai gisa berreskuratzean zentratzen dena. Monografiko honen kapituluek ematen dituzten mugarri nagusiak berrikusi ondoren, egile honek immigrazioaren kudeaketa integrala egiteko kontuan hartu beharreko zenbait gogoeta aipatzen ditu. Amaitzeko, etorkizunari begira zer erronkari egin behar zaion aurre adierazten du, eta erronka horiek, funtsean, harrera, entzute eta kudeaketa jarrera berreskuratzerara bideratu behar direla.

Ez genuen espero, 2020ko hasieran EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko 2018ko Inkestaren inguruan aztertzen eta hausnartzen hasi ginenean, denbora gutxian pandemia batekin topo egingo genuenik. Joera aldaketa bat ekarri zuen horrek, bai migrazio fluxuetan, bai haien integrazio prozesuetan. Hurrengo EAEko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestak oso informazio baliotsua emango digu, COVID-19aren ondorioen nahiz 2018tik 2022ra bitartean euskal gizartearen bilakaera markatzen ari diren beste gertakari eta gertaera batzuen eragina islatuko duena. Baina, hori gertatu arte, erreferentzia gisa har daiteke hemen aurkezten dugun azterlana, atzerritar jatorriko biztanleen bizi baldintzak azaltzen dituen eta horietan sakontzen duena, migrazio prozesua heldu dela eta jatorri atzerritarreko biztanleak finkatu direla erakusten duten adierazleekin.

Julia Shershneva

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria



Etorkin atzerritarren prekarietatea eta desberdintasuna Euskadin: gizarteratzeko politikaren erronkak

Luis Sanzo González ■ Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza

Euskadin, aski fenomeno berria da atzerriko biztanle etorkinen kopuru handiak etortzea, XX. mendearen amaierara arte era horretako biztanleen presentzia marjinala baitzen neurri handi batean. Biztanleen Udal Errolda erreferentziatzat hartuta, eta adierazlerik egokiena Espainiako lurraldetik kanpo jaiotako biztanleen kopurua dela kontuan hartuta¹, 1996an Euskadin bizi ziren 23.670 pertsona baino ez ziren atzerrian jaiotakoak, biztanleria osoaren % 1,1 besterik ez.

Hala ere, handik hamabi urtera, 2008an, aztertutako biztanleria-bolumena 142.484 lagunekoa zen, Euskadiko biztanleriaren % 6,6. Erreferentziatzko biztanleriaren hedatze-lerroak bere horretan jarraitu zuen krisiaren lehen fasean, eta atzerrian jaiotako biztanleen kopurua 183.772 lagunera iritsi zen 2012an, hauxe da, biztanleria osoaren % 8,4. 2014an egonkortu ondoren (181.717 lagun), goranzko joera hartu zuen berriz ere 2016tik aurrera, eta atzerrian jaiotako 241.724 lagun ziren 2020an, guztizkoaren % 10,9.

Atzerriko immigrazioarekin lotutako biztanleriaren bolumenaren hazkunde handi hori ez dator bat Euskadin edo Espainiako gainerako herrialdeetan jaiotako biztanleriaren bilakaerarekin. Biztanleria horren kopurua -119.275 murriztu zen 1996-2020 urteen artean; atzerrian jaiotakoak, berriz, 218.054 lagun gehiago dira aintzat hartutako urte horietan.

¹Biztanle horien parte bat jatorriz espainiarra izan daitekeen arren, Espainiatik kanpo jaiotako biztanleria kontuan hartzeak adierazle fidagarriagoa eskaintzen du atzerriar jatorriko immigrazioaren benetako eraginari jarraitzeko, nazionalitate ez espainiarra duten biztanleen neurketak baino. Atzerritarren artean dauden nazionalizazioen kopuru handia da horren arrazoia.

Biztanleriaren pisu erlatiboaren bilakaera nabaritutakoaren antzekoa da oso jatorriz Espainiako nazionalitatea ez zuten pertsonak buru dituzten etxeetan. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) erreferentziatzat hartuta, esate baterako, biztanleria hori guztizkoaren % 1 baino ez zen 2000. urtean. Aztertutako biztanleriaren pisua handitzen joan zen pixkanaka-pixkanaka, % 5,2ra iritsi baitzen 2008an eta % 8,8ra, berriz, 2014an. 2016an egonkortu ondoren, % 8,6rekin, adierazleak goranzko joera hartu zuen berriro, eta 2010ean, familia-etxebizitzetan bizi diren biztanleen % 10era iritsi zen erreferentziatzko pertsona atzerritar bat duten etxeetako biztanleria.

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) pobreziaren eta desberdintasunaren dinamikaren aldaketa garaiarekin batera (2008tik aurrera bereziki nabarmena), gertatu da bilakaera hori. Izan ere, urte horretako finantza-krisiaz geroztik, EAEk goranzko presioari egin behar izan dio aurre, neurri handi batean egiturazkoa, pobreziaren eta desberdintasunaren zenbait arrisku-faktoretan.


Etorrin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) eta euskal estatistika-sistemaren beste eragiketa batzuk kontuan hartuta, euskal gizartearen etorkizunerako garrantzitsuak diren bi gai ditu ardatz azterlan honek. Horrela, alde batetik, aztertutako dugu atzerritar jatorriko immigrazioaren hazkundea zergatik den Euskadin pobreziaren eta desberdintasunaren goranzko joera azaltzen duten faktore demografiko nagusietako bat.

Dokumentuak, bestalde, EAEk datozen urteetan izango duen erronka sozial nagusietako bati aurre egiteko kontuan hartu beharko liratekeen funtsezko elementu batzuk aurkezten ditu: atzerriko immigraziotik datozen biztanleen pobrezia eta prekarietatea gainditzea.

Euskadi, finantza-krisiaren osteko babesgune

1. grafikoan ikus daitekeen bezala, 1995. urtetik aurrera Euskadin enpleguak hazkunde handia izan zuenez, aurreko mendearen amaieran, biztanleria nazionalarekin lor zitekeen biztanleria aktiboaren gehieneko gailurrera hurbildu izanarekin lotzen da atzerritar jatorriko biztanleriaren etorrera masiboa. Pertsona aktiboen kopuru hori 967.000 ingurukoa zen 2000. urtean.

1. grafikoa. Biztanleria aktiboaren bilakaera EAEn. 1976-2021



Oharra: Datuak milaka pertsonatan, urte bakoitzeko IV. hiruilekoan.

Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urte bakoitzeko azken hiruilekoa (hirugarren hiruilekoa 2021ean)

XXI. mendearen hasieran, emakumeen jarduera-tasaren hazkundera ez da nahikoa gizonezko aktiboaren bolumenaren beherakada behar bezala konpentsatzeko; izan ere, euskal biztanleria zahartzearen ondorioz, hori argi nabari baita 2003. urtetik aurrera. Horrela, urte horretatik aurrera, Euskadin asko jaisten hasi zen gizonezko biztanleria aktiboaren bolumena: urte hartan 588.000 gizon aktibo inguru izatetik 456.000 eskas izatera pasa zen 2019an.

Lan-merkatuaren eta euskal enpresen beharrak atzerriko immigrazioaren bidez baino ezin ziren bete orduan, eta, horri esker, biztanleria aktiboaren kopurua 1.085.000 lagun ingurura iritsi zen Euskadin 2008. urtearen amaieran. 2. grafikoa ikus daitekeenez, 1998-2008 bitartean, produkzio-sistemaren hedapen handia izan zen urte haietan, atzerriko immigrazioarekin lotzen da biztanleria aktiboaren goranzko joera. Euskadin izandako biztanleria aktibo eta okupatuaren hazkunde-aldi horren amaieran, atzerritarren kolektibo horrek ekarri zituen Euskadin lan-merkatuak espero zen funtzionamendu-logika bermatzeko beharrezkoak ziren 104.000 pertsona aktibo inguru.

2. grafikoa. Atzerriko biztanleria aktiboaren bilakaera EAEn. 1995-2021



Oharra: Datuak milaka pertsonatan, urte bakoitzeko IV. hiruilekoan

Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren inkesta. Urte bakoitzeko azken hiruilekoa (hirugarren hiruilekoa 2021ean)


2008ko finantza-krisiaren ondorioak kontuan hartuta, okupazioak nabarmen behera egin baitzuen eta langabezia asko handitu baitzen, galdera bat datorkigu burura, ondorengo atzeraldian, 2008-2014 urteetan, langabeziak hazkunde handiena izan zuen aldi barne, zergatik egin du nabarmen gora Euskadin atzerritar jatorriko biztanleen kopuruak?

Neurri handibatean, horigertatuda atzerritar jatorriko biztanle askok urte horietan lurralde- eta gizarte-babeslekua aurkitu dutelako Euskadin eta penintsulako beste erkidego batzuetan, premia handiena duten biztanleak babesteko joera handiagoa baitute. Azken urteetako historiako gertaera deigarrienetako bat da babes-faktorea, 2008. urtearen ondorengo krisian penintsulako iparraldeko eta ipar-mendebaldeko hainbat autonomia-erkidegoren ezaugarri izan dena, eta Estatuko Administrazio Orokorrek Espainiako biztanleriaren alderdi ahulenari babes ekonomiko eta sozial nahikoa eskaintzeko izandako porrot handia kontrajartzen zaio horri.

Prozesu soziodemografiko horrek eragina du Aragoian, Nafarroan, Kantabrian edo Asturiasen ere, eta, horren ondorioz, bestelako emigrazioa sortu da, kasu askotan Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetatik, Euskadirantz etorri diren atzerritar jatorriko biztanleak, bereziki Europar Batasunetik kanpoko pertsoneri dagokienez.

Errolda Jarraituaren Estatistikako datuak kontuan hartuta, 3. grafikoak erakusten du 2008tik 2020ra bitartean Europar Batasunetik kanpo jaiotako biztanleen hazkunde erlatibo handiena EAeri dagokiola, hain zuzen ere. Hala, EBtik kanpoko biztanle kopurua % 94,2 areagotu da Euskadin 2008tik 2020ra bitartean, ehuneko 36,7 puntu gehiago immigranteen kolektibo hori erakartzeko gaitasun erlatibo handiena duen hurrengo erkidegoak, Nafarroak, baino (% 57,5). Aldea are handiagoa da Kataluniarekin (% 41,2) edo Madrilekin (% 35,3) alderatzen badugu. Espainiak, oro har, duen % 39,8ren azpitik dago Madril.

3. grafikoa. Europar Batasunetik kanpo jaiotako biztanleen aldakuntza %etan 2008 eta 2020 urteen artean, autonomia-erkidegoen arabera




Iturria: INE. Errolda Jarraituaren Estatistika

4. grafikoan ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoak eta Madril edo Katalunia bezalako erkidegoek 2008tik aurrerako urteetan izandako bilakaeran dagoen dibergentzia handia.

Azpimarratzekoa da bilakaera desberdin horren oinarria finkatu egin zela 2008 eta 2015 artean, 2008ko finantza-zurrunbiloen ondorengo krisi sozialaren fase nagusian, hain zuzen ere. Izan ere, EBtik kanpoko etorkinen hazkundeari dagokionez, kontuan hartzen bada 2020an EAeren eta Kataluniaren artean zegoen ehuneko 53 puntuko aldea, horietatik 30 puntu baino gehixeago (% 57,1) 2008-2015 urteei dagozkie.

4. grafikoa. Europar Batasunetik kanpo jaiotako biztanleen bilakaera autonomia-erkidego batzuetan. 2008-2020



Oharra: 2008 = Oinarria 100

Iturria: INE. Errolda Jarraituaren Estatistika

Europar Batasunetik kanpoko biztanleriak atzerritar jatorriko kolektiboan duen garrantzia immigrazio-mota horren ezaugarri bereizgarria da Euskadin, EABIk islatzen duen bezala. Iturri horren arabera, 2018an, atzerriko immigrazioetik etorritako 211.208 pertsonen % 82,2 Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetakoak ziren, eta proportzio horrek pixkanaka gora egin du 2010ean erregistratutako % 77,7arekiko.

Immigrazioa, pobrezia eta desberdintasuna Euskadin

Atzerriko etorkinen etorrerak dakarren aldaketa demografikoa funtsezkoa da XXI. mendeko Euskadiko pobrezia eta desberdintasunaren dinamika ulertzeko. Horren arrazoia da askoz ere pobrezia-arrisku eta ongizaterik ez handiagoa dutela etorkin atzerritarren etxeetan bizi diren pertsonen.


Prekaritate ekonomikoa jatorria atzerriko immigrazioan duten etxeetan

5. grafikoan ikus daitekeenez, 2004an, naziokoa ez zen biztanleria etorkinaren presentzia EAEn jada garrantzitsua izaten hasi zen garaian, atzerritar jatorriko erreferentziako pertsona bat zuten etxeetako biztanleriaren pobrezia errealaren tasa % 26,4koa zen. Pobrezia-tasa hori 22,6 puntu handiagoa zen jatorri nazionaleko erreferentziako pertsona bat zuten etxeetako biztanleriarena baino (% 3,8).

Biztanleria nazionaleko etxeetan tasa hori % 5,1ekoa zen 2000. urtean, 2004an % 3,8ra jaitsi zen eta jaitsiera hori % 2,9a iritsi zen 2008an. Finantza-krisiaren ondorioz, pobrezia errealaren joera-igoera txiki bat gertatu zen, 2018an % 3,6ko intzidentziarekin. Goraldi txiki horren ondoren, jatorri nazionaleko biztanleria buru duten etxeen benetako pobrezia-tasak beheranzko bideari heldu zion berriro, eta XI. mendeko gutxieneko mailara iritsi zen 2019an: % 2,7.

Joera desberdina da, eta askoz ere problematikoagoa, jatorri nazionalekoak ez diren pertsonak buru dituzten etxeetan. Kasu horretan, pobrezia errealaren tasak gora egin du etengabe 2004-2016 urteen artean, eta % 26,4tik % 31,1era pasa da. 2018an hobekuntza txiki bat izan ondoren (% 29,6ra jaitsi da), COVID-19aren pandemiaren eraginak % 31,5era eraman du tasa, 2000. urteaz geroztik izan duen mailarik handienara. Jatorri nazionaleko eta ez-nazionaleko pertsonen etxeetako tasen arteko aldea maila gorenera iritsi zen 2020an, ehuneko 28,8 punturekin: % 31,5 eta % 2,7, hurrenez hurren.

5 grafikoa. Pobrezia errealaren bilakaera, etxeko erreferentziako pertsonaren jatorriaren arabera (%etan). EAE. 2000-2020




Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta

Nabaritutako aldeak antzekoak dira, nabarmenxeagoak badira ere, mantenu-pobrezia edo diru-sarreraren pobrezia soilik kontuan hartuta (6. grafikoa). Hala, 2020an, diru-sarreraren pobrezia-arriskua % 5ekoa zen biztanleria nazionaleko etxeetan, XXI. mendean maila hori 2008an (% 4,4) eta 2016an (% 4,7) soilik egon baitzen zertxobait azpitik. Aldiz, atzerritar jatorriko pertsonak buru dituzten etxeetan bizi direnen artean, 2014 eta 2016 artean beheranzko egonkortze txiki bat izan arren (% 31,8tik % 31,5era), diru-sarreraren pobrezia-tasaren bilakaeraren ezaugarria da goranzko joera izan duela 2000ko % 19,7tik 2004ko % 21,9ra. Hala, % 27,9ra iritsi zen 2008an, % 31,5 eta % 32,1 artean ibili zen 2012-2018 urteetan, eta, COVID-19 krisiaren ondorioz, gorenera iritsi zen 2020an, % 35,2.

2020an, 30,2 ehuneko-puntukoa da atzerritarren etxeetako eta nazioko biztanleen etxeetako diru-sarreraren pobrezia-arriskuaren tasan dagoen aldea: % 35,2 eta % 5, hurrenez hurren. Adierazitako alde hori 43,1 ehuneko-puntura iristen da mantenu-ongizaterik edo diru-sarrerarik ezaren arriskua kontuan hartzen badugu: % 58,4 atzerriko immigraziotik datozen etxeetan, eta % 15,3 jatorri nazionaleko biztanleen etxeetan.

6 grafikoa. Mantenu-pobrezia (diru-sarrerak) bilakaera, etxeko erreferentziako pertsonaren jatorriaren arabera (%etan). EAE. 2000-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta


Atzerrian jaiotako biztanleriaren pisu demografikoa eta pobrezia eta ongizaterik ezaren arrisku diferentziala handitzearen konbinazioak aldaketa kualitatiboa eragin du Euskadiko prekaritate ekonomikoko egoeren banaketan, eta nabarmen handitu da atzerriko immigraziotik datozen etxeetako biztanleriari dagokion pisu erlatiboa.

7. grafikoan ikus daitekeenez, atzerritar jatorriko pertsonen etxeetan bizi ziren biztanleen ehunekoa ia ez zen iristen EAEn pobrezia errealean zeuden pertsona guztien % 2,7ra 2000. urtean. Proporzio hori etengabe eta modu egonkorrean

handitu zen, 2012an % 45,3ra iritsi zen arte. Urte horretatik aurrera, pixka bat gora egin zuen arren, proportzioa egonkortu egin zen % 45,7tik % 46,9ra bitarteko ehunekoen inguruan.

Hala ere, COVID-19 krisiak gorakada ekarri du berriro ere, jatorri ez-nazionalako erreferentziako pertsona bat duten etxeetan pertsonen % 56,2 izanik 2020an pobrezia errealean bizi diren pertsonen guztizkoan. Horrela, urte horretan, Euskadin pobrezia errealean bizi diren pertsona gehienak jatorria atzerriko immigrazioan duten etxe horietakoak dira jada.

7 grafikoa. Jatorri ez nazionalako erreferentziako pertsona bat duten etxeetan biztanleriak duen pisuaren bilakaera pobrezia- eta ongizaterik ezeko egoeretan (parte-hartzearen % guztizkoan). EAE. 2000-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta


Eragin erlatiboa pixka bat txikiagoa izan arren, bilakaera paraleloa da ongizaterik ezaren adierazleari dagokionez. Hala, jatorri ez nazionalako pertsona bat buru zuten etxeetan bizi zen biztanleria ongizaterik ezeko biztanleen % 3 izatetik 2000. urtean, % 38,2 izatera pasa zen 2012an. 2014an pixka bat atzera egin ondoren (% 36,5), proportzioak gora egin zuen, baina ez bat-batean, eta % 41,1era iritsi zen 2018an. COVID-19 krisiak atzerritar jatorriko biztanleengan izan duen eragin handiaren ondorioz, 2020an, ongizaterik ez duten herritar gehienak jatorria immigrazio ez nazionalen duten etxeetan bizi dira (% 52,5).

8.a grafikoa ikus daitekeenez, 2020an, 68.200 lagun inguru daude jatorri ez nazionalako pertsona bat buru duten eta pobrezia-egoeran bizi diren familietan;

kopurua 107.700 lagunekoa da ongizaterik ezeko egoera guztiak kontuan hartzen baditugu. Kopuru horiek oso bestelakoak dira jatorri nazionaleko biztanleen etxeei dagozkien aldean, 53.300 eta 97.400 (8.b grafikoa). Izan ere, biztanleria nazionaleko etxe horietan, deigarria da eragindako pertsonen kopuruaren beherakada handia 2000. urtearekin alderatuta: orduan 103.500 inguru pobrezia-egoeran zeuden jatorri nazionaleko etxeetan, eta 220.100 inguru ongizaterik ezeko egoeran mendearen hasieran.


Hala, hogei urte eskasean, aldaketa handia izan da Euskadin; izan ere, oinarri ia erabat nazionaleko pobrezia eta prekarietate ekonomikoa izatetik beste era batekoa izatera pasa da, orain atzerriko immigraziotik etorritako pertsonen etxeetan biltzen baitira pobrezia eta prekarietateak eragindako pertsona gehienak. Gainera, prozesu hori kaltetutako biztanle nazionalen bolumenaren jaitsiera handiarekin lotzen den bitartean, nahiz eta batzuetan tasa orokorren dinamikak jaitsieraren egiturazko ildo hori ezkututzen laguntzen duen, jatorri ez nazionaleko biztanleriari lotutako etxeetan pobrezia eta prekarietate ekonomikoaren goranzko presioa areagotu egin da COVID-19 krisian zehar.

8.a grafikoa. Jatorri ez nazionaleko erreferentziazko pertsona bat duten etxeetan biztanleriak duen pisuaren bilakaera pobrezia- eta ongizate errealik ezeko egoeretan (kopuru absolutuak, milaka pertsonatan). EAE. 2000-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta

8.b grafikoa. Jatorri nazionalako erreferentziazko pertsona bat duten etxeetan biztanleriak duen pisuaren bilakaera pobrezia- eta ongizate errealik ezeko egoeretan (kopuru absolutuak, milaka pertsonatan). EAE. 2000-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta

Beste ikuspegi baten beharra Euskadiko pobrezia eta desberdintasun ekonomikoa aztertzean

Euskadin dauden problematiken zentzua behar bezala mugatu nahi bada, izandako bilakaerak inplikazio handiak ditu pobrezia eta desberdintasunaren azterketarekin lotutako fenomenoak aztertzeko. Zehazki, diagnostiko-prozesu egoki batean, atzerriko immigraziotik etorritako biztanleen artean dagoen prekaritate ekonomikoaren garrantziak baldintzatzen du bi gertaera sozialen azterketa.

Lehenik eta behin, eta pobrezia azterketaren esparruan, haurren pobrezia aztertearekin du zerikusia gai garrantzitsuenetako batek.


Kasu honetan, atzerriko immigrazioaren bizi-baldintzetara hurbiltzeko garrantzi berezia duen gaia da, inolaz ere, seme-alabak dituzten familia edo etxe ugari baitaude. Hala, 2020an, 14 urtetik beherako adingabeak dituzten 30.721 etxe daude jatorri ez nazionalako pertsona bat buru dutenak, hauxe da, Euskadin adingabeak dituzten etxe guztien % 30,7. Proporzio hori pixka bat jaitsi egin da 2018ko % 32,1aren aldean, baina urte horretara arte handitu baino ez zen egin 2000. urtetik (% 3,1).

Nolanahi ere, egiaz erabakigarria da egiaztatzea etxeen % 32,1 horrek barne hartzen dituela pobrezia errealean bizi diren eta 14 urtetik beherako adingabeak dituzten etxe guztien % 69,4 (pobrezia errealean edo ongizaterik ezeko egoeran bizi direnen % 66,4). Etxe horiek, era berean, pobrezia errealean bizi diren 14 urtetik beherako biztanleen % 72,6 biltzen dute (benetan ongizaterik ezeko egoeran bizi direnen % 70,4).

Datu horiek erakusten dutenez, zenbait egoeratan, desegokia izan daiteke pobrezia errealearen bilakaera edo, oro har, ongizaterik ezaren formak EAEko datu orokorretatik abiatuta aztertzea. Esate baterako, gaia termino orokor horietan aztertzen bada, biztanleria osoa kontuan hartuta, 9. grafikoan jasotako datuek erakusten dute haur-pobrezia eragin handia duela 2020an, gutxiengoa bada ere, % 11,7ko intzidentziarekin. Hala ere, alderdi garrantzitsuena da intzidentzia horrek goranzko joera argia duela 2018ko % 10,3arekiko. Gorakada handi horrek, gainera, joera-aldaketa nabarmena erakusten du 2014 (% 11,2) eta 2018 (% 10,3) urteen artean izan zen beheranzko joerarekiko.

Hala ere, hurbilketa zehatzago batean, datuek agerian uzten dute ikuspegi orokor hori ez datorrela bat biztanleria nazionala buru duten etxeetan bizi diren haurren benetako esperientziarekin, ezta jatorria kanpoko immigrazioan duten biztanleen etxeetan bizi direnen esperientziarekin ere.

9. grafikoa. Haurren pobrezia intzidentziaren bilakaera, etxeko erreferentziako pertsonaren jatorriaren arabera (%etan). EAE. 2000-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta

Biztanle nazionalak osatutako etxeetan bizi diren 14 urtetik beherako biztanleen kasuan, 2018-2020 aldiak erakusten du berriro ere beherantz egiten hasi dela haur-pobrezia. 2014tik nabari zen beheranzko joera hori, 2016 eta 2018 artean aldi baterako aldatu bazen ere. Hala, etxe horietako adingabeen pobrezia

errealaren tasak behera egin du 2014an % 5,6 izatetik 2020an % 4 izatera. Are garrantzitsuagoa: 2020ko erregistroa, 2008ko finantza-krisiaren ondoren, 2008ko eta 2012ko % 4,5aren azpitik dago lehen aldiz.

Hala, familia nazionaletan bizi diren 14 urtetik beherako biztanleen kasuan, 2020k haur-pobreziaren intzidentzia txikiena erakusten du 2008az geroztik, eta, gainera, EAEko adierazle orokorra baino % 66 txikiagoa da.

Gutziz bestelakoa da immigrazio ez nazionaletik etorritako pertsona bat buru duten etxeetako adingabeen gizarte-egoera, haur-pobreziaren tasa kolektibo nazionalarena baino hamar aldiz handiagoa baita 2020an: % 43,9 eta % 4, hurrenez hurren. Kasu horretan, finantza-krisiaren eragina erabakigarria izan zen, 2008an % 33 izatetik % 43,7 izatera pasa baitzen 2012an. 2014an aldi baterako % 40ra jaitsi ondoren, tasak berriro gora egin zuen 2016an, eta 2008az geroztik % 47,3ko gorenera iritsi zen urte horretan. Ekonomiaren susperraldia oso hobekuntza handia izan zen kasu honetan, haurren pobrezia-tasa % 36,5era jaitsi baitzen 2018an. Hala ere, 2020an COVID-19aren pandemiak eragindako krisi sozialak aipatutako % 43,9 horretara itzuli zuen tasa, 2008an erregistratutakoak baino ehuneko 10 puntu gehiago.

Beraz, haur-pobrezia problematika erabakigarria bada Euskadin, bai intzidentziari dagokionez, bai eragindako biztanleriaren banaketari dagokionez, batez ere, jatorria immigrazio ez nazionalen duten etxeekin lotua dago. Ñabardura handiagoekin bada ere, pobrezia orokorraren azterketara ere zabal daiteke ondorio hori neurri batean bederen –gutxienez, atzerriko immigraziotik datozen etxeetako biztanleriaren pisu nagusiari eta fenomenoak biztanleria horretan duen eragin diferentzialari dagokienez–.


Aipatutako ondorio hori are garrantzitsuagoa da, bigarrenik, desberdintasun ekonomikoaren problematika aztertzean. Horren harira, haur-pobreziaren dinamika bezala, Euskadin berriki izan den bilakaera sozioekonomikoaren beste alderdi sozial garrantzitsuenetako bat da desberdintasun-adierazleek gora egin dutela finantza-krisiaren ondoren.

10. grafikoan ikus daitekeen bezala, esate baterako, 1996-2008 urteetako dinamika argi eta garbi hautsita, Gini koefizienteak goranzko joera erakutsi du azken urteetan, bereziki deigarria 2016tik aurrera.

Joan den mendearen amaieran, Espainia 1986an Europako erakundeetara sartu eta industria-birmoldaketaren prozesua amaitu ondoren, Gini indizearen etengabeko beherakada erakutsi zuen Euskadik. Horrela, indize hori 1996an 28 izatetik 25,2 izatera igaro zen 2008an, eta kopuru hori egonkortu egin zen 2012an, 25,3rekin. 2012 eta 2014 artean, indizeak gora egin zuen eta 27,1era iritsi zen 2014an, baina 25,8ra jaitsi zen 2016an, eta ematen zuen berriro ere 2008-2012 urteetako gutxieneko mailetan zegoela Euskadi. 2016tik aurrera,

ordea, argi eta garbi finkatu zen goranzko dinamika: Gini koefizientea 26,7 zen 2018an eta 28,2, berriz, 2020an².

10. grafikoa. Gini koefizientearen bilakaera EAEn (%etan). 1996-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta


Bilakaera horren funtsezko alderdi bat da nabarmen handitu dela immigraziotik etorritako etxeek desberdintasun-adierazleen hazkundeari egiten dioten ekarpena. Hala, 11. grafikoa Gini koefizientearen dinamikari dagokionez erakusten duen bezala, jatorria atzerriko immigrazioan duten pertsonak buru dituzten etxeetako biztanleriak handitu egin du koefiziente horri egiten dioten ekarpena, ehuneko 3,06 puntu baitziren 2008an eta ehuneko 7,31 puntu 2020an. Aldiz, jatorri nazionala duten biztanleen etxeetan desberdintasunaren gorakadari ekarpen garbia egiten dioten kolektiboak baldin badira ere (emakume bakarrak seme-alabekin, bakarrik dauden pertsonak eta 45 eta 64 urte bitarteko familia-talde nuklearrak), oro har, biztanleria nazionalako etxeek Gini indizeari egiten dioten ekarpen orokorra 22,16tik 20,84ra jaitsi zen 2008 eta 2020 artean.

Beraz, kanpoko immigraziotik datozen etxeetan biztanleriak duen posizio ekonomiko konparatiboki zaila funtsezkoa da Euskadiko desberdintasunaren azken aldiko bilakaeraren benetako zentzua ulertzeko.

²Desberdintasunak Euskadin 2008tik aurrera estrukturalki izan duen goranzko joera are garbiagoa da beste ezberdintasun-adierazle batzuk aintzat hartzean, 2014-2016 urteetako hobekuntzari kalterik egin gabe. Hala, % 20 aberatsenaren eta % 20 behartsuenaren diru-sarreraren arteko erlazioa 2008an 3,6 izatetik 4,4ra igo da 2020an, mailarik altuena 1996az geroztik (1996an izan zen 4,2ko maximoa).

% 10 pobreenak dituen diru-sarreraren bilakaerari dagokionez, desberdintasunaren bilakaeraren arabera norabide ezberdina izanik, jaitsi egin zen diru-sarrera horiek guztizko diru-sarreretan zuten proportzioa 2008an % 3,88 izatetik 3,18 izatera 2020an.

11. grafikoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Gini koefizienteari egiten zaion ekarpenaren banaketa, talde demografikoen arabera. 2008 eta 2020



Oharra: Koefizienteari egindako ekarpenaren ehuneko-puntuetan.

Oharra: EP (egoiliarrek etxean adierazitako erreferentziako pertsona)

Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta

Atzerritar jatorriko biztanleen prekaritatearen oinarri sozioekonomikoak

Bai EABIk bai EAeko estatistika-sisteman sartutako beste eragiketa batzuek informazioa ematen dute Euskadin atzerritar jatorriko biztanleak buru dituzten etxeen problematika sozio-ekonomikoa azaltzeko aukera ematen duten faktore nagusiei buruz.


Nabarmendu beharreko lehen gertakaria da, bereziki haur-pobreziaren eragin diferentzialaren testuinguruan, seme-alabak dituzten familiek Euskadiko atzerritar jatorriko immigrazioan duten zeregin erabakigarria.

PGDI eta EABI inkestetako datuak kontuan hartuta, 12. grafikoa erakusten du, atzerritar jatorriko pertsona bat buru izanik, seme-alabak dituzten³ familia nuklearretan bizi diren atzerritarren bilakaera. Biztanleria hori 32.300 lagun ingurukoa zen 2004an, eta azkar asko igo zen 2010ean 126.800 lagun izateraino. Krisiaren faserik gogorrean gertuko mailetan egonkortu ondoren, 121.000 lagun baitziren 2012an eta 124.300 lagun, berriz, 2014an, 2014 eta 2016

³Seme-alabak dituzten senar-emazteek edo bikoteek edo guraso bakarrak osatutako familiak hartzen dira barne.

artean goranzko joera handia izan zuen berriro, 145.700 pertsona baitzeuden era horretako etxeetan. Gero igoera moteldu egin arren, goranzko joerari eutsi zaio, 2020an era horretako etxeetan 166.900 laguneko gehienekora iritsi arte.

12. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera, jatorri horretako pertsona bat buru izanik, seme-alabak dituzten familia nuklearretan. EAE. 2004-2020



Oharra: parentesi artean, erreferentziazko biztanleriak atzerritar jatorriko guztizko biztanlerian duen ehunekoa.

Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta eta Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta

Era berean, atzerritar jatorriko biztanleria horrek jatorri ez nazionaleko biztanleria osoan duen pisuan ere ikusten da hazkunde-dinamika. 2004. urtean % 53,3koa zen, eta proportzioak gora egin zuen % 69,4tik % 70,6ra 2008 eta 2012 urteen artean. 2014an % 63,7ra jaitsi ondoren, berriz ere gora egin zuen, eta % 78,9a iritsi zen 2016an. 2018an berriz ere % 73,5era jaitsi ondoren, 2016tik gertu zeuden mailak berreskuratu zituen 2020an (% 77,1). Datuek erakusten dute, beraz, atzerritar jatorriko biztanleen hiru laurden baino gehixeago seme-alabak dituzten etxe edo familia nuklearretan bizi direla.

Seme-alabak dituzten familien pisu nabarmen horren garrantzia da pobrezia-arrisku eta prekaritate ekonomiko handiagoa dutela, bai atzerritar jatorriko biztanlerian, bai jatorri nazionaleko biztanlerian.


Atzerritar jatorriko biztanleen prekaritate diferentziala azaltzeko bigarren ezaugarri garrantzitsu bat haien heziketa-mailarekin lotuta dago. EABI inkestak adierazten duen bezala, 2018an 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 78,2 ikasketa kualifikaturik gabekoak ziren (ikasketa kualifikatuzat goimailako LHkoak edo hirugarren mailako ikasketak hartuta). Proportzio hori egonkor mantendu da, baina zertxobait gorantz, 2010eko % 77tik. Proportzioa

ia ez da murriztu eskuragarri dagoen azken zenbatespenean, PGDI 2020 inkestari dagokiona, % 75,9rekin.

Esparru orokor horretan, beste alderdi batzuk ere aurreratu zituen 2018ko PGDIk, eta 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen oinarritzko hezkuntza-mailak okerrera egin duela erakusten dute. Hala, alde batetik, inolako ikasketarik ez duten pertsonen pisua 2010ean % 8,2tik izatetik % 12,9 izatera pasa zen 2014an eta 2018an. PGDIk % 15,7ra luzatu du joera hori 2020an. Bestalde, hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa jaitsi egin da 2010ean % 18,1 izatetik % 17,3ra izatera 2014an, eta % 15,6ra 2018an, % 16,5eko gorakada txikiarekin 2020ko PGDIin.

13. grafikoan ikus daitekeenez, 2020ko PGDI inkestaren datuak erabiliz, alderdi erabakigarri bat da prestakuntza-mailan alde handia dagoela 2020an 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen artean, jatorri nazionalaren edo atzerritarren arabera.

13. grafikoa. 16-64 urteko biztanleak, hezkuntza-mailaren eta jatorri nazionalaren edo atzerritarren arabera (%etan). EAE. 2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta


Datuen arabera, ikasketak dituzten biztanleen proportzioa txikia da atzerritar jatorriko biztanlerian: % 24 besterik ez, eta biztanleria nazionalan, berriz, % 57,4. Atzerritar jatorriko biztanleen % 62,4k kualifikaziorik gabeko ikasketak ditu, eta beste % 14k ez dute ikasketarik (derrigorrezko ikasketak amaitu gabe). Biztanleria nazionalan, berriz, % 40,3 eta % 2,3 dira kopuru horiek.

Atzerritar jatorriko biztanleriaren garrantzia bereziki nabarmena da ikasketarik gabeko 16-64 urteko biztanlerian. 2020ko PGDI inkestaren arabera, erreferentziako biztanleriaren % 11,1 baino ez bada ere, atzerritar jatorriko biztanleak dira Euskadin ikasketarik ez duten biztanle guztien % 43,2.

Hirugarren alderdi mota koiunturalago bat aipatu behar da atal honetan, bereziki lan-merkatuaren dinamikaren eta jarduerarekiko harremanaren azterketaren esparruan. 16 eta 66 urte bitarteko biztanle okupatuaren proportzioa erreferentziatzat hartuta, 14. grafikoak erakusten du adierazleak bilakaera desberdina izan duela 2012tik aurrera, biztanleriaren jatorriaren arabera.

Jatorri nazionalako biztanlerian, 2012tik 2014ra % 62,1etik % 61,4ra pixka bat jaitsi ondoren, susperraldi ekonomikoaren prozesuak biztanleria okupatuaren proportzioa nabarmen handitzea ekarri du, 2016an % 64,4ra iritsi arte. Modu neurritsuagoan bada ere, okupatutako pertsonen proportzioak gora egiten jarraitu du 2016 eta 2020 urteen artean, kopuruek gora egin baitute, % 65,7 2018an eta % 66,8 2020an, eta COVID-19ak eragindako krisiak ez du aldatu 2014az geroztik dagoen goranzko joera.

14. grafikoa. Pertsona okupatuaren proportzioaren bilakaera 16 eta 66 urte bitarteko biztanleria osoan, jatorri nazionalaren edo atzeritar jatorriaren arabera (%etan). EAE. 2000-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta eta Etorkin Atzeritarrei Buruzko Inkesta

Atzeritar jatorriko biztanleen artean, aldiz, bilakaera askoz ere nabarmenagoa izan da ziklo ekonomikoaren eraginez, okupazio-maila txikiagoek ere baldintzatzen duten testuinguru batean. Horrela, bada, 2012an atzeritar jatorriko biztanleen % 54,4 ehuneko -7,7 puntu beherago zegoen biztanleria nazionalaren % 62,1etik. 2012-2014 urteetako okupazio-mailaren jaitiera, gainera, askoz ere nabarmenagoa izan zen atzeritar jatorriko biztanleen artean, % 54,4tik % 48,4ra jaitsi baitzen pertsona okupatuaren proportzioa, eta 2014an, berriz, okupazioa ehuneko -13 puntu beherago zegoen jatorri nazionalako biztanleriarekin alderatuta.

Hala ere, 2014-2018 urteetako susperraldia ere nabarmenagoa izan zen atzerritar jatorriko biztanleen artean, etengabe igo baitzen 2014ko % 48,4tik 2018ko % 62,0ra, urte hartako biztanleria nazionalaren % 65,7 baino ehuneko -3,7 puntu gutxiago. Hala ere, COVID-19 krisiak eragin oso nabarmena du atzerritarrengan, % 62tik % 55era jaitsi baita biztanleria okupatuaren proportzioa, jatorri nazionalako biztanleriak, berriz, mantendu egin du gorakada. Hala, 2020an, atzerritar jatorriko biztanleriaren % 55eko okupazioa jatorri nazionalako biztanleriaren % 66,8 baino ehuneko -11,8 puntu txikiagoa da, eta aldeak 2014an edo 2016an ikusitakoen antzekoak dira berriro ere.

Azterritar jatorriko biztanleriaren okupazio-maila txikiagoak ez dira soilik kolektibo horren langabezia-tasa handiagoekin lotzen, baizik eta, horrez gain, posizio okerragoa dute enpleguaren kalitatearekin lotutako dimentsioan. Alde horretatik, 2018ko EABIk erakusten du soldatapeko atzerritar jatorriko 83.550 pertsonen artean garrantzi handia dutela oraindik ere behin-behinekotasunak edo kontraturik ezak eragindako egoerek. Hala, aztertutako biztanleriaren % 32k mugagabea ez den kontratuarekin egiten du lan, eta % 6,1ek kontraturik gabe, hau da, guztizkoaren % 38,1ek. Proportzio horrek 2018an argi eta garbi gainditzen zuen 2018ko Lan Merkatuaren Erroldan (LME) jatorri nazionalako biztanleriarentzat kalkulaturako % 21,7a. Sumaturako aldeak ehuneko 10,8 puntukoak ziren kontratazio ez mugagabearen kasuan (% 32,0 eta % 21,2, hurrenez hurren) eta 5,6koak kontraturik gabeko lan-moduetan (% 6,1 eta % 0,5, hurrenez hurren).

2018ko LMEn arabera, bestalde, lan irregularraren eragina, Gizarte Segurantzari kotizatu gabea, jatorri nazionalako soldatapekoen % 0,5 baino ez zen 2018an, atzerritar jatorriko soldatapekoen artean, berriz, % 4,4 zen. Iturri horrek berak agerian uzten du, halaber, lanaldi partzialak eragin desberdina duela soldatapekoen artean jatorriaren arabera: % 36,9 atzerritar jatorriko biztanleen artean eta % 19,7 jatorri nazionalako biztanleen artean⁴.


Lan-merkatuko eta produkzio-sistemako posizioan dauden alde handi horien emaitza da biztanleria okupatuaren hileko ohiko ordainsarian dagoen alde handia (aparteko ordainsariak kanpo utzita). LMEn arabera, 2018an ordainsari hori hilean 1.503,80 eurokoa zen jatorri nazionalako biztanleentzat, eta 1.074,97 eurokoa, berriz, atzerritar jatorriko biztanleentzat. Beraz, jatorri nazionalako kolektiboaren ordainsariaren % 71,5 da atzerritar jatorriko kolektiboaren ohiko ordainsaria. 2019an egoerak hobera egin bazuen ere biztanle atzerritarren kasuan, ordainsaria % 6,41 igo baitzen eta hileko 1.143,92 eurora iritsi baitzen, jatorri nazionalako biztanleen 1.552,27 euroekiko proportzioa oraindik ere % 73,6 besterik ez da urte horretan.

⁴Kasu honetan, lanaldi partzialeko lana, zentzu oso zabalean, langileen eta enpresaren kategorian berean ohikoa den oinarritzko ordutegia baino ordu gutxiago lan egiten den edozein egoerarekin lotzen da.

Atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, biztanleria horren diru-sarreraren eta gastuen bilakaera desberdinak baldintzatzen du ordainsari-eskalan egoera txar hori izatea. Hala, EAEko atzerritar jatorriko biztanleen artean bizikidetzak unitate osoarentzat aitortutako ohiko diru-sarrerak eta gastuak per capita estandarizatuak (Eurostat eskala) alderatuta, EABIk erakusten du 2010 eta 2018 urteen artean diru-sarrerak % 4,5 hazi ziren arren, per capita gastuak % 14,5 handitu zirela. Datu horiek agerian uzten dute garrantzi handia duela gastuen bilakaerak, bereziki etxebizitza eskuratzearekin lotutakoek, jatorri ez nazionalako biztanleen egoera sozioekonomikoan.

Nabarmendu beharreko azken kontua da orain arte ikusi diren alde handiak, pobrezia eta prekaritate ekonomikoaren mailetan eragin nabarmena dutenak, areagotu egin direla 2020an COVID-19 krisiaren ondorioz. Pandemiak atzerritar jatorriko biztanleengan duen eragin diferentziala argi nabari da kolektibo horren pobrezia-egoeren pertzepzioan, 15. grafikoa ikus daitekeen bezala.

15. grafikoa. Beren burua pobretzat/oso pobretzat edo gutxienez pobre samartzat jotzen duten etxeetako pertsonen proportzioaren bilakaera, jatorri nazionalaren edo atzerritarren arabera (%etan). EAE. 2010-2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, Etorkin Atzerritarrei Buruzko Inkesta eta Familiei eta Etxeei buruzko Inkesta.

Datuek erakusten dute, alde batetik, 2010-2014 urteetan garrantzi handia duela atzerritar jatorriko biztanleek bizi diren etxeetan hautemandako pobrezia hazkundeak, % 11,4tik % 18ra igo baita beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen duten etxeetako pertsonen ehunekoa, eta % 24,6tik % 32,8ra beren burua gutxienez pobre samartzat jotzen duten etxeetako pertsonen ehunekoa.

Hala ere, grafikoak erakusten du, halaber, 2014 eta 2019 urteen artean hobekuntza argia eta luzea izan zela, urte horretan Familiei eta Etxeei buruzko Inkestak adierazten baitu atzerritar jatorriko pertsonen % 5,5 baino ez direla bizi pobretzat eta oso pobretzat jotzen diren etxeetan, eta % 13,6 gutxienez pobre samartzat jotzen diren etxeetan. 2010az geroztik izandako onenak ziren erregistro horiek, eta bazirudien pixkanaka hurbiltzen ari zirela jatorri nazionaleko biztanleen egoera nagusira.

Aldeko ikuspegi hori erabat aldatu da atzerritar jatorriko biztanleen artean COVID-19 krisiak izan duen eraginaren intentsitate desberdinaren ondorioz. Hala, kolektibo horretan, beren burua pobretzat edo oso pobretzat jotzen duten etxeetako pertsonen proportzioa % 5,5etik % 13,4ra igo da 2019tik 2020ra. Igoera hori % 13,6tik % 28,1era bitartekoa da beren burua gutxienez pobre samartzat jotzen duten etxeetako biztanleriari dagokionez. Erregistro horiek, kasu guztietan gainditzen dituzte 2010. urtekoak eta 2016-2019 urteetakoak. 2014ko maximoaren azpitik geratzen dira, bai eta 2012ko erregistroaren azpitik ere etxe pobre samarretako biztanleriaren adierazleari dagokionez. Finantza-krisian hautemandako pobrezia-mailetara iritsi ez bada ere, COVID-19 krisiaren ondorioz, urtebete eskasean haietatik oso gertu dauden mailetara egin da atzera.


Jakina, jatorri nazionaleko biztanlerian ere nabari da COVID-19 krisiaren eragina, baina hasierako maila oso txikietatik abiatuta, 2019 eta 2020 artean % 0,8tik % 1,7ra igo baita *pobrea edo oso pobrea* izateko pertzepzioa, eta % 2,5etik % 4,2ra *gutxienez pobre samarrentzat* pertzepzioa. Gainera, gora egin arren, eta atzerritar jatorriko biztanleen artean ez bezala, oro har, 2010-2018 urteetako baina txikiagoa da 2020ko proportzioa, eta, horrenbestez, COVID-19 krisiari lotutako atzerakadak ez dakar aldaketa kualitatibo erabakigarririk jatorri nazionaleko biztanlerian.

Ikusi ahal izan denez, orain arte egindako azterketa atzerritar jatorriko biztanleriaren barruan nazionalizatutako biztanleria sartuta egin da. Nazionalizazioen bilakaerari dagokionez, Euskadin prozesuak aurrerapen handia izan duela erakusten zuen 2018ko EABIk. Hala, termino erlatiboetan, nazionalizazioen goranzko joeraren ondorioz, nazionalizatutako pertsonen ehunekoak gora egin zuen atzerritar jatorriko biztanlerian: 2010ean % 20,0, 2014an % 29,9 eta 2018an % 36,4. Aldi berean, egoera administratibo problematikoen eragina (lan-baimenik ez izatea 16 urte edo gehiagoko pertsonen edo egoitza-baimenik ez izatea edozein adinetan) nabarmen murriztu zen 2010 eta 2018 urteen artean: 2010ean % 13,2 izatetik 2014an % 8,6 izatera eta 2018an % 5,4 izatera.

Aipatutako dinamikak, inolako zalantzarik gabe, eragin positiboak ditu pobrezia eta desberdintasunaren bilakaeran. Hala ere, 16. grafikoan ikus daitekeen bezala, pobrezia errearen eraginari dagokionez, nazionalizazio-prozesuak ez du esan nahi nazionalizatutako biztanleria jatorria Euskadin,

Estatuko gainerako herrialdeetan edo Europar Batasuneko herrialde aberatsenetan duten biztanleen egoera nagusira hurbiltzen denik (EB-15).

16. grafikoa. Pobrezia errearen eragina, biztanleen jatorriaren eta egungo egoera administratiboaren arabera (%etan). EAE. 2020



Iturria: EOB. Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta

Hala, Euskadin, Espainiako gainerako herrialdeetan edo lehengo EB-15eko estatuetan jatorria duten biztanleen artean % 3ko edo gutxiagoko pobrezia errearen tasarekin alderatuta, 2020an oso handia da, % 23, nazionalizatutako atzerritar jatorriko biztanleen pobrezia errearen tasa. Gainerako atzerritarren (EBko beste herrialde batzuetatik edo Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetatik etorriak) % 36,9a baino txikiagoa izan arren, nazionalizatutako biztanleriaren pobrezia errearen tasa arrisku-eremuan dago argi eta garbi. Izan ere, Euskadiko jatorrizko biztanleriarena, Espainiako gainerako herrialdeena edo EB-15eko gainerako herrialdeena baino zazpi aldiz handiagoa da.

Hori dela eta, termino sozial hutsetan, Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleen egoera aztertzean, kontuan hartu behar da, oro har, biztanleria horri eragiten dion prekaritate-egoera diferentziala, kolektiboaren zati baten Espainiako nazionalitatea lortzeko prozesutik harago.

Ondorioa

Euskadin, atzerritar jatorriko biztanleria, edozein dela ere gaur egun duten nazionalitatea, prekaritate handiko egoerak jasaten dituen taldea da oraindik ere.

Hala, 2018an, EABlren arabera, biztanleria horren % 56,8k adierazi zuen azken urtean zailtasun ekonomikoren bati aurre egin behar izan ziola, elikaduraren, jantzien, oinetakoen edo etxebizitzaren oinarriko beharrak estaltzearekin edo

ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunarekin lotua. 2020an, COVID-19aren pandemiaren bilakaeran prozesuaren une gorenean, PGDI inkestak % 61,4an jarri zuen adierazle hori, jatorri nazionaleko biztanleen % 15,3 baino ehuneko 46,1 puntu gehiago.

PGDIkerakutsi duen bezala, erasandako talde nagusiak (2018an % 75etik gorako kopuruekin), Afrikatik etorritakoak dira. Nolanahi ere, ukitutako biztanleriaren proportzioa % 50etik hurbil dabil edo handiagoa da Latinoamerikako (Argentina, Txile eta Uruguai izan ezik) eta Munduko gainerako herrialdeetatik (Europar Batasuna, Txina eta planetako gainerako herrialde garatu batzuk izan ezik) etorritako pertsona gehien kasuan ere.

Nahiz eta litekeena den 2021ean egoerak hobera egin izana, jarduera ekonomikoa berreskuratzearen ondorioz, hausnartu egin beharko litzateke COVID-19aren pandemiarekin lotutako krisi sozialak Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleentzat ekarri duen konparaziozko narriaduraren inguruan. PGDIren adierazle sintetiko nagusiek, pobrezia pertzepzio subjektiboaren neurketari lotutakoak barne, ez dute zalantzarik uzten krisi sozial honen inpaktu bereizgarriaz.

Hala ere, pandemiaren garaiko krisiari garrantzirik kendu gabe, adierazi behar da Euskadiko atzerritar jatorriko biztanleriaren prekariedade ekonomikoa ez dela krisi horrekin sortu. Ekarpene honen helburuetako bat izan da agerian uztea zein handia den atzerritar jatorriko biztanleriari eragiten dion desfase sozioekonomikoa, 2008ko finantza-krisiaren ondoren Euskadin pobrezia eta desberdintasunaren bilakaera izan den goranzko presioan. Zailtasun ekonomikoak gorabehera, jatorri nazionaleko gehiengo sozialak joera positiboko adierazleak izan dituen bitartean, atzerritar jatorriko biztanleek neurritz kanpo jasan dituzte XXI. mendean Euskadin izan diren krisi sozialen eta krisi ekonomikoen ondorioak.

Jatorri nazionaleko eta atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera guztiz desberdin hori oso adierazgarria da, naziokoa baino gazteagoa den kolektibo bati eragiten baitio bereziki eta, haren barruan, pisu handia dute seme-alabak dituzten familiek eta, beraz, adingabeek. Sumatutako bilakaera desberdin horrek, hain zuzen ere, dimentsio sozial handiagoa hartzen du adingabekoen talde hori kontuan hartzean.

Jakina, aztertutako pobrezia eta prekariedade diferentzialaren ondorio gogorrenak arindu egin ditu politika sozialak; izan ere, Euskadin, eusteko horma gisa jardun du politika sozial horrek ikusi diren gizarte-desberdintasun handi horietan oinarritutako bizikidetzak-modu batek izan litzakeen ondorio sozial sakonei aurre egiteko.

Politika soziala, etxebizitzaren edo diru-sarrerak bermatzeko politikaren arloan, funtsezkoa da, eta erakundeen laguntzak, batez ere publikoak, egiaz erabakigarriak dira atzerritar jatorriko biztanleentzat. Hala, 2014an, laguntza horietara jotzeko beharra izan zuten atzerritar jatorriko biztanleen % 47 bizi ziren etxeek. Gero, 2018ko EABIn erregistratutakoaren arabera, % 33,2ra jaitsi bazen ere kopuru hori, proportzioak oso handia izaten jarraitzen zuen. 2010eko PGDI inkestak erakusten duenez, proportzioa % 36,8ra igo da berriro 2020an.

Arrisku handieneko taldeen pobreziarekin lotutako desorekak hein handi batean konpentsatzean, diru-sarrerak bermatzeko politikak Euskadin lagundu egin du prekaritate ekonomikoa areagotzen duten egiturazko faktoreen inpaktu negatiboa minimizatzen. Horregatik, gizarte egonkor bat finkatzeari dagokionez, bereziki krisi-garaietan, Euskadin nabarmena da diru-sarrerak bermatzeko sistemaren garrantzia, egonkortzeko eta gizarteratzeko faktore gisa. Hala ere, 2008ko krisiaren eta COVID-19 pandemiaren ondorio ekonomikoek oraindik eragin handia dute egungo egoeran, eta diru-sarrerak bermatzeko sistema ez da gai izan ekarpen honetan aintzat hartutako prozesuen ondorio negatiboak erabat konpentsatzeko.

Gainera, konparatutako esperientziak erakusten duen bezala, babes-politika horrek ezin du berak bakarrik jardun, Euskadi bezalako immigrazioaren babes-herrialdeetan atzerritar jatorriko biztanleei eragiten dien pobreziaren eta desberdintasunaren azken oinarria osatzen duten faktoreen multzoan. Politika horien arrakastak berak, ongizate konparatiboaren bermeari dagokionez, bermatzen du migrazio diferentzialak iraun egingo duela lurralde/babesleku hauetarantz, eta horrek lagun lezake denboran errepikatzen lurraldean luzaroan bizi diren biztanleen bizi-baldintzen eta bertan etorkizunerako aukera bat aurkitzea espero dutenen bizi-baldintzen arteko kontraesanaren oinarriak.

Hori dela eta, Euskadiranzko immigrazio diferentzialak irauten badu, kontraesan sozial handiak ekar ditzake, baldin eta ez bada aurrera egiten jatorri nazionalako eta atzerritar jatorriko biztanleen bizi-baldintzetan dauden aldeak murrizteko prozesuan. Kontraesan horiek garrantzi berezia dute herrialdeko biztanle gazteenen etorkizuna kontuan hartzean, hain zuzen ere talde horretan izan baitaitezke erabakigarrienak.

Horrenbestez, arrazoi sendoak daude pentsatzeko Euskadiren etorkizun sozialaren eta nazionalaren parte handi bat ekarpen honetan adierazitako desberdintasunak gainditzeko gaitasunaren mende egongo dela epe ertain eta luzera. Hori dela eta, atzerritar jatorriko biztanleen kolektiboari eragiten dioten pobrezia eta prekaritate sozio-ekonomikoko egoerak gainditzea, bereziki gazteenen eta haurren artean, erronka nagusietako bat da etorkizuneko Euskadi sendotzeko prozesuan arrakastatsua izan nahi duen gizarteratze-politikarako.

2



EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanle-kolektibo handien ezaugarri nagusiak

Lía González Estepa

Iraide Fernández Aragón

Maite Fouassier Zamalloa


Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Nazioarteko migrazioak dira testuinguru globalizatuak mendebaldeko gizarteetan gauzatu duen aldaketa handienetako bat. Migrazio-fluxu horien inpaktuek eraldatu egiten dituzte herrialde igorleen eta hartzaileen errealitateak, eta aniztasun handia sortzen da azken horietan. Beraz, fenomeno konplexua da, une eta maila desberdinetan garatzen dena, eta ezinbestekoa da aztertzea. Hain zuzen ere, nazioarteko migrazio-fenomenoaren ezaugarri den heterogeneotasun eta dimentsio aniztasun handia dela eta, beharrezkoa da atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboaren barruan dauden desberdintasunen azterketa zehatza egitea, kolektibo hori homogeneoa izatetik oso urrun baitago, nahiz eta batzuetan kategoria bakar batean biltzeko joera dugun.

Horren harira, Etorikin Atzerritarri buruzko Inkesta (aurrerantzean EABI) aukera bikaina da migrazioak aztertzeko, bereziki gizarte hartzaileetan integratzeko prozesuari dagokionez. Era berean, inkestaren maiztasunari esker, integrazio-adierazleen luzetarako azterketa egin daiteke, eta 2010, 2014 eta 2018 aldien arteko konparazioa egin.

Ondoren aurkezten den kapituluaren helburua da EAeko atzerritar jatorriko biztanle-kolektibo handiak deskribatuko dituen panoramika egitea, integrazio-prozesuaren hiru dimentsiori dagokienez: hezkuntza-dimentsioa, lan-dimentsioa eta dimentsio soziala.

1. eskema. Aztertutako dimentsioak



Hezkuntza-dimentsioan, heziketa-mailen eta galkualifikazioaren fenomenoaren artean dauden aldeak jorratuko ditugu kapitulu honetan, prestakuntzaren eta enpleguaren artean desoreka dagoenean gertatzen dena. Lan-dimentsioari dagokionez, okupazioa, kontratu-mota eta diru-sarreraren iturria izango dira adierazle nagusiak. Azkenik, dimentsio soziala deiturikoan, integrazioaren pertzepzioa bera, jasandako arrazakeria-kasuak eta hautemandako egoera ekonomikoa aztertuko ditugu, pobrezia arreta berezia emanda.

Asia

Lehenik eta behin, asiar jatorriko biztanleria aztertuko dugu, eta arreta berezia jarriko zaie EABIn proposatutako bi jatorri nagusiei: Txina eta Asiako gainerako lurraldeak¹. Atal honetan, kolektibo horrek hezkuntzaren, lanaren eta gizartearen arloetan duen integrazioa aztertuko da, zortzi adierazleri erreparatuz eta ahal den guztietan azterketan sexua aldagaia txertatuta.

EAEEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen guztizkoan, % 76,5 asiar jatorrikoak dira, 16.212 lagun 2021ean. Jatorri horretako EAEko nazionalitate nagusiak dira Pakistan (asiar jatorriko biztanleen % 36), Txina (% 35,7) eta Filipinak (% 3,5).

Sexuen artean halako desoreka bat du biztanleria horrek; izan ere, % 55,2 gizonezkoak dira eta % 44,7 emakumezkoak. Joera hori nabarmenagoa da Pakistango herritarren artean, bereziki maskulinizatua baitago (% 72 gizonezkoak dira).


¹Hainbat jatorri biltzen ditu kategoria horrek, baina Pakistanek hartzen du kategoria horren % 51, eta horrenbestez, jatorri jakin horren gutxi gorabeherako irudia egiteko aukera ematen digu.

Asiar jatorriko biztanleak ez daude berdin banatuak euskal lurralde historikoetan, presentzia handiagoa baitute Bizkaian (% 47,7) eta Gipuzkoan (% 33,9). Txinatar jatorriko biztanle gehienak Bizkaian bizi dira (txinatarren % 60,1), eta pakistandar jatorrikoak, berriz, Gipuzkoan (% 42,8).

Hezkuntza-dimentsioa

Hezkuntzaren arloak jarraibide bereizgarria ageri du argi eta garbi asiar jatorriko kolektiboaren barruan. Hasiera batean, datuek erakusten digutenez, Asiako biztanleriak hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzio txikiagoa du atzerritar jatorriko pertsonen guztizkoak baino (1. grafikoa). Zehazki, % 9,6 (Txina) eta % 10 (Asiako beste herrialde batzuk), % 15,6ren aldean. Txinatar jatorriko biztanleen % 56,7k ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak dituzte, eta % 33,7k bigarren mailakoak edo LH-koak. Era berean, 2. grafikoa ikus daitekeenez, asiar jatorriko emakumeen ikasketa-maila (Txinakoak nahiz Asiako beste herrialde batzuetakoak) gizonena baino pixka bat handiagoa da: emakume txinatarren % 11,1ek hirugarren mailako ikasketak dituzte, eta gizonen % 6,4k. Hala ere, txikiagoa izaten jarraitzen du, atzerritik etorritako guztizko biztanleriarekin alderatzen badugu.


1. eta 2. grafikoa. Asiar jatorriko biztanleen heziketa-maila, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. 2018ko EABI

Hezkuntzaren arloarekin zerikusia duen beste kontu bat da prestakuntza-maila lanari egokitzen zaion. Enplegua prestakuntza-mailaren azpitik dagoenean, gainkualifikazioaren fenomenoak sortzen da. 3. eta 4. grafikoei erakusten dute hori asiar jatorriko biztanleentzat.

3. eta 4. grafikoak. Asiar jatorriko biztanleen gainkualifikazioa, sexuaren arabera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. 2018ko EABI


Oro har, emakumeei gehiago eragiten dien fenomeno da, nahiz eta aztertutako kolektiboaren arabera portaera-aniztasun handia erakusten duen. 2018an, txinatar jatorriko biztanleek batez bestekoaren azpitik zuten gainkualifikazioa, % 3,9, % 18,9ren aldean. Gizonen zein emakumeen artean gertatzen da joera hori. 1. grafikoan aipatu dugu txinatar jatorriko biztanleriak batez bestekoaren azpitik duela hirugarren mailako ikasketa-maila (% 8,9), eta, beraz, ez da harrizkoa haien gainkualifikazioa txikia izatea. Bestalde, Asiako beste herrialde batzuetatik etorritako biztanleen % 5,3k dio desoreka izan duela prestakuntzaren eta enpleguaren artean 2018. urtean. Hala ere, fenomeno horrek gehiago eragiten die jatorri horretako emakumeei; haien artean gainkualifikazioak % 21eko eragina baitu, eta gizonen kasuan, berriz, % 5,3koa. Adierazle hori luzetarako ikuspegiarekin aztertzen badugu, oro har, gainkualifikazioa gutxiago ageri da 2010arekin alderatuta.

Lan-dimentsioa

2018ko EABIn planteatutako lan-dimentsioak informazioa ematen digu lan-egoerari, kontratu-motari edo kontraturik ez egoteari eta administrazio-egoerari buruz, enplegarritasunarekin lotura handia duena.


Asiar jatorriko kolektiboaren lan-testuinguruaren azterketak oso egoera desberdinak erakutsi ditu kolektiboaren barruan, baina baita atzerritar jatorriko biztanleriari dagokionez ere, oro har. 5. grafikoak errealitate hori erakusten du, % 81,1eko okupazio-tasarekin eta langabeziarik gabe. Asiako beste jatorri batzuk (Filipinak, Pakistan, Nepal...), ordea, egoera okerragoan daude, % 63ko okupazioa eta % 9,7ko langabezia baitute. Oro har, Asiako biztanleek lan-integrazio bikaina dute, eta langabezia-tasa batez bestekoaren azpitik dago (% 15). 6. grafikoan, datuek erakutsi digute Txinako emakumeen artean ez-aktibo egotearen proportzioa (% 27,1) handiagoa dela gizonena baino (% 9), nahiz eta bi kasuetan ez dagoen langabezia-tasarik. Txinatar jatorriko langabetuen kopuruaren luzetarako azterketak etengabeko hobekuntza adierazi du 2010etik, orduan langabezia-tasa % 5,2koa baitzen. Era berean, erakutsi digu, ekonomia-krisialdiak gorabehera, txinatar jatorriko pertsonen laneratzea bikaina izan dela beti eta, ondorioz, atzerritar jatorriko pertsonen batez bestekoa baino hobea.

5. eta 6. grafikoak. Lan egiteko adinean dauden asiar jatorriko biztanleen lan-egoera, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

7. grafikoa. Asiar jatorriko biztanleriaren langabeziaren bilakaera, jatorriaren arabera, 2018





Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Aurreko azterketetan bezala, kontratu-motak ere alde handiak ditu Asiako kolektiboaren kasuan. 8. grafikoa, datuek erakusten digutenez, txinatar jatorriko biztanleek ia ez dute lan informalik edo “kontraturik gabeko” lanik, eta, aldiz, atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, oro har, % 6,1ekoa da. Lanaren iraupen mugagabea ere ohikoagoa da txinatarren kasuan (% 76,2), Asiako beste herrialde batzuetan edo biztanleria orokorrean baino (% 60 inguru). Txinatar jatorriko emakumeek kontratu mugagabeen ehuneko handiagoa dute, eta txinatar gizonek, berriz, emakumeek baino obra-kontratu edo zerbitzu-kontratu gehiago izaten dituzte.

Oro har, kontraturik gabeko atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoak behera egin du 2010etik, % 14,7 izatetik % 6,1 izatera pasa baita 2018an. Bestalde, Txinako biztanleek gorakada txiki bat izan zuten 2014. urtean, nahiz eta 2018an kontraturik gabeko lan-egoerarik ez izan.

8. eta 9. grafikoa. Lan egiteko adinean dauden asiar jatorriko biztanleen kontratu-mota, sexuaren arabera, 2010-2018






Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Administrazio-irregulartasunak lotura estua du lan-arloarekin, egoera horretan dauden pertsonak ezin baitute lan-kontraturik izan. Atzerritar jatorriko guztizko biztanleen % 4,9 administrazio-egoera irregularrean dago, eta, 10. grafikoan ikus daitekeenez, asiar jatorriko biztanleria ehuneko horren azpitik dago. Zehazki, txinatar jatorriko biztanleen artean (gizonezkoak zein emakumezkoak), % 1,9 administrazio-egoera horretan dago, eta % 3,2, berriz, Asiako gainerako herrialdeetan. 11. grafikoan ikus daitekeenez, jatorri atzerritarreko pertsonen guztizkoan irregulartasun-ehunekoak behera egin badu ere 2010etik, Txinako biztanleen kasuan, gora egin du 2014az geroztik, orduan ia batere ez baitzegoen.

10. eta 11. grafikoak. Lan egiteko adinean dauden asiar jatorriko biztanleen irregulartasun-egoera, sexuaren arabera, 2010-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (aurrerantzean DBE) ere lotura estua du lan-arloarekin, neurri hori funtsezko bihurtzen baita langabezian edo irregulartasun-egoeran egonez gero. Hurrengo grafikoetan familiaren diru-sarreraren jatorria erakutsiko dugu, bai errenten bidez, bai DBEren bidez edo langabezia-prestazioaren bidez. Txinatar jatorriko biztanleen % 77,3rentzat lana da beren

diru-sarreraren iturri nagusia, “Asiako beste herrialde batzuen” % 63,4ren oso gainetik. Proporzio hori bereziki handia da txinatar jatorriko gizonen artean, lanagatiko diru-sarrera nagusiak % 86,1 baitira, eta emakume txinatarrena, berriz, % 70. Txinako biztanleriaren kasuan, 2018an ez zegoen langabeziarik, ez eta DSBEa edo beste laguntza bat kobratzen zuten pertsonarik ere. Interesgarria da “diru-sarrerarik ez” kategoria aztertzea. Kategoria horretan, kolektibo txinatarreko pertsonen proportzioa % 18,4 baino ez da, Asiako gainerako herrialdeen (% 29,4) eta, oro har, atzerritar jatorriko pertsonen (% 23,9) oso azpitik, eta nabarmen handiagoa Txinako emakumeen artean (% 27,3) gizonen artean baino (% 8).

12., 13. y 14. Grafikoak. Lan egiteko adinean dauden asiatar jatorriko biztanleen diru-sarrera iturria, 2010-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Dimentsio soziala

Dimentsio sozialean, hautemandako integrazioarekin, jasandako arrazakeriarekin edo pobrezia-eraginekin lotutako adierazleak aztertu dira. Lehenik eta behin, 15. grafikoan ikusten den bezala, atzerritar jatorriko biztanleen

% 83k uste du “handia” dela euskal gizartean duen integrazio-maila. Lan-eremuan ez bezala, batez beste, hautemandako integrazio-adierazleak okerragoak dira asiarr jatorriko biztanleentzat. Zehazki, Txinako biztanleen % 59,5ek uste du integrazio “handia” duela; % 9,3k, berriz, “txikia”. Azken adierazle hori are txikiagoa da Txinako gizonen kasuan, % 5,8.


15. eta 16. grafikoak. Asiarr jatorriko biztanleriaren integrazio-pertzepzioa, sexuaren arabera, 2010-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Atal honetan aztertutako adierazleen artean sartzen dira, halaber, “Arrazake-riarekin, xenofobiarekin eta jasandako bestelako baztertze edo marjinazio moduekin” lotutakoak. Horren harira, horrelako kasurik izan ez dutela dioten pertsonen kopurua nahiko handia da txinatar jatorriko biztanleen kasuan. Zehazki, % 79,4k adierazi du ez duela horrelako egoerarik jasan, eta, aldiz, “Asiako beste herrialde batzuetatik” etorritako biztanleen % 55,7 bakarrik dago egoera horietatik libre.



17. grafikoa. Arrazakeriarik edo xenofobiarik EZ dutela jasan dioten asiar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Azkenik, integrazioaren dimentsio sozialari dagokionez, 18. eta 19. grafikoetan jaso da egoera ekonomikoaren pertzepzioa, pobrezia bereziki azpimarratuz. 18. grafikoa ikus daitekeenez, atzerritarren erdiek beren egoera ekonomikoari buruz adierazi dute “nola edo hala moldatzen” direla (% 55,4), eta % 32k, berriz, “erosoa edo oparoa” dela. Azken kategoria hori askoz ere ohikoagoa da Txinako biztanleen kasuan, haiek erdiek baino gehiagok uste baitute beren egoera oparoa dela.

18. eta 19. grafikoa. Asiar jatorriko biztanleen egoera ekonomikoari buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Desberdintasun handienak pobrezia pertzepzioan daude. Atzerritar jatorriko pertsonen etxean % 7,9an, “Asiako beste herrialde batzuetako” pertsonen etxean % 8,6an eta txinatar jatorriko etxean % 0,5ean dago kategoria hori.

Afrika

Estatistika Institutu Nazionalaren datuen arabera, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 21,3 afrikarrak dira, zehazki 52.842 lagun 2021ean. Afrikar jatorriko biztanleriaren erdia baino gehiago Marokotik dator (% 53,8), ondoren Aljeriatik (% 10,8) eta, azkenik, Senegaletik (% 10,3).

Sexuaren arabera banatuta, afrikar jatorriko gizonak gehiago dira (% 63,2) emakumeak baino (% 36,8). Senegaldar jatorriko biztanleen kasuan, aldea askoz ere handiagoa da; izan ere, % 82 dira gizon senegaldarrak eta % 18, berriz, emakume senegaldarrak.


Lurralde historikoen arabera, Bizkaian dago afrikar jatorriko biztanleen kopuru handiena (% 45,1), eta gero, alde handiarekin, Gipuzkoan (% 29,5) eta Araban (% 25,4). Antzeko zerbait gertatzen da Magrebeko biztanleen kasuan, hau da, % 41 Bizkaian bizi dira, % 32,1 Gipuzkoan eta gainerako % 26,9 Araban.

Hezkuntza-dimentsioa

Afrikar jatorriko biztanleen ikasketa-mailari buruzko datuak kontuan hartuta (20. grafikoa), % 60k baino gehixeagok ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak bakarrik ditu, % 32,7k bigarren mailakoak eta % 7,1ek goi-mailakoak. Magrebeko biztanleria Afrikako guztizko biztanleriaren antzekoa da neurri handi batean. Hala ere, ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak dituztenen proportzio handiagoa du Senegalgo biztanleriak (% 71,4), eta Afrikako gainerako herrialdeetako biztanleen % 42,4k bigarren mailako ikasketak eta lanbide-heziketakoa ikasketak dituzte, Afrikako batez bestekoa baino ia hamar puntu gehiago.

Sexuaren arabera, ikusi dugu emakumeen % 65ek baino gehiagok ez duela ikasketarik edo lehen mailakoak bakarrik dituztela; % 27,2k bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak ditu, eta % 6,9k goi-mailako ikasketak. Gizonen kasuan, % 59,1ek ez du ikasketarik edo lehen mailakoak bakarrik ditu, % 33,2k bigarren mailakoak edo lanbide-heziketakoak, eta % 7,7k goi-mailako ikasketak ditu. Kolektiboen arabera, 21. grafikoa ikusten da alde handiagoa dagoela senegaldar jatorriko emakumeen eta gizonen artean, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten gizonen proportzioa handiagoa baita (% 74,1), eta pisu handiagoa du bigarren mailako edo lanbide-heziketako ikasketak dituzten emakumeen ehunekoak.


20. eta 21. grafikoak. Afrikar jatorriko biztanleriaren heziketa-maila, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Afrikar jatorriko pertsonen prestakuntza-maila Euskadin lortzen duten lanpostura egokitzen ote den aztertzean, 22. grafikoan ikusiko dugu 2010az geroztik pertzepzio hori jaitsi egin dela bai Magrebeko biztanleriarentzat –2010ean % 20,2 izatetik 2018an % 7,8 izatera–, bai Senegaldarrentzat –% 11,4 izatetik % 6,7 izatera–. Afrikako gainerako herrialdeetako biztanleen pertzepzioak ere behera egin du, baina aipatutako bi jatorri horiek baino gutxiago. Horrenbestez, aztertutako zortzi urte horietan, afrikar jatorriko biztanleen pertzepzioa da neurri handiagoan parekatzen dela euren prestakuntza-maila lortu dituzten lanpostuekin.

22. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleen gainkualifikazioa, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Lan-dimentsioa

Lan egiteko adinean dauden Afrikako biztanleek ez dute okupazio-tasa handirik, % 41,2 lan-egoera horretan baitago. Biztanleria langabea % 25 da (23. grafikoa). Okupazio-tasa handiagoa ikusten dugu senegaldar jatorriko biztanleen artean (% 55,5); biztanleria ez-aktibo gutxiagorekin (% 19,7), Afrikako guztizko batez bestekoarekin alderatuta (% 33,8). Datu horiek sexuaren arabera aztertuz gero (24. grafikoa), aldeak nabariak dira. Emakume afrikarrak gehiago dira ez-aktibo daudenak (% 57,9) gizon afrikarrak baino (% 14,9). Zehazki, Magrebeko emakumeek ez-aktibo egotearen tasa handiagoa dute Afrikako batez bestekoak baino, % 65,7 egoera horretan baitago. Bestalde, senegaldar jatorriko emakumeen % 42,8 lanean ari dira, emakume afrikar landunen batez bestekoaren bikoitza (% 21,3).

23. eta 24. grafikoa. Lan egiteko adinean dagoen afrikar jatorriko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta sexuaren arabera, 2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

25. grafikoa jaso den langabezia-tasen bilakaerari erreparatzen badiogu, 2014an langabezian zegoen afrikar jatorriko biztanleriaren hazkundeak eta gero 2018an izandako beherakadak zerikusia dute krisi ekonomikoak, oro har, atzerritar jatorriko biztanleen artean eragin zituen ondorioekin. 2010ean, langabezia-tasa % 36,5ekoa zen Afrikako biztanleen kasuan, 2014. urtean

% 55,6ra igo zen, eta lau urteren buruan erdira jaitsi zen (% 25). Afrikako gainerako herrialdeetako biztanleriak izan du beherakadarik handiena langabetuen kasuan, zehazki 39 puntu gutxiago.


25. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleriaren langabeziaren bilakaera, jatorriaren arabera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Afrikar jatorriko biztanleen erdiek lan-kontratu mugagabea dute, % 35,8k aldi baterako kontratua, % 9,5ek obra- edo zerbitzu-kontratua eta % 2,2k ez du kontraturik. Behin-behinekotasuna handiagoa da Afrikako gainerako herrialdeetako pertsonen artean (% 41,9k aldi baterako kontratuak ditu eta % 6,8k obra- edo zerbitzu-kontratuak); aldiz, senegaldar jatorriko biztanleek kontratu mugagabe gehiago dituzte (% 59,6). Sexuaren arabera, behin-behinekotasuna zertxobait handiagoa da emakumeen artean (% 39,3), baina ez dago alde handirik kontratu-mota hori duten gizonen proportzioari dagokionez. Nabarmenezkoa da kontratu mugagabea duten senegaldar jatorriko emakumeen % 64,9 direla; kontratu-egoera horretan dauden Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak, berriz, % 34,8 dira. Azken kolektibo hori da, datuak gainerako profilekin alderatuz gero, lan-prekarietate handiena duena, aldi baterako kontratua duten pertsonen proportzio handiagoa baitu (% 48), eta % 6,8k ez du kontraturik.


26. eta 27. grafikoak. Lan egiteko adinean dagoen afrikar jatorriko biztanleria, kontratu-motaren eta sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

2010etik aurrera, behera egin du kontraturik ez duten afrikar jatorriko biztanleen kopuruak. Aztertutako jatorri guztietan joera antzekoa bada ere, 28. grafikoan ikus daiteke 2010etik 2014ra bitarteko beherakadarik handiena Afrikako gainerako herrialdeena dela; izan ere, kontraturik gabeko %13,8 lagun izatetik bakar bat ere ez izatera pasa da. Senegalen kasuan, beherakada 9,7 puntukoa da (% 11,6 izatetik % 4,1 izatera). Magrebeko biztanleriak, bestalde, beherakada txiki bat izan du lehen lau urteetan, eta, gainera, kontraturik gabeko pertsonen ehunekorik txikiena du (% 3,9 2010ean eta % 2,1 2014an). Kontraturik ez duten afrikar jatorriko pertsonen beherakada orokor hori gertatu da, neurri handiagoan, krisi ekonomikoaren garaian kolektiboak ez delako lan-merkatu informalean sartu, eta ez lan-baldintzak hobetu izanagatik. Langabeziari buruzko aurreko datuen arabera, Afrikako biztanleen artean langabeziak nabarmen egin du gora. Horrenbestez, kontratatuta egon ohi ziren sektoreetan eskulanaren eskaera txikia izateak, kasu honetan, kontraturik ez dutenen kopurua txikitzea ekarri du. 2014tik 2018ra bitarteko datuek adierazi dutenez, Afrikako gainerako herrialdeetan pixka bat gora egin du kontraturik gabeko pertsonen kopuruak, baina, gainerako jatorrietan 2014koaren antzekoa da joera.

28 grafikoa. Lan egiteko adinean dagoen kontraturik gabeko afrikar jatorriko biztanleriaren bilakaera, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Lan egiteko adinean dauden afrikar jatorriko biztanleen diru-sarreraren iturria lana da % 39,6an, eta DBE eta/edo bestelako gizarte-prestazioren bat % 22,4an. Soilik % 2,2k jasotzen du langabezia-prestazioa. Nabarmentzekoa da % 34,6k ez duela inolako diru-sarrerarik. Kolektiboen arabera, ikusi dugu senegaldarren diru-sarrerak lanetik (% 55,7) eta langabezia-prestaziotik (% 4,6) datozela neurri handiagoan, eta txikiagoa dela diru-sarrerarik ez dutenen (% 21,7), eta diru-sarrera nagusiak gizarte-prestazioak dituztenen tasa (% 17,9).

Bi diru-sarrera nagusien sexuaren arabera banaketa hartzen badugu erreferentziatzat, ikusiko dugu, nahiz eta lanagatiko diru-sarrerak ohikoagoak diren aztertutako talde guztietako gizonen artean, aldea txikiagoa dela Senegaleko gizonen (% 60) eta emakumeen (% 43,4) artean. Bestalde, gizonen eta emakumeen artean ez da alde handirik sumatu Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaz eta beste gizarte-laguntza batzuek ari garenean, diru-iturri nagusi gisa.


29. eta 30. grafikoak. Lan egiteko adinean dauden (16-66 urte) afrikar jatorriko biztanleen diru-sarrera iturria, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Berriro ere, bilakaerari buruzko datuek, lana diru-sarreraren iturri nagusia dutenen kasuan (31. grafikoa), argi utzi dute krisi ekonomikoak eragin zuela, Afrikako guztizkoa 9,3 puntu jaitsi baitzen –2010ean % 32,7 izatetik 2014an % 23,4 izatera—. Hala ere, krisiaren unerik latzenak gainditu ondoren, berriz ere gora egin du diru-sarrera gisa soldata duten biztanleen kopuruak. Aztertutako jatorri afrikar guztiek Afrikako batez bestekoaren joera berdina dute. Soldata jasotzeari dagokionez, Senegal da aztertutako hiru urteetan soldata gehien jaso duen jatorria, % 55,3ra iritsi baitzen 2018an, Afrikako batez bestekoak baino 16,1 puntu gehiago.

31. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleriaren lanaren edo errenten bidezko diru-sarrera iturri nagusiaren bilakaera, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Dimentsio soziala

Afrikar jatorriko biztanleak Euskadin integratuta sentitzen dira. % 75,7k adierazi du nahiko edo oso integratua dagoela. Batez besteko horren gainetik daude Magrebeko (% 79,3) eta Senegaleko biztanleak (% 76,2). Bestalde, Afrikako gainerako herrialdeetako biztanleria pixka bat desberdintzen da gainerako kolektiboetatik, neurri handiagoan baloratu baitute integrazio eza edo integrazio eskasa (% 8,5), baita pixka bat integratua sentitzea ere (% 25,9). Sexuaren arabera banaketari erreparatzen badiogu, integrazio-pertzepzio txikiaren datuek % 13 gainditzen ez badute ere, oro har, emakumeak gizonak baino zertxobait gutxiago integratuak sentitzen dira. Eta, horrenbestez, integrazio-pertzepzio handiaz ari garenean, gizonek hobeto baloratzen dute beren integrazio handia emakumeekin alderatuta. Senegaldar jatorriko biztanleen kasuan, nabarmenagoa da gizonen (% 81,9) eta emakumeen (% 51,4) arteko aldea.

32. eta 33. grafikoak. Afrikar jatorriko biztanleriaren integrazio-pertzepzioa, sexuaren arabera, 2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

EAEn duten integrazioa handi gisa baloratzen dutenen bilakaera aztertuz gero (34. grafikoa), Senegal gainerako jatorrietatik eta Afrikako batez bestekotik bereizten da, integrazio handiaren pertzepzioa handitu egin baita 2010etik (% 62,3) 2014ra (% 78,9), nahiz eta azken aldian zertxobait jaitsi den, % 76,2ra 2018an. Aztertutako gainerako taldeak Senegalen laginak erakutsitakoa baino

integrazio-pertzepzio handiagoarekin hasi ziren 2010ean –Magrebek % 76,8 eta Afrikako gainerako herrialdeek % 74,4–, nahiz eta haien balorazioak 2014an mantendu edo pixka bat jaitsi diren, eta, gero, Magreben kasuan gora egin du –2018an, % 79,3–, eta Afrikako gainerako herrialdeek, berriz, behera –2018an, % 65,7–.


34. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleriaren integrazio handiaren pertzepzioaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Aurreko kasuetan bezala, arrazakeriaren eta/edo xenofobiaren adierazlea aztertu da integrazioaren zati gisa, eta horrelako egoerarik ez dutela jasan dioten afrikar jatorriko pertsonen ehunekoa aukeratu da. 35. grafikoa bi egoera oso desberdin erakutsi dizkigu. Afrikatik etorritako biztanleen % 29k bakarrik dio ez duela arrazakeriarik jasan, eta ehuneko hori are txikiagoa da “Afrikako gainerako herrialdeetatik” etorritako pertsonen kasuan. Grafiko honek erakutsi digunez, Magrebetik etorritako pertsonek diote arrazakeria- eta xenofobia-egoera gutxiago pairatzen dutela, batez ere emakumeek.

35. grafikoa. Arrazakeriarik edo xenofobiarik EZ dutela jasan dioten afrikar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera 2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu afrikar jatorriko biztanleek beren egoera ekonomikoari buruz egiten duten autobalorazioa jasotzea. 36. grafikoa ikus dezakegunez, afrikar jatorriko pertsonen erdiek baino gehixeagok (% 55,4)

beren egoera ekonomikoa definitzean adierazi dute “nola edo hala moldatzen” direla. Batez besteko horren gainera ditugu Afrikako gainerako herrialdeetako biztanleak, % 62,3k balorazio berdina egiten baitute. Senegal pixka bat aldentzen da joera orokorretik, egoera ekonomiko pobrea dutela uste dutenen proportzioa handiagoa baita (% 16,4 eta % 17,1), bai eta eroso edo oparo bizi direla dioten taldea ere (% 22,4). Ez dugu alde handirik ikusi sexuaren arabera, nahiz eta afrikar jatorriko gizonen artean pobrezia-pertzepzio handiagoa dagoen jatorri bereko emakumeen artean baino, Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeen berezitasun zehatzarekin, gizonak baino neurri handiagoan baloratu baitute beren egoera ekonomikoa pobrea dela.


36. eta 37. grafikoak. Afrikar jatorriko biztanleen egoera ekonomikoari buruzko pertzepzioa, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Afrikar jatorriko biztanleriaren pobrezia pertzepzioak izan duen bilakaerak (36. irudia) erakutsi du aztertutako jatorri guztietan balorazio horrek gorakada nabarmena izan duela 2014. urtean. Afrikako gainerako herrialdeetako biztanleak dira beren pobrezia-egoerak gora egin duela gehien sumatu dutenak, 19,3 puntu igo baita –2010ean % 27,1 izatetik 2014an % 46,4 izatera—. Nolanahi ere, lau urte geroago, 2010ean adierazitakoak baino balio are txikiagoetara jaitsi da pobrezia-egoeran bizitzearen irudipena –2018an %14,8–. Era berean, Magrebe eta Senegalek zortzi urte lehenago baino neurri txikiagoan sumatzen dute beren pobrezia-egoera.

38. grafikoa. Afrikar jatorriko biztanleriaren pobrezia-pertzepzioaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Latinoamerika

Latinoamerikar jatorriko biztanleria EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen guztizkoaren % 51,6 da 2021ean. Euskadin presentzia handiena duen eremu geografikoa da. Zehazki, 127.901 lagun Latinoamerikako herrialderen batetik etorritakoak dira. Jatorriari dagokionez, Kolonia (% 22,2), Nikaragua (% 11,8) eta Bolivia (% 9,5) dira jatorriz Latinoamerikako herrialde nagusiak, eta ondoren Venezuela (% 8), Ekuador (% 7), Honduras (% 6,4), Paraguai (% 6,2) eta Brasil (% 5,6).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, latinoamerikar jatorriko emakumeen presentzia (% 61,2) gizonena (% 38,8) baino handiagoa da. Aspaldi ez dela migratu dutenen kasuan emakumeen presentzia handiagoa da, hala nola Nikaragua (% 72,7) eta Honduras (% 70,8). Hala ere, Euskadin bizitzen denbora luzeagoa daramaten jatorriek orekatzeko joera dute, Ekuadorreko biztanleen artean ikus dezakegun bezala (% 54).


Lurralde historikoei erreparatzen badiegu, latinoamerikar jatorriko biztanleen erdia baino gehixeago Bizkaian bizi dira (% 53), % 31,6 Gipuzkoan eta % 15,4 Araban. Bai Bizkaian, bai Araban, Kolonia da Latinoamerikako lehen jatorria. Zehazki, Latinoamerikako biztanleen % 21,7 kolonbiarrak dira eta % 32,9, berriz, Araban. Gipuzkoan, Nikaragua da lurraldean nagusi den jatorri latinoamerikarra, jatorri horretako pertsonak % 18,6 baitira latinoamerikar jatorriko guztizko biztanleriarekiko.


Hezkuntza-dimentsioa

39. grafikoari erreparatuz gero, latinoamerikar jatorriko biztanleen erdiak baino gehiagok bigarren mailako ikasketak edo Lanbide Heziketakoak ditu (% 53,3), % 30,1ek ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak ditu, eta %16,6k goi-mailako ikasketak. Argentina, Txile eta Uruguaiako taldean gutxiago dira ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituztenen proportzioa (% 19,3) eta handiagoa da hirugarren mailako ikasketak dituztenen kopurua (% 29,2). Bestalde, Paraguai eta Boliviak ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten biztanleak dituzte (% 37,1 eta % 36,2, hurrenez hurren). Azkenik, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan behera egin du bigarren mailako edo lanbide-heziketako ikasketak dituzten pertsonen taldeak (% 44,4), eta, aldi berean, gehiago dira ikasketarik ez dutenak eta lehen mailako ikasketak dituztenak (% 33,1), bai eta hirugarren mailakoak dituztenak ere (% 22,5).

Hala ere, jatorri horiek sexuaren arabera eta hezkuntza-maila aintzat hartuta banatzen baditugu, ikusiko dugu latinoamerikar jatorriko emakumeek eta gizonen antzeko banaketa dutela aztertutako hezkuntza-mailen artean. Hirugarren mailako ikasketetan, emakumeen proportzioa gizonena baino handiagoa da kasu guztietan, Paraguai biztanlerian izan ezik. Alderik handiena Argentinako, Txileko eta Uruguaiako goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen artean dago, %32,8koa baita eta gizonen artean, berriz % 24,7koa. Bigarren mailako ikasketetan eta lanbide-heziketan, Boliviako eta Paraguaiako emakumeak nabarmentzen dira (% 57,8), hezkuntza-maila horretan gizonetzkoak baino proportzio handiagoa baitute (% 50,4 eta % 47,3, hurrenez hurren). Azkenik, ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak bakarrik dituztenen kasuan, berriz ere Boliviako gizonak (% 43,2) eta Paraguaiakoak (% 41,3) Latinoamerikako batez bestekotik urrun samar daude (% 28,7), baita jatorri horietako emakumeekin alderatzen badugu ere, Boliviako emakumeen % 33,9 eta Paraguaiako emakumeen % 34,8 daude hezkuntza-maila horretan. Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleen kontrako joera da hori, kasu horretan emakumeen % 36,1 baitira ikasketarik ez dutenak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, eta gizonen % 27,3.

39. eta 40. grafikoak. Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren heziketa-maila, sexuaren arabera, 2018






Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Latinoamerikar jatorriko pertsonen prestakuntza-maila Euskadin duten lanera egokitzen ote den aztertzean, 41. grafikoan ikus daiteke 2010etik pixka bat jaitsi dela gainkualifikazioaren pertzepzio hori. 2010ean % 29,4az hitz egin bagenuen, 2018an % 21,6ra jaitsi da datua. Hala ere, aldeak daude jatorriaren arabera. Oro har, 2010etik 2014ra bitartean gehieneko pertzepzioa da hezkuntza-maila hobeto egokitzen dela egiten duten lanera, kolonbiarren, ekuadortarren eta perutarren kasuan izan ezik, biztanleria horrek bere horretan jarraitzen baitu (% 26,7 2010ean eta % 26,9 2014an). Beherakadarik handiena Boliviako biztanlerian nabari da (% 30,1 izatetik % 16,4 izatera). Hala ere, 2014tik 2018ra, hainbat joera hauteman ditugu; izan ere, Argentina, Txile eta Uruguai, Kolonbia, Ekuador eta Peru, eta Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikaren kasuan, behera egiten jarraitzen du gainkualifikatuta daudela uste dutenen kopuruak, eta Boliviako eta Paraguaiko biztanleen artean, berriz, pertzepzio horrek gora egin du.

41. grafikoa. Latinoamerikar jatorriko biztanleen gainkualifikazioa, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018


Lan-dimentsioa

Lan egiteko adinean dauden latinoamerikar jatorriko biztanleen % 69,2 okupatua dago, % 13,7 langabezian eta % 17 ez-aktibo. Oro har, okupazio-maila handia du kolektibo horrek, baina jatorriaren arabera Paraguaiko (% 75,7) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleak (% 76,2) nabarmentzen dira. Lanerako adina izan eta langabe dauden pertsonen kasuan, Latinoamerikako batez bestekoaren gainetik daude boliviarrak (% 15) eta Brasilek, Venezuelak eta Dominikar Errepublikak osatutako taldea (% 18,5). Bi jatorri horiek, halaber, pertsona ez-aktiboen proportzio handiagoa dute –% 22,4 Bolivian eta % 20,7 Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikan–.

Sexuaren arabera banaketak adierazi digu Paraguaiko emakumeen okupazioa (% 79,9) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako emakumeena (% 78,8) handiagoa dela jatorri bereko gizonena baino –hurrenez hurren, % 60,8 eta % 68,3–. Aitzitik, gizon okupatuaren proportzioa handiagoa da Kolonbia, Ekuador eta Perun (% 74,8) eta Argentina, Txile eta Uruguain (% 71,7). Langabeziak eragin handiagoa du Latinoamerikako gainerako herrialdeetako (% 22,5) eta Paraguaiko gizonengan (% 23,2), jatorri bereko emakumeekin alderatuta (% 10 eta % 4,8, hurrenez hurren). Azkenik, azpimarratu behar da Boliviako gizonen % 28,5 ez-aktibo dagoela, Boliviako emakumeek baino 9,3 puntu gehiagorekin (% 19,2).

42. eta 43. grafikoak. Lan egiteko adinean dagoen latinoamerikar jatorriko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta sexuaren arabera, 2018






Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

44. grafikoak erakutsi digu krisi ekonomikoak latinoamerikar jatorriko biztanleriari eragin ziola, baina ez neurri berean, jatorriaren arabera dituzten langabezia-tasei erreparatzen badiegu. 2012tik 2014ra bitartean, 5,5 puntu igo zen latinoamerikar jatorriko biztanleen langabezia-egoera; Boliviako biztanleen kasuan, berriz, 10 puntu igo zen, % 31ra iritsi baitzen. Paraguai da langabeziarik behera egin duen jatorri bakarra, 2010ean % 19,8 izatetik % 16,1era jaitsi baita 2014an. Hala ere, ekonomia pixkanaka suspertzeak enplegua sortzen laguntzen du eta, beraz, langabezia-tasak jaisten. Eta halaxe egiazta dezakegu 2014 eta 2018 urteen artean aztertutako kasu guztietan. Beherakada nabarmenagoa izan da Boliviako biztanleen artean, ia erdira jaitsi baita langabezia-tasa (% 31tik % 15era) edo Kolonia, Ekuador eta Peruko biztanleen artean, 13,4 puntu jaitsi baita (% 26,1etik % 12,7ra). Paraguai da 2018an langabezia-tasa txikiena izan duen jatorria, zehazki % 8,8.

44. grafikoa. Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren langabeziaren bilakaera, jatorriaren arabera, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Lanegiteko adinean dauden latinoamerikar jatorriko biztanleen %62,5ek kontratu mugagabea du, eta % 23,3k dio aldi baterako kontratua duela. % 9,1 kontraturik gabe ari da lanean, eta % 4,7k obra- edo zerbitzu-kontratua du. Jatorriaren arabera aztertzen badugu, datuak zertxobait aldatzen dira: nabarmentzen da kontraturik gabeko Paraguaiako biztanleen % 17,4a, Latinoamerikako biztanleen batez bestekoa baino 8,3 puntu gehiago, eta aldi baterako kontratuak dituzten Venezuela, Brasil eta Dominikar Errepublikako biztanleen % 30,5a. Bestalde, Argentina, Txile eta Uruguaiako biztanleriak kontratu-egonkortasun handiagoa du, kolektiboaren % 68,1 mugagabe kontratatuak baitaude.

Sexuaren arabera banaketak adierazi digu Paraguaiako emakumeek gizonak baino lan-egoera askoz ere egonkorragoa dutela: % 65,4k kontratu mugagabea dute, eta gizonak, berriz, % 15,1. Aldiz, behin-behinekotasunari buruzko datuei erreparatzen badiegu, horrelako kontratua duten Paraguaiako gizonen proportzioa (% 24,6) handiagoa da jatorri bereko emakumeena baino (% 17,8), bai eta kontraturik ez dutenen kasuan ere (% 27,9), kontraturik ez duten Paraguaiako gizonen proportzioa % 27,9 baita, eta emakumeena, berriz, % 15,2.


45. eta 46. grafikoak. Lan egiteko adinean dagoen latinoamerikar jatorriko biztanleria, kontratu-motaren eta sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Zehazki, lan egiteko adinean dauden eta kontraturik izan ez duten latinoamerikar jatorriko biztanleen bilakaerak agerian utzi du 2010 eta 2014 bitartean, nahiz eta jatorri guztietan jaitsi den kontraturik gabeko pertsonen proportzioa, Paraguaiko eta Boliviako biztanleriaren kasuan are nabarmenagoa dela. Eta beherakada hori txikiagoa izan da 2014tik 2018ra bitartean hiru kolektibotan: Latinoamerikako gainerako herrialdeak (% 26,5etik % 17,9ra), Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublika (% 6tik % 1,5era) eta Paraguai (% 20,5etik % 17,4ra). Aitzitik, kontraturik gabeko lan-merkatuan pixka bat gehiago sartu dira beste hiru jatorri hauetan: Bolivia (% 2,5etik % 9,3ra igo da), Argentina, Txile eta Uruguai (% 2,3tik % 4,5era) eta Kolonbia, Ekuador eta Peru (% 3tik % 5,1era).

47. grafikoa. Lan egiteko adinean dagoen kontraturik gabeko latinoamerikar jatorriko biztanleriaren bilakaera, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Lan egiteko adinean dauden latinoamerikar jatorriko biztanleen diru-sarrerak batez ere lanetik datoz (% 69,6). % 4,4rentzat, gizarte-laguntzak dira diru-sarrera iturri nagusia, eta % 2,4k langabezia-prestazioari esker bizirauten du ekonomikoki. Azkenik, % 21,6k ez du diru-sarrerarik. Bai Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleek (% 75,8), bai Paraguaiko biztanleek (% 75,4) gainerako jatorriek baino neurri handiagoan jasotzen dituzte diru-sarrerak batez ere lanetik. Bestalde, diru-sarrerarik ez izateari dagokionez, proportzioa handiagoa da Boliviako (%26,1) eta Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako (%27,6) biztanleen kasuan, eta, era berean, gizarte-laguntzak dira haien diru-sarrera iturri nagusia, beste jatorri batzuetan baino neurri handiagoan. Zehazki, Boliviako biztanleen % 7,1 eta Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako % 6,3 dira.

Paraguaiko emakumeek eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako emakumeek batez ere lanetik edo errentetatik lortzen dituzte diru-sarrerak (% 79,6 eta % 78,3), gizonen baino neurri handiagoan (% 60,4 eta % 68,4). Aldiz, joera kontrakoa da Kolonbiako biztanleen kasuan, gizonen % 74,5ek lanetik edo errentetatik lortzen baitituzte diru-sarrerak, eta jatorri bereko emakumeak, berriz, % 68,2 dira diru-sarrerak lanetik edo errentetatik lortzen dituztenak. Diru-sarrerarik ez dutenen kasuan, berriz ere sexuen arteko aldea nabarmena da Paraguaiko biztanleen artean, egoera horretan dauden gizonen kopurua (% 30,8) ia bikoitza baita emakumeekin alderatuta (% 15,6).

48. eta 49. grafikoak. Lan egiteko adinean dauden latinoamerikar jatorriko biztanleen diru-sarrera iturria, sexuaren arabera, 2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

50. grafikoan diru-sarrera nagusiak lanaren edo errenten bidez lortzen dituztenen jatorriaren arabera bilakaera aztertzean, lehenengo lau urteetan pixka bat behera egiten dutela ikusten dutenak identifikatu dira; esate baterako, Argentina, Txile eta Uruguai (% 61,5etik % 56,7ra) eta Kolonbia, Ekuador eta Peru (% 57,1etik % 50,7 ra), bai eta ekonomikoko ordainsari horri esker bizi ziren pertsonen proportzioa handitu den herrialdeak ere, Paraguaiko biztanleriarekin gertatzen den bezala, 2010ean ehunekorik handiena izanik

(% 61,8), lau urtean 10,4 puntu igo baita, % 72,2ra iritsi arte. 2014tik 2018ra jatorri guztietan hazi egin da, bereziki Kolonbia, Ekuador eta Peruko (% 50,7tik % 70,6ra) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleen artean (% 54,8tik % 69,6ra).

50. grafikoa. Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren lanaren edo errenten bidezko diru-sarrera iturri nagusiaren bilakaera, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Dimentsio soziala

Handia da latinoamerikar jatorriko biztanleriaren integrazio-pertzepzioa, 51. grafikoa ikusi daitekeen bezala. % 88k adierazi du oso integratua dagoela Euskadin, eta % 10,5ek uste du pixka bat integratua dagoela. % 1,4k bakarrik uste du ez dela euskal gizartearen parte sentitzen. Kolektiboen arabera, joera antzekoa da, baina Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleen % 17 nabarmenduko genuke, tarteko mailan dagoena. Sexuaren arabera, ez da alde handirik nabari aztertutako kolektiboen artean, baina nabarmentzekoa da Latinoamerikako gainerako herrialdeetako gizonak (% 89,2), jatorri bereko emakumeak baino integratuago sentitzen direla (% 79,5).


51. eta 52. grafikoak. Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren integrazio-pertzepzioa, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Integrazioaren pertzepzio handiak gora egin du 2010etik, 53. grafikoan ikusi daitekeen bezala. 2012tik 2014ra, bi jatorri egin dute gora gehien: Paraguai (% 79,6tik % 89,5era) eta Kolonbia, Ekuador eta Peruk (% 82tik % 92,2ra). Hala ere, 2014tik 2018ra kasu guztietan mantendu edo gora egin badu ere Euskadin integrazio handia izatearen balorazioak, Kolonbia, Ekuador eta Peruren kasuan 2,8 puntu jaitsi da pertzepzio hori.


53. grafikoa. Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren integrazio handiaren pertzepzioaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Pertsonak sufritu dituzten arrazakeria- eta xenofobia-kasuei dagokienez, horrelako kasurik ez dutela jasan dioten pertsonak ageri dira 54. grafikoa. Latinoamerikako jatorrien arteko aldeak nabari dira; Paraguai eta Argentina dira horrelako kasu gutxien sufritu dutela diotenak, eta Brasil eta Bolivia, berriz, gehien sufritu dituztenak.

54. grafikoa. Arrazakeriarik edo xenofobiarik EZ dutela jasan dioten latinoamerikar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera 2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Azkenik, latinoamerikar jatorriko biztanleek beren egoera ekonomikoari buruz duten pertzepzioa honela definitzen da: % 51,8 nola edo hala moldatzen dira eta % 34,9 eroso bizi dira. Pobreziaren pertzepzioa % 13,3koa da. Jatorriari

dagokionez, Venezuela, Brasil eta Dominikar Errepublikak (% 46), Argentinak, Txilek eta Uruguai (% 56,9) gainerako taldeek baino gehiago uste dute beren egoera ekonomiko eroso dela. Boliviako pertsonen kasuan, % 20 baino gehiago dira pobrezia-egoeran daudela diotenak (% 20,7). Sexuaren arabera, esan behar da Argentina, Txile eta Uruguai emakumeek % 4,6an bizi dutela beren egoera ekonomikoa pobre gisa, eta gizonek, berriz, % 0,2an. Bestalde, Paraguai emakumeek jatorri bereko gizonek baino (% 69,4) neurri txikiagoan uste dute ekonomikoki nola edo hala moldatzen direla (% 48,9), Latinoamerikako gainerako herrialdeetan antzemandakoaren aurkako joera, hain zuzen, jatorri horretako emakumeen % 56,9 baitira ekonomikoki nola edo hala moldatzen direla diotenak, eta gizonak, berriz, % 44,7.

55. eta 56. grafikoak. Latinoamerikar jatorriko biztanleen egoera ekonomikoari buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

57. grafikoan ageri den pobrezia-pertzepzioaren bilakaerari erreparatuz gero, joera desberdinak ikusten dira jatorriaren arabera. Alde batetik, pobrezia-pertzepzioak gora egin du 2010 eta 2014 artean Latinoamerikako (2,9 puntu), Kolonia, Ekuador eta Peruko (8,9 puntu), Latinoamerikako gainerako herrialdeetako (8,2 puntu) eta Argentina, Txile eta Uruguai (1,4 puntu)

batez besteko osoan, Hala ere, azken kolektibo horren kasuan, pobreziaren pertzepzioa % 3,3koa zen krisi ekonomiko betean, eta datu hori askoz txikiagoa da Kolonbia, Ekuador eta Peruko biztanleriarena baino (% 18,8), 2014. urtean. Hala ere, berriro ere 2010etik 2014ra bitarteko bilakaera aztertuta, Boliviako eta Paraguaiko biztanleek neurri txikiagoan uste dute pobrezia-egoera bizi dutela, eta erdira jaisten da Boliviaren kasuan –2010ean %14,4 izatetik 2014an % 7,7 izatera– eta Paraguairen kasuan –2010ean % 10,5 izatetik 2014an % 5,2 izatera–. Krisi ekonomikoaren unerik gogorrenak gainditu ondoren, eta 2014tik 2018ra bitarteko bilakaera aztertuta, nabari da pobreziaren pertzepzioak bere horretan iraun duela, hala nola Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleen kasuan (2014n % 14,3 izatetik 2018an % 13,4 izatera igaro da), edo jaitsi egin dela, modu nabarmenagoan, Kolonbia, Ekuador eta Peruko biztanleen artean, hau da, 2014an % 18,8 izatetik 2018an % 2,6 izatera pasa da. Paraguaiko biztanlerian dugu salbuespena, jatorri horretako biztanleek diotenaren arabera areagotu egin baita egoera ekonomiko pobreak daudelako sententzioa (% 5,2tik % 9,2ra pasa da).

57. grafikoa. Latinoamerikar jatorriko biztanleriaren pobrezia-pertzepzioaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Europa


EAEn bizi diren atzerritar jatorriko guztizko biztanleen % 19,5 Europakoak dira. Guztira 48.223 lagun dira Euskadin 2021ean, Estatistika Institutu Nazionalaren datuen arabera. Europako biztanleen % 76,2 EB27ko herrialderen batetik etorri da eta % 23,8 Europar Batasunekoak ez diren beste herrialde batzuetatik. Errumaniako biztanleria da EAEn presentzia handiena duen hirugarren atzerritar jatorria, % 6,3, 15.549 lagun. Europako biztanleak bakarrik hartzen baditugu erreferentzia gisa, datu hori % 32,2koa da. Europako biztanleria oso orekatua dago sexuaren arabera: % 51,2 gizonak dira eta % 48,8 emakumeak.


Lurralde historikoei dagokionez, Europako biztanleriaren % 45,5 Bizkaian bizi da, % 14,8 Araban eta % 39,7 Gipuzkoan. Kopuru aldetik Errumania da laugarren jatorri atzerritarra, % 7,5ekin. Arabaren kasuan, ez da ageri lehen hamar herrialdeen artean; hala ere, atzerritar guztien % 3,2 Errumaniatik dator. Azkenik, Gipuzkoan Errumaniako biztanleen % 6,1 bizi da, lurralde horretan bizi diren atzerritar jatorriko guztizkoari dagokionez.

Hezkuntza-dimentsioa

Europako biztanleen ikasketa-mailak aldeak ageri ditu Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako datuak eta Mendebaldeko EBko datuak alderatzen baditugu; izan ere, Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako biztanleriaren kopuru handi batek bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak ditu (% 57,9), eta gutxiago dira goi-mailako ikasketak dituztenak (% 13,9) eta lehen mailako ikasketak dituztenak eta ikasketarik ez dutenak (% 28,3); Mendebaldeko EBko biztanleak, berriz, ez dira hainbeste biltzen ikasketa-maila jaki batean, eta % 44,2k lehen mailako ikasketak dituzte edo ez dute ikasketarik eta % 26,7k goi-mailako ikasketak dituzte. Datu horiek sexuaren arabera aztertuz gero, nabarmentzekoa da Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako gizon gehiagok dituztela bigarren mailako ikasketak edo lanbide-heziketakoak (% 66,2), jatorri bereko emakumeekin alderatuta (% 51,6). Goi-mailako ikasketei dagokionez, Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako emakumeek dute (% 19,3) ikasketa-maila hori gizonek baino gehiago (% 6,6).

58. eta 59. grafikoak. Europar jatorriko biztanleriaren heziketa-maila, sexuaren arabera, 2018






Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Beren prestakuntza Euskadin duten lanpostuarekin bat datorren baloratzeko orduan, 60. grafikoan ikus daitekeen bezala, Europako biztanleek antzeman dute egoera hori jaitsi egin zela 2010etik (% 21,1) 2014ra (% 16,3), eta 2018an berriz ere gora egin zuen gainkualifikatuta daudelako usteak, % 19,6k adierazi baitu beren prestakuntza-mailaren azpitik dauden lanpostuak betetzen ari direla. Jatorriaren arabera, Errumaniako eta Ekialdeko EBko biztanleen % 32,5ek hala uste zuen jada 2010ean, 2014ean % 24,1era jaitsi zen ehunekoa eta 2018ra arte antzeko maileri eutsi zitzaizen.

60. grafikoa. Europar jatorriko biztanleen gainkualifikazioa, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Lan-dimentsioa

61. grafikoan ikus daitekeen bezala, lan egiteko adinean dauden Europako biztanleen % 66,6 okupatua dago, % 23,9 ez-aktibo eta % 9,4 langabezian. Jatorriari dagokionez, gora egin du Mendebaldeko EBko biztanle okupatuen proportzioak (% 69,4) Europako guztizkoarekin alderatuta, txikiagoa da langabezian dauden biztanleen kopurua (% 4,6), eta handiagoa, berriz, ez-aktibo dauden kopurua (% 26). Bestalde, Errumaniako eta Ekialdeko EBko

beste herrialde batzuetako langabezia (% 11,4) Europako batez bestekoa baino handiagoa da, eta ez-aktibo dauden kopurua (% 22,7) Europako datua baino pixka bat txikiagoa da. Sexuaren arabera, gaingiroki esan daiteke emakumeak gehiago direla ez-aktibo daudenak, eta, aldi berean, gutxiago direla biztanleria okupatuaren taldean. Zehatz esateko, Mendebaldeko EBko emakumeen % 40 ez-aktibo daude, eta gizonak, berriz, % 15,3 dira. Hala ere, jatorri horretako gizonen okupazioa 21,2 puntu handiagoa da (% 78,6) emakumeena baino (% 57,4).


61. eta 62. grafikoak. Lan egiteko adinean dagoen europar jatorriko biztanleria, jarduerarekiko erlazioaren eta sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Interesgarria da 63. grafikoa aztertzea, langabeziak 2010etik 2018ra bitartean izan duen bilakaera adierazten duena. Bi joera bereizten dira. Alde batetik, Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk; horietan eragin negatiboa izan zuen krisiak, eta, beraz, langabezia-tasa % 24,8tik % 29,4ra igo zen 2010ean, eta gero beherakada handia izan zuen, ekonomiaren susperraldiarekin batera (% 11,8 2018an). Bestalde, Europako eta, bereziki, Mendebaldeko EBko batez bestekoak markatzen duen joera dago, hau da, aztertutako zortzi urteetan langabezia-tasak izan zuen beherakada, lehenengo lau urteetan apala eta 2014tik 2018ra bitartean zertxobait nabarmenagoa.

63. grafikoa. Europar jatorriko biztanleriaren langabeziaren bilakaera, jatorriaren arabera, 2018





Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Lan egiteko adinean dauden Europako biztanleen kontratazioa % 69,2 mugagabea da, eta ehuneko hori % 78,2ra igotzen da Mendebaldeko EBko biztanleriaz ari bagara. Behin-behinekotasunak presentzia handiagoa du Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako herritarren artean (% 20,9, eta Mendebaldeko EBn % 10,9). Azkenik, azpimarratu behar da Europako biztanle gutxi ari direla kontraturik gabe lanean, % 3,2 Errumaniako biztanleriaz eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuez ari bagara, eta ehuneko hori guztia emakumeei dagokie.

Sexuaren araberako azterketarekin jarraituz, Mendebaldeko EBko emakumeek iraupen mugagabeko kontratu gehiago dituzte (% 81) gizonek baino (% 76,4), kontrakoa gertatzen da Errumanian eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetan, non emakumeek gizonek baino neurri txikiagoan eskuratzen duten horrelako kontratua (% 59,1). Behin-behinekotasuna ere handiagoa da emakume-kolektibo horren kasuan (% 24,5) gizonen kasuan baino (% 16,6).

64. eta 65. grafikoak. Lan egiteko adinean dagoen europar jatorriko biztanleria, kontratu-motaren eta sexuaren arabera, 2018






Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

66. grafikoa ikus daitekeenez, kontraturik gabeko Europako biztanleria gutxituz joan da aztertutako zortzi urteetan, 2010ean % 12,5 izatetik 2018an % 1,9 izatera. Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialdeetako biztanleen kasuan, beherakada Europako batez bestekoa baino handixeagoa da, 12,5 puntuko aldearekin. 2010ean % 15,7 izatetik % 3,2 izatera igaro da 2018an.


66. grafikoa. Lan egiteko adinean dagoen kontraturik gabeko europar jatorriko biztanleriaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Europako biztanleriaren diru-sarreraren iturri nagusia lanetik dator neurri handi batean (% 67,2), baina diru-sarrerarik jasotzen ez dutenak % 20,7ra iristen dira. Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako biztanleen artean errentarik eza % 23,5era iristen da. Sexuaren arabera banaketak adierazi du emakumeek gizonen baino gutxiago jasotzen dituztela laneko diru-sarrerak edo errentak. Hala ere, bi kolektiboen arteko alderik handiena Mendebaldeko EBko biztanleriaren artean dago, emakumeen % 55,7rekin eta gizonen % 79,1ekin. Bestalde, diru-sarrerarik jasotzen ez dutenak gehiago dira emakumeak, Mendebaldeko EBko % 28,9 eta Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetan % 31,8, jatorri horietako gizonen % 7,6rekin eta % 12,7rekin alderatuta.


67. eta 68. grafikoak. Lan egiteko adinean dauden europar jatorriko biztanleen diru-sarrerara iturria, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Lan egiteko adinean dauden eta diru-sarrera iturri nagusia lana duten Europako biztanleen bilakaerari buruzko datuek adierazi dutenez, egoera hori handituz joan da 2010etik, biztanleriaren erdia baino gehixeago izatetik (% 51,8), % 68,9 izatera pasa baita 2018an. Antzeko joera nabari da Mendebaldeko EBko biztanleriaren kasuan: hazkunde neurritsuagoa 2010etik (% 43) 2014ra (% 50), eta zertxobait nabarmenagoa 2018ra arte (% 67,2). Bestalde, Errumaniak eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuek antzeko datuak dituzte aztertutako lehen lau urteetan, eta, ondoren, Mendebaldeko EBko biztanleriarekin parekatu dira.

69. grafikoa. Europar jatorriko biztanleriaren lanaren edo errenten bidezko diru-sareren iturri nagusiaren bilakaera, 2010-2014-2018




Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Dimentsio soziala

Kapitulu honetako atzerritar jatorriko beste populazio batzuen azterketarekin bat etorritik, Europako biztanleen pertzepzioa da oso integratuta daudela EAEn. Zehazki, % 88,2k adierazi du hori. Datu hori % 90,9ra igotzen da Mendebaldeko EBren kasuan. Inor ez da gutxi integratua sentitzen, eta integrazio ertaina % 10 ingurukoa da. Ez dago alde handirik sexuen artean, eta puntu bateko edo puntu bat eta erdiko aldeak daude Europako bi taldeetako gizonen eta emakumeen artean.


70. eta 71. grafikoak. Europar jatorriko biztanleriaren integrazio-pertzepzioa, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Europako biztanleek zuten integrazio handiaren pertzepzioa pixka bat jaitsi zen 2010etik 2014ra, krisi ekonomikoaren garaian. 72. grafikoa ikus daitekeenez, aztertutako hiru urteetan datuek adierazten dute Europako biztanleriaren gehiengo handi batek positiboki baloratzen duela Euskadin duen integrazioa, baina Errumaniaren eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuen kasuan, 2010 eta 2014 artean beherakada Europako batez bestekoa baino handixeagoa da, % 84,7tik % 71,7ra pasa baita. Gero, gora egin du berriro, eta % 85,8ra iritsi da 2018an.


72. grafikoa. Europar jatorriko biztanleriaren integrazio handiaren pertzepzioaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Europar jatorriko biztanleek bizi duten arrazakeriari dagokionez, horrelako egoerarik ez dutela jasan dioten pertsonen adierazlea aztertu da. Zehazki, 73. grafikoa erakusten duenez, Mendebaldeko Europatik etorritako pertsonen erdiak baino gehiagok (% 59) dio ez duela ekintza arrazistarik jasan; aldiz, errumaniar jatorriko biztanleen artean, ehuneko hori 18 puntu jaitsi da (% 41), eta alde nabarmena dago Mendebaldeko Europaren eta Ekialdeko Europaren artean.


73. grafikoa. Arrazakeriarik edo xenofobiarik EZ dutela jasan dioten europar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Azkenik, Europako populazioaren egoera ekonomikoari buruzko pertzepzioa aldekoa da, % 50ek eroso edo oparoa dela adierazi baitu, eta % 41ek dio jasotzen dituen diru-sarrerekin moldatzen dela. Pobrezia-egoeran bizitzearen balorazioa biztanleriaren % 10 baino gutxiagoan geratzen da –pobretzat hartzen dutenen % 4,2 eta nahiko pobretzat hartzen dutenen % 4,9 batuta–. Sexuen arabera, 74. grafikoa ikusten da ekonomikoki moldatzen direla diotenen artean Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako emakumeen proportzioa handiagoa dela (% 39,6), jatorri horietako gizonen aldean (% 34,7); Mendebaldeko EBn, berriz, ia ez da alderik nabari sexuen artean.


74. eta 75. grafikoak. Europar jatorriko biztanleen egoera ekonomikoari buruzko pertzepzioa, sexuaren arabera, 2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2018

Europako biztanleriaren pobrezia-pertzepzioaren bilakaerak (76. grafikoa) erakusten duenez, krisi-garaian Errumaniako eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako biztanleriarentzat gora egin zuen bitartean –2010ean % 7,2 izatetik 2014an % 13,7 izatera– Mendebaldeko EBko biztanleentzat bera egin zuen –2010ean % 8,1 izatetik 2014ean % 3,9 izatera–, agian azken kasu horretan ez zirelako gehiegi eragin enpleguaren suntsipenak eta soldatak aldatzeak ekarritako ondorioek. Ekonomiaren susperraldia hasi zenean, 2014tik 2018ra bitartean, pobrezia-egoera bizi dutela dioten balorazioa 9,8 puntu jaitsi da Errumaniaren eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuen kasuan (% 3,9), eta antzeko balioetan mantendu da Mendebaldeko EBko biztanleriaren kasuan.

76. grafikoa. Europar jatorriko biztanleriaren pobrezia-pertzepzioaren bilakaera, 2010-2014-2018



Iturria: Txostengileak egina. EABI 2010-2018

Ondorioak

Integrazioaren hainbat definizio dauden arren, alderdi ugari biltzen dituztenak, kapitulu panoramiko honetan erabaki dugu 3 dimentsio handi bereiztea: hezkuntzakoa, lanekoa eta soziala. Kolektiboan arabera hautatutako adierazleen azterketak, sexuaren araberrako desberdintasunei arreta berezia eskainiz, erakutsi digu aniztasun handia dagoela atzerritarren kolektiboaren barruan. Gainera, gero integrazio-indizearen (BI3) bidez aztertuko denaren gakoak ematen ditu; izan ere, integrazio-erritmo eta –mota oso desberdina darama kolektibo bakoitzak.

Oro har, ikusi dugu integrazio-prozesu desberdina egiten duela kolektibo bakoitzak. Asiar jatorriko pertsonen, batez ere txinatar jatorrikoen, ikasketamaila txikia eta integrazio sozial apala erakutsi dute, baina lan-integrazio bikaina eta administrazio-erregularitasuneko tasa oso handiak dituzte. Krisialdiak gorabehera, Txinako biztanleria egonkor mantendu da, eta lan-arloan eutsi egin dio enplegua suntsitzearen eraginari, eta, ondorioz, erregularizazio-ibilbideari ere eutsi egin dio.

Jatorri latinoamerikarrari dagokionez, aniztasun handia du jatorriaren azterketan. Zenbait jatorri bereiz ditzakegu, hala nola Argentina/Txile/Uruguai; horien integrazioak oso adierazle positiboak ditu, eta egonkor mantendu da aztertutako aldiak; eta beste batzuk, berriz, aurkako errealitateekin. Aipagarria da Boliviaren kasua, adierazle txikiak baititu hiru dimentsioetan, baina baita Latinoamerikako kolektiboarekiko eredu bereizgarriak dituelako ere. Boliviako

biztanleriaren azterketak erakutsi digu ikasketarik ez duten pertsona asko daudela eta lan-merkatuan sartzeko ere zailtasunak dituztela. Langabezia-tasa handiak dituzte, 2018an oraindik % 15 ingurukoak. Horien luzetarako azterketak erakutsi digu krisiak gogor eragin ziola kolektibo horri, eta, poliki-poliki suspertzen ari dela. Datuek erakutsi dute, halaber, lan egiten duten pertsonen lan-baldintzak Latinoamerikako gainerako jatorrietakoenak baino okerragoak direla oro har, eta behin-behinekotasun eta informaltasun handiagoa dutela. Integrazioaren pertzepzio handia badute ere, batez bestekoa baino txikiagoa da eta, Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikarrek biztanleekin batera, arrazakeria handiagoari aurre egin behar izan diotela diote. Beraz, kolektibo horren integrazio-prozesua oso bestelakoa da Argentina, Txile eta Uruguaiaren aldean, alderdi positiboan. Paraguairi dagokionez, haren adierazleek erakutsi dute kolektibo horrek beste jatorri batzuetakoek baino hobeto gainditu duela 2008ko krisi ekonomikoa, eta nolabaiteko egonkortasuna eta lan-merkatuan sarbide handia lortu dituela. Hala ere, kolektibo hori baldintza prekarioetan ari da lanean, behin-behinekotasunaren eta informaltasun-ehuneko handiaren (“kontraturik gabe”) ondorioz.

Europa kategoria gisa aztertzeak ez du zentzurik, bi errealitate oso desberdin biltzen baititu: Mendebaldeko Europakoa eta Ekialdeko Europakoa, bereziki Errumania. Ikasketa-maila ez da inola ere nabarmendu beharrekoa, Euskadikoaren edo Europako beste lurralde batzuetakoaren oso antzekoa baita banaketa. Hala ere, pertsona kualifikatuen proportzio handi horren ondorioz, gainkalkifikazioaren ehuneko handia dago Errumaniatik eta Ekialdeko Europatik etorritako biztanleen artean. Kolektibo horri dagokionez, lan-arloan dituzten langabeziaren eta okupazioaren adierazleak nabarmentzeko modukoak ez diren arren, bai ikusi dugu 2008ko krisi ekonomikoa gogor eragin ziela, nahiz eta datuek erakusten duten susperraldi handia izan zuela 2018an. Lan-merkatuan sartzeko aukerak berreskuratzen ari direla dirudien arren, badirudi oraindik ere baldintzak ez direla egokiak, aldi baterako kontratuak eta obra-kontratuak baitira asko. Dimentsio sozialean daude alderik handienak Mendebaldeko Europaren eta Ekialdeko Europaren artean, zehazki, jasandako diskriminazioari dagokionez. Errumaniak eta Ekialdeko Europak arrazakeria eta xenofobia handiagoari aurre egin behar diotela diote.

Afrikako jatorriak dira adierazleetan muturreko balioak erakutsi dituztenak, baina ñabardura interesgarriak ere badituzte. Magrebek, oro har, ikasketa-maila txikia eta langabezia-tasa handiak ditu. Gainera, azpimarratu behar da Magrebeko emakumeek integrazio eskasa dutela lan-merkatuan. Dimentsio sozialaren azterketak ere zailtasun batzuk ageri ditu; izan ere, % 20 inguru ez da batere integratua sentitzen edo gutxi integratua sentitzen da, eta ehuneko horrek, hobetzen doan arren, txikienetakoa izaten jarraitzen du, Afrikako gainerako herrialdeetako eta Txinako biztanleekin batera.



EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen seme-alaben baldintzak eta prozesu sozialak

Irune Ruiz Ciarreta

Beatriz Otero Gutiérrez

Maite Fouassier Zamalloa

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Kapitulu honen helburua da atzerritar jatorriko biztanleak dituzten EAeko etxeen ezaugarriak zehaztea, 2018ko Etorikin Atzerritarrei Inkestan (EABI) emandako azken datuak erreferentziatzat hartuta. Eusko Jaurlaritzaren inkesta ofizial horrek eskaintzen duen datu-aberastasuna aprobetxatuko dugu, eta Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak azken urteotan egindako makro-azterlanaren emaitzekin osatuko dugu. Azterlan hori atzerriko jatorria duten euskal herritarren gizarte-errealitateari buruzkoa da, hainbat ikuspegitatik egina: *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak* (Oleaga, 2017).

Euskal Autonomia Erkidegoan, funtsezkoa da atzerritarren seme-alaben gizarte-errealitatea aztertzea. Ezagutza sortu behar da aniztasunaren kudeaketa sozial eta politiko hobea lortzeko, kulturartekotasunaren ikuspegitik (Oleaga, 2017). Horrenbestez, bi azterketa horietan sortutako sinergiezi baliatuz, azterketa honen bidez lortu ahal izango dugu atzerriko jatorria duten EAeko etxeen ezaugarri nagusien, haien baldintzen eta prozesu sozialen argazki eguneratua eta fidagarria izatea.

Alde batetik, EABI 2014 oinarri hartuta kolektibora lehen hurbilketa egin genuen bezala, ikerketa honetan, EAEn bizi diren eta atzerriko nazionalitatea edo jatorri atzerritarra (atzerrian jaiotako aita edo ama) duten 0-24 urte bitarteko

pertsona guztiak hartu ditugu aztergai berriro –EABI 2018ko datuekin–. Hala, honako baldintza hauetakoren bat betetzen dutenak hartu dira “atzeritar jatorriko biztanleak dituzten bizikidetza-unitatetzat”:

1. 24 urte baino gutxiagoko atzeritar jatorriko pertsonaren bat (baina 4 urterekin edo gutxiagorekin berrelkartua) bizi den bizikidetza-unitateak.
2. Aita edo ama atzeritarren seme-alabak edo espainiar jatorriko 24 urtetik beherako seme-alabak eta/edo 4 urterekin edo gutxiagorekin berrelkartutakoak bizi diren bizikidetza-unitateak.

Kontuan izan behar dugu egindako identifikazio eta ustiapen estatistikoak bizikidetza-unitatearen aldagaia hartzen duela oinarritzat, EABI oinarria eta haren jasotzaileak bizikidetza-unitateetatik abiatuta lan egiteko diseinatuta baitaude. Horrek berekin dakartzan mugekin: bizikidetza-unitate berean familia-talde bat baino gehiago egon daitezke.

Bestalde, aipatu dugun bezala, Ikuspegik berriki egindako azterlanaren emaitzak ere baditugu: *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak* (Oleaga, 2017). Azterlan horretan hainbat ikuspegi eta eremutatik lantzen da Euskadiko atzeritar jatorriko biztanleriaren errealitatea, hainbat hurbilketa metodologikoren bidez. Bigarren belaunaldiekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten kolektiboen ikuspegia biltzen du proiektu honek. Hala, azterlan honen barruan, bigarren mailako informazio- eta datu-iturriak aztertu dira European, Espainian eta EAEn, ikerketa kualitatiboak egin dira adituekin eta irakasleekin, inkesten bidez jaso da EAEn eta atzerrian jaiotako 6 eta 16 urte bitarteko neska-mutilen ikuspegia, eta elkarrizketa kualitatiboak egin dira atzeritar jatorriko seme-alabak dituzten familietan. Era berean, euskal gizarteak, oro har, duen pertzepzioa jasotzen saiatu gara, inkesta eta eztabaidatalddeen bidez, bai eta atzerriko jatorriko gazteen bizi-ibilbide arrakastatsuek aurkitzen ere, bizitza-historien teknika kualitatiboa erabiliz.

Horrenbestez, ondoren, hasierako laburpen bat egingo dugu, teorikoki zehazteko zertaz ari garen atzeritar jatorriko biztanleriaz eta gaiak aztergai gisa duen garrantziaz ari garenean. EABIren azken datuen arabera taldea nortzuk osatzen duten hobekien zehaztuko diguten aldagai soziodemografikoak aztertuko ditugu. Ondoren, atzeritar jatorriko euskal herritarren errealitate soziala aztertuko dugu, hainbat ikuspegi garrantzitsutatik begiratuta. Zehatz esateko, hezkuntza-eremua, gizarte- eta lan-egoera, integrazio-prozesuak eta aniztasuna eta diskriminazioa izango ditugu ardatz. Amaitzeko, azpimarratzeko interesgarriak iruditzen zaizkigun zenbait ondorio aurkeztuko ditugu. Hori guztia, Ikuspegiaren (Oleaga, 2017) eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako Estatistika Organoaren (EABI 2018) erreferentziatzeko bi azterlanetan gai bakoitzari buruz lortutako emaitzak kontuan hartuta.

Immigrazioaren seme-alabak

Azken hamarkadetan gertatzen ari den nazioarteko migrazio-fenomeno bizkorraren ondorio dira gaur egungo aldaketa sozialak eta kultura-aniztasuna (Oleaga, 2017). Egitura sozial berri horren barruan, etorkinen bigarren belaunaldia, immigrazioaren seme-alabak, interes handikoak dira komunitate zientifikoarentzat, haien integrazio- eta gizarteratze-mailaren baitan baitago, hein handi batean, gizarteraren etorkizuna, oro har (Portes eta Rumbaut, 2001).

Bistan da migratzaileen ondorengoak izateak ez lukeela aitzakia izan behar azterlanak eta analisiak biztanleriaren zati horretan fokalizatzeko; izan ere, horrela, azterketa zientifikotik laguntzen ari gara pertsona horiek “herentzia bidezko immigrantetzat” hartzen (Oleaga, 2017). Hala ere, kolektibo hori aztergaitzat hartuko dugu, bereizkeria anizkoitzeko egoerak jasaten dituztelako eta gurasoen bizipenengatik eta ibilbideengatik ematen zaien estatus sozialagatik (Moscusi, 2007).

Hori dela eta, azken urteotan, fenomeno horri buruzko ikuspegi teoriko ugari garatu dira. Ikuspegi horietan baikorrena da atzerritik etorritako gutxiengo batek gizarte berria asimilatzen duela eta gizarte berri horretara arazorik gabe egokitzen dela, eta azkenean harrera-gizarteak bereganatu egiten duela, eta horixe da, hain zuzen ere, urteetan gehien erabili dena teoria soziologikoak eta ekonomikoak sortzeko. Korrante klasiko horrek zioen goranzkoa, mailakatua eta homogeneoa zela gizarteko klase ertainerako mugikortasuna (Telles eta Ortiz, 2008).

Alejandro Portes (2001), Rubén Rumbaut (2005) eta Rosa Aparicio (2016) bezalako autoreek duela 20 urte baino gehiago hasi zituzten gai honi buruzko lanak, batez ere fenomenoak Ameriketara duen errealitatea aztertuz. Arestian aipatutako teoria baikorrenen aurka, autore horiek uste dute bigarren belaunaldien egungo esperientzia hobekien definitzen duen kontzeptua dela “asimilazio segmentatua”, gizartean txertatzeko prozesu konplexuegia eta heterogeneoegia baita eta faktore askoren baitan baitago. Gizarte batean hazteko modu anitzak deskribatzen eta erakusten dituzte beren lanetan (Portes eta Rumbaut, 2001). Pertsona batzuk gizartean goranzko bideari jarraitzen dioten bitartean, beste batzuk blokeatu egiten dira, jaitsi egiten dira eta jada dauden gutxiengo autonomoen arazo berdinak izaten dituzte. Kontua ez da geure buruari galdetzea etorkinen seme-alabak xede-gizartera asimilatuko ote diren, baizik eta gizarte horretako zein segmenturekin asimilatuko diren ikustea. Beraz, Alejandro Portes-en eta Rubén G. Rumbaut-en ikuspegi estrukturalista-kulturalista kontuan hartuta, asimilazioak lagundu edo kalte egin diezaike lortzen sozial eta ekonomikoak, gurasoen giza kapitalaren, familia-egituraren eta gizarteratze-testuinguruen arabera. Asimilazioari buruzko jarrera kulturalista alternatiboetan, Alba eta Nee-rena (2003) bezalako teoriak nabarmentzen dira,

eta horietan onartzen da asimilazioaren heterogeneotasuna, bai eta asimilazio hori ez gertatzeko aukera ere (Portes, Aparicio eta Haller, 2018).

Egia da familia etorkinek erronka askori egin behar dietela aurre integrazio-prozesuan. Familiaren prozesu sozioekonomikoak, familiaren osaerak eta gizarteratzeko moduek baldintzatu egiten dute akulturazio mota (Portes, Fernández-Kelly eta Haller, 2006). Estatu Batuetako gizarte- eta hiri-errealitatearen testuinguruan, autore horiek adierazten dute arraza-diskriminazioa, lan-merkatua eta etorkinen gizarte-testuingurua direla hezkuntza-lorpenak izateko eta arrakasta profesionala lortzeko dituzten zailtasun nagusiak (Oleaga, 2017).


Testuinguru horretan, estatu mailako migrazio-errealitateak oraintsuagoko aztergai bihurtu du gai hori, eta XXI. mendean aurkitu dugu ekoizpen handiena maila akademikoan. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, azterlan askok agerian uzten dituzte atzerritar jatorriko familiek dituzten zailtasunak eta, zehazkiago, seme-alabei etorkizun hobea eskaintzeko etengabeko kezka. Hala ere, immigrazioaren seme-alabei buruzko azterketa zehatzen kopurua ez da oso ugaria, eta, izatekotan ere, hezkuntzaren eremuan eta integrazio eta egokitzapen soziokulturaleko prozesuetan oinarritzen da neurri handi batean (Vicente, 2006, 2008; Etxeberria eta Elosegui, 2010a, 2010b).

Ikuspegik, 2018an jada erabili zituen Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestako –EABI 2014– datu ofizial argitaratuak talde horren argazkia egiten saiatzeko eta bere integrazio-prozesuen ezaugarri nagusiak identifikatzeko, betiere argi edukita muga kontzeptualak eta metodologikoak daudela *bigarren belaunaldia* (Moreno, 2018) deitutako kolektibo hori definitzeko eta mugatzeko. Lehen hurbilketa horri esker, lan-jarduerarekin, prestazio ekonomikoekin, arazo sozial eta ekonomikoekin eta etxebizitzarekin lotutako gaiekin zerikusia duten alderdiak aztertu ahal izan genituen.

Atzerritar jatorriko biztanleak dituzten EAEko etxeen alderdi orokorrak eta ezaugarri soziodemografikoak

EABI 2018 inkestaren azterketaren arabera, BB gisa identifikatutako etxeetan (atzerritar jatorriko pertsonak bizi diren etxeak), familia-oinarriko bizikidetzaz egituren ehuneko handiagoa dago (1. grafikoa). Hau da, kasuen % 66,7an, seme-alabak dituzten senar-emazteak edo bikoteak dira.


1. grafikoa. BB bizikidetzaz-unitateak, familia motaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Jatorrizko eremu geografikoaren arabera (2. grafikoa), magrebtarren artean dago bigarren belaunaldiko biztanleriaren presentzia handiena (% 23,2). Ondoren, Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk bezalako jatorriak daude, bai eta Latinoamerikako jatorriak ere, hala nola Kolonbia, Ekuador eta Peru (guztizkoaren % 11,9 bi kasuetan).


2. grafikoa. BB bizikidetzaz-unitateetan dagoen biztanleria, jatorrizko eremu geografikoaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

BB bizikidetza-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen egoera administratiboari dagokionez (3. grafikoa), nabarmentzekoa da % 37,3k espainiar nazionalitatea lortu duela eta erdiak baino gehiagok (% 53,5) bizileku-baimen iraunkorra dutela. Ezegonkortasun handiena sortzen duten egoera administratiboaren pisua –16 urteko edo gehiagoko pertsonen artean lan-baimenik ez izatea edo edozein adinetan bizileku-baimenik ez izatea– oso txikia da (% 3,9).


3. grafikoa. BB bizikidetza-unitateetako biztanleria, egoera administratiboaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

Nabarmentzekoa da BB bizikidetza-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 54 emakumeak direla. Bestalde, 4. grafikoa ikus daitekeenez, biztanleria horien gehiengoa 25 eta 44 urte bitartekoa da (% 39,7), nahiz eta 16 urtetik beherako biztanleen ehunekoa handia izan (% 31,3).

4. grafikoa. BB bizikidetza-unitateetako atzerritar jatorriko biztanleria, adinaren arabera (%)




Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Azkenik, adierazi behar da (5. grafikoa) BB bizikidetza-unitateetako kide diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen % 31,1ek bigarren mailako ikasketak dituela, % 26,8k derrigorrezko ikasketak dituela eta % 14,2k ez duela

ikasketarik edo lehen mailakoak bakarrik. Bestalde, % 14,3k adierazi dute goi-mailako ikasketak dituztela.

5. grafikoa. BB bizikidetza-unitateetako 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-mailaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Hezkuntzaren arloa

Hezkuntzaren arloan bigarren belaunaldiei buruz egindako hainbat azterlanek, besteak beste, gai hauek izan dituzte ardatz: eskola-porrota edo -arrakasta, integrazio-dinamikak, eskola-bereizketa, hezkuntza-diskriminazioa, goi-mailako hezkuntzan sartzea edo etorkizunerako aukerak eta itxaropenak (Intxausti, Etxeberria eta Joaristi, 2014). Horri dagokionez, Euskadin esparru horretan adituak diren pertsonak funtsezko bi gai nabarmentzen dituzte: ohiko epez kanpoko eskola-matrikulazioak eta ikasgeletako kultura-aniztasuna. Bi gai horiek funtsezkoak dira etorkizunari begira, kolektibo horren presentzia gero eta handiagoa izango baita (Moreno, 2017).

Adituek gehien aipatzen duten alderdietako bat da atzerriko ikasleak sare publikoan eta ikastetxe jakin batzuetan biltzen direla. Biltze hori ikastetxeetako matrikulazio berriengatik gertatzen da, baina baita epez kanpoko matrikulazioengatik ere, zenbait familia atzerritar ikasturte erdian iristen direlako. Ikasturte erdian sartze hori bereziki zaila da irakasleentzat eta ikastetxeentzat.

Egoera hori are gehiago korapilatzen da familiaren egoera sozioekonomikoa, hizkuntza ikasteko zailtasunak eta abar gehitzen bazaizkio. Kasu askotan lotzen dira sozialki eskola-errendimendu txikia eta atzerritar jatorriko ikasle asko dituzten ikastetxeak. Horren guztiaren ondorioz, eskola-segregazioa areagotu egiten da, eta bertako familiek hezkuntza-ingurune “hobeak” bilatzen dituzte seme-alabentzat.

Arestian aipatu bezala, adituek diotenez, egoera sozioekonomikoa faktore erabakigarria da hezkuntzaren alorrean. Azpimarratu dute EAEko datuek erakutsi digutela atzerritar jatorriko familiek bizi-egoera kaskarragoak dituztela, eta, beraz, familia guztiek ez dituzte behar adina baliabide seme-alaben eskola-gastuei aurre egiteko. Horri gehitu behar zaio familiek aukera txikiak dituztela beren seme-alabei hezkuntza-prozesuan laguntzeko; izan ere, askok lan egiten duten sektoreetako ordutegiaren ondorioz areagotu egiten da etxean ez egotea.

Aldagai erabakigarri gisa, BB familien bizitokia aipatzen da, hau da, lurraldea, hizkuntzak ikastearen eta ikasleen hizkuntza-gaitasunak eskuratzearen ikuspegitik. Kasu honetan, EAEko errealitate soziolinguistikoaren ondorioz, ahalegin handiagoa egin beharko dute eta denbora eta dedikazio handiagoa izan beharko dute atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabek.

Gai horri dagokionez, 2018ko EABIren azken datuek aukera ematen digute BB pertsonak dituzten bizikidetza-unitateetan bizi diren biztanleek Euskadin duten hezkuntza-esperientzia ezagutzeko (6. grafikoa). Kolektibo horren artean, adierazitako arazo nagusia da *eskola-laguntzarik ez izatea hizkuntza-maila lortzeko* (% 18,2), eta, osagarri gisa, *hizkuntzen ikaskuntzarekin* lotutako arazoaren ehuneko handia ageri dute (% 11,9 gaztelaniaren kasuan eta % 28,4 euskararen kasuan). Nabarmentzekoa da, halaber, BB bizikidetza-unitateetan bizi diren pertsonen % 16,9k aipatu duela ikasle etorkin ugari dagoen zentro batean ari direla eskolatzen.


6. grafikoa. BB bizikidetza-unitateetan bizi diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, Euskadin ikasketa arautuetan esperientzia dutenak, hezkuntza-integrazioari buruzko alderdien arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Bestalde, Euskadin hezkuntza-esperientzia duten 16 urtetik gorako BB kolektiboan, A ereduan matrikulatzen da gehien (% 76,7), B ereduan (% 13) eta D ereduan (% 10,2) baino gehiago. (7. grafikoa).

7. grafikoa. BB bizikidetz-unitateetan bizi diren 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, ikasketa-ereduaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Era berean, BB unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek hezkuntza-prozesuan duten integrazioaren adierazle batzuk ere ematen dizkigu EABIk (1. taula). Nabarmendu behar da eskola-atzerapenaren eragina, antzemandako arazo nagusia, txikiagoa dela 16 urtetik beherako bigarren belaunaldiko biztanleen kasuan. Gainerako problematikek eragin txikiagoa dute, eta ez dute bi adin-taldeen artean aldeak ezartzeko aukerarik ematen. Hala ere, BB unitateetan bizi diren 16 urtetik gorako biztanleen artean pixka bat handiagoa da baztertze-pertzepzioaren ehunekoa.

1. taula. BB bizikidetz-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen integrazio-adierazleak hezkuntzaren alorrean (%)

	<16 urte	>16 urte
Eskola-atzerapena	6,4	21,4
Baztertzea	3,1	4,1
Eskola-absentimoa	0,5	1,0
Hizkuntzarekin arazoak	3,4	5,9
Elikadura-arazoak	0,0	0,1
Etorkin asko	1,4	2,9
Beste batzuk	1,8	0,9
Arazorik ez	87,9	72,5
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Familien egoera soziolaborala

Atzerritar jatorriko gurasoen lan aukerak egiturazko faktorea dira, eta beren seme-alaben bizitza zehaztuko dute, inolaz ere. Dauden lan-nitxoetan sartzera behartuta daude lehen belaunaldiak, familiaren bizi-baldintzak hobetzeko, eta itxaropen guztiak jartzen dituzte seme-alaben etorkizuna hobetzeko.


Ikuspegiaren azterketaren lehen kapituluan, *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn, zenbakitan*, egileek (Otero eta Mendoza, 2017), Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestatik abiatuta, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen seme-alaben lehen argazkia erakutsi ziguten. Datuen bidez, atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboaren eta bertako jatorriko biztanleen arteko desberdintasun nagusiak adierazi zituzten. Datuek erakutsi zuten, atzerritar jatorriko biztanleria hori kolektibo espezifikoetatik har daiteke, hasieratik diskriminazio anizkoitza jasaten baitu, batez ere soziolaborala eta jatorriaren arabera.

Izan ere, familia horien errealitate sozioekonomikoak baldintzatzen du gehien seme-alaben etorkizuna. Asko dira jatorriagatik eta/edo arrazagatik lan-arloan gertatzen den diskriminazioari buruz egin diren alde aurreko azterlanak, eta atera duten ondorioa izan da arlo hori funtsezkoa dela garrantzi sozialagatik eta dinamika sozial osoan dituen ondorioengatik (mugikortasuna, bizi-aukerak, bizi-baldintzak, etab.) (Alter, 2004).

Bertako familietan gertatzen den bezala, seme-alabak dituzten atzerritar jatorriko familiek erronka bikoitza dute: lana (produktiboa) eta ondorengoen zaintza eta/edo arreta (ugalketa). Erronka bikoitz hori zailagoa da guraso bakarreko familia-ereduetan, familia ugarietan edo inolako sare edo laguntzarik ez duten familietan.

EABIren arabera, lanean ari diren atzerritar jatorriko herritar gehienak zerbitzuen sektorean ari dira. Beste horrenbeste gertatzen da, halaber, BB bizikidetzak unitateetan bizi diren biztanleen artean (% 73,9), ondoren industrian (% 14,2) eta eraikuntzan (% 10,5). Zerbitzuen sektorearen barruan, etxe-zerbitzua da arreta berezia merezi duen esparru bat, atzerritar jatorriko biztanleentzat lan-nitxo garrantzitsua delako, hau da, % 15,2 BB unitateetan bizi diren biztanleentzat (8. grafikoa).


8. grafikoa. BB bizikidetzaren unitateetan bizi diren 16 eta 66 urte bitarteko atzerritar jatorriko biztanleria okupatua, jardura-adarraren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

BB bizikidetzaren unitateetako biztanleriaren erdiak baino gehiagok (% 54,2) okupazio kualifikatua edo erdikualifikatua du, eta laurden bat kualifikaziorik gabeko kolektiboari dagokio (% 26). Zuzendaritzako langileen, teknikarien edo enplegatuen lanpostuei dagokienez, % 19,9an gabilta (9. grafikoa).

9. grafikoa. BB bizikidetzaren unitateetan bizi diren 16 eta 66 urte bitarteko atzerritar jatorriko biztanleria okupatua, jardura-adarraren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Inkestak Euskadiko lan-esperientziari buruzko informazio interesgarria ere ematen du, eta aukera ematen digu, adibidez, laneko egoera problematikoak aztertzeko. 2. taulan ikus daitekeen bezala, Euskadin lan-esperientzia duten BB unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 5,1ek uste du gainerako langileek baino ordainsari txikiagoa jasotzen duela.

Bestalde, BB unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek atzerritar izaerarekin lotutako arazo batzuk hautematen dituzte, hala nola jatorriagatik erantzukizunak hartzeko ezintasuna (% 3,7) eta lankideek isolatzea edo baztertzeko (% 3,4). Azkenik, adin txikiko seme-alabak zaintzeko kontziliazio-arazoak nabari dira kolektibo horretan (% 8).

2. taula. BB bizikidetz-unitateetan bizi diren 16 eta 66 urte bitarteko atzerritar jatorriko biztanleak, azken 12 hilabeteetan Euskadin lanposturen bat izan dutenak, laneko egoera problematikoen arabera (%)

ARAZO OROKORRAK	
Kontratuan baino lanaldi luzeagoa	11,6
Kontratuan baino lanaldi laburragoa	1,8
Aparteko orduak egin beharra	12,3
Araututakoa baino soldata txikiagoa	5,1
Araututakoa baino soldata handiagoa	1,9
Gainerako langileek baino soldata txikiagoa	5,1
Atsedeen hartzeko eskubidea ez betetzea	5,5
Lan irregularra enpresaburuak nahi duelako	3,9
LANALDIARI, SOLDATARI EDO KONTRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK	
Mailaz igotzeko ezintasuna	3,6
Erantzukizunak hartzeko ezintasuna	3,7
Zereginik okerrenak	4,5
Tratu umiliagarria	4
Isolamendua edo arbuioa	3,4
MAILA IGOERARI, ERANTZUKIZUNEI ETA TRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK	
Segurtasun txikiagoa	2,2
Seme-alabak zaintzeko ezintasuna	8,0
DISKRIMINAZIOA	
Arraza/etnia diskriminazioa	5,2
Diskriminazioa nazionalitateagatik	4,9
Diskriminazioa erlijioagatik	0,9

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Integrazio prozesuak euskal gizartean

Kolektibo horrek aurre egin beharreko beste alderdi garrantzitsu bat integrazio eta egokitzapen soziokulturaleko prozesuak dira. Hau da, Euskadin kidetasun-sentimenduak nola garatzen dituzten eta beren familia-jatorriko herrialdearekiko nola sentitzen diren aztertzea, batzuetan kulturaz gaindiko identitate mistoak sortuz. Ohikoa da familiaren migrazio-historiak zuzeneko eragina izatea seme-alaben integrazio-prozesuan.


Zalantzarik gabe, ikastetxeak funtsezkoak dira familien gizarteratze-prozesuan, bai gurasoena bai seme-alabena. “Haurren aniztasuna EAEn” kapituluaren (Oleaga, 2017), lehen haurtzaroaren etapa erabakigarria aztertzen da, sei urtera arte, gizarte-harremanen naturaltasuna izanik etapa horren ezaugarri nagusia. Desberdintasun gutxien nabari diren hezkuntza-etapetako bat da hori. Esan genezake «arkadia galdua» dela; hau da, adin horretako haurrek ez dituzte kontuan hartzen desberdintasunak (jatorria, klase soziala, familiaren

maila ekonomikoa, etab.) beren hartu-emanetan, eta gurasoak ere irekiago daude beren seme-alabek harremanak izateko, a priori, bestelako ezaugarri sozial edo ekonomikoak dituzten beste haur batzuekin. Hala ere, dio etapa horretatik aurrera hasiko dela «desberdintasuneranzko karrera», eta hor agertuko direla hurrengo hezkuntza-etapetan modu desberdinean adieraziko diren desberdintasunak.

Integrazioaren beste alderdi garrantzitsu bat da ondorengoek identifikatzea testuinguru soziokultural desberdinetan bizi direla. Izan ere, gurasoek beren jatorrizko herrialdeko kultura transmititzen diete seme-alabei, eta, aldi berean, seme-alaba horiek euskal eragin soziokulturala jasotzen ari dira ikastetxean eta eguneroko bizikidetzaguneetan.

Horren harira, interesgarria da 2018ko EABIIn aztertzea BB unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek EAEEn duten integrazio-sentimendua, bai eta adinaren arabera azterketa segmentatua egitea ere. Hurrengo 10. grafikoan ikus daitekeen bezala, BB unitateetan bizi diren 16 eta 24 urte bitarteko gazteek osatutakoa da integrazio-sentimendu handiena duen kolektiboa. Pertsona horien artean, Euskadin oso integratuta sentitzen direnen ehunekoa % 44,4koa da, eta nahiko integratuta sentitzen direla dioten % 41,8ari gehitzen badiogu, kolektiboaren gehiengo handi bat euskal gizartearen parte sentitzen da. % 13,8k bakarrik esan du gutxi integratua edo batere integratuta ez dagoela. Ehuneko hori % 17,3ra igotzen, berriz, BB bizikidetzaguneetan bizi diren biztanle guztiak aintzat hartzen baditugu.

10. grafikoa. BB bizikidetzaguneetan bizi diren 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, euskal gizartearekiko duten integrazio-sentimenduaren arabera (%)




Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Horrez gain, funtsezko elementu integratzaile gisa ageri da hizkuntzak ikastea. Gaztelania eta euskara funtsezko baliabideetat hartzen dira ikasteko eta lan-munduan sartzeko. Atzerriko biztanleek EAEko hizkuntzetan duten sarbidea aztertzeke aukera ere ematen digu EABIk (11. grafikoa). BB unitateetan bizi

diren 16 eta 24 urte bitarteko gazteena da gaztelaniaz gehien dakien taldea, % 92,7k adierazi baitu gaztelaniaz ondo edo oso ondo dakitela.

Aldeak nabariagoak dira euskararen kasuan. 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 37,4k diote euskara-maila ona edo oso ona dutela, eta datu hori % 7raino jaisten da kolektibo osoa kontuan hartzen badugu. Bestalde, deigarria da, halaber, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 28,6k hizkuntza ez dakitela esatea, eta hori % 64,9ra igotzea BB bizikidetzaren unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen kolektibo osoak baieztatu duenean.

11. grafikoa. BB bizikidetzaren unitateetako 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, gaztelaniaren eta euskararen ezagutzaren arabera (%)




Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Sare sozialak aipa ditzakegu funtsezko azken elementu integratzaile gisa. Alor horretan alde nabarmenak daude gurasoen eta seme-alaben artean. Lehenengok ez dute oso askotariko erlaziorik izaten, laguntza-sare homogeneousagoak ezartzen dituzte. Aitzitik, familia migratzaileen seme-alabek harreman askotarikoagoak eta heterogeneoagoak dituzte, eta harreman handiagoa dute bertako pertsonekin. Horrek erraztu eta lagundu egiten du euren integrazio-prozesuan, eta harreman horiek kapital sozial eta kultural oso garrantzitsua dira seme-alabentzat.

2018ko EABIn baditugu zenbait aldagai atzerritar jatorriko biztanleek beren ingurunearekin duten harremana aztertzeko aukera ematen digutenak.

Hurrengo 12. grafikoan, gure gizartean integratzeko prozesuekin lotutako adierazle bat jaso dugu, hau da, aisialdian eta denbora librean era guztietako pertsonekin harremanetan dauden pertsonen ehunekoa. Espero zitekeen bezala, gazteenak dira era guztietako pertsonekin harremanak izateko muga txikien dituztenak. Horrela, kolektibo hori da bere familian edo jatorri eta kultura bereko pertsonetan gutxien biltzen dena.


12. grafikoa. BB bizikidetza-unitateetako 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak: denbora librean eta aisialdian era guztietako pertsonekin harremanak dituzten pertsonen ehunekoa, adinaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez (13. grafikoa), aipatzekoa da BB bizikidetza-unitateetako biztanleek EAEn jarraitzeko itxaropen handiak dituztela. Ehuneko hori % 94,4koa da bost urteko ikuspegian, eta % 87,1koa, berriz, bizi-proiektua bertan izatearen ikuspegitik.

13. grafikoa. BB bizikidetza-unitateetako 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, EAEn geratzeko asmoa dutenak (%)




Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Azkenik, 14. grafikoari erreparatzen badiogu, BB bizikidetza-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek enpleguari eta etxebizitzari begira dituzten itxaropenak ikus ditzakegu. Zehazki, % 23,6k uste dute datozen 5 urteetan enplegu egonkorra lortuko dutela edo negozio propioa sortuko dutela. Etxebizitza bat erostea egingarria da % 20,2rentzat. Datu hori enplegua hobetuko dutela uste duten pertsonen antzekoa da, dela soldata hobeetan, dela kualifikazioan,

dela enplegatuta dauden sektorean (% 20,1). Azkenik, % 10,1ek uste du hemendik bost urtera lana lortu ahal izango duela.

14. grafikoa. BB bizikidetzeta-unitateetako 16 urteko eta gehiagoko atzeritar jatorriko biztanleak, datozen bost urteetan EAEn geratzeko asmoa dutenak, etxebizitzaren eta enpleguaren arloan dituzten itxaropenen arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Aniztasuna eta diskriminazioa

Gaur egungo euskal gizartean jada presente dagoen aniztasun soziokulturala, etorkizunean finkatu baino ez da egingo dagoeneko kultura anitzekoa den eta haziko den errealitate sozialean. Hala egiazta daiteke Euskadiko immigrazioaren seme-alabei buruzko azterlanaren azken zatian (Oleaga, 2017). Bizitzako kontakizunek aho bateko gogoeta sorrarazten dute kontatutako historia guztietan; izan ere, belaunaldiaren loturak handiagoak dira atzerriko jatorriagatik sor daitezkeen desberdintasunak baino. Horrekin ez dugu esan nahi ez dagoela elementu bereizgarriak euren artean eta gainerako gazteekiko ere, azterketa honetan nahiz Afrikako jatorriko emakumeekin hitz egin zen azterketan jaso ahal izan den bezala.

Baztertzeko eta diskriminazio-egoerak ere agertu ziren bi kontakizunetan, bai lehen pertsonan bizi izan dituztenak bai zuzeneko lekuko izan direnak. Berdinen arteko aipamen negatiboak eskola barruan, duten itxurarekin lotuta, enplegu bat lortzeko garaian bizi izan duten bazterkeria zapia eramateagatik, edo komunitateak euskal gizartearen parte senti daitezkeela ukatzea, besteak beste, horiek guztiek argi uzten dute oraindik ere diskriminazio-esperientziak bizi direla.

Atzerriko biztanleek hautemandako diskriminazioari buruzko datuak ere ematen dizkigu EABIk, hori ere funtsezko elementua baita gizarteratze-prozesuetan (3. taula). Azpimarratzekoa da BB unitateetan bizi diren biztanleek ez dutela arazo handirik sumatzen; hala diote 16 eta 24 urte bitartekoen % 36,4k, eta gauza

bera pentsatzen duten kolektibo osoarekiko aldea ere antzekoa da (% 37,5). Ondoren, kolektibo osoaren % 31k adierazi du erreferentzia negatibo bakan batzuk sumatu dituela. BB unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek sumatzen dituzten baztertze- edo marjinazio-moduei erreparatzen badiegu, deigarria da 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 14,4k adieraztea diskriminazioa, abusua, tratu txarrak edo bazterkeria/isolamendua sumatu dutela eskolan edo lanean. Talde osoa aintzat hartuta baino handiagoa da datu hori, talde osoan % 3,7ra jaisten baita. Bestalde, % 10,6k adierazi du maiz entzun dituela delituzko jardueri/sozialki gaitzesgarriak diren jardueri buruzko aipamenak immigrazioaren inguruan, eta % 8,1ek adierazi du askotan entzun dituela mespretxuzko aipamenak edo larderiazkoak erlijio edo kultura-talde jakin bati lotutako jantzeko moduagatik.

3. taula. BB bizikidetz-unitateetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek sumatutako diskriminazioa (%)

	BB	
	16-24	Guztira
Diskriminazioa, abusua, tratu txarrak edo baztertzea/isolatzea eskolan/lanean	14,4	3,7
Mesprezu/baztertze pertsonala sarri gizarte-bizitzan	1,5	1,2
Tratu txarra sarri zerbitzu publikoetan edo pribatuetan	0,8	1,0
Irain/etiketatze ugari	4,9	3,6
Mespretxuzko/larderiazko aipamenak sarri erlijioari/kultura-taldeari lotutako jantziengatik	4,5	8,1
Delituzko jardueri/sozialki gaitzesgarriak diren jardueri eta immigrazioari buruzko aipamenak sarri.	9,8	10,6
Immigrazioaren eta gizarte-laguntzen/osasun-zerbitzuen saturazioaren arteko loturari buruzko aipamenak sarri	0,2	3,2
Erreferentzia negatibo bakanak	27,6	31,0
Ez dute arazorik adierazi	36,4	37,5

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Ondorioak

Kapituluan zehar aztertutakotik ondoriozta daiteke, jatorri atzerritarra duten Euskal Autonomia Erkidegoko familiei buruzko metodologia eta ikuspegi desberdinetatik begiratuta, argi eta garbi ikusten dela euskal gizarte berri eta askotarikoa sortzen ari dela. Oinarri gisa 2018ko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkesta Ofizialetik (EABI) eta Ikuspegiaren *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako) bigarren belaunaldiak* (Oleaga, 2017) azterlanetik lortutako datuak hartuta, hainbat arlo ikertu ahal izan ditugu: hezkuntzarekin, lan-jarduerarekin, gizarte-prozesuekin eta integrazio- eta diskriminazio-egoerekin

lotutako alderdiak. Testuinguru horretan, bi lan horiek lagundu egiten dute atzerriko etorkinen seme-alaben errealitate soziala ikuspegi askotatik erakusten eta neurtzen, talde horren argazki bat eskainiz eta haien integrazio-prozesuen ezaugarri nagusiak identifikatuz.

Hezkuntzaren arloan, adituen eskutik jasotako datuak nahiz familien hezkuntza-esperientziak berak (EABI 2018) norabide berean doaz. Bi kasuetan garrantzi handiagoa hartzen dute Euskadiko egoera soziolinguistikoak, hainbat ikastetxetan biltzeak eta ikasgeletako aniztasunaren kudeaketak. Hizkuntza-arloari eta, zehazkiago, euskararen garapenari dagokionez, argi dago bi hizkuntza ofizial (euskara eta gaztelania) dauden testuinguru batean (Euskal Autonomia Erkidegoa), eta euskara derrigorrezko irakaskuntza osoaren –ez bakarrik gaztelaniarena– komunikazio-hizkuntza izanik, funtsezko elementua dela atzeritar jatorriko biztanleak euskal gizartean integratzeko prozesuan. Kapitulu honetan agertzen den beste arazo nagusietako bat da, batez ere sare publikoan, ikastetxe jakin batzuetan biltzen direla atzeritar jatorriko ikasleak, eta, horren ondorioz, ikastetxe batzuk estigmatizatu egiten dira eta estereotipo ugari sortzen dira ikasle horiekiko. Adituek nahiz atzerriko familiek berek sumatzen dute arazo hori. Eta, azkenik, familiek hautemandako integrazio-prozesuak eta hainbat diskriminazio-arazo aztertu ondoren, adituek adierazi dute, gai honetan, aniztasunaren kudeaketa egokian oinarritu behar dela arreta, eta ez soilik harreran.

Garrantzitsua da atzeritar jatorriko familien gizarte- eta lan-egoeraren garrantzia azpimarratzea. Hein handi batean, atzeritar jatorriko familien bizipenak aldagai horren ingurukoak dira, errealitate sozioekonomikoaren ingurukoak. Oro har, atzeritar jatorriko familiak lan-prekarietate handiagoko egoeretan bizi direla uste da, eta lan egiten duten lanpostuek oso aukera txikiak ematen dizkietela seme-alabei akonpainatzeko. Datuek ideia hori berresten dute, eta agerian uzten dituzte atzeritar izaerari lotutako zenbait problematika, hala nola jatorriagatik erantzukizunak hartzeko ezintasuna eta lankideek isolatzea edo baztertzeta.


Familietan bizi izandako migrazio-historiek zuzeneko eragina dute atzeritar jatorrikoen seme-alaben gizarteratze- eta egokitze-prozesuetan. Inolako zalantzarik gabe, funtsezko integrazio-elementuak dira hezkuntza-sistema eta hizkuntza. Familien integrazio-pertzepzioen azterketaren emaitzek erakusten dute EAEn gelditzeko itxaropen handiak dituztela. Horrez gain, nabarmentzekoa da 16 eta 24 urte bitarteko gazteek dutela integrazio sentimendurik handiena.

Azken batean, gizartearentzat funtsezkoa da gero eta handiagoa den aniztasun hori behar bezala kudeatzea. Pertsona guztiak gizartean integratzeko prozesua era askotan egin daiteke. Beraz, ez dago integratzeko modu bakar bat. Integrazioa segmentatua da, asimetrikoa, sistema bat osatzen duten dimentsioetan oinarritua, eta forma ugari hartzen ditu. Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da

aztertutakoen moduko tresnak edukitzea ezagutza sortzeko eta aniztasunaren kudeaketa sozial eta politiko hobea lortzeko, kulturartekotasunaren ikuspegitik.

Bibliografia

- Aierdi, Xabier eta Oleaga, José Antonio (2012) *Informe 31. Mujeres inmigrantes en la CAE*. Emakunde.
- Alba, Richard eta Nee, Victor (2003) *Remaking the American Mainstream: Assimilation and Contemporary Immigration*. Harvard University Press.
- Berry J.W, Kim, U., Power S., Young M. (1989) Acculturation attitudes in plural societies. *Applied Psychology*, 38(2), 185-206.
- Fullaondo, Arkaitz (2017) Un acercamiento teórico y conceptual. In J. A. Oleaga (Ed.) *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal) llamadas segundas generaciones (9-40 or.)*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2G/P1_CAP1_acercamiento_teoricoCAS.pdf
- Huntington, Samuel P. (2004) The Hispanic Challenge. *Foreign Policy*, 141, 30-45.
- Ikuspegi (2014) *Estudio diagnóstico sobre el fenómeno migratorio en Vitoria-Gasteiz 2014*. Vitoria-Gasteizko Udala.
- Portes, Alejandro eta Rumbaut, Rubén G. (2001) *Legacies: The story of the second generation*. University of California Press.
- Portes, Alejandro, Fernández-Kelly, Patricia eta Haller, William (2005) Segmented assimilation on the ground: the new second generation in early adulthood. *Ethnic and Racial Studies*, 28(6), 1000-1040.
- Portes, Alejandro, Aparicio Rosa eta Haller William (2018) Hacerse adulto en España: la integración de los hijos de inmigrantes. *Anuario CIBOB de la Inmigración 2018*, 148-181.
- Telles, Edward eta Ortiz, Vilma (2008) *Generations of exclusion: Mexican Americans, Assimilation and race*. Russell Sage Foundation.



Okupazioa eta enplegua: hobekuntzak espazio desberdinean?

Rubén Lasheras Ruiz ■ Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Sarrera: okupazioa eta enplegua, gero eta kalteberatasun handiagoko esparruan

Lana eta enplegua dira, ez bairik gabe, bizirauteko baliabide ekonomikoak eskuratzeko iturri nagusia. Hala ere, bizi-garapenaren beste alderdi batzuk hornitzeko ere funtsezkoak dira, hala nola kide izatea, aintzatestea edo estatusa. Ondorioz, esparru ekonomiko hutsetik haratago eragiten du enpleguaren gabeziak edo prekaritateak (Subirats et al., 2004), eta, besteak beste, harremanen eremura, eremu kulturalera, sinbolikora edo pertsonalera eramaten da. Laburbilduz, okupazioak eta enpleguak egituratzen dute integrazioa eta, ikuspegi historikotik, eskasia eta gero eta prekarizazio handiagoa dituzte ezaugarri (Castel, 1997).

Enplegu nahikoa ez izatean etengabe dago (eta egituraz) lan arloan sartzeko aukerarik ez duen pertsona talde bat, eta horrek langabezia-egoerak sortzen ditu (luzaroan gertatzen bada iraupen luzeko langabezia bihurtzen dena), bai eta enplegaezintasuna ere. Prekaritateari dagokionez, hainbat errealitate daude lan-eremuan: behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak, soldata eskasak, lan-eskubideen mugak, azpienplegua, soldata-arrakala, irregulartasuna eta abar (Moreno, 2018).

Gizarte-bazterketako prozesuen alderdi bereziki garaikideetako bat da etengabe hazten ari direla ekonomikoki ez beharrezkotzat, alferrikakotzat edo disfuntzionaltzat hartzen diren taldeak (Willadino, 2004). Talde horien artean

egongo litzateke produkzio-sistemarekin lotura galdu duten edo laneratzea modu marjinalengan gertatzen den pertsonen multzoa, eta horrek zalantzan jartzen du enpleguak gizarteratzeko mekanismo nagusi gisa duen ahalmena (Tezanos, 1999). Hau da, lan-bazterkeria ez da soilik enplegu-gabezia adierazten, baizik eta prekaritate-egoera desberdinekin du zerikusia, askotan endemikoak, eta zenbait figura eta errealtate zabaltzen dira horietan, hala nola, prekariatuarena (Standing, 2013), langile pobreena edo bizi-prekarizazioa (Zubero, 2006). Horregatik, gizarteak enplegua sortzeko duen gaitasunari buruz ez ezik, enplegua lortzeko baldintzei eta ezaugarriei buruz ere egin behar dira hausnarketak. Laburbilduz, lan-eremua, azken hamarkadetan batez ere, kalteberatasunaren hazkundeagatik bereizten da, eta, sektore heterogeneoetan ere intentsitate desberdinekin eragiten duen arren, sexuan, adinean eta jatorrian ditu sarbide eta bizipen desberdin horretan gehien eragiten duten aldagaiak (COLECTIVO IOÉ, 2001; Parella, 2006; Martín Herrero et al., 2013).

Horregatik guztiagatik, bi helburu ditu dokumentu honek. Alde batetik, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen okupazioari eta enpleguari begira dauden errealtateak azaltzea –EABIk aurreko edizioetan emandako ikuspegi historikoa aintzat hartuta, eta beste irakurketa batzuk egiteko aukera emanez, emaitzen taulak osorik aurkeztuta–. Bestalde, historikoki egiaztatu den bezala, eremu horretan (eta beste batzuetan) EAEn jaio diren pertsonen aldean sortzen den eragin desberdinetik ulertu behar da errealtate hori. Hau da, atzerritar jatorriko biztanleen artean modu argiagoan identifika daitezke hainbat alderdi, hala nola langabeziaren eragin handiagoa, laneratzeko onargarritasun-maila handiagoa izatea edo baldintza prekarioak gehiago onartzea, aurrez bizirauteko diru-sarreraren iturri nagusi gisa azpimarratutako loturari eusteko.

Ondorengo azpiataletan, atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboan bereziki presente dauden errealtateak aztertuko ditugu: enplegua joan-etorrien eragile gisa, laneratze-tipologiak, lan-esperientzia, enplegu-kopurua, enplegu irregularra, lanetara egokitzea, egoera problematikoak, alderdi positiboak eta beste errealtate batzuk, hala nola enpresa-porrota, enplegu-zerbitzu publikoetako arreta eta itxaropenak.

Lan-eremua, iragatearen bultzatzaile: estimuluak eta okupazioa

Push-pull faktoreen teoria edo «aldentze-erakartze» esparru analitikoa, zeinaren jatorria Ravenstein-en legeekin lotzen baita, migrazio-eredu erreferentea da Everett S. Lee soziologoaren bidez garatua. Laburbilduta, esan nahi du sorlekuan edo abiapuntuan badirela hura uztera bultzatzen duten faktoreak (*push* faktoreak), beste leku batzuetako baldintza onuragarriagoekin alderatzean. Beste leku batzuetako baldintza onuragarriago horiek, kasu honetan EAerako aplikatu daitezkeenak, erakartze-faktore gisa jardungo luketenak dira (*pull* faktoreak). Arangok (1985:15) adierazten du jatorrizko eremuetan negatibo gisa hartutako faktoreak izango direla nagusi (aldentze-faktoreak edo *push factors*), eta helmugan, berriz, faktore positiboak (erakartze-faktoreak edo *pull factors*), ahaztu gabe badirela beste faktore neutro batzuk axola ez direnak, bai eta jatorriaren eta helmugaren arteko elkarrekintzaren ondorio direnak ere, migratzeko erabakia deuseztatzen edo zailtzen dutenak. Faktore horiei «tarteko oztopo» deitzen zaie. «Aldentze-erakartze» esparru hori badagoela onartuta, “nazioarteko migrazio-fluxuen sare trinkoa” ezarri duten sareak hedatu dira azken hamarkadetan (Blanco, 2000:49). Lotura-sare hori iragateen eragile bihurtuko litzateke, nazioarteko eremuan ere eragina duten egiturazko beste faktore batzuk badaudela ahaztu gabe. Baina lan-motibazioetan jarriko dugu arreta bereziki. Hau da, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, gizarteratzeko bi gune handiren esparruan egituratuko lirateke iragatek eragiten dituzten faktoreak: lanaren ardatza eta harremanen ardatza.

1. taulan ikus daitekeenez, “Hemen bizi zen pertsona bat ezagutzen nuen” (% 68,7) eta “Familia berrelkartzea” (% 59,8) ziren etortzeko arrazoi nagusiak 2010ean. Hirugarren postuan ageri da kapitulu honen edukiari lotutako motibazioa: «Lan gehiago dago» (% 44,7). Eta, tarte handira, “lan-proposamena” (% 19,7). 2014an, aukera nagusia oraindik ere “Hemen bizi zen pertsona bat ezagutzen nuen” (% 49,3) izan arren, haren protagonismoak behera egin zuen, eta bigarren lekuan geratu zen “Lan gehiago dago” aukera (% 37,9); hala ere, 2010eko emaitzekin alderatuta, behera egin zuen. EAeko lan-merkatuaren zailtasunen ezagutzaren hedapen gisa interpreta daiteke hori. Hirugarren lekuan, familia berrelkartzea dago (% 30,9), eta, berriz ere, tarte handira, “Lan-proposamena” (% 12,7). Azkenik, 2018an, “Hemen bizi zen pertsona bat ezagutzen nuen” aukera zen nagusi (% 47,3), eta bigarren lekuan jarraitu zuen “Lan gehiago dago” aukerak (% 22,4), baina berriz ere behera egin zuen, 2014an gertatu zen bezala, eta, gainera, «Hona etortzea gomendatu zidaten» (% 22,4) aukeraren leku berean gelditu zen.

1. taula. Iragatearen motibazioa. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
Familia berrelkartzea	52,6	66,2	59,8	25,0	35,9	30,9	13,9	20,8	17,9
Lan-proposamena jaso nuen	25,9	14,2	19,7	15,6	10,2	12,7	17,3	10,7	13,5
Lan gehiago dago	52,2	38,1	44,7	43,7	32,9	37,9	25,3	20,2	22,4
Errazagoa da paperak lortzea	5,2	4,7	4,9	5,7	5,2	5,4	3,7	1,9	2,7
Polizia-kontrol txikiagoa	2,4	3,5	3,0	3,4	1,9	2,6	0,7	0,4	0,6
Integratzea errazagoa	15,0	12,6	13,7	10,5	8,3	9,3	4,1	4,7	4,4
Gizarte-laguntza gehiago	7,0	7,1	7,1	7,4	4,9	6,1	5,2	3,1	4,0
Hemen bizi zen pertsona bat ezagutzen nuen	64,0	72,9	68,7	45,1	52,9	49,3	41,7	51,5	47,3
Hona etortzea gomendatu zidaten	43,4	39,9	41,5	30,2	31,5	30,9	20,7	23,6	22,4
Beste batzuk	25,5	27,6	26,6	5,6	5,4	5,5	16,8	16,2	16,4

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Aurreratu bezala, lan-esparruak biltzen du EAera etortzeko bigarren motibazio nagusia. Hau da, lan-motibazioak iragatea eragiten du, eta, beraz, EAEn dauden atzerritar jatorriko biztanleak lehentasunez kezkatzen dituztenen artean jarri behar da, eta arreta zehatza eman behar zaio. Hala, bada, “Lan-proposamena jaso nuen” eta “Lan gehiago dago” erantzunen batuketak, azken urteetan pisua galdu badu ere (% 64,4 2010ean, % 50,6 2014an eta % 35,9 2018an, batez ere “Lan gehiago dago” aukerak nabarmen murriztu izateagatik bere protagonismoa), funtsezko pisua du.

1. taulan ikus daitekeenez, eta azterketan sexuaren aldagaiaren ikuspegia aintzat hartuta, emakumeek gutxiagotan adierazi dituzte bi motibazio horiek (“Lan-proposamena jaso nuen”, eta “Lan gehiago dago”) denbora-serie osoan zehar: emakumeen % 52,3k eta gizonen % 78,1k 2010ean, emakumeen % 43,1 eta gizonen % 59,3k 2014an, eta, azkenik, emakumeen % 30,9k eta gizonen % 42,6k 2018an. Gutxiagotan adierazte horrekin loturik, gainera, argi dago gizonen baino gehiagotan adierazi dituztela harremanen aukerak. Hau da, nahiz eta lan-motibazioa nabarmen ageri den iragatearen eragile gisa, arrazoi hori nabarmenagoa da gizonen artean. Hori erlazionatuta egongo litzateke, historian zehar izan den rolen banaketa eta esleipen desberdinetik abiatuta, jatorrizko herrialdeetan gizonen oraindik ere lan-esparruarekin lotura handiagoa izatearekin –beste horrenbeste gertatzen da, maila txikiagoan bada ere, euskal gizartearen barruan, emakumea lan-munduan modu esanguratsuan eta progresiboan sartzen ari bada ere—. Laburbilduta, nabarmentzekoa da joan-etorrien motibazioetan sexua aldagaiak duen izaera erabakigarria. Hala ere, gizonen motibazioen artean lan-mundua nabarmentzen bada ere, laneratze bidean errealitateak alde nabarmenak dituela ikusiko dugu.

Atal honen xedearekin jarraituz, EABIk aukera ematen digu, gainera, motibazio nagusien zehaztapena (aurreko paragrafoetan egindako ariketa) eta haien egiazko gauzatzea gurutzatzeko. Hau da, elkarrizketatutako pertsonen motibazioengatik galdetu zaie lehenbizi, eta 2. taulan haien gauzatzea azaltzen da, honako galdera honi emandako erantzunak jasota: “Nola atera zinen zure jatorrizko herrialdetik?”.

2. taula. Jatorrizko herrialdetik ateratzea. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira
Lan-kontratuarekin	19,1	8,6	13,5	17,2	8,6	12,6	14,8	8,5	11,2
Turista gisa	49,4	55,9	52,9	48,6	59,3	54,4	53,9	65,3	60,5
Legez kontra	10,9	2,3	6,3	15,6	4,9	9,8	16,5	3,7	9,1
Familia berriz elkartzeagatik	19,3	31,9	26,0	16,3	24,0	20,5	12,3	19,6	16,5
Kanporatzea/deportazioa	0,3	0,5	0,4	0,1	0,4	0,3	0,4	0,6	0,5
Ikasketak	1,0	0,8	0,9	1,3	2,1	1,7	1,7	1,6	1,7
Arrazoi politikoak	0,0	0,0	0,0	0,9	0,7	0,8	0,4	0,7	0,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

2. taulan ikus daitekeenez, turista gisa irtete-formula da nagusi aintzat hartutako denbora-seriean (% 52,9 2010ean, % 54,4 2014an eta % 60,5 2018an). Protagonismo hori ahaztu gabe, baina lan-eremuarekin lotura formala duen irtete-formulari erreparatuta (“Lan-kontratuarekin”) eta lehen azalduetako datuak kontuan hartuta, nahiz eta “Lan-proposamen bat jaso” izanarekin lotutako irteteko motibazioa erantzun esanguratsua izan EABIk jasotako denbora-serie osoan zehar (% 19,7 2010ean, % 12,7 2014an eta % 13,5 2018an), egiazta daiteke aldea dagoela jatorrizko herrialdetik “Lan-kontratuarekin” ateratzearekin lotutako emaitzekin (% 13,5 2010ean, % 12,6 2014an eta % 11,2 2018an). Hau da, egiazta daiteke badagoela tarte bat lan-proposamena jaso ondoren herrialdetik ateratzea eragin duen motibazioaren eta lan-kontratu batean gauzatzearen artean. Irakurketa ugari izango lituzke horrek. Alde batetik, eta aipatutako migrazio-sareen hedapenarekin lotura argia izanik, sare horien ezaugarrietako bat da izaera informala izatea. Hau da, lan-proposamenak askotan ez dira modu formalean (lan-kontratua eta abar) jasotzen. Bestalde, eta hurrengo ataletan zehatzago azalduko den bezala, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboan enplegu irregularren presentzia esanguratsua eta kezagarria da oraindik ere.

Sexuaren aldagaia aintzat hartuta, 2. taulak erakusten du, halaber, denboraserie osoan, “Lan-kontratuarekin” erantzunak gizonen kasuan bikoiztu egiten duela proportzioa emakumeekin alderatuta. Hala ere, badirudi tarte hori murriztu egin dela urteek aurrera egin ahala (% 10,5 2010ean; % 8,6 2014an eta % 6,3 2018an), eta, era berean, maila txikiagoan bada ere, murriztu egin da herrialdetik ateratzeko tipologia horren presentzia (% 13,5 2010ean; % 12,6 2014an eta % 11,2 2018an). Baina adierazi behar da, ohikoa den bezala, gizonen eta emakumeen arteko alde hori ez dela murriztu EAera “lan-kontratuarekin” etorri diren atzerritar jatorriko emakumeen ehunekoak gora egin duelako, formula horren bidez iritsi diren gizonen ehunekoak behera egin duelako baizik. Hau da, tarte murriztu duen prozesu hori “beheranzko berdintze” ezagunaren terminoetan irakurri behar da.

Azterketarekin jarraituz, jatorrizko herrialdeen eta eremuen artean ere alde handiak nabari dira. 3. taulan ikus daitekeenez, Txinaren kasua, adibidez, oso argigarria da. “Familia-berrelkartzeari” dagokion aukeran, jatorrien arteko baliorik handienak ditu bai 2010ean (% 72) bai 2018an (% 40,4), eta 2014an (% 45), berriz, Kolonbia-Ekuador-Peru multzoak (% 45,9) baino ez ditu gainditzen. Baina arreta lan-esparruan jartzean, antzeko errealitatea nabari da. “Lan-proposamena jaso nuen” aukeraren kasuan, Txinako jatorriko pertsonak, aukera hori nabarmen jaitsi den arren, portzentajerik handienak dituzte bai 2010ean (% 47) bai 2014an (% 22,7), eta 2018an ere lehen lekuetan daude (% 20,2), eta Mendebaldeko EBtik etorritakoek soilik gainditu dituzte pixka bat (% 21,5). Hurrengo ataletan egiaztatuko dugu Txinatik etorritako pertsonak multzo osoarekin konparatuta bestelako emaitzak dituztela jatorrizko herrialdeen eremuen arabera egindako azterketan.

Lan-eremuarekin zuzenean lotutako bigarren aukeran («Lan gehiago dago»), kontuan hartu behar da osagai subjektibo esanguratsua duela erantzun horrek; izan ere, jatorrizko eta helmugako lurraldearen arteko konparazio-ariketa batetik (gehienetan, eragin handia izaten dute itxaropenek), edo aipatutako sare horietan dagoen informazioa jasotzetik etor daiteke. Denboraserie osorako balio handienak kontuan hartuz gero, Senegalen kasua nabarmentzen da. Haien erantzunen ehunekoa jatorri guztietako handiena izan zen 2010ean (% 63) eta hirugarrena, berriz, 2014an (% 57,8), Afrikako gainerako herrialdeetatik (% 58,8) eta Paraguitik (% 58,3) tarte txikira, lehena eta bigarrena, hurrenez hurren. Hala ere, aipatzekoa da 2018an Senegalgo jatorriko pertsonen artean % 17ra jaitsi zela («Lan gehiago dago») aukera, hau da, multzoaren batez bestekoaren azpitik nabarmen (% 22,4). Azalpen-faktoreetako bat izango litzateke erantzun-aukera horretan lehen aipatutako itxaropen pertsonalek izan dezaketean eragin handia, eta, kasu honetan, jaitsiera horren arrazoia izango litzateke kolektibo horrek lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituela egiaztatzea –hurrengo ataletan egiaztatu ahal izango den bezala–.

3. taula. Iragatearen motibazioa. Atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	Familia berrelkartzea	Lan-proposamena jaso nuen	Lan-gehiago dago	Errazagoa da paperak lortzea	Polizia-kontrol txikiagoa	Integraztea errazagoa	Gizarte-laguntza gehiago	Hemen bizi zen pertsona bat ezagutzen nuen	Hona etortzea gomendatu zidaten	Beste batzuk	
2010	Mendebaldeko EB	49,3	27,3	34,7	0,0	0,0	7,9	0,0	54,4	40,7	34,1
	Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	63,1	10,7	45,8	3,9	,7	13,5	10,8	68,3	40,7	24,3
	Magreb	56,4	19,6	44,3	8,2	3,1	11,4	8,9	68,5	37,6	27,3
	Argentina, Txile, Uruguai	60,3	11,6	38,3	2,0	0,0	13,8	,8	66,1	44,5	28,2
	Kolonia, Ekuador, Peru	66,6	27,9	47,2	9,2	4,9	15,5	10,3	79,8	43,7	25,7
	Bolivia	65,7	5,6	51,6	3,6	4,3	16,5	5,1	72,7	46,2	24,9
	Paraguai	69,7	15,0	60,1	4,4	4,2	16,0	4,6	80,7	40,6	17,9
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep	67,1	12,6	39,2	3,3	2,3	20,1	9,3	79,7	45,0	25,0
	Latinoamerikako gain. herrialdeak	60,2	16,5	33,8	,5	2,3	6,8	5,6	57,9	30,7	33,4
	Txina	72,0	47,0	60,7	1,2	0,0	5,8	1,8	74,2	50,8	23,1
	Senegal	50,7	22,0	63,0	11,4	4,7	14,1	5,4	69,3	37,6	11,1
	Afrikako gainerako herrialdeak	42,1	10,0	47,2	9,3	11,8	26,3	17,3	47,6	49,2	27,9
	Munduko gainerako herrialdeak	49,3	29,0	46,3	2,3	2,0	12,0	2,0	61,0	36,4	24,7
	Guztira	59,8	19,7	44,7	4,9	3,0	13,7	7,1	68,7	41,5	26,6
	2014	Mendebaldeko EB	27,4	18,8	25,6	0,0	0,0	3,1	1,1	33,7	12,3
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk		32,9	14,7	44,1	3,6	3,0	10,2	7,1	50,5	36,5	2,6
Magreb		21,8	11,3	42,5	8,0	3,8	8,4	10,3	36,4	27,8	7,4
Argentina, Txile, Uruguai		36,6	8,4	23,3	1,9	2,0	10,3	1,2	50,2	26,5	13,8
Kolonia, Ekuador, Peru		45,9	17,3	31,6	6,4	2,1	10,2	3,3	54,4	35,9	3,1
Bolivia		20,3	13,8	40,1	5,7	4,0	15,4	3,7	61,6	36,7	1,3
Paraguai		19,1	12,1	58,3	7,5	9,4	26,3	8,6	81,8	47,3	,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep		38,9	9,1	25,4	5,1	1,9	6,0	6,1	55,9	25,2	5,7
Latinoamerikako gain. herrialdeak		33,2	3,9	39,9	6,5	2,7	9,2	5,3	49,5	30,6	3,5
Txina		45,0	22,7	48,9	2,0	0,0	6,9	2,6	55,2	26,3	,6
Senegal		16,3	16,8	57,8	5,1	2,1	5,0	2,9	53,3	41,4	2,4
Afrikako gainerako herrialdeak		17,7	2,5	58,8	8,0	3,1	10,6	21,6	43,7	33,8	3,7
Munduko gainerako herrialdeak		25,0	10,4	38,4	8,0	1,9	8,1	6,8	51,1	36,7	11,2
Guztira		30,9	12,7	37,9	5,4	2,6	9,3	6,1	49,3	30,9	5,5

Hurrengo orrialdean jarraitzen du.

	Familia berrelkartzea	Lan-proposamena jaso nuen	Lan-gehiago dago	Errazago da paperak lortzea	Polizia-kontrol txikiagoa	Integrazioa errazagoa	Gizarte-laguntza gehiago	Hemen bizi zen pertsona bat ezagutzen nuen	Hona etortzea gomendatu zidaten	Beste batzuk
Mendebaldeko EB	13,1	21,5	9,1	0,0	0,0	2,2	2,5	37,6	8,2	33,4
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	8,1	16,5	23,6	,7	,7	5,0	5,2	47,7	25,3	19,3
Magreb	19,7	13,4	30,8	10,3	1,2	5,8	7,9	25,6	17,4	11,0
Argentina, Txile, Uruguai	13,8	8,9	20,8	0,0	0,0	4,4	1,6	53,7	17,4	30,7
Kolonia, Ekuador, Peru	27,1	17,6	12,4	0,0	0,0	,8	2,2	45,9	15,9	9,0
Bolivia	9,3	10,3	28,5	4,1	3,9	10,8	4,4	71,2	39,4	12,8
Paraguai	5,3	6,2	58,9	2,4	1,2	8,9	4,5	66,8	41,3	12,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep	21,6	11,6	16,8	,3	,3	7,1	4,8	58,6	32,2	14,9
Latinoamerikako gain. herrialdeak	14,0	6,1	22,4	,6	0,0	5,1	1,6	58,8	29,8	21,8
Txina	40,4	20,2	16,1	0,0	0,0	1,4	,4	48,2	20,0	17,8
Senegal	14,0	11,6	17,0	3,4	0,0	0,0	,7	46,1	15,3	25,9
Afrikako gainerako herrialdeak	14,1	6,2	25,1	8,1	0,0	2,1	6,1	46,7	21,3	14,8
Munduko gainerako herrialdeak	25,1	16,0	26,3	,8	0,0	4,1	4,2	44,9	21,0	12,8
Guztira	17,9	13,5	22,4	2,7	,6	4,4	4,0	47,3	22,4	16,4

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Aurrez azaldu ditugun errealitateen emaitza gisa (iragateko estimuluak, irtete-formulak eta abar), eta familia-galdetegiak eman duen argazkia erabilita, lehenik eta behin, esan behar da Euskadiko etxeetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen jardueraren egoeraren funtsezko ezaugarria dela aintzat hartutako denbora-seriean soldatapeko enplegua dela nagusi, bai aldi baterakoa, bai mugagabea: % 36,1 2010ean; % 32,1 2014an eta % 39,1 2018an. Sexuaren aldagaia aintzat hartuta, 4. taulan ikus daitekeenez, soldatapeko enplegua (aldi baterakoa edo mugagabea) dutela dioten emakumeen ehunekoak gizonenak baino handiagoak dira, eta emakumeen aldeko balio positiboak mantendu egin dira denbora-serie osoan zehar: % 3,9 2010ean, % 9,2 2014an eta % 2,9 2018an.

4. taula. Jardueraren egoera. Atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira
Bere kontura lan egiten du	9,2	3,6	6,3	8,8	3,9	6,2	10,7	4,0	7,0
Senitarteko baten negozioan lan egiten du	0,1	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,0	0,1	0,1
Soldatapeko enplegua, aldi baterakoa edo mugagabea	34,1	38,0	36,1	27,2	36,4	32,1	37,5	40,4	39,1
Aldi baterako baja, gaixotasunagatik edo amatasunagatik	0,3	0,5	0,4	0,3	0,4	0,3	0,6	0,7	0,7
Etxeaz arduratzen da	0,2	16,2	8,4	0,3	11,5	6,2	0,1	13,7	7,6
Ikaslea	25,0	20,6	22,7	23,8	20,0	21,8	29,0	22,5	25,4
Erretiraturua	0,9	0,7	0,8	2,2	1,5	1,9	2,4	2,0	2,2
Baliaezintasunagatik erretiraturua	0,8	0,3	0,6	0,5	0,3	0,4	0,7	0,6	0,7
Lanerako ezindua	0,2	0,7	0,5	0,3	0,3	0,3	0,2	0,1	0,2
Errentaduna	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,2	0,1
Langabezian	25,4	17,7	21,4	32,1	23,1	27,4	14,1	12,6	13,3
Bestelako pertsona ez-aktiboak	3,8	1,6	2,7	4,5	2,3	3,3	4,5	3,2	3,8
Zaintzaile ez profesionala	0,0	0,1	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritzza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Bigarrenik, azpimarratu behar da presentzia handia duela “ikaslea” egoerak: 2010ean % 22,7, 2014an % 21,8 eta 2018an % 25,4. Kasu horretan, errealitate hori ehunekoetan handiagoa da gizonen artean, eta ehunekoetan alde handiak daude haien alde: % 4,4 2010ean, % 3,8 2014an eta % 6,5 2018an.


Hirugarrenik, eta oraindik ere ehunekoetan oso kopuru txikiak izan arren, agerian geratu da gora egin duela “erretiraturua” egoerak: 2010ean % 0,8 izatetik, % 1,9ra bikoiztu zen 2014. urtean, eta gorako joerarekin mantendu zen 2018an (% 2,2). Kasu honetan ere, esan behar da errealitate horrek ehunekoetan eragin handiagoa duela gizonengan emakumeengan baino, gizonen aldeko aldeekin (% 0,2 2010ean; % 0,7 2014an eta % 0,4 2018an).

Azkenik, bereziki adierazgarria da langabezia-egoeraren jaitsiera, zehaztuko dugunez, EAEko biztanleria osora zabal daitekeen prozesu batekin bat etorriko litzatekeena. Hala, atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, 2018an % 13,3ra iritsi zen, eta hautsi egin zuen aurreko denbora-mugarrietan izandako goranzko joera: % 21,4 2010ean eta % 27,4 2014an. Langabezia-egoeraren kasuan, batez ere gizonak protagonista izan diren arren, nabarmen jaitsi da emakumeen eta gizonen artean zegoen ehuneko-aldea: % 7,7 2010ean; % 9,0 2014an eta % 9,0 2014an.

Azken alderdi horri dagokionez, hau da, langabeziaren beherakada, beharrezkoa da beste iturri batzuek ematen diguten ikuspegia aintzat hartzea, errealitate hori testuinguru egokian kokatu behar dela eta esparru global batetik ulertu behar dela azpimarratzeko.

Helburu horrekin, eta 1. grafikoan egiazta daitekeenez, langabezia-tasak, nazionalitatearen arabera bereizita¹ (espainiarra eta atzerriarra), eragin historiko, desberdin eta biderkatua ageri du atzerriko nazionalitatea duten pertsonengan. Errealitate hori (hiru hilean behin gorabehera nabarmenagoak ditu atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kolektiboan) eskuragarri dagoen eta EABIren garapenarekin bat datorren denbora-serie osoan mantendu da, 2002ko lehen hiruhilekoari dagozkion datuetan izan ezik. 1. grafikoak erakusten du, halaber, batez ere 2011tik aurrera, EAEn bizi diren atzerriko nazionalitateko biztanleen kasuan, langabezia-tasaren eragin-datuak hirukoiztu egin zirela Espainiako nazionalitatea duten biztanleen aldean. Bi zifra nabarmentzen dira. Alde batetik, inpaktu handieneko unean gertatu da arrakala handiena, hau da, 2014ko lehen hiruhilekoan, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen (45,01) eta Espainiako nazionalitatea duten biztanleen (15,48) arteko aldea 29,53 puntukoa baita, eta horrenbestez, langabezia-tasa hirukoiztu egin da ehunekoetan. Bestalde, 2018ko datuei dagokienez, eragin-arrakalak bere horretan jarraitu du: atzerriko nazionalitatea duten biztanleen langabezia-tasa (25,84) Espainiako nazionalitatea duten biztanleena (8,37) halako hiru da. Hau da, erasan desberdina erakusten du.

1. grafikoa. Langabezia-tasa hiruhilekoen arabera (EAE). Espainiako eta atzerriko nazionalitatea. 2002-2018 urteak




Iturria: INE

¹ Kasu honetan, eta antzeko ezaugarriak dituzten beste azterlan batzuen logikari jarraituz (Ikuspegi, 2020), aldagai hori erabili da konparazioa egiteko formula gisa, ahaztu gabe, adibidez, nazionalitate bikoitza duten pertsonak (Espainiako eta beste bat) Espainiako nazionalitatea dutenekin sartu direla, eta Espainiako nazionalitatea duten pertsonen taldean ere badagoela iragatea egin duten pertsonen ehuneko bat. Laburbilduta, ariketa hau, adierazitako erreserbekin, helburu konparatiboa gauzatzeko bide gisa erabili da, nabarmendu nahi baita enplegurako sarbidea desberdina dela jatorriaren eta nazionalitatearen arabera.

Azaldutako datuak sexuen arabera bereizita, bi alderdi nabarmentzen dira, 2. grafikoa ageri direnak. Alde batetik, aipatutako hiruhileko gorabehera handiago horimantendueginda atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kasuan. Bestalde, langabeziak eragin garbiagoa du atzerriko nazionalitatea duten gizonengan. Gertaera hori bereziki nabarmena da 2011. urtetik aurrera (alde handia dago atzerriko nazionalitatea duten gizonen eta emakumeen balioen artean), denboraserieko azken datuek adierazten badute ere parekatzeko joera dagoela EAEn bizi diren atzerriko nazionalitateko gizonen eta emakumeen langabezia-tasetan. Hala ere, eta gero enplegu-tasen azterketaren bidez egiaztatuko den bezala, atzerriko nazionalitatea duten pertsonen kolektiboan emaitzek erakutsi dute, batzuetan, portaera-jarraibideak desberdinak direla Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean identifikatutakoekin alderatuta. Hala, sexuen arteko konparazioaren ikuspegitik begiratuta, langabezia-tasaren kasuan, esan daiteke gizonak nagusi direla atzerriko nazionalitatea duten gizonen kasuan, Espainiako nazionalitatea duten emakumeen protagonismo historikoaren aurrean. Eragin desberdinaren egoera horren arrazoi izango lirateke lan-merkatuan sartzeko tipologia eta sektoreek (maskulinizazio- edo feminizazio-maila desberdinekin) egiten dituzten eskaerak.

2. grafikoa. Langabezia-tasa hiruhilekoen arabera (EAE). Espainiako eta atzerriko nazionalitatea (Sexuak). 2002-2018 urteak



Iturria: INE

Laburbilduta, nahiz eta nabaria den atzerritar jatorriko biztanleriaren langabeziak behera egin duela 2018ko EABIren emaitzetan, nazionalitatearen aldagaia aintzat hartuta aztertzeko beste iturri batzuetara jotzeko aukerak (nahiz eta ez den interpretatu behar jatorriaren araberrako emaitzekin bat baletor bezala), erakutsi digu hobekuntza-logika orokor baten esparruan gertatu dela jaitziera, baina ez dela ahaztu behar taldeen artean oraindik oso desberdina dela sarbide hori.

Jarduera-egoerari buruzko lehen hurbilketa hori hainbat iturritatik egin ondoren, EABIk ematen duen 2018ko errealitatean jarriko dugu arreta. 5. taulan ikus

daiteke alde nabarmenak daudela emaitzak EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen jatorri geografikoaren ikuspegitik begiratuta aztertzean. Berrito azpimarratu beharreko alderdien artean, nabari den aldakortasun handia egongo litzateke. Esate baterako, gehiengoaren egoerari heltzen badiogu, hau da, “Soldatapeko enplegua, aldi baterakoa edo mugagabea” (% 39,1), balio desberdinak daude, % 55,6 Kolonbian, Ekuadorren eta Perun edo % 57,2 Latinoamerikako gainerako herrialdeetan eta % 14,7, berriz, Txinaren kasuan. Gertaera hori, lehen adierazi den bezala eta gainerako ataletan egiaztatuko den bezala, Txinatik datorren migrazio-zirkulazioaren espezifikotasunarekin lotuta dago, eta, hurrengo taulan ikus daitekeenez, bereziki lotuta dago “Besteren konturako lanari” (% 37,6) edo “Senitarteko baten negozioan lan egiteari” (% 1,2) lotutako enplegu-aukerak ireki ondoren laneratzearekin. Bi ehuneko horiek dira kategoria bakoitzeko altuenak.

5. taula. Jardueraren egoera. Atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2018 urtea

	Mendealdeko EB	Errumania eta Ekialdeko EBko beste herr. batzuk	Magreb	Argentina, Txile, Uruguai	Kolonia, Ekuador, Peru	Bolivia	Paraguai	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	Latinoamerikako gain. herrialdeak	Txina	Senegal	Afrikako gainerako herrialdeak	Munduko gain. herrialdeak	Guztira
Bere kontura lan egiten du	15,2	5,6	3,9	11,3	5,6	5,4	2,0	7,2	4,7	37,6	2,8	2,2	9,8	7,0
Senitarteko baten negozioan lan egiten du	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	1,2	0,0	0,0	0,2	0,1
Soldatapeko enplegua, aldi baterakoa edo mugagabea	38,6	40,9	19,9	42,7	55,6	44,6	66,6	45,0	57,2	14,7	35,1	22,7	33,9	39,1
Aldi baterako baja, gaixotasunagatik edo amatasunagatik	1,2	0,5	0,6	1,1	1,0	0,9	0,5	0,2	1,1	0,3	1,0	0,4	0,0	0,7
Etxeaz arduratzen da	10,8	7,5	14,3	6,3	3,6	1,6	5,1	5,6	3,5	5,4	4,9	9,6	8,3	7,6
Ikaslea	14,3	28,7	36,3	17,3	16,4	29,2	15,5	18,6	14,6	33,9	29,3	38,3	28,8	25,4
Erretiratua	11,7	1,5	0,8	7,8	1,3	0,0	0,0	1,7	1,8	0,7	0,0	0,9	2,1	2,2
Baliaezintasunagatik erretiratua	1,4	0,8	1,0	0,4	0,4	0,7	0,3	0,3	0,8	0,0	0,0	0,0	0,8	0,7
Lanerako ezindua	0,0	0,2	0,2	0,0	0,0	0,3	0,0	0,4	0,1	0,0	0,0	0,6	0,5	0,2
Errentaduna	0,0	0,0	0,5	0,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1
Langabezian	5,4	10,0	16,1	10,5	13,4	14,8	9,2	18,6	13,7	0,9	21,6	20,4	10,3	13,3
Bestelako pertsona ez-aktiboak	1,4	4,3	6,5	1,6	2,6	2,3	0,9	2,4	2,3	5,3	5,4	4,9	5,3	3,8
Zaintzaile ez profesionala	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2018. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

5. taulan azaldutako emaitzekin eta aipatutako jatorriaren arabera errealtate desberdinekin bat etorritik, langabezia-egoeraren azterketak eragin biderkatuak ditu abiapuntuko eremu geografikoaren arabera. Hala, mutur batean daude Senegal (% 21,6) edo Afrikako gainerako herrialdeak (% 20,4), eta, beste muturrean, berriz ere, Txina (% 0,9) eta Mendebaldeko Europako Batasuneko jatorrizko pertsonak (% 5,4).

Lan-eremuan sartzeko tipologia: nahietatik mugetara

Lan-eremuarekiko loturaren nagusitasuna egiaztatu ondoren, alderdi nagusietako bat sarbide-tipologiari dagokiona da, hau da, zer enplegu motatara irits daitezkeen. Lehenik eta behin, eta motibazioen esparru landuarekin lotuta, non erakusten baitzen enplegua funtsezko elementua zela joan-etorrien abiarazle gisa, nahi izaniko sarbidearen nagusitasuna azpimarratu dute datuek, nahiz eta oztopo kezkarri batzuk ere badauden (lurralde-mugak, irregularitasuna eta abar).

Lana egiteko nahi eta motibazio horren ildotik, eta 6. taulan ikus daitezkeen bezala, lan egin nahi ez duten 16 eta 66 urte arteko atzerritar jatorriko pertsonen proportzioa % 9,5 baino ez zen 2010ean, % 5,5 2014an eta % 7,6 2018an. Hau da, 2018. urtean gorakada txiki bat izan bada ere 2014ko beherakada handiarekin alderatuta, lan egiteko nahia nabarmena da EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsonen artean. Sexuaren aldagaian sakontzean, egiaztatu da emakumeek “Ez du lan egin nahi” erantzuna gehiago ageri da emakumeen artean. Hala, erantzun hori eman duten emakumeak % 2 gehiago dira 2010ean, % 1,2 2014an eta % 3,9 gehiago, berriz, 2018an. Beraz, urte horretan dago alde handiena erantzun horretan.

6. taula. Sarbide-tipologia. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
Ez du lan egin nahi	8,5	10,5	9,5	4,9	6,1	5,5	5,4	9,3	7,6
Soilik enplegu irregularrak	10,7	10,8	10,7	9,1	6,9	8,0	6,3	5,8	6,0
Denak, mugarik gabe	80,0	77,8	78,8	86,0	86,5	86,2	88,3	84,6	86,2
Lurraldearen eta jarduera-adarraren muga	0,8	1,0	0,9	0,0	0,5	0,3	0,0	0,2	0,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Enpleguetarako sarbide-motari dagokionez, denbora-serieak agerian utzi du –Denak, mugarik gabe– erantzuna dela gehiengoa eta itxuraz goranzko joera duela, 2018an hazkundea gelditu egin baita: % 78,8 2010ean, % 86,2 2014an eta % 86,2 2018an. Laburbilduz, EAEn edozein motatako enpleguan hasteko moduan daude 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanle gehienak.

Aurrez aipatutako oztopoei dagokienez, bi errealitate nabarmendu daitezke. Lehenik eta behin, lurraldearen edo jarduera-adarraren mugek % 0,1i soilik eragiten diote. 2010eko (% 0,9) eta 2014ko (% 0,3) balioekiko etengabeko atzerakadaren ondotik dator errealitate hori. Hala ere, berriz ere, oztopo handiagoak dituzte (eta izan dituzte) emakumeek. Hala, denbora-seriearen azken bi mugarrietan (2014 eta 2018) ehuneko 0 bada ere gizonen kasuan (2010ean, aldiz, % 0,8), emakumeen kasuan beherakada nabarmena gertatu da, haien presentzia ez bada desagertu ere: % 1,0 2010ean, % 0,5 2014an eta % 0,2 2018an.

Bigarrenik, enplegu irregularrak soilik lor ditzaketen pertsonen proportzioari dagokionez, izateagatik soilik errealitate oso kezagarria izanik (xeheago aztertuko dugu hurrengo ataletan), ehunekoek behera egin dute: 2010eko % 10,7tik 2014ko % 8ra eta 2018ko % 6ra. Oraingoan, gizonak dira, 2010. urtean izan ezik (orduan aldea emakumeen aldekoa baitzen % 0,1ean), eragin-maila handiagoa dutenak: % 2,2 2014an eta % 0,5 2018an.

Enplegu irregularrak soilik lortu ahal izateko problematikak eragin desberdina du jatorriaren arabera ere. Hala, 7. taulan ikus daitekeenez, 2018an errealitate hori % 5,6 eta % 7,1 artean zegoen jatorria Magreben eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan duten pertsonen kasuan. Eragin hori handiagoa da Paraguitik, Senegaldik eta Munduko gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonetan, % 9,7tik % 11,9ra arteko zifrekin. Azkenik, proportzioa % 15,7ra iristen da Latinoamerikako gainerako herrialdeen kasuan eta % 20,5eko maximora Afrikako gainerako herrialdeetan, horixe izanik 2018an 2010eko eta 2014ko mailak gainditu dituen kolektibo bakarra. Azkenik, nabarmendu behar da errealitate hori ezabatu egin dela Mendebaldeko EBko herrialdeen kasuan eta Errumaniaren eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuen kasuan.

7. taula. Sarbide-tipologia. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	Ez du lan egin nahi	Soilik enplegu irregularrak	Denak, mugarik gabe	Lurraldearen eta jardueradarraren muga	Guztira	
	%	%	%	%	%	
2010	Mendebaldeko EB	11,6	0,7	87,6	0,0	100,0
	Errumania eta Eki. EBko beste herr.batzuk	7,9	0,6	91,5	0,0	100,0
	Magreb	12,1	8,3	79,3	0,3	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	12,1	7,9	78,7	1,3	100,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	10,5	7,3	82,0	0,2	100,0
	Bolivia	14,2	15,4	66,7	3,7	100,0
	Paraguai	5,0	40,4	49,4	5,2	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	10,5	13,5	74,7	1,2	100,0
	Latinoamerikako gain. herrialdeak	2,5	20,1	75,8	1,7	100,0
	Txina	5,5	2,5	89,2	2,7	100,0
	Senegal	1,7	30,6	66,4	1,3	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	10,4	19,7	69,9	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	3,2	24,2	72,2	0,5	100,0
	Guztira	9,5	10,7	78,8	0,9	100,0
	2014	Mendebaldeko EB	5,9	0,0	94,1	0,0
Errumania eta Eki. EBko beste herr.batzuk		5,4	0,0	94,6	0,0	100,0
Magreb		7,6	8,7	83,7	0,0	100,0
Argentina, Txile, Uruguai		4,7	1,5	92,6	1,2	100,0
Kolonia, Ekuador, Peru		5,4	1,1	93,5	0,0	100,0
Bolivia		4,4	6,6	88,3	0,7	100,0
Paraguai		1,7	19,5	76,9	2,0	100,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.		8,4	6,9	84,7	0,0	100,0
Latinoamerikako gain. herrialdeak		5,2	27,2	66,5	1,1	100,0
Txina		2,5	0,5	96,5	0,5	100,0
Senegal		4,6	15,4	80,0	0,0	100,0
Afrikako gainerako herrialdeak		4,8	18,9	76,3	0,0	100,0
Munduko gainerako herrialdeak		4,2	18,6	77,2	0,0	100,0
Guztira		5,5	8,0	86,2	0,3	100,0
2018		Mendebaldeko EB	12,1	0,0	87,9	0,0
	Errumania eta Eki. EBko beste herr.batzuk	9,6	0,0	90,4	0,0	100,0
	Magreb	13,1	7,1	79,1	0,7	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	4,5	2,1	93,4	0,0	100,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	4,8	1,1	94,2	0,0	100,0
	Bolivia	9,2	1,9	88,9	0,0	100,0
	Paraguai	3,1	11,9	85,0	0,0	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	4,2	5,6	90,1	0,2	100,0
	Latinoamerikako gain. herrialdeak	3,6	15,7	80,7	0,0	100,0
	Txina	9,1	0,0	90,9	0,0	100,0
	Senegal	3,1	10,3	86,6	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	7,1	20,5	72,4	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	9,0	9,7	81,3	0,0	100,0
	Guztira	7,6	6,0	86,2	0,1	100,0

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Lan-esperientzia Euskadin: kontaktu nagusia

Aipatutako lan-motibazio horren ondorioz, joan-etorriaren eragile nagusietako bat izanik, eta lan egiteko nahiak markatutako sarbide-tipologiaren ondorioz, 16-66 urteko atzerritar jatorriko 128.950 lagunek izan dute noizbait lan esperientzia bat EAEn. 2018an, adin-tarte horretako etorkinen % 81,2 hartzen ditu pertsona-kopuru horrek, hau da, ehuneko handiena 2010eko % 78,8tik eta 2014ko % 76,8tik. Laburbilduz, agerikoa da gora egin duela Euskadin bizi diren eta lurraldean lan-esperientzia dutela dioten atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoak.

8. taulan ikus daitekeen bezala, emakumeen kasuan nabarmen gora egin du lan-esperientziak: % 75,1 2010ean, % 76,3 2014an eta % 80,1 2018an. Emaitza gisa, eta, esate baterako, irtete-errealitateetan ikusten zen beheranzko berdintzea ez bezala, kasu honetan, 2010eko lan-esperientziaren arrakala historikoa (% 7,8ko aldea gizonen alde), % 1,1era jaitsi da 2014an, 2018an % 2,6 gora egin badu ere, Euskadin lan-esperientziaren hazkundea handiagoa gizonen kasuan handiagoa baita emakumeen kasuan baino.

8. taula. Lan-esperientzia Euskadin. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
Bai	82,9	75,1	78,8	77,4	76,3	76,8	82,7	80,1	81,2
Ez	17,1	24,9	21,2	22,6	23,7	23,2	17,3	19,9	18,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010 – 2018. Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Jatorrizko herrialde eta eremu nagusien ikuspegitik, eta 9. taulan ikus daitekeenez, 2018an, emaitzak % 88,3 eta % 94,8 artean zebiltzan Latinoamerikatik (Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika izan ezik) eta Txinatik etorritako ia talde guztietan. EAeko batez bestekoaren gainetik daude, halaber, % 82,4 eta % 84,8 artean, jatorria mendebaldeko EBko herrialdeetan, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Senegalen duten pertsonak. Jatorriari dagokionez, batez bestekoaren azpitik, % 75,2 eta % 78,9 artekoak dira Munduko gainerako herrialdeak, Errumania eta ekialdeko EBko gainerako herrialdeak. Euskadin aurretik lan-esperientzia duten 16 urtetik gorako pertsonen ehunekoa Magreben (% 62,8) eta Afrikako gainerako herrialdeetan (% 63,8) bakarrik da nabarmen txikiagoa. Lehen taldearen kasuan, gainera, esan daiteke egoera mantendu egin dela; izan ere, esperientzia-maila txikiago hori ageri zen 2010ean (% 62,3) eta 2014an (% 63,1). Afrikako gainerako herrialdeen kasuan, gorakada nabarmena izan da 2014ko % 54,2tik, baina oraindik ez da iritsi 2010eko % 66ra.

Azkenik, Txinakoak dira serie historikoan lan-esperientziarik ezaren ehuneko txikiak adierazi dituztenak (% 11,5 2010ean eta % 6,8 2014an). Gertaera horrek lotura izango luke herrialde horretatik etorritako pertsonen ehuneko handi batek hona etortzeko motibazioen artean lan-eskaintza bat izatea adierazi izanarekin. Hala ere, Euskadin lan-esperientziarik ezaren balio txikiaren nagusitasun historiko hori Argentina-Txile-Uruguai (% 5,2), Paraguaik (% 6,7), Kolonbia-Ekuador-Peru (% 9,3) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeek (% 10,5) betetzen dute 2018an, eta Txinak, berriz, % 11,2.


9. taula. Lan-esperientzia Euskadin. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010		2014		2018	
	%		%		%	
	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Mendebaldeko EB	82,0	18,0	82,7	17,3	84,8	15,2
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	80,4	19,6	75,8	24,2	78,9	21,1
Magreb	62,3	37,7	63,1	36,9	62,8	37,2
Argentina, Txile, Uruguai	78,8	21,2	88,0	12,0	94,8	5,2
Kolonbia, Ekuador, Peru	86,7	13,3	84,8	15,2	90,7	9,3
Bolivia	80,4	19,6	86,2	13,8	88,3	11,7
Paraguai	85,9	14,1	92,2	7,8	93,3	6,7
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	73,2	26,8	82,1	17,9	82,4	17,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	88,4	11,6	78,8	21,2	89,5	10,5
Txina	88,5	11,5	93,2	6,8	88,8	11,2
Senegal	75,4	24,6	72,4	27,6	84,5	15,5
Afrikako gainerako herrialdeak	66,0	34,0	54,2	45,8	63,8	36,2
Munduko gainerako herrialdeak	80,4	19,6	61,3	38,7	75,2	24,8
Guztira	78,8	21,2	76,8	23,2	81,2	18,8

Iturria: EABI 2010 – 2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Beste iturri batzuetara jota (INE), 3. grafikoak adierazten du, salbuespen jakin batzuetan izan ezik, atzerriko nazionalitatea duten EAeko biztanleak enplegutasun handiagoak dituztela Espainiako nazionalitatea dutenek baino. Hau da, lan egiteko adinean dauden atzerriko biztanleen okupazio-ehunekoak Espainiako nazionalitatekoenak baino handiagoak dira.


3. grafikoa. Enplegu-tasa (EAE). Espainiako eta atzerriko nazionalitatea. 2002-2018 urteak



Iturria: INE

Azterketa konparatiboarekin jarraituz, 4. grafikoak erakusten du atzerriko nazionalitatea duten emakumeen enplegu-tasek antz handiagoa dutela Espainiako nazionalitatea duten gizonen enplegu-tasekin Espainiako nazionalitatea duten emakumeenekin baino. Era berean, atzerriko nazionalitatea duten gizonen eta emakumeen enplegu-tasek emaitza parekoagoak erakusten dituzte, oro har, Espainiako nazionalitatea duten gizonen eta emakumeen artean baino. Hau da, enplegu-tasetan dagoen genero-aldea txikiagoa da atzerriko nazionalitatea duten gizonen eta emakumeen artean Espainiako nazionalitatea duten gizonen eta emakumeen artean baino. Zehazki, aintzat hartutako denbora-seriearen (2002-2018) batez bestekoak 15,27 puntuko aldea erakusten du gizonen alde Espainiako nazionalitateko biztanleen kasuan, eta 4,82 puntuko aldea, berriz, atzerriko nazionalitatekoen kasuan.

4. grafikoa. Enplegu-tasa (EAE). Espainiako eta atzerriko nazionalitatea (Sexua). 2002-2018 urteak



Iturria: INE

Enplegu-kopurua: sarbidea eta ezegonkortasuna

Aurreko atalean egiaztatu ahal izan da EAEn bizi diren atzerritar jatorriko pertsona gehienek dutela lan-esperientzia. Hala ere, lan-eremuarekiko kontaktu hori denbora laburrean eta enplegu askoren bidez gertatzen denean, behin-behinekotasunaren eta, beraz, lan-prekarietatearen adierazle da. Ondoren, galdetegia egin aurreko urtean lan-eremuarekin izandako kontaktua aztertuko da (EABIren denbora-serieko urte guztietara zabal daiteke).

10. taulako emaitzetatik ondorioztatzen denez, 2018an, 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleen % 86,5ek izan du kontaktua enpleguarekin azken urte horretako uneren batean. Kopuru hori hurbil dago 2010eko % 86,7tik, baina ehuneko hamar puntuko igoera dakar 2014ko % 76,8arekin alderatzen badugu. Hala ere, 2018an % 13,5ek ez zuen inolako enplegurik lortu, 2010ean, berriz, % 13,3k, baina 2014ko datuekin alderatuta, nabarmen egin du hobera (% 23,2).

10. taula. Enplegu-kopurua azken urtean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

		Enplegu bat ere ez	1 enplegu	2-3 enplegu	4 enplegu edo gehiago
		%	%	%	%
2010	Gizona	11,1	77,2	10,0	1,7
	Emakumea	15,4	68,2	15,6	0,9
	Guztira	13,3	72,6	12,8	1,3
2014	Gizona	26,2	66,4	6,5	0,9
	Emakumea	20,6	69,5	9,2	0,8
	Guztira	23,2	68,0	8,0	0,8
2018	Gizona	12,6	76,7	8,4	2,3
	Emakumea	14,2	65,6	17,4	2,7
	Guztira	13,5	70,5	13,5	2,5

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

10. taulan sexuaren aldagaia aintzat hartuta egindako azterketaren arabera, 2018an enpleguren bat lortzeko aukera txikiagoa dute emakumeek gizonek baino: % 14,2 emakumezkoetan eta % 12,6 gizonezkoetan. Hala ere, errealitate hori hurbilago dago 2010ekotik (% 15,4 eta % 11,1, hurrenez hurren) 2014kotik baino (% 15,1), pixka bat hobetu bada ere. Urte horretan (2014), emakumeek "Enplegu bat ere ez" egoera gutxiago adierazi zituzten (% 20,6) gizonek baino (% 26,2). Gertaera hori oso lotuta zegoen ekonomiaren susperraldian oso feminizatuak zeuden enpleguak (zaintzak, zerbitzuak, etab.) sortzeko prozesuarekin. Joera horri esker, 2018an adierazi bezala 2010eko egoerara itzuli den arren, murriztu egin da emakumeen eta gizonen arteko aldea.

Kalitateari dagokionez, enpleguaren egonkortasunaren adierazle bat da lanpostu bakar batean aritu izana. Horren harira, 2018an biztanleriaren % 70,5ek adierazi du egoera hori. Kopuru hori handiagoa da 2014ko % 68a baino, baina 2010eko % 72,6aren azpitik dago. Arlo horretan bertan, baina kontrako norabidean, ikusi daiteke, halaber, enplegu gehiagotatik pasa direla, egiaztatu baita bi enplegu edo gehiago lortu dituzten pertsonen kopurua dela (“2-3 enplegu” eta “4 enplegu edo gehiago” kategoriak barne) gehien hazi dena: % 16 2018an, % 8,8 2014an eta % 14,1 2010ean.

Azken adierazle hori sexuaren aldagaiaren arabera aztertzeko ikuspegiari berriro helduta, 2018an bi enplegu edo gehiago (“2-3 enplegu” eta “4 enplegu edo gehiago” kategoriak batuta) izan zituzten pertsonen ehunekoa ia bikoitza da emakumeen kasuan gizonekin alderatuta (% 20,1 eta % 10,7, hurrenez hurren). 2018ko errealitate horrek argi eta garbi adierazten du emakumeen kasuan ezegonkortasun handiagoa dagoela enpleguan —enplegu feminizatuenean ezegonkortasunarekin lotuta—, eta denbora-serieko haustura handiena erakusten du, baina argi dago 2010ean (% 16,5 emakumeetan eta % 11,7 gizonetan) eta 2014an (% 10,0 emakumeetan eta % 7,4 gizonetan) gertatu ziren errealitateen jarraipena dela.

Adinaren aldagaia da atzerritar jatorriko kolektiboaren barruan lan-merkatura sartzeko aukera bikoitza ulertzeko ezinbestekoa den beste azterketa-aldagaietako bat. Kasu honetan, eta 2018ko errealitateari erreparatuta, 11. taulan egiaztatu da pertsona gazteenak direla (16-24) enplegu gehien lortu dutenak (% 95), baina, aldi berean, horiek dira enpleguan (“2-3 enplegu” eta “4 enplegu edo gehiago” kategoriak batuta) ezegonkortasun handiena dutenak (% 26,9).

11. taula. Enplegu-kopurua azken urtean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, adin-taldeen arabera. 2018. urtea

		Enplegu bat ere ez	1 enplegu	2-3 enplegu	4 enplegu edo gehiago
		%	%	%	%
2018	16-24 urte	5,0	68,1	23,1	3,8
	25-44 urte	10,5	72,9	14,2	2,4
	45-64 urte	17,2	68,3	11,9	2,6
	65 urte edo gehiago	56,6	37,2	1,9	4,4
	Guztira	13,5	70,5	13,5	2,5

Iturria: EABI 2018. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOBP

Azken urtean enplegua lortu ez duten biztanleak jatorriaren arabera aztertzean (12. taula), alde nabarmenak nabari dira. Arreta 2018an jartzen badugu, eta hasieran EAEko batez bestekotik beherako emaitzetan (% 13,5), berriz ere ikus daiteke (aurretik egindako azterketekin jarraituz) Txinako biztanleen % 2k bakarrik ez duela lortu enpleguaren bat azken hamabi hilabeteetan.

Proporzio hori % 5,5ekoa da Latinoamerikako gainerako herrialdeetan, eta % 8,7tik % 12ra bitartekoa Errumaniatik eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuetatik, Kolonbia/Ekuador/Perutik, Paraguitik eta Senegaldik etorritako biztanleen artean. Batez bestekoa gainditzen duten zifrak kontuan hartzen badira (% 14,3 eta % 17,4 artean), Mendebaldeko EBko herrialdeetan, Argentina/Txile/Uruguain, Bolivian, Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan eta Munduko gainerako herrialdeetan jatorria duten pertsonak daude balio horietan. Eta maximoetan, % 23,1 eta % 26,8 artean, Magrebetik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleak daude. Berriz ere, errealitate horiek jarraipena dute denboran. Hau da, 12. taulan ikus daitekeenez, kolektibo bakoitzean denboran zehar mantendu diren logika orokorreari erantzuten diete inpaktu handiagoko edo txikiagoko mailek, eta, esate baterako, Magrebetik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonen kasuan enplegurako sarbide txikiago horrek bere horretan jarraitzen du, bi jatorrizko eremu horiek izanik 2010-2014-2018 denbora-seriean zehar balio handienak izan dituztenak.

12. taula. Enplegu-kopurua azken urtean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremuaren arabera. 2010-2018 urteak

		Enplegu bat ere ez	1 enplegu	2-3 enplegu	4 enplegu edo gehiago	
		%	%	%	%	
2010	Mendebaldeko EB	18,1	78,7	2,8	0,5	
	Errumania eta Eki. EBko beste herr. batzuk	14,5	70,7	13,0	1,8	
	Magreb	19,5	70,9	8,3	1,4	
	Argentina, Txile, Uruguai	7,1	75,0	15,7	2,2	
	Kolonbia, Ekuador, Peru	10,5	66,8	21,7	1,0	
	Bolivia	8,0	70,6	20,5	0,8	
	Paraguai	6,4	63,1	26,0	4,5	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	15,6	73,6	9,4	1,4	
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	2,5	83,1	12,2	2,2	
	Txina	0,7	94,5	4,8	0,0	
	Senegal	9,5	67,0	17,9	5,6	
	Afrikako gainerako herrialdeak	28,8	67,6	3,6	0,0	
	Munduko gainerako herrialdeak	20,4	74,6	5,0	0,0	
	Guztira	13,3	72,6	12,8	1,3	
	2014	Mendebaldeko EB	22,3	75,0	2,7	0,0
		Errumania eta Eki. EBko beste herr. batzuk	19,1	68,2	12,1	0,6
Magreb		44,3	51,9	3,9	0,0	
Argentina, Txile, Uruguai		16,6	74,6	8,8	0,0	
Kolonbia, Ekuador, Peru		22,8	69,7	6,8	0,7	
Bolivia		11,7	69,7	16,9	1,6	
Paraguai		11,1	72,8	13,5	2,6	
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika		25,5	62,2	9,7	2,7	
Latinoamerikako gainerako herrialdeak		9,2	78,6	11,0	1,2	
Txina		5,4	91,5	3,1	0,0	
Senegal		39,5	59,3	0,6	0,6	
Afrikako gainerako herrialdeak		52,6	43,6	1,2	2,6	
Munduko gainerako herrialdeak		17,1	73,0	9,9	0,0	
Guztira		23,2	68,0	8,0	0,8	

Hurrengo orrialdean jarraitzen du.

		Enplegu bat ere ez	1 enplegu	2-3 enplegu	4 enplegu edo gehiago
		%	%	%	%
2018	Mendebaldeko EB	14,3	73,4	10,9	1,4
	Errumania eta Eki. EBko beste herr. batzuk	10,2	73,9	13,2	2,7
	Magreb	23,1	66,2	8,2	2,6
	Argentina, Txile, Uruguai	17,4	69,5	12,5	0,6
	Kolonia, Ekuador, Peru	10,0	72,1	15,1	2,8
	Bolivia	17,2	58,6	22,8	1,4
	Paraguai	8,7	70,5	18,6	2,2
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	14,9	69,2	14,5	1,4
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	5,5	73,9	16,7	4,0
	Txina	2,0	94,2	3,7	0,0
	Senegal	12,0	79,4	5,7	3,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	26,8	54,5	12,6	6,1
	Munduko gainerako herrialdeak	14,4	72,8	10,1	2,8
	Guztira	13,5	70,5	13,5	2,5

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOBP

Enplegu irregularren moduak: prekarietatearen adierazpen gorena

Aurreko ataletan, lan-merkatuan sartzeko esperientzian jarri dugu arreta, haren baldintzak kontuan hartu gabe. Horren harira, eta atal honen izenburuan azpimarratu den bezala, lan-merkatuan sartzeko bideetako bat irregulartasuna da, prekarietatearen adierazpen gorena. Errealitate hori nabarmena da oraindik ere EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen kasuan. Haren adierazpen batzuk ikusiko ditugu ondoren.

13. taulan ikus daitekeen bezala, Euskadin lanerako adinean dauden eta lan-esperientzia duten biztanleen % 12,1ek gutxienez enplegu irregularren bat izan du azken urtean. Ehuneko hori 2010eko % 18,5a baino txikiagoa da, baina gora egin du 2014ko % 9,5arekin alderatuta. Gainera, prekarietate handieneko egoerak (azken urtean bi enplegu irregular baino gehiago izatearen ondorio direnak) areagotu egin dira aurreko emaitzekin alderatuta: % 4 2010ean, % 2,6 2014an eta % 4,2 2018an. Hori esanguratsua da, lan-irregulartasunaren ezaugarrietako bat baita atzeraelikatze joera duena, prekarietatearen eta bazterkeriaren zurrunbiloan sartuta (Layna et al., 2020; Torres, 2021).

Sexuaren aldagaia aintzat hartuta egindako azterketak erakusten digu, berriz ere, baldintza horietan sarbide handiena emakumeek dutela. Hala, nahiz eta enplegu irregularren bat, gutxienez, izateko ehunekoan dagoen aldea jaitsi egin den (% 13,9 2010ean, % 11,5 2014an eta % 7,3 2018an), arrakalaren murrizketa hori irregulartasunaren gorakadaren testuinguruan gertatu da, lehen adierazi bezala, 2010etik gertatu dena. Hau da, sexuaren aldagaiari

erreparatuta, eragin desberdina murriztearen arrazoia da gizonezkoen egoerak okerrera egin izana.

13. taula. Enplegu irregularren kopurua azken urtean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira	Gizona	Emak.	Guztira
Enplegu bat ere ez	88,6	74,6	81,5	92,9	88,5	90,5	92,0	84,7	87,9
1 enplegu	8,9	20,1	14,5	5,9	9,6	7,9	5,7	9,5	7,8
2-3 enplegu	1,9	4,8	3,4	0,7	1,7	1,2	1,6	4,5	3,2
4 enplegu edo gehiago	0,7	0,5	0,6	0,5	0,3	0,4	0,7	1,3	1,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOBP

Jatorriaren ikuspegitik begiratuta, eta 14. taulan ikus daitekeenez, gorantz egin duen aipatutako enplegu irregularra izateko dinamika hori ia orokorra da 2014 eta 2018 urteen artean, Mendebaldeko EBko herrialdeetatik, Txinatik eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen kasuan izan ezik.

2018ko emaitzetan, enplegu irregularren proportzio handiena (% 29,7) jatorriz Paraguaikoak diren biztanleei dagokie. Bolivian, Latinoamerikan eta Afrikako gainerako herrialdeetan jatorria duten pertsonak % 19,2 eta % 22,8 artean dabilta. Gainerako taldeetan, % 7,1etik % 12ra bitartekoak dira ehunekoak.

Azkenik, eta beste muturrean, Txinaren kasua aipatu behar da berriro ere. Jatorriz herrialde horretakoak diren biztanleek ez dute enplegu irregularrik izan 2018an, eta irregulartasuna ez dago oso hedatua aurreko urteetan: 2010ean (% 2,9) eta 2014an (% 8,1). Txinatar jatorriko pertsonen errealitatearen oso antzeko terminoetan daude jatorria Mendebaldeko EBko herrialdeetan dutenak. Kasu horretan, irregulartasuna oso txikia da eta beheranzko joera argia du: % 8,3 2010ean, % 4,2 2014an eta % 1,3 2018an.

14. taula. Enplegu irregularren kopurua azken urtean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremuaren arabera. 2010-2018 urteak

	Enplegu bat	1 enplegu	2-3 enplegu	4 enplegu	Guztira	
	ere ez			edo gehiago		
	%	%	%	%	%	
2010	Mendebaldeko EB	91,7	6,8	1,5	0,0	100,0
	Errumania eta Ekialdeko EBko beste herr. batzuk	80,0	16,1	3,4	0,5	100,0
	Magreb	89,3	8,2	1,6	0,9	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	80,1	15,1	3,1	1,7	100,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	79,9	16,0	3,8	0,3	100,0
	Bolivia	68,2	26,6	4,4	0,8	100,0
	Paraguai	52,1	29,0	14,4	4,5	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	82,4	13,9	2,8	0,8	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	66,3	24,7	9,0	0,0	100,0
	Txina	97,1	2,9	0,0	0,0	100,0
	Senegal	80,6	15,9	2,1	1,4	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	88,0	12,0	0,0	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	92,3	7,7	0,0	0,0	100,0
	Guztira	81,5	14,5	3,4	0,6	100,0
2014	Mendebaldeko EB	95,7	3,3	0,9	0,0	100,0
	Errumania eta Ekialdeko EBko beste herr. batzuk	92,5	7,1	0,4	0,0	100,0
	Magreb	95,1	4,4	0,6	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	94,4	5,0	0,6	0,0	100,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	92,3	6,4	0,6	0,7	100,0
	Bolivia	86,2	9,2	4,1	0,5	100,0
	Paraguai	73,8	19,8	4,5	1,9	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	93,5	4,8	1,1	0,7	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	67,3	29,0	2,5	1,2	100,0
	Txina	91,9	8,1	0,0	0,0	100,0
	Senegal	93,0	7,0	0,0	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	95,3	3,5	1,2	0,0	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	95,0	3,9	1,1	0,0	100,0
	Guztira	90,5	7,9	1,2	0,4	100,0
2018	Mendebaldeko EB	98,7	0,5	0,8	0,0	100,0
	Errumania eta Ekialdeko EBko beste herr. batzuk	90,5	5,1	3,4	1,0	100,0
	Magreb	88,0	10,6	1,5	0,0	100,0
	Argentina, Txile, Uruguai	92,7	4,8	1,8	0,7	100,0
	Kolonia, Ekuador, Peru	88,5	8,2	1,7	1,6	100,0
	Bolivia	80,8	10,3	7,2	1,7	100,0
	Paraguai	70,3	23,2	6,3	0,2	100,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	92,6	3,3	4,2	0,0	100,0
	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	80,7	11,7	5,3	2,2	100,0
	Txina	100,0	0,0	0,0	0,0	100,0
	Senegal	91,1	6,5	2,4	0,0	100,0
	Afrikako gainerako herrialdeak	77,2	13,8	7,2	1,7	100,0
	Munduko gainerako herrialdeak	92,9	3,2	2,2	1,7	100,0
	Guztira	87,9	7,8	3,2	1,0	100,0

Laburbilduta, azpimarratu nahi da kezkarria dela EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleei eragiten dien enplegu irregularraren inpaktua, areagotu ere egin baita, eta bereziki, errealitate horiek emakumeengan duten eragina. Gutxiengoan izan arren, enplegu irregularrak izatea normalizatzea mehatxu argia da, inolaz ere, atzerritar jatorriko biztanleak Euskadin integratzeko prozesuetarako.

Lanetara egokitzea: gainkualifikazioa prekarietatearen adierazpen gisa

Lan-merkatuan sartzeari buruzko azterketak agerian utzidu, herritarguztiantzako joera orokor gisa, desoreka dagoela prestakuntza-mailaren eta betetzen den lanposturako eskatzen denaren artean. Hala, berriki egindako azterketek (Eurostat, 2021) berretsi egiten dute errealitate hori: ginkualifikatutako langile nazionalen proportzio handiena estatu espainiarrean izan zen 2019an (% 35), ondoren Grezian (% 32) eta Zipren (% 31).

Baina atzerritar jatorriko kolektiboaren kasuan, biderkatu egiten da ginkualifikazio-maila hori. Hau da, bere lanerako gehiegizko kualifikazioa duten kasu gehiago dira kolektibo nazionala deiturikoan baino. Hala, EBtik kanpoko herritar ginkualifikatuen proportzio handiena Grezian zegoen (% 78), ondoren Italian (% 68) eta Espainiako estatuan (% 62). EBko beste estatu kide batzuetako pertsonen kasuan, langile ginkualifikatuen proportzio handienak Italian, Espainiako estatuan eta Zipren erregistratu ziren (% 50eko balioekin) (Eurostat, 2021).

EAEn kasuan, eta 15. taulan ikus daitekeenez, EAEn biztanle lan-erperientziadunek dituzten enplegu motak % 80,4an egokitzen dira pertsonen duten prestakuntza-mailara 2018ko datuetan. Errealitate horrek aurrerapauso nabarmena egin du 2010eko % 69,9arekin eta 2014ko % 77,6arekin alderatzen badugu. 2018an, prestakuntza-maila horren azpitik daude egoeren % 18,9, eta prestakuntza-mailaren gainetik, berriz, % 0,7. Hau da, errealitate horiek alde handiak dituzte, esate baterako, 2010eko balioekin alderatuta, urte hartan prestakuntza-mailatik beherako desegokitasuna % 26,6koa baitzen, eta prestakuntza-mailatik gorakoa, berriz, % 3,4koa.

Eurostaten txosten berak (2021) adierazten du, sexuen arteko ginkualifikazio-tasak alderatzean, EB-27ko emakumeek gizonen baino aukera gehiago zituztela ginkualifikatuta egoteko. Herritartasuna edozein izanda ere gertatzen zen hori. Hala ere, aztergai dugun kolektiboari dagokionez, nazionalak deitutakoen artean emakumeen ginkualifikazio-tasak gizonenak baino ehuneko 1,6 puntu handiagoak ziren; baina sexuen arteko alde hori handiagoa da EBko beste estatu

kide batzuetako eta EBtik kanpoko pertsonen kasuan (ehuneko 4,9 puntu eta 6,9 puntu, hurrenez hurren) (Eurostat, 2021).

EAEEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, eta emakumeen kasuan egokitzapen-ehunekoak gora egin duen arren (gizonezkoetan baino gutxiago) (2010ean % 66,9 izatetik, 2014an % 73,4 izatera eta 2018an % 74,3 izatera), gizonekiko aldea oso nabarmena da eta lehendik ere aztertu da (Shershneva & Fernández Aragón, 2018). Egiazta daitekeenez, gizonezkoen egokitasun-maila nabarmen handiagoa izan da (eta da) serie historikoan zehar (% 6,1 gehiago 2010ean; % 9,1 gehiago 2014an eta % 13,9 gehiago 2018an).

15. taula. Lanpostuaren egokitzapena. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira
Bai	73,0	66,9	69,9	82,5	73,4	77,6	88,2	74,3	80,4
Ez, nire prestakuntza-mailaren azpitik dago	22,0	31,2	26,6	16,9	25,9	21,7	11,1	25,1	18,9
Ez, nire prestakuntza-mailaren gainetik dago	5,0	1,9	3,4	0,6	0,7	0,6	0,7	0,6	0,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010 – 2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Jatorria aintzat hartuta egindako azterketari dagokionez (16. taula), duten hezkuntza-maila baino beheragoko lanpostuetan aritzeak gehien eragiten dien kolektiboak dira (% 20 inguruko edo hortik gorako zifrak dituzte) Errumaniatik eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuetatik, Latinoamerikako eskualde gehienetatik (Argentina/Txile/Uruguai eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika izan ezik, % 15,8 eta % 17,3 bitarteko zifrekin) eta Munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleenak.

16. taula. Lanpostuaren egokitzapena. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Bai	Ez, nire prestakuntza-mailaren azpitik dago	Ez, nire prestakuntza-mailaren gainetik dago	Bai	Ez, nire prestakuntza-mailaren azpitik dago	Ez, nire prestakuntza-mailaren gainetik dago	Bai	Ez, nire prestakuntza-mailaren azpitik dago	Ez, nire prestakuntza-mailaren gainetik dago
Mendebaldeko EB	76,5	14,2	9,3	89,1	9,0	1,9	91,9	8,1	0,0
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	63,1	31,2	5,7	73,5	26,5	0,0	74,2	25,4	0,3
Magreb	73,6	20,4	6,1	82,5	17,5	0,0	92,2	7,8	0,0
Argentina, Txile, Uruguai	62,2	34,3	3,5	77,4	22,6	0,0	82,0	17,3	0,7
Kolonia, Ekuador, Peru	69,2	29,8	1,1	71,0	28,0	1,0	75,3	23,3	1,4
Bolivia	66,6	33,1	0,3	82,4	16,3	1,3	76,6	20,8	2,6
Paraguai	66,2	33,8	0,0	69,8	29,6	0,6	70,0	30,0	0,0
Brasil, Venezuela, Dominikar E.	63,1	33,9	3,0	70,6	28,0	1,4	84,2	15,8	0,0
Latinoamerikako gain. herr.	58,4	39,3	2,3	75,6	24,4	0,0	72,2	27,1	0,7
Txina	94,3	5,7	0,0	89,1	10,9	0,0	95,7	3,9	0,4
Senegal	69,1	27,8	3,1	88,9	10,5	0,6	93,3	6,7	0,0
Afrikako gainerako herrialdeak	80,9	19,1	0,0	80,9	19,1	0,0	83,4	16,6	0,0
Munduko gainerako herrialdeak	79,5	19,2	1,2	74,9	25,1	0,0	80,5	19,1	0,4
Guztira	69,9	26,6	3,4	77,6	21,7	0,6	80,4	18,9	0,7

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Egoera problematikoak: oztopo nagusiak lanean

Laneko egoera problematikoetan sakontzeko aukera ematen du EABIk. EAEn azken urtean benetako enplegu-esperientzia izan duten 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleei dagokienez, 2018an elkarrizketatutako pertsonen % 29,8k adierazi du egoera problematikoren bat izan duela. 2010eko % 35,7a baino nabarmen txikiagoa da kopuru hori, eta 2014ko % 29,3a baino zertxobait handiagoa.

Arazo nagusiak (% 25,8) lanaldiari, soldatari edo kontratuari lotutakoak dira oraindik ere. Ehuneko hori 2014ko % 25,5aren antzekoa bada ere, 2010eko % 31,1 baino txikiagoa da proportzioa. Ildo beretik, Aparteko orduak (% 13,6) eta kontratuan ezarritakoak baino lanaldi luzeagoak (% 12,6) egiteko betebeharrak nabarmendu zen 2018an. Berriz ere behera egin du problematiken eraginak 2010arekin alderatuta, baina goranzko joera nabari da 2014 eta 2018 urteen artean. Alde batetik, aparteko orduak egiteko betebeharrean 2010eko % 15,5etik

% 12,7ra jaitsi zen 2014an, baina beherakada hori eten egin zen 2018an eta % 13,6ra igo zen. Bestetik, kontratatutakoak baino iraupen luzeagoko lanaldiak % 12,5 izan ziren 2010ean, % 11,8 2014an eta % 12,6 2018an. 17. taulan ikus daitekeenez, adierazle gehienek nolabaiteko jarraitutasuna erakusten dute 2010eko eta 2014ko erregistroei dagokienez, eta ez dute ehuneko 1,5 puntutik gorako aldaketarik izan ez gorantz eta ez beherantz. Hala ere, joera orokorra goranzkoa da, modu arinean bada ere, 2014-2018 urteetan. Salbuespenetako bat da gainerako langileek baino lansari txikiagoa jasotzea. 2018an, ehuneko hori % 7koa da, 2010ean % 9,1ekoa izan zen eta 2014an, berriz, % 8,1ekoa.

17. taula. Egoera problematikoak lanean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	EBko mendealdeko herrialdeak	EBko Gainerako herrialdeak	Andeetako Hego Amerika eta Paraguai	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	Afrikako Magreb	Afrikako gainerako herrialdeak	Txina	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
ARAZO OROKORRAK	28,2	40,0	42,0	31,7	34,2	41,0	18,3	27,8	35,7
Kontratuan baino lanaldi luzeagoa	7,5	10,6	14,5	12,1	17,9	10,5	7,5	11,0	12,5
Kontratuan baino lanaldi laburragoa	3,8	1,5	2,4	2,4	3,6	1,2	0,3	0,7	2,4
Aparteko orduak egin beharra	17,2	18,7	13,2	11,5	19,5	24,8	11,8	19,7	15,5
Araututakoa baino soldata txikiagoa	5,3	10,6	5,1	2,8	4,3	6,8	0,6	8,9	5,3
Araututakoa baino soldata handiagoa	1,9	0,8	4,0	3,7	2,3	0,2	0,8	0,0	2,7
Gainerako langileek baino soldata txikiagoa	1,5	10,1	11,9	9,0	7,5	10,8	3,1	13,1	9,1
Atsedean hartzeko eskubidea ez betetzea	1,4	4,5	8,5	5,7	9,2	5,8	1,4	1,5	5,9
Lan irregularra enpresaburuak nahi duelako	3,2	8,0	8,3	4,7	4,2	3,4	0,0	0,7	5,6
LANALDIARI, SOLDATARI EDO KONTRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK	25,6	34,4	36,5	27,1	31,7	36,2	17,5	20,8	31,1
Mailaz igotzeko ezintasuna	0,8	3,8	7,0	5,1	5,9	3,6	0,9	2,7	4,8
Erantzukizunak hartzeko ezintasuna	0,1	2,7	5,4	1,9	5,5	2,1	0,0	2,7	3,3
Zereginik okerrenak	0,0	9,1	6,5	0,9	5,5	3,6	0,0	0,0	4,1
Tratu umiliagarria	0,1	3,9	5,4	5,2	3,1	3,2	0,0	0,0	3,7
Isolamendua edo arbuioa	0,2	3,4	3,3	4,1	2,2	5,5	0,0	3,1	3,0
MAILA IGOERARI, ERANTZUKIZUNEI ETA TRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK	0,9	13,3	15,0	12,2	9,8	12,5	0,9	5,8	10,9
Segurtasun txikiagoa	0,9	6,5	3,3	1,5	1,1	3,1	2,6	0,0	2,6
Seme-alabak zaintzeko ezintasuna	4,8	3,5	7,7	4,8	3,0	5,7	3,4	3,9	5,4

Hurrengo orrialdean jarraitzen du.

	EBko mendealdeko herrialdeak	EBko Gainerako herrialdeak	Andeetako Hego Amerika eta Paraguai	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	Afrikako Magreb	Afrikako gainerako herrialdeak	Txina	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira		
	%	%	%	%	%	%	%	%	%		
2014	ARAZO OROKORRAK	14,9	35,0	38,9	28,7	22,1	26,4	20,2	15,4	29,3	
	Kontratuan baino lanaldi luzeagoa	6,0	10,4	16,9	11,4	10,2	11,2	8,5	4,2	11,8	
	Kontratuan baino lanaldi laburragoa	0,0	0,0	1,7	2,4	1,5	0,0	4,8	1,4	1,5	
	Aparteko orduak egin beharra	7,1	10,8	16,3	12,4	11,7	15,8	12,1	8,6	12,7	
	Araututakoa baino soldata txikiagoa	3,1	4,2	6,0	3,6	6,5	5,6	7,8	0,0	4,6	
	Araututakoa baino soldata handiagoa	0,0	3,4	3,2	2,5	0,0	0,0	3,8	0,5	2,1	
	Gainerako langileek baino soldata txikiagoa	0,9	7,5	13,6	7,0	8,5	3,3	3,3	1,0	8,0	
	Atsedean hartzeko eskubidea ez betetzea	0,5	5,3	8,6	2,9	7,0	2,3	4,0	0,8	4,9	
	Lan irregularra enpresaburuak nahi duelako	2,2	5,3	5,7	3,3	1,8	2,6	4,3	0,0	3,8	
	LANALDIARI, SOLDATARI EDO KONTRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK	12,4	29,6	34,9	24,9	19,6	20,7	18,4	11,1	25,5	
	Mailaz igotzeko ezintasuna	0,6	5,8	5,4	3,6	6,1	5,3	3,6	2,3	4,3	
	Erantzukizunak hartzeko ezintasuna	0,6	4,1	3,7	2,7	5,4	5,1	2,7	1,2	3,2	
	Zereginik okerrenak	0,0	7,0	4,2	1,5	2,9	1,3	2,7	0,9	2,9	
	Tratu umiliagarria	0,7	0,6	4,6	3,2	2,9	0,5	2,7	0,7	2,8	
	Isolamendua edo arbuioa	0,0	2,9	2,2	0,7	1,5	0,5	2,7	0,0	1,4	
	MAILA IGOERARI, ERANTZUKIZUNEI ETA TRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK	1,3	14,2	11,2	7,0	6,1	9,5	3,6	4,4	8,2	
	Segurtasun txikiagoa	0,9	2,6	3,7	1,0	3,7	1,0	3,3	0,4	2,3	
	Seme-alabak zaintzeko ezintasuna	1,9	5,4	7,5	5,3	4,0	4,7	4,6	2,4	5,3	
	2018	ARAZO OROKORRAK	10,6	26,1	34,9	34,2	27,2	39,0	19,0	17,0	29,8
		Kontratuan baino lanaldi luzeagoa	4,4	13,0	14,2	13,2	13,9	15,3	14,2	5,7	12,6
		Kontratuan baino lanaldi laburragoa	1,2	1,0	2,5	0,7	2,9	1,1	1,6	0,0	1,6
Aparteko orduak egin beharra		6,4	13,1	15,6	16,1	11,3	16,9	3,9	8,3	13,6	
Araututakoa baino soldata txikiagoa		2,9	5,7	5,0	7,8	7,7	6,5	1,3	3,0	5,7	
Araututakoa baino soldata handiagoa		0,0	2,5	1,4	1,1	2,9	2,5	4,7	3,1	1,8	
Gainerako langileek baino soldata txikiagoa		0,0	4,8	5,7	11,7	7,5	14,8	0,5	2,6	7,0	
Atsedean hartzeko eskubidea ez betetzea		0,0	2,3	7,6	11,2	4,2	5,0	0,0	1,4	6,2	
Lan irregularra enpresaburuak nahi duelako		0,9	2,4	6,3	5,1	1,5	5,8	0,0	1,0	4,1	
LANALDIARI, SOLDATARI EDO KONTRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK		9,1	22,8	31,0	31,4	22,9	25,1	17,4	13,6	25,8	
Mailaz igotzeko ezintasuna		0,0	2,7	2,3	3,4	6,3	17,1	0,0	3,5	3,8	
Erantzukizunak hartzeko ezintasuna		0,0	3,1	2,1	2,7	7,0	16,0	0,0	1,1	3,5	
Zereginik okerrenak		0,0	0,9	5,1	6,0	7,4	19,3	0,0	1,4	5,3	
Tratu umiliagarria		0,8	1,3	5,1	4,3	2,2	13,9	0,0	2,0	4,1	
Isolamendua edo arbuioa		0,5	1,8	3,3	2,6	3,5	11,3	0,0	0,9	3,0	
MAILA IGOERARI, ERANTZUKIZUNEI ETA TRATUARI LOTUTAKO ARAZOAK		1,3	5,3	10,0	10,1	12,2	28,8	0,0	6,4	9,8	
Segurtasun txikiagoa		0,0	4,1	0,4	2,0	4,7	3,1	0,5	1,1	1,8	
Seme-alabak zaintzeko ezintasuna		1,5	5,9	6,2	3,0	6,3	5,1	2,0	2,3	4,6	

Berriro egiazta daitekeenez, aldakortasun handia dago jatorrizko lekuaren arabera (kasu honetan taldeka). Hala, 2018an, lanarekin lotutako problematiken eragin handiagoa izan dute Afrikako gainerako herrialdeetatik (Senegal barne) etorritako biztanleen artean (% 39). 2014ko % 26,4a baino askoz ere handiagoa da kopuru hori, eta 2010eko % 41era hurbiltzen da. Beste muturrean, lan-arazoaren eragina askoz txikiagoa da Txinatik (% 19,0) eta Munduko gainerako herrialdeetatik (% 17) etorritako biztanleengan, eta gutxieneko % 10,6 dute Mendebaldeko EBko herrialdeek. Talde horiek EAEko batez bestekoa baino eragin txikiagoa dute beti aztertutako problematika-blokeetan.

Sexuaren aldagaiari erreparatuta, arreta 2018ko emaitzetan jartzen badugu, eta, bereziki, hiru kategoria nagusietan, 18. taulak agerian utzi du emakumeek arazo gehiago dituztela gizonen baino. Egoera hori, denboran zehar mantendu da (Martín Herrero et al., 2013), bai lan-baldintzen arazoetan (% 32 emakumeetan eta % 27,1 gizonetan), bai lanaldiarekin, soldatarekin eta kontratuarekin lotutako arazoetan (% 27,1 emakumeetan eta % 24,1 gizonetan), bai sustapen-, ardura- eta tratu-arazoetan (% 10,7 emakumeetan eta % 8,7 gizonetan).

Arazo zehatz batzuei dagokienez, emakumeengan eragin txikiagoa dutela erakutsi dute ehunekoek (alde oso txikiekin), besteak beste, honako alderdi hauetan: “Kontratuan ageri dena edo ohikoa baino lanaldi luzeagoa”, “Aparteko orduak egin beharra”, “Kontratuan ageri dena edo ohikoa baino soldata handiagoa”, “Enpresan mailaz igotzeko ezintasuna atzerritarra izateagatik”, “Erantzukizunak hartzeko ezintasuna atzerritarra izateagatik” eta “Segurtasun txikiagoa lanean”.

18. taula. Egoera problematikoak lanean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2018. urtea

	Gizona	Emakum.	Guztira
	%	%	%
ARAZOAK LAN-BALDINTZETAN	27,1	32,0	29,8
ARAZOAK LANALDIAN, SOLDATAN, KONTRATUAN	24,1	27,1	25,8
ARAZOAK MAILAZ IGOTZEKO, ERANTZUKIZUNETAN ETA TRATUAN	8,7	10,7	9,8
Kontratuan ageri dena edo ohikoa baino lanaldi luzeagoa	13,1	12,1	12,6
Kontratuan ageri dena edo ohikoa baino lanaldi laburragoa	1,6	1,6	1,6
Aparteko orduak egin beharra	13,6	13,5	13,6
Kontratuan ageri dena edo ohikoa baino soldata txikiagoa	4,7	6,5	5,7
Kontratuan ageri dena edo ohikoa baino soldata handiagoa	1,9	1,7	1,8
Lanpostu berean ari diren beste pertsona batzuen baino soldata txikiagoa	5,7	8,1	7,0
Enpresan mailaz igotzeko ezintasuna atzerritarra izateagatik	4,2	3,6	3,8
Erantzunak hartzeko ezintasuna atzerritarra izateagatik	3,8	3,2	3,5
Lan txarrenetara baztertuta atzerritarra izateagatik	4,0	6,3	5,3

Hurrengo orrialdean jarraitzen du.

	Gizona	Emakum.	Guztira
	%	%	%
Enplegatzaileek edo nagusiek tratu umiliagarria ematea	2,7	5,2	4,1
Lankideek isolatzea edo arbuizatzea	2,3	3,6	3,0
Atsedeen hartzeko eskubidea (egun libreak) ez betetzea	4,8	7,2	6,2
Segurtasun-maila txikiagoak lanean	2,2	1,5	1,8
Seme-alabak zaintzeko bateraezintasuna	3,7	5,3	4,6
Egoera irregularrean lan egitea enpresaburuak hala nahi duelako	2,2	5,6	4,1

Iturria: EABI 2018. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Alderdi positiboak: lan baldintzekiko gogobetetzea

Aurreko ataletan egoera problematikoetan jarri badugu ere arreta, emaitza orokorrek adierazi dute lan-baldintzei dagokienez balorazio positiboa dela nagusi. Horren harira, Integrazio-prozesuei eragiten dienez ezin baita alde batera utzi, atal honetan azterketa analitikoak egingo dugu, arreta biztanleria okupatuan jarrita.

Azter daitezkeen elementuen multzo handiaren artean (19. taulan jaso dira laburbilduta), gogobetetze handienak honako alderdi hauetan identifikatu dira: buruzagi eta nagusiekiko harremana, laneko baldintza materialak eta bizimodura edukitzea (kultura, erlijioa, etab.). 2018ko ikuspegitik, eremu horiek hobetu egiten dituzte 2010eko eta 2014ko posizioak, buruzagiekiko harremanen kasuan izan ezik.

Hobetze hori 19. taulan jasotako ia alderdi eta elementu guztietara zabaltzen da. Horren harira, bereziki nabarmentzen da enpresan lanpostuz igotzeko aukerei dagokiena; izan ere, horixe izanik denbora-seriean zehar gogobetetze-maila txikiena erakutsi duen alderdia (% 56,1 2010ean eta % 54,8 2014an), % 70,5era iritsi da 2018ko emaitzetan. Lan-eremuan finkatzeko prozesuekin gertatzen diren itxaropenen hazkunde naturaletik irakur daiteke gertaera hori. Hau da, bat etorriko litzateke alde aurretik aztertutako alderdi batzuekin, hala nola, azken urtean soilik enplegu batean aritu direla adierazi duten pertsonen ehunekoak izan duen igoera (2014. urtearekin alderatuta).

Taldeek balorazio onak egin dituzte lanpostuari eta lanaren edukiari dagokienez. Hala ere, eta gertatzen ari den bezala, eremu geografikoaren arabera aldaketak garrantzitsuak dira oraindik 2018an. Gogobetetze-posizioetan Txinatik eta Mendebaldeko EBko herrialdeetatik etorritako biztanleak dira nagusi, talde horietan hobekuntza nabarmena ikusi baita 2014 eta 2018 artean. Egindako ibilbideari esker, talde horiek duten enplegu nagusiaren ezaugarriak erreparatuta interpreta ditzakegu kopuru horiek, eta txinatarren kasuan argi eta garbi ikusten zen: norberaren konturako lana eta enplegua familiaren esparruan.

Azkenik, bada errealitate bat oso esanguratsua, lan-baldintzak definitzen dituzten hiru elementuri dagokiena: “Lanaren gogortasun-maila”, “Zure lanaren arrisku-maila”, eta “Zure lanak eragiten dizun estresa edo presio psikologikoa”. Hiru kategoria horietan goranzko joera izan du gogobetetze-mailak, eta, ikusten denez, bereziki nabarmena da 2018ko emaitzetan. Lehenik eta behin, “Lanaren gogortasun-maila” % 78koa izan zen 2010ean, % 79,3koa 2014an eta % 86koa 2018an. Hau da, azken urtean ehuneko-jauzi handia izan da gogobetetze-mailari dagokionez. Bigarrenik, egoera bera errepikatu da “Zure lanaren arrisku-mailari” dagokionez: % 81,2 2010ean, % 83,1 2014an eta % 88,7 2018an. Azkenik, joera errepikatu da berriz ere “Zure lanak eragiten dizun estresaren edo presio psikologikoaren” kasuan: % 77,1 2010ean, % 80,3 2014an eta % 83,1 2018an.

Aipatutako azken hiru alderdi horiei dagokienez, esan daiteke goranzko joerari eutsi zaiola denbora-seriean zehar ere, jatorrizko lekuak kontuan hartuta, eta salbuespen txiki batzuk baino ez direla identifikatu (geldialdiari lotuagoak jaitsiera-prozesu bati baino), baina ez maila esanguratsuan aipatutako errealitate-aldakortasunaz harago.

19. taula. Egindako lanaren alderdi batzuekiko gogobetetzea. Okupatuta dauden 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	EBko mendebaldeko herrialdeak	EBko gainerako herrialdeak	Andeetako Hego Amerika eta Paraguai	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	Afrikako Magreb	Afrikako gainerako herrialdeak	Txina	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
2010 Lanpostua	87,1	88,3	77,5	84,3	80,5	78,6	98,0	98,7	83,7
Egiten duzun lanaren edukia	87,2	87,5	80,1	84,9	73,4	69,1	95,3	89,5	83,0
Enpresan lanpostuz igotzeko aukerak	55,9	64,9	47,9	55,7	55,0	55,4	79,9	71,9	56,1
Lan-ordutegia	83,1	87,8	77,9	79,9	75,3	82,1	91,0	90,8	81,4
Buruzagi eta nagusiekiko harremana	89,1	95,0	92,2	91,4	84,1	86,9	85,9	96,7	91,2
Lan-erritmoa	80,6	89,3	82,1	87,8	86,5	77,5	91,9	82,0	84,5
Zure laneko baldintza materialak	93,4	89,3	87,7	94,1	88,2	83,7	96,9	80,1	89,7
Lanaren gogortasun-maila	80,8	83,8	76,8	79,9	70,6	56,3	88,9	79,0	78,0
Zure lanaren arrisku-maila	83,5	83,1	80,0	83,0	70,0	68,3	92,0	89,0	81,2
Zure lanak eragiten dizun estresa edo presio psikologikoa	81,6	77,7	73,5	77,3	71,0	63,2	86,9	96,3	77,1
Ordainsaria (edo diru-sarrerak autonomo gisa)	58,5	62,7	57,1	63,4	49,8	64,7	82,5	71,8	60,9
Zure kulturaren, erlijioaren etab.-en bizimodura egokitzea	85,7	95,9	84,6	88,7	83,4	88,6	96,6	86,3	87,6

Hurrengo orrialdean jarraitzen du.

		EBko mendealdeko herrialdeak	EBko gainerako herrialdeak	Andeetako Hego Amerika eta Paraguai	Latinoamerikako gainerako herrialdeak	Afrikako Magreb	Afrikako gainerako herrialdeak	Txina	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
2014	Lanpostua	88,7	87,4	82,1	90,0	84,1	80,8	95,9	86,5	86,4
	Egiten duzun lanaren edukia	89,4	86,5	83,0	91,9	83,0	77,8	96,8	88,5	87,1
	Enpresan lanpostuz igotzeko aukerak	68,7	45,8	40,3	61,6	64,5	46,0	90,0	60,3	54,8
	Lan-ordutegia	82,6	84,5	74,5	75,4	78,3	75,7	91,3	72,5	77,7
	Buruzagi eta nagusiekiko harremana	84,7	94,4	92,2	92,9	88,2	80,8	97,1	97,3	91,7
	Lan-erritmoa	89,6	86,6	87,1	87,9	84,6	79,3	98,2	86,7	87,6
	Zure laneko baldintza materialak	89,2	90,9	88,7	91,2	87,1	83,0	98,8	89,2	89,8
	Lanaren gogortasun-maila	85,6	71,9	78,3	81,4	70,3	68,1	96,5	80,4	79,3
	Zure lanaren arrisku-maila	87,2	76,2	84,3	86,4	69,2	71,3	97,9	80,1	83,1
	Zure lanak eragiten dizun estresa edo presio psikologikoa	81,7	82,7	79,0	79,6	64,7	75,6	95,2	88,6	80,3
	Ordainsaria (edo diru-sarrerak autonomo gisa)	74,0	64,3	55,5	70,0	63,5	61,5	82,8	65,3	64,8
	Zure kulturaren, erlijioaren etab.-en bizimodura egokitzea	88,0	90,6	85,7	90,1	91,5	86,8	98,2	92,3	89,1
	2018	Lanpostua	97,3	86,6	86,9	85,7	84,7	77,8	96,3	90,9
Egiten duzun lanaren edukia		96,3	88,2	88,2	86,0	85,0	80,2	99,5	93,0	88,2
Enpresan lanpostuz igotzeko aukerak		92,0	71,2	65,7	66,9	70,3	59,8	86,6	80,0	70,5
Lan-ordutegia		89,2	85,3	80,5	84,1	78,4	74,5	90,3	83,7	82,5
Buruzagi eta nagusiekiko harremana		91,6	94,8	90,9	91,4	82,8	76,9	88,5	90,9	89,8
Lan-erritmoa		96,8	92,9	88,8	89,1	79,1	78,2	97,5	90,9	88,8
Zure laneko baldintza materialak		95,2	92,3	93,0	93,7	86,8	79,6	98,0	93,7	92,1
Lanaren gogortasun-maila		92,8	87,0	86,3	86,7	80,2	72,3	96,0	89,1	86,0
Zure lanaren arrisku-maila		95,9	87,4	88,7	90,6	79,1	79,7	98,5	93,2	88,7
Zure lanak eragiten dizun estresa edo presio psikologikoa		92,4	82,8	81,1	80,6	80,8	79,6	98,6	89,7	83,1
Ordainsaria (edo diru-sarrerak autonomo gisa)		86,0	76,5	69,7	74,3	79,7	67,1	98,1	82,2	75,5
Zure kulturaren, erlijioaren etab.-en bizimodura egokitzea		97,3	91,5	90,1	92,3	83,8	79,2	99,5	92,6	90,6

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Beste errealitate batzuk: porrotak eta arreta enplegu-zerbitzu publikoetan

EABIk, lan-eremuaren azterketa espezifikoarekin batera, lan-merkatuarekin lotutako beste bi alderdi aztertzeke aukera ematen du: negozio propio bat abian jartzean enpresak porrot egin izanaren esperientzia eta enplegu-zerbitzu publikoen arreta. Arreta berezia merezi dute bi alderdi horiek.

Lehenengo alderdiari dagokionez, kasu honetan ekimena porrotarekin lotuta irakurriko denez, adierazi behar da fenomeno horrek testuinguru-esparru zehatz bat hartu behar duela kontuan. Ekintzailatza bereziki areagotzen da langabezia handiko garaietan eta/edo enplegua lortzeko zailtasunak dauden garaietan. Bi faktore horiek erantzukizun indibidualaren diskurtsoa zabaltzea bultzatzen dute pertsonak lan-arloarekin duten harremanean, eta horrek, 2008ko krisi ekonomikoan ikusi ahal izan zen bezala, negozio propioak abian jartzera bultzatzen ditu pertsona asko eta asko. Hala ere, eta hain zuzen ere, formula horiek bultzatzen dituen testuinguru bera izan daiteke porrotean lagun dezakeena. Krisialdien berezko zailtasunek negozio askok porrot egitea eragiten dute, eta, horrekin batera, premia-egoerak larriagotu egiten dira deskapitalizazio-prozesu handien ondorioz, inbertitutako aurrezkiak kontsumitu egiten baitira.

Navajasek (2014:42), *Etorkinen ekintzailatza* deiturikoaren esparrutik, lehenik Fairlie eta Meyer (1996) aipatuta, adierazten du autoenpleguaren logika formula gisa har daitekeela immigratutako kolektiboa harrera-herrialdean ekonomikoki integratzeko. Hau da, enplegu-aukera murrizak gainditzeko eta norberak dituen trebetasunei etekin handiagoa ateratzeko bide bihurtzen da norberaren konturako lana. Bigarrenik, Hou eta Wang (2011) aipatuz, egileak adierazten du beste etorkin batzuek autoenpleguaren aldeko apustua egiten dutela, “beren negozio-ideiak praktikan jartzeko, malgutasun handiagoa izateko eta diru-sarrerara handiagoak bilatzeko modu gisa”. (Navajas, 2014:42).

20. taulan ikus daitekeenez, 2018an, 16 eta 66 urte bitarteko atzeritar biztanleen % 4,2k adierazi zuen porrot egin zuela negozio propio bat abiaraztean. Kopuru hori (% 4,2) 2010ean detektatutako % 4,4 baino txikiagoa da, eta gora egin du 2014ko % 3arekin alderatuta. Sexuaren aldagaia aintzat hartuta egindako irakurketak erakutsi digu porrotaren adierazpena handiagoa dela denbora-serie osoan zehar gizonen kasuan. Hala ere, nabarmendu behar da errealitate horren hazkunde proportzionala handiagoa izan dela emakumeen kasuan 2018. urtean.

20. taula. Porrota negozio propioa abian jartzean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira
Porrota negozio propioa abian jartzean	6,0	3,0	4,4	3,8	2,4	3,0	4,6	3,9	4,2

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Jatorriaren ikuspegitik begiratuta (21. taula), eta denbora-serie osoaren datuak kontuan hartuta, porrotaren mailak % 5etik gorakoak dira 2018an hainbat taldetan: mendebaldeko EBko herrialdeetan (% 6,0), Txinan (% 5,7) eta jatorri latinoamerikarreko zenbait kolektibotan, % 5,3 Kolonbia/Ekuador/Peruren kasuan, % 6,5 Argentina/Txile/Uruguairen kasuan, eta gehienekoa (% 9,4) Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik etorritako pertsonen kasuan. Azken gertaera hori, jatorri latinoamerikarreko hainbat kolektibotan pilatzea, bai 2010ean bai 2014an gertatu den errealitatea da.

21. taula. Porrota negozio propioa abian jartzean. 16-66 urteko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremu geografikoaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010	2014	2018
	%	%	%
Mendebaldeko EB	9,1	3,2	6,0
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herr. batzuk	3,8	2,4	4,0
Magreb	2,2	1,5	2,8
Argentina, Chile, Uruguai	3,7	4,2	6,5
Kolonbia, Ekuador, Peru	6,7	5,6	5,3
Bolivia	1,8	1,0	3,8
Paraguai	0,7	2,2	1,2
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	3,8	4,5	9,4
Latinoamerikako gainerako herr.	2,2	3,7	0,6
Txina	2,5	4,2	5,7
Senegal	1,9	,4	3,0
Afrikako gainerako herrialdeak	1,5	,0	2,5
Munduko gainerako herrialdeak	6,5	2,3	4,3
Guztira	4,4	3,0	4,2

Iturria: EABI 2010-2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Bigarren arazoari dagokionez, enplegu-zerbitzu publikoen arreta aztertu egin behar da argitalpen honetako beste kapitulu batean jorrotutako alderdi batekin zerkusia duelako: hautemandako diskriminazioa. Era berean, arreta bereziko gunea da harrera-erakundeetan jarritako itxaropenak ulertzeko enplegua bezalako arlo nagusi batean.

22. taulak ematen dituen emaitzetatik abiatuta, egiaztatu bada ere 2018an 16 urte edo gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleen % 4,5ek soilik adierazi duela arreta desegokiren bat izan duela, emaitza horrek igoera adierazten du 2010eko % 2,7arekin eta 2014ko % 3,1arekin alderatzen badugu.

Jatorriaren ikuspegitik begiratuta, eta emaitza esanguratsuenen artean, 2018an % 5 gainditu zen Latinoamerikako zenbait talderen kasuan: Argentina/Txile/Uruguai (% 5,8), Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika eta Paraguai (% 7,6-7,8) eta Bolivia (% 9,5). Enplegu-zerbitzu publikoek ematen duten arreta desegoki hori areagotu egin da ia jatorri guztietan.

22. taula. Enplegu-zerbitzuen arreta txarra. Atzerritar jatorriko 16-66 urteko biztanleak, jatorriaren arabera. 2010-2018 urteak

	2010	2014	2018
	%	%	%
Mendebaldeko EB	1,8	0,4	2,3
Errumania eta Ekialdeko EBko beste herr. batzuk	1,8	4,5	4,7
Magreb	1,6	2,3	2,2
Argentina, Chile, Uruguai	2,1	2,0	5,8
Kolonia, Ekuador, Peru	4,6	4,0	4,3
Bolivia	4,9	4,8	9,5
Paraguai	2,1	2,6	7,8
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	2,4	2,7	7,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	5,5	4,2	4,9
Txina	0,0	0,5	1,7
Senegal	3,1	1,5	3,7
Afrikako gainerako herrialdeak	1,0	3,1	3,8
Munduko gainerako herrialdeak	0,5	5,0	2,2
Guztira	2,7	3,1	4,5

Iturria: EABI 2010 – 2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Itxaropenak: mantentzea hobetzea al da?

EABIk datozen 5 urteetan EAEn geratzeko asmoa duten pertsonen galdetu die zer itxaropen dituzten hainbat arlori dagokienez, enpleguaren arloa ere barne hartuta. Horrek aukera emango du azterketa hau begirada proiektiboarekin ixteko.

Lehenik eta behin, 23. taulan jasotako emaitzek indartu egiten dute denboraseriean zehar izan den logika bat: gehiengoak eta gero eta gehiago (2010. urteari dagokionez) hautatzea «Orain arte bezala jarraitzea» aukera (% 34,2 2010ean, % 29,7 2014an eta % 45,2 2018an). Hain zuzen ere, azken datu hori da («Orain arte bezala jarraitzea» aukera, % 45,2rekin 2018an), deigarriena termino

proporzioaletan; izan ere, erantzun bereziki irmoa da, ia bikoiztu egiten baitu bigarren aukerarekiko duen pisua: «Enplegu egonkorra lortzea» (% 22,8). Horrek bi irakurketa izan litzake. Alde batetik, egindako ibilbidean egiaztatu den bezala, 2018ko egoerak aukera eman dio atzeritar jatorriko kolektiboari halako lan-egonkortasun batekin (adierazitako oztopo ugariak gorabehera) ekiteko berriz ere bideari, krisiak betoa jarri ziona, argi eta garbi ikusi zen bezala 2014ko EABIn adierazitako lan-arloko emaitza txarretan. Bestalde, eta aurrekoarekin lotuta, okertzearen bizipenek berek planteamendu “kontserbadoreagoa” ekar zezaketen, lan-itxaropenei dagokienez. Alde horretatik, esate baterako, gertaera horrek balio lezake ulertzeko soldata-hobekuntza % 11,4koa baino ez izatea 2018an, 2010ean % 12,1koa eta 2014an % 13,8koa izanik, testuinguruak hain onuragarriak ez zirenean.

23. taula. Itxaropenak enpleguari begira. Atzeritar jatorriko 16-66 urteko biztanleak, sexuaren arabera. 2010etik 2018ra

	2010			2014			2018		
	%			%			%		
	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira	Gizon	Emak.	Guztira
Orain arte bezala jarraitzea	35,3	33,2	34,2	28,8	30,6	29,7	51,6	40,5	45,2
Enplegu bat (edozein) lortzea	16,4	14,4	15,3	23,3	19,0	21,1	10,6	9,0	9,7
Enplegu egonkorra lortzea	27,1	30,2	28,7	30,7	26,6	28,5	20,4	24,6	22,8
Hobeto ordaindutako enplegua lortzea	11,5	12,7	12,1	12,3	15,1	13,8	8,9	13,2	11,4
Beste enplegu bat lortzea beste jarduerasektore batean	1,9	2,7	2,3	1,5	3,4	2,5	2,4	4,6	3,7
Nire prestakuntzara egokitutako enplegua lortzea	7,9	6,8	7,3	3,3	5,4	4,4	5,6	7,4	6,7
Negozio propioa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5	0,6	0,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EABI 2010 – 2018. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. EOB

Sexuaren aldagaia aintzat hartuta, eta 23. taulan egiazta daitekeenez, agerian geratzen dira 2018. urtean gizonen eta emakumeen erantzunen ehunekoen arteko hausturak aukera desberdinei dagokienez. Esate baterako, «Orain arte bezala jarraitzea» aukera nagusiak (% 45,2) tarte handia erakusten du gizonen (% 51,6) eta emakumeen (% 40,5) artean. Beste aukera batzuetan ere agertzen da tarte hori: «Enplegu egonkorra lortzea» (% 20,4 gizonetan eta % 24,6 emakumeetan), «Hobeto ordaindutako enplegua lortzea» (% 8,9 gizonetan eta % 13,2 emakumeetan) edo «Nire prestakuntzara egokitutako enplegua lortzea» (% 5,6 gizonetan eta % 7,4 emakumeetan). Adibide horiek adierazten dute, alde batetik, itxaropenak sexuaren aldagaia aintzat hartuta irakurri behar direla, eta, bestetik, itxaropenek berek desabantailarekin lotura dutela. Hau da, emakumeen artean “Orain arte bezala jarraitzea” erantzunaren kopurua txikiagoa izatea bat dator emakumeek lan-merkatuan duten sarbide desberdinarekin, hori agerian geratu baita zenbait alderdiren bidez, prestakuntzara gutxiago egokitzen direlako, egonkortasun txikiagoa dutelako eta abarregatik.

Ondorioak: erronka berrien aurrean jartzen gaituen “hobekuntza”

Okupazioaren eta enpleguaren eremuan egindako ibilbidearen ondoren, ondorio orokor batzuk atera daitezke. Lehenik eta behin, esan daiteke, oro har, azaldutako emaitzek adierazten dutela 2018. urtea 2010eko egoerara itzultzea dela. Hau da, krisiaren ondorio izugarrien ondoren; horiek bereziki aipatu ziren 2014ko EABIn eta, oro har, okerrera eraman zuten laneratzeko eta kalitate oneko lana izateko aukera, ikuspegi positiboan interpreta litekeen eszenatokia erakusten du 2018ko errealitateak. Hala ere, eta azterketa honen hasierako helburuetako bati berriro helduta (konparaziozko irakurketa), ñabardura batzuk beharrezkoak dira. Alde batetik, emaitzek adierazten duten hobekuntza-joera orokorra, jatorria eta nazionalitatea bezalako aldagaiak aintzat hartzen baditugu, eragin desberdina duen esparruan gertatzen da. Hau da, aztertze elementuetako bat baldin bada atzeritar jatorriko kolektiboak euskal lan-merkatuan duen laneratze-maila aintzat hartzea, ebidentzia garbi baten aurrean geundeke: oraindik ere sarbide desberdina eta prekarioagoa du kolektibo horrek. Gertakizun hori nabari da, esate baterako, gehienek lan-merkatuan prekarioan sartu behar izaten dutelako, hau da, enplegu irregularrarekin, bai eta langabezia-tasak hiru aldiz handiagoak direlako ere.

Bigarrenik, 2018ko emaitzek agerian utzi dute atzerriko jatorriko pertsonen kasuan gainerakoekin alderatuta gertatzen den eragin handiago hori ere modu desberdinean adierazten dela. Hau da, kolektiboaren barruan beste aldagai batzuk badaude argi eta garbi, hala nola sexua, jatorri geografikoa edo adina. Horren harira, emaitzak ikusita, berriro ere esan behar dugu baztertu egin behar dela etorkinen kolektibo talde homogenea delako ideia, eta, beraz, beharrezko ñabardurak egin behar direla lagin guztiz heterogeneo horren gainean egiten diren azterketa-lanetan. Iragatearen esperientziak sailkapen-kategoria gisa balio badigu ere, oso handia da beste aldagai batzuen eragina.

Hirugarrenik, eta eragina duten aldagai ugari biltzen direla azpimarratuta, ez da ahaztu behar bazterketa-errealitateak aztertze funtsezko ezaugarrietako bat: duen metatze-izaera. Hau da, dimentsioaniztuna eta prozesuala izateaz gain, hainbat faktore bateratzeagatik ezagutzen dira bazterketa-logikak eta, batez ere, aipatutako hiru desberdintasun-ardatzek (sexua, jatorria eta adina) gehitzen duten eraginagatik. Horrenbestez, kontuan hartu behar da hainbat egoeratan gertatzen den eragin-faktoreen pilaketa, esate baterako, atzeritar jatorriko emakume gazteen errealitateak, gainera talde etnikoetakoak direnak.

Azkenik, eta bereziki lotuta COVID-19ak eragindako gaur egungo mundu-pandemiarekin, azaldutako emaitzak bereziki garrantzitsuak dira; izan ere, euskal gizarteak 2010ean bizi zuen krisialdi gogorrari dagokionez okupazioaren eta enpleguaren errealitateetan izan den “hobekuntza” hori kontuan hartzean,

egungo egoerak, hain zuzen ere, etorkizunean izango diren zailtasunez ohartarazten gaitu, berriro ere gerta baitaiteke horrelako fenomeno bat. Egia izan arren eragin-adierazpen zehatzak desberdinak direla atzerritar jatorriko biztanleen kasuan ere (agian zenbait alderdik arinduta, hala nola historikoki bete dituzten lanpostu prekarizatuenen funtsezko izaerak, Enplegua Erregulatzeko Espedienteen (ERE) bidez eusteko aukerak, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sistemek duten efektu motelgarriak, eta abarrek); erronka nabarmena ekarriko dute testu honen asmoaren bidetik, hauxe da, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen integrazio-prozesuak aztertzea (bultzatzeko).

Bibliografia

- Arango, Joaquín (1985) Las Leyes de las Migraciones de E. G. Ravenstein, cien años después. *Revista Española de Investigaciones Sociales*, 32, 7-26. <https://labur.eus/eJ04h>
- Castel, Robert (1997) *Las Metamorfosis de la Cuestión Social. Una crónica del salariado*. Paidós.
- Colectivo IOÉ (2001) *Mujer, inmigración y trabajo*. Instituto de Migraciones y Servicios Sociales.
- Blanco, Cristina (2000) *Las Migraciones Contemporáneas*. Alianza Editorial.
- EUROSTAT (2021) Foreign citizens more likely than nationals to be over-qualified. <https://labur.eus/2fzbb>
- Ikuspegi (2020) Población extranjera y mercado laboral vasco. *Panorámica* 75. <https://labur.eus/xr8sR>
- Layna Allue, Nerea, Gandarias Goikoetxea, Itziar eta Navarro Lashayas, Miguel Angel (2020) Atrapadas en una espiral de precariedad y exclusión: trayectorias de mujeres inmigrantes en programas residenciales para mujeres con menores a cargo. *Revista Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria = Revista de servicios sociales*, 72: 19-33. <https://labur.eus/q9ood>
- Martín Herrero, María José, Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Arkaitz eta Moreno Márquez, Gorka (2013) Mujer inmigrante y mercado laboral en el País Vasco un acceso precario al empleo. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria = Revista de servicios sociales*, 53, 91-107. <https://labur.eus/nCD2q>

- Moreno Márquez, Gorka (koord.) (2018) *El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Navajas Romero, Virginia (2014) *Emprendimiento y migración: análisis del proceso y factores críticos*. Servicio de Publicaciones de la Universidad de Córdoba. <https://labur.eus/Qy57s>
- Parella, Sonia (2006) *Las lógicas de la discriminación de las mujeres inmigrantes en el mercado de trabajo: mecanismos y repercusiones*. Puntos de Vista.
- Shershneva, Julia eta Fernández Aragón, Iraide (2018) Factores explicativos de la sobrecualificación de las mujeres inmigrantes: El caso vasco. *Revista Española De Sociología*, 27(1): 43-66. <https://labur.eus/MAurN>
- Standing, Guy (2013) *El precariado. Una nueva clase social*. Pasado y presente, SL.
- Subirats, Joan eta Riba, Clara (2004) *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Colección de Estudios Sociales 16. Fundación La Caixa. <https://labur.eus/4QGkv>
- Tezanos, José Félix (1999) *Tendencias en desigualdad y exclusión social*. Sistema.
- Torre, Margarita (2021) La espiral de precariedad: desempleo, temporalidad y parcialidad involuntaria en la población joven, 2005-2021. *LABOS Revista De Derecho Del Trabajo Y Protección Social*, 2(2), 141-150. <https://labur.eus/i1NsX>
- Willadino, Raquel (2003) *Procesos de exclusión e inclusión social de jóvenes en el contexto urbano brasileño: un análisis de trayectorias de violencia y estrategias de resistencia*. Doktorego Tesia. Universidad Complutense de Madrid. <https://labur.eus/B6ll1>
- Zubero, Imanol (2006) Las nuevas relaciones entre empleo e inclusión: flexibilización del trabajo y precarización vital. *Documentación Social*, 11-30.



EAEko atzerritar jatorriko biztanleen egoera etxebizitzari dagokionez

Cristina Lavía Martínez ■ UPV/EHU

Etxebizitza duina eta egokia izatea ezinbesteko baldintza da pertsonen ongizaterako, eta, horregatik, giza eskubide unibertsaltzat hartzen da. Espainian, Konstituzioak hala aitortzen du, eta administrazioaren maila guztiek (estatukoak, autonomikoak eta tokikoak) hainbat modutan parte har dezakete haren garapenean. Horrenbestez, ongizateari, garapenari edo gizarteratzeari dagokionez, biztanleak zein egoeratan dauden ikusteko edozein azterketak edo diagnostikok barne hartu beharko luke etxebizitza eskuratzeari eta bizitegi-egoeraren baldintzei buruzko azterketa.

Espainiako gizarteratzeari eta gizarte-beharrei buruzko azken azterlanen berritasunen artean nabarmentzen denez, “intentsitate txikikotzat” jo daitezkeen eskubide sozialen artean dago etxebizitza (Foessa, 2019:151), enplegua edo gutxieneko diru-sarreraren bermea bezalaxe. Eskubide horiek ez daude babes sozialetik aitortzen diren beste batzuk (hezkuntza, osasuna) bezain finkatuak, baina zuzeneko eragina dute herritarren gizarteratze- eta baztertze-prozesuetan.

Liburuki honetan, gure herrialdean gizarteratzeari dagokionez, a priori ahulena den kolektiboetako bat dugu aztergai: Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak. Etxebizitzari dagokionez atzerritar horiek bizi duten egoerari eta bilakaerari buruzko hainbat alderdi zehatzago aztertzeko aukera ematen digu tresna bikain batek, hauxe da, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren *Etorkin atzerritarrei buruzko inkestak* (aurrerantzean, EABI). EABI inkesta 2018an egin zen azken aldiz. Eusko Jaurlaritzak kolektibo horren bizi-baldintzak ezagutzeko egiten duen estatistika-lan ofizial horren hirugarren aldia da izan zen hura (2010ean 2014an egin ondoren).

Hain zuzen ere, EAerako xehatutako Foessa 2018 txostenak dio etxebizitzari dagokion dimentsioa dela herritarren ongizateari gehien eragiten diona, egoiliarren % 22,2k arazoak baitituzte alderdi horretan. Gainera, azterlanean ondorio gisa atera da krisiaren eraginen artean nabari dela, halaber, Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea arrisku-faktore argia dela gizarte-bazterketarako, Euskadiko etxebizitzaren % 34,1 bazterketa-egoeran sailkatuta dauden nazionalitate horietako pertsonak sostengatzen baitituzte¹ (Foessa, 2019:82 eta 163).

2018ko EABI inkestaren arabera, atzerritar jatorriko 211.208 lagun bizi dira 95.651 bizikidetz-unitatetan. Dokumentu honetan, atzerritar jatorriko pertsonak izango ditugu aztergai, barne hartuta soilik atzerriko nazionalitatea dutenak (% 63,6) eta espainiar nazionalitatea lortu dutenak, bai nazionalitate hori bakarrik izanik (% 4) bai beren jatorriko beste nazionalitate atzerritar bat mantenduta (% 32,3). Etxebizitzari dagokionez, eta atzerritar jatorriko pertsonak izanik, askoz ere konplexuagoak dira kontuan hartu beharreko bizitegi-modalitateak, ez baitira mugatzen estatistiketarako identifikatu ohi diren familietara edo etxeetara². Funtsezko elementuetako batzuek informazio oso xehea biltzea eskatzen dute, eta, horregatik, gure inguruan ere falta dira noizbait beste eremu batzuetarako egin ziren immigrazioaren eta etxebizitzaren arteko erlazioari buruzko azterlan espezifikoak (IOÉ, 2005).

Kapitulu honetan, atzerritar jatorriko biztanleak beren bizitegi-egoerarekin lotzen dituzten datu nagusiak banakatuko ditugu, 2018ko EABI inkestako datuak erabilita. Etxebizitza eskuratzeko aukera aztertuko dugu hasteko, edukitze-erregimenen banaketaren bidez, eta, ondoren, etxebizitzaren ekipamendu- eta kalitate-egoera deskribatuko dugu, biztanleria horrek hainbat alderditan baloratzen dituenak. Azkenik, etxebizitzak dakarren gastu ekonomikoari buruzko datuak eta harekin loturiko hainbat zailtasun aztertuko ditugu, eta, etxebizitzarekiko etorkizuneko itxaropenak azalduko ditugu bukatzeko. Kasu bakoitzean, bizitegi-egoerak ulertzen lagun dezaketen profilak bilatuko dira, etxebizitzari buruzko adierazleak kolektiboaren beste ezaugarri garrantzitsu batzuekin lotuz, eta lortutako adierazle nagusien denbora-bilakaeraren ikuspegiren bat emango da.

¹EAerako egindako Foessa txostenak 658 etxeko eta 1.611 laguneko laginari egindako inkesta du oinarri. Lagin hori estatistikoki adierazgarria da bi mailetan. Bere gizarte-bazterkeriaren indize sintetikoa egiten du azterlanak, eta azterketa orokorraren eranskin metodologikoetan azaltzen den integrazio-bazterketa ardatzean identifikatzen ditu egoerak (Foessa, 2019b).

²EABI inkestak erabiltzen duen bizikidetz-unitatea etxebizitzaren baliokidea ez denez, eta, gainera, familia talde bat baino gehiago har ditzakeenez, pertsonen bizitoki-ezaugarrien zenbaketan pisu handiagoa dute tamainari begira unitate handienak direnek eta familia-guneak barne hartzen dituztenek (familia-guneak ez direnen aurrean). Adibidez, seme-alabak dituzten familia nuklearretan sartzen dira aztergai diren atzerritar jatorriko pertsonen % 60,5, baina bizikidetz-unitateen % 42,5 baino ez dira. Familia-taldea ez diren bizikide-taldeak, berriz, unitateen % 29,4 dira, baina atzerritar jatorriko pertsonen % 15,6 baino ez.

Etxebizitza eskuratzea

Atzerritar jatorriko biztanleriaren bizitegi-egoerarenezaugarri bereizgarrienetako bat da gehienak alokairuko etxebizitzetan bizi direla (% 63,7). Askotan nabarmendu den bezala, euskal gizartea, oro har, jabeen gizartea da, eta hain zuzen ere alderdi hori da atzerritar jatorriko biztanleriaren eta EAEko biztanleen arteko alde handienetako bat.

1. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera 2010-2018 (%)

	2010	2014	2018
Etxebizitza erabat ordaindua	6,9	7,2	6,5
Etxebizitza partzialki ordaindua	18,9	12,7	16,4
Alokairua	60,2	58,9	63,7
Partekatua	9,0	13,5	8,8
Doakoa, lagatakoa	4,9	7,6	4,5
Bestelako egoerak		0,1	0,1
Guztira	179.582	195.245	211.208

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

2018an, kolektibo horren % 22,9k zuen etxebizitza jabetzan, nahiz eta gehienek hipoteka ordaindu gabe zuten (% 16,4). % 6,5ek bakarrik du etxebizitza jabetzan eta ordaindua. Prekarietate handiko egoerei edo migrazio-une ezegonkorrei lotutako etxebizitza-formatuek askoz ere eragin txikiagoa dute, baina horrelakoak ere badira: % 8,8k etxebizitza partekatzen dute (% 6k logela dute alokatuta) eta % 4,5ek ez dute beste pertsonen edo erakundeek lagatako bizitokia beste etxebizitzarik.

Konparazio-erreferentzia hurbilenak aintzat hartuta, 2017an, EAE osoan, familien % 87 jabetzako etxebizitzetan bizi zen, eta beste % 10,2 alokairuan. 2019an, egoera gutxi aldatu zen: % 86,1 eta % 11,9, hurrenez hurren, *Etxebizitzen Beharrei eta Eskariari buruzko inkestaren arabera*³. 2017an EAEko biztanleen artean atzerritar jatorriko biztanleak % 9,4, eta 2019an % 10 baino ez zirenez, EAEko datu orokorrek gainerako egoiliarren (bertako biztanleak) egoera jasotzen dute nagusiki, eta, datu horietatik ondoriozta daitekeenez, erabat desberdina da egoera.


³2021eko Erroldako datuak oraindik ez daude eskuragarri, eta horixe da, hain zuzen ere, biztanleriari eta etxebizitzari buruzko estatistika ofizialaren iturri nagusia. 2018rako, urrun samar gelditzen dira 2011ko erroldako datuak, eta horregatik erabili ditugu Eustatek (Euskal Estatistika Erakundea) zentsuen arteko aldiatarako eskaintzen dituen estatistika ofizialak. *Etxebizitzen beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta* estatistika ofiziala da, eta bi urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak. Atzerriko biztanleen datuak Euskal Estatistika Erakundeak egiten duen errolda jarraitutik datoz, eta lkupegik erregularitasunez argitaratzen ditu.

EABIk jaso duen denbora-sekuentzia ikusita (1. taula), interesgarria da ikustea 2018ko egoerak antz handia duela 2010ekoarekin, krisiaren lehen urteetan. Ikus daitekeenez, 2018an eragin handixeagoa du alokairuak, eta txikixeagoa hipotekatuko jabetzako etxebizitzak; gainerako modalitateek, berriz, ia ehuneko berberak dituzte. 2014. urteko emaitzek krisiaren ondorioen une gorena erakusten dute, etxebizitza-egoera prekarioenen gorakada handiarekin (% 21 lagatako edo partekatutako etxebizitzak). Beraz, alokairuak eta jabetzak eragin proporzional txikiagoa izan zuten 2010ean baino.

2018an berretsi egin zen atzeraldiko urteetan (2009-2014) gelditu edo moteldu ziren migrazio-fluxuak berreskuratzeko joera. Hala eta guztiz ere, EABIk datuen arabera, etxebizitza eskuratzeko modalitateek ez dute aldaketa handirik izan 2010arekin alderatzen baditugu. Irudi global horrek atzerritarren eta bazterkeria-arriskuaren arteko lotura saihestezinean du oinarria, baina aldaketa garrantzitsuez osatua egon behar du halaber, eta horiek identifikatzen saiatuko gara.

Atzerritar jatorriko pertsonen etxebizitza-egoeren profila osatzen joateko, beste aldagai batzuekiko erlazioak bilatuko ditugu. Lehenik eta behin, bistan da etxebizitza eskuratzeko modalitateek zerikusia dutela familien osaerarekin eta bizikidetzaren egoera motekin. Hain zuzen ere, etorkinak ez diren biztanleentzat oso ezohikoak diren aldaketa batzuk kontuan hartu behar direnez, EABIk bi sailkapen hartzen ditu kontuan, kolektibo horiek etxebizitza eskuratzeko dituzten ezaugarri bereizgarri batzuk hautemateko aukera emango digutenak.

1. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta familia-motaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta


Familia-tipologiei erreparatzen badiegu, 1. grafikoan ikus dezakegu oinarri nuklearreko familiek eskuratu dutela etxebizitza jabetzan, eta, bereziki, seme-alabarik gabeko bikoteek: pertsona horien % 17,7k etxebizitza erabat ordaindua

dute eta beste % 19,2k partzialki ordaindua. Seme-alabak dituzten bikoteen artean ere, etxebizitza jabetzan eskuratzeko ahalegin handia nabari da, nukleo horietan % 20,4 baitira dagoeneko etxebizitza eskuratzeko prozesuan daudenak. Alokairuarekin lotura handiena duen familia-profila honako hau da: seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak (% 77,4), jabetzan hartzeko aukera txikiak dituztenak (% 9,2) eta etxebizitza partekatuaren modalitatean nolabaiteko presentzia dutenak (% 10,2).

Familia-taldeetatik kanpo sailkatuta dauden pertsonak, egia esan, kolektibo heterogeneoak dira berez; izan ere, multzo horietan sartzen dira bakarrik bizi diren pertsonak, establezimendu kolektiboetan bizi diren pertsonak edo beste edozein bizikidetza-taldetan bizi direnak, familia-loturaren batekin edo gabe, askotan, migrazio-egoera jakin batzuen ondorioz elkarrekin bizitzera behartuta daudelako.

2. grafikoan ikusten denez, erabat desberdina da pertsona horien eta etxebizitzaren edukitze-formatuen arteko lotura. Pertsona bakarreko etxeen kasuan (kolektiboaren % 3,4), irudia gehiago hurbiltzen zaio atzerritar jatorriko pertsonen multzoari, alokairuko etxebizitza baita nagusi (% 69,4), baina nabarmendu egiten da, asko gainera, etxebizitza jabetzan duen sektorea, ehuneko globala bikoiztu egiten baitu (% 12,7 eta % 6,5, hurrenez hurren).

2. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta etxe-motaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Familiakoak ez diren pertsona anitzeko nukleoek atzerritar jatorriko biztanleriaren zati handixeagoa hartzen dute (% 6,7), eta argi eta garbi lotuta daude etxebizitza partekatuarekin (% 61,7) edo lagatako etxebizitzarekin (% 20), beste edozein bizikidetza-talderen espektrotik kanpoko proportzioetan.


Azkenik, beste talde oso txiki eta berezi bat dugu (1.776 lagun, ez da % 1era iristen), EAEko establezimendu kolektiboetan bizi diren pertsonena, eta kopuru hori ia guztiz bat dator (% 80) doako etxebizitzarekin.

Atzerritar jatorriko pertsonen administrazio-egoera da etxebizitza eskuratzeko baldintzatzaile gisa aipatu ohi den beste faktore bat. Alde horretatik, nabarmendu behar da gauzak aldatu egin direla azken hamarkadan, eta, hasieran esan dugun bezala, aztertutako atzerritar jatorriko biztanleen herenak baino gehixeagok nazionalitate espainiarra duela 2018an (% 20 baino ez 2010eko EABIn).

Espero daitekeen bezala (3. grafikoa), etengabeko egoitza baimena eskuratzeko (pertsona guztien % 50,5) eta nazionalitate espainiarra lortu izana (% 36,5) dira atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboaren barruan etxebizitza jabetzan eskuratzeko nolabaiteko eragina izateko arrazoia: % 19,8 lehenengoan artean eta % 33,2 azkenen artean. Batez ere, aztertutako espainiar nazionalitatea duen kolektiboaren heren handi horren barnean dago etxebizitza jabetzan duen kopuru handiena, beste guztietan ez bezala. Lan-baimenik gabe aldi baterako egoitza duten pertsonak oso talde txikia dira (% 1) eta erdiak baino gehiago ikasleak dira. Beraz, bizitegi-formatu guztietan agertzen dira, jatorrizko egoera ekonomikoaren arabera.

Beste muturrean, sailkapen honen alderdirik garrantzitsuena da administrazio-egoera irregularrean dauden atzerritar jatorriko pertsonen errealitatea identifikatu ahal izatea; izan ere, egoera horretan aurkitu ditzakegu etxebizitza edukitzeko modu ez-seguruenak. Aztertutako biztanleen % 4,9 dira (10.301 lagun zenbatetsiak); horien artean, % 14,2 lagatako etxebizitzan bizi dira, eta % 26, berriz, etxebizitza partekatuan.

3. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta legezko egoeraren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

Aldi baterako egoitza duten pertsonen artean (lan-baimena dutenak), arazoak izaten dituzte etxebizitza eskuratzeko. Atzerritar jatorriko kolektiboaren zati oso txikia bada ere (% 1 bakarrik), proportzio oso handian jotzen dute etxebizitza partekatuta edo lagatako etxebizitzara (% 35 ia) finkapenaren lehen etapa gisa seguruenik.

2. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta erroldatze-denboraren arabera (%)

	Erroldatu gabe	< 3 urte	3-4 urte	5-9 urte	10-14 urte	15 eta gehiago
Etxebizitza erabat ordaindua	0,0	2,5	0,8	3,2	5,1	17,1
Etxebizitza partzialki ordaindua	6,0	9,3	8,1	12,5	16,9	28,1
Alokairua	41,2	70,7	72,8	68,7	65,6	48,0
Partekatua	28,5	9,1	12,2	11,3	8,7	3,5
Doakoa, lagatakoa	24,3	8,3	5,9	4,3	3,7	3,0
Bestelako egoerak	0,0	0,1	0,3	0,0	0,0	0,3
Guztira	1.099	20.913	25.977	54.423	60.873	47.924

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

Hain zuzen ere, EAEn erroldatuta daramatzaten urteek ere argi uzten dute finkapenaren egonkortasunaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arteko lotura. 2. taulan ikus dezakegun bezala, EAEn erroldatuta denbora gutxien daramaten atzerritar jatorriko pertsonen artean soilik nabari da irmo etxebizitza-modu prekarioenen garrantzi erlatiboa, eta, bereziki, erroldatuta ere ez dauden sektore txikian. Aitzitik, etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukera oso nabaria da gutxienez 10 urte Euskadin bizitzen daramaten pertsonen artean, eta biztanleria horren erdia baino gehixeago dira (% 51,5).

Jatorri geografiko zehatza da atzerritar jatorriko pertsonak etxebizitza eskuratzeko dituzten desberdintasunak gehien laburbiltzen dituen aldagaia. Horren arrazoa da karakterizazio horretan (jatorria hamahiru taldetan) immigrazioaren alderdi guztietako faktore diskriminatzaileak biltzen direla, hala nola alderdi sozioekonomikoak eta kulturalak, bai eta migrazio-ibilbideetako estadioren aniztasuna ere.

Etxebizitza eskuratzeko modalitateen banaketa-eredu orokorretik urrunen dagoen taldea EBko mendebaldeko beste herrialde batzuetatik etorritakoena da: kasu horretan, gehienek badute etxebizitza jabetzan erabat ordaindua (% 30,3) edo partzialki ordaindua (% 25,9); alokairuak, berriz, % 37,7 baino ez du hartzen. Gainerako aukerak, hala nola etxebizitza partekatua edo lagatakoa, oso gutxi dira (% 10 baino gutxiago guztira).

lido bereko bigarren talde bat txinatar jatorriko pertsonena da, eta horiek kasu guztiz bakarria osatzen dute bizitegi-portaerari dagokionez. Azpimarragarriena da etxebizitza gisa alokairua gutxien erabiltzen duten pertsonak direla (% 26,9),

eta partzialki ordaindutako etxebizitza moduan biltzen direla gehienak (% 61,3). Azken talde horri etxebizitza erabat ordaindua dutenak gehitzen badizkiogu, etxebizitza jabetzan duten atzerritar jatorriko kolektibo nagusia dugu txinatarrena (% 66,6).

3. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren eta jatorriaren arabera (%)

	Etxebizitza erabat ordaindua	Etxebizitza partzialki ordaindua	Alokairua	Partekatua	Doakoa, lagatakoa	Guztira
Mendebaldeko EB	30,3	25,9	37,7	2,5	3,4	15.362
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	1,3	20,8	70,9	5,0	2,0	22.297
Magreb	2,1	4,2	83,7	7,0	2,8	38.947
Argentina, Txile, Uruguai	9,1	29,0	52,9	2,5	5,3	7.719
Kolonia, Ekuador, Peru	6,1	25,2	58,5	7,5	2,7	30.664
Bolivia	5,7	13,1	69,8	7,7	3,7	12.825
Paraguai	3,7	6,5	52,2	22,1	15,5	6.651
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	11,0	20,6	58,4	5,2	4,8	14.488
Latinoamerikako gain. herrialdeak	9,5	10,6	46,7	15,9	17,3	18.453
Txina	6,3	61,3	26,9	2,9	2,7	5.454
Senegal	0,9	1,5	73,9	23,2	0,5	5.933
Afrikako gainerako herrialdeak	0,1	2,5	83,7	11,3	2,4	14.824
Munduko gainerako herrialdeak	3,7	20,8	60,0	13,7	1,8	17.590
Guztira	6,5	16,4	63,7	8,8	4,5	211.208

FIturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

Jabetzak intzidentzia handi samarra eta alokairuak txikiagoa izateagatik nabarmentzen den beste talde bat da Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikatik etorritako biztanleena; % 31,6k etxebizitza jabetzan eta alokairuko etxebizitza gutxiago (% 58,4) multzo osoak baino.

Adierazle horren arabera, etxebizitza eskuratzeko zailtasunen muturrean daude bizitegi-formatu behartuenek eragin handiena duten kolektiboak: etxebizitza partekatua edo lagatakoa/doakoa. Nahiz eta atzerritar jatorriko biztanleen % 13,4 baino ez egon egoera horietan, nazionalitate batzuek baino garrantzi erlatibo handiagoa dute horiek, eta horrexek erakusten du aldea irudi kolektiboari dagokionez.

EABIren arabera, 2018an Paraguaiko pertsonena da etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituen taldea: % 22,1 etxebizitza partekatuetan eta % 15,5 lagatako etxebizitzetan. Guztira, kolektibo horren herenak baino gehiagok (% 37,6) ez du alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukerarik ere. Hori gertatzen da halaber (% 15,9 eta % 17,3) immigrazio talde handietakoak ez diren

Latinoamerikako beste nazionalitate batzuen artean, iritsi berriagoak direnak eta prekarioagoak direnak (Latinoamerikako gainerako herrialdeak).

2018an oraindik ere etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiak dituen beste sektore bat Saharaz hegoaldeko Afrikako pertsonena da, eta, bereziki, Senegaletik etorritako immigrazio-talde tradizionalena: gehienak alokairuko etxebizitzetan bizi diren arren (% 73,4 Senegalekoen kasuan), oraindik ere agerian geratzen da etxebizitza partekatuak eragin handia duela kolektibo horretan (% 23), horixe baita administrazio-egoera irregularra duten pertsonen oinarrizko bizitegi-irtenbidea.

Aurrekoak kontingente txiki samarrak dira guztiak. Handienen artean, jarraibide orokorra gehien markatzen dutenen artean, Magrebeko pertsonak nabarmentzen dira. Haietako gehienak alokairuan bizi dira (% 83,7), etxebizitza partekatuaren edo lagatakoaren intzidentzia txikixeagoarekin (% 10), baina etxebizitza jabetzan eskuratzeko aukera ere oso txikia da (% 6).

Europako ekialdeko herrialdeetatik (Errumania, batez ere) etorritako pertsonen taldeak ere alokairura jotzen du batez ere (% 70,9), baina asko sartu dira ordaintzeke dagoen jabetzako bizitegian (% 20,8).

EAEra lehenbizi etorri ziren eta ugariena den latinoamerikar jatorriko (Kolonbia, Ekuador, Peru) pertsonen taldeak heterogeneotasun handia erakusten du; izan ere, multzo osoak baino alokairuko etxebizitza-tasa txikiagoa dute (% 58) egoitza-baliabideetan goranzko ibilbide datuekin (% 25,2 eta % 6,1 jabetzan), baina oraindik ere presentzia dute etxebizitza partekatuaren formatuan (% 7,5).

Etxebizitzen ekipamendua eta kalitatea

Etxebizitzen baldintzei dagokienez, esan daiteke, EABIk jasotzen dituen adierazleen arabera, atzerritar jatorriko ia pertsona guztiak oinarrizko ekipamendua duten etxebizitzetan bizi direla. % 1,77 baino ez dira etxean oinarrizko ekipamendua ez dutenak, hau da, hozkailua, sutegia, garbigailua eta mikrouhin-labea ez dutenak. Ur berorik edo bainuontzirik/dutxarik ez izatea ere kasu gutxi batzuetara mugatzen da (% 0,17). Esan liteke Interneterako konexiorik ez izatea (finkoa edo mugikorra) dela aintzat har litekeen bizitegi-ekipamendurik eza, atzerritar jatorriko pertsonen ehuneko handi batera iristen baita eskasi hori (% 6,36). Horrek guztiak esan nahi du immigrazioarekin lotutako etxebizitza apalaren irudiak ez duela oinarririk datuetan⁴.

⁴Foessa 2018 inkestako datuen arabera, EAEn etxebizitza "desegokietan" bizi dira pertsonen % 10 (eta familien % 6). Etxebizitza horiek eraikuntza-akats larriak dituzte, ez dute oinarrizko ekipamendurik eta/edo erosotasun falta dute (pilaketa, pribatutasunik eza). Bereizitako beste kategoria bat da

Orduan, EABIk jasotzen dituen beste bizitegi-gabezia batzuei erreparatzen badiegu, bi elementu bereiz ditzakegu: batetik, espazio erabilgarriaren kontua, eta, bestetik, etxebizitzaren barneko eta kanpoko beste arazo batzuen balorazioa. Bi alderdi horiek bereizi ditugu, kasu batean neurketa objektiboagoa delako eta bestea iritzi subjektiboan oinarritzen delako, eskasa eta/edo problematikoa denaren eta ez denaren artean. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da itxaropenak nahiko desberdinak izan daitezkeela migrazio-unearen, premia zehatzen eta atzean utzi den etxebizitzaren arabera ere. Bestalde, pentsatzekoa da itxaropenak aldatu egiten direla egonkortasunerantz aurrera egin ahala, bai eta asegabetasuna ere, espero zena lortzen ez bada.

Nabarmentzekoa da biztanleria horren ia erdiak (% 47,1) bizi diren etxebizitzetan ez dutela identifikatu jarraian deskribatuko diren urritasunetako bakar bat ere⁵.

4. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzak dituen arazoaren arabera 2010-2018 (%)

	2010	2014	2018
Azalera urria (<20m ² /personako)	39,6	25,3	34,2
Itoginak, hezetasunak	19,2	10,7	19
Zaratak, kutsadura	14,7	8,6	7,9
Argi natural eskas	s.d	6,7	6,7
Gizarte-ingurune problematikoa	10,2	4,2	4,4
Arazorik ez	41,3	59,8	47,1
Guztira	179.582	195.245	211.208

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

EABIn galdetutako bost arazo motetatik, konparatiboki bi baino ez dira nabarmentzen egiaz: hezetasunak eta, batez ere, pilaketa erlatibo (pertsoneko 20 m² baino gutxiago), atzerritar jatorriko pertsonen % 34,2ri eragiten baitie bi arazo horiek.

Biztanle horien sektore txiki batzuk baino ez dira bizi ingurune sozialki problematikoak dituzten etxebizitzetan (% 5 baino gutxiago) edo argi naturalik ez duten etxebizitzetan (% 6,7). Dirudienez, zaratek edo poluzioak etxebizitza gehiagori eragiten diete (biztanleen % 7,9), baina balio oso txikietan dabilta

etxebizitza “ez-seguruarena”, ez duelako segurtasunik edo erabiltzeko eskubiderik, eta horrek EAEko biztanleen eta familien % 4ri eragingo lioke. Oro har, biztanleriarentzako zenbatespenak dira horiek (Foessa 2019c:6-7).


⁵Alderazle berdin-berdinak ez diren arren, Eustatek bost urtean behin egiten duen *Bizi-baldintzei buruzko Inkestako* datu batzuk har daitezke erreferentziatzat: 2019an, EAEn bizi diren familien % 60k uste dute inguru osasungarrian bizi direla, eta % 15ek soilik sumatu dituzte segurtasun-arazoak inguruan. % 32ri zarata eta kutsadura handiegiak eragiten die. Datu guztiek hobera egin dute 2014arekin alderatuta. Oro har, EAEko etxebizitzak ongi hornituta daude etxetresna elektrikoiei dagokienez.

oraindik. Etxebizitzaren barruan hezetasan-arazoak egotea izango litzateke garrantziari dagokionez bigarrena, % 19 baitira etxean hezetasan-arazoak dituztenak.

EABIk jasotzen duen denbora-bilakaera ikusita, gainera, aipatu behar da zailtasun horietan ez dela ikusten aldatzeko joera zehatzik. Isolamendu-arazoak 2010eko intzidentzia berarekin agertzen baziren, argi falta edo etxebizitzaren inguruko arazoak ia 2014. urtean bezala agertzen dira. Gehien aipatu den kontuak, lekurik ezak, 2010. urteaz geroztik hobera egin duela ikus daiteke, 2014. urtean izan bazuen ere garrantzi txikiena. Oro har, etxebizitzaren gabeziak 2014. urtean izan zuten eragin txikiena atzerritar jatorriko biztanleengan (ia % 60k ez zuen arazo horietako bakar bat ere adierazi).

2018ko egoerari dagokionez, 4. grafikoan ikusten da arazoaren eraginarekin lotuta dagoela edukitze-erregimena, batez ere arazoak gehiago eragiten dielako etxebizitzaren partekatuetan eta alokairuko etxebizitzetan bizi diren biztanleei.

4. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzak dituen arazoaren eta edukitze-erregimenaren arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

Etxebizitzaren tamaina eskasaren eta gehiegizko okupazioaren arazoa ohiko arreta-guneetako bat da atzerritar jatorriko biztanleriaren bizitegi-egoera aztertu nahi denean; izan ere, etxebizitzaren batean pilatuta bizitzea oso ohikoa izaten da migrazio-etapa batzuetan (batez ere iristean), bai eta zenbait jatorriaren kasuan ere.

5. taula. Azalera-arazoak dituzten eta ez dituzten atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzan bizi direnen kopuruaren arabera (%)

Etxebizitzan bizi direnen kopurua	Azalera <20m ² /perts (%)	
	Bai	Ez
1 edo 2	5,7	94,3
3	16,8	83,2
4	33,9	66,1
5 edo gehiago	63,7	36,3
Guztira	34,0	66,0
Egoiliarren batez bestekoa (Aldak. koef. %)	4,83 (28,9)	3,37 (38,8)

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta (establezimendu kolektiboetan bizi diren pertsonak kenduta)

5. taulan ikus daiteke, hain zuzen ere, etxebizitza berean bizi diren egoiliarren batez besteko alde nabarmena dagoela azalera txikiegia dutela adierazi duten atzerritar jatorriko biztanleen eta arazo hori ez dutenen artean. Lehenengo kasuan, etxebizitza bakoitzeko batez besteko pertsona kopurua 4,83 da, eta bigarrenean, berriz, 3,37. Etxebizitza bakoitzeko batez besteko biztanle kopurua 3,87 lagunekoa da, lehen deskribatu diren bizikidetzeta-modu guztiak eta familiakoak eta familiakoak ez direnak kontuan hartuta⁶. Ikus daiteke, halaber, etxebizitzan 4 lagunetik gora bizi direnean duela eraginik handiena (% 33,9) azalera urriaren arazoak, eta 5 lagun edo gehiago direnean, berriz, arazo nagusi bihurtzen da: atzerritar jatorriko biztanleriaren % 63,7 arazo hori duten etxebizitzetan bizi da.

Etxebizitza-arazo horietako batzuk identifikatzeak osagai subjektiboa duenez, zaila da arazo horiek jatorri geografikoko taldeekin lotzea, kultura-aniztasunagatik. Hala ere, egoera prekarioenean dauden kolektiboetako buruzko ildo orokor batzuk atera daitezke datu horietatik.

Lehenik eta behin, adierazitako arazo kopuruari erreparatzen badiogu, ikusten da afrikarrak (Senegal, Magreb eta Gainerako Afrika) bizitegi-egoera okerragoan daudela. Pilatuta bizitzearen arazoak ere eragin handia du haiengan (hala bizi dira Magrebeko eta Gainerako Afrikako biztanleen % 50 baino gehiago), eta tasa globalaren gainetik daude (% 20 baino gehiago) bigarren arazo garrantzitsuenean ere: etxebizitzan hezetasuna edo isolamendu txarra izatea. Aitzitik, beren inguruneak sozialki problematiko gisa gutxien identifikatzen dituztenetakoak dira.

⁶EAEko biztanle guztiak hartuta, 2018an, 2,4 lagunekoa zen familia-etxebizitza bakoitzeko batez besteko biztanle kopurua (Eustat, 2018ko Udako Estadistika).

6. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzan dituzten arazoen eta jatorriaren arabera (%)

	Arazorik ez	Azalera urria (<20m ² /pertsonako)	Itoginak, hezetasunak	Zaratak, kutsadura	Argi natural eskas	Gizarte-ingurune problematikoak
Mendebaldeko EB	60,5	14,9	17,2	9,2	1,9	1,9
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	61,2	16,6	19,9	7,5	6,8	4,8
Magreb	32,3	53,1	21,1	3,4	6,8	1,6
Argentina, Txile, Uruguai	72,3	16,8	7,5	4,1	2,6	2,4
Kolonia, Ekuador, Peru	50,2	33,3	18,7	6,2	3,9	2,8
Bolivia	42,3	31,1	38,8	12,8	9,7	11,9
Paraguai	60,6	17,6	13,5	7,1	3,6	8,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	57,7	18,5	14,6	10,1	4,1	9,9
Latinoamerikako gainerako herr.	54,1	19,9	19,1	11,6	3,6	7,0
Txina	49,0	45,3	5,3	0,7	9,6	0,0
Senegal	43,9	43,7	26,0	10,3	11,8	0,2
Afrikako gainerako herrialdeak	18,3	63,4	20,6	11,2	22,0	4,7
Munduko gainerako herrialdeak	41,5	45,7	12,6	11,0	5,5	4,5
Guztira	47,2	34,2	19,0	7,9	6,6	4,4

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta


Etxebizitzan bizigarritasun-adierazle horietan nabarmentzen den beste kontingente bat Boliviatik etorritako biztanleriarena da: arazo desberdinek eragindako biztanleria-tasa globalaren oso gaintetik daude ia guztietan. Etxebizitzaren barruan, % 38,8k hezetasuna du eta ia % 10ek ez du argi naturalik. Bizi diren inguruneari dagokionez, zarataren/kutsaduraren intzidentzia-tasarik handiena (% 12,8) eta ingurune sozialki problematikoena (% 11,9, tasa globala halako hiru) dituen taldea da.

Banakatu gabeko gainerako nazionalitate latinoamerikarrak besteak baino gehiago nabarmentzen dira ingurune arazoetan, baina batez bestekoa baino hobeto daude etxebizitzaren barneko arazoei dagokienez.

Txinako pertsonen bizitegi-baldintzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu erdiak baino gehixeagok arazoaren bat dutela, batez ere, etxebizitzaren espazioaren gehiegizko okupazioa (% 45,7) edo argirik eza (% 9,6, intzidentzia globalaren gaintetik). Alderdi positiboan, esan behar da jatorri europarra duten biztanleengan askoz ere eragin txikiagoa dutela arazo horiek, bai eta Argentinako, Txileko eta Uruguaiako pertsonen kolektiboan ere.

Laburpen gisa, atzerritar jatorriko pertsonen kolektiboa bizi den etxebizitzaren ekipamenduaren eta egoeraren balorazio orokorra jaso daiteke.


5. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren balorazio orokorraren arabera 2010-2018 (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

5. grafikoa ikusten den bezala, biztanleria horren gehiengoa hartzen du (%56,4) etxebizitzaren balorazio orokor positiboak, eta atzerritar jatorriko pertsonen %6,6 baino ez dira bizi kalitate eskaseko etxebizitzetan. Aipatu behar da, 2010. urtearekin alderatuta, nabarmen hobetu dela bizitegi-baldintzen pertzepzioa. Berrito ere, une korapilatsua islatzen du 2014ko irudiak, eta nabarmentzekoa da igo egin direla 2010arekiko balorazio hobeak nahiz okerragoak.

6. grafikoa. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren balorazio orokorraren eta jatorriaren arabera (%)




Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

Jatorri geografikoaren arabera balorazio orokorra bat dator etxebizitzaren arazo zehatzetarako dagoeneko deskribatutakoarekin (6. grafikoa). Nahiz eta beti oso ehuneko txikiak izan, Afrikako kolektiboak eta boliviarr jatorriko pertsonak dira etxebizitza oso edo hein batean eskasean (“desegokia”) bizi direla baloratu dutenak. Mendebaldeko EBko herritarrek eta Argentinako, Txileko eta Uruguaiako pertsonak adierazi dute adostasun handiena. Segmentatuago dauden kolektibo batzuk ere identifikatu dira, batez besteko globalaren gainetik daudenak kontrako bi egoeretan: hala gertatzen da Txinako pertsonekin, egoitza-portaerari dagokionez duten berariazkotasunarekin, edo Errumaniako eta ekialdeko Europako beste pertsona batzuekin.

Bestalde, bizitegi-egoera okerragoa izateagatik nabarmentzen diren profil batzuk bilatuz (7. grafikoa), lehen ere aipatu ditugun biztanle-talde batzuk baino ez ditugu aurkitu EABIk neurtutako beste bizitegi-ezaugarriren batean.

7. grafikoa. Balorazio txarrean duten etxebizitzetan bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen profilak (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta.

“Nukleo bakarreko familiak” erreferentziatzat hartzen baditugu, familia mota gisa horixe baita modalitate nagusia biztanleria horrentzat (% 82) eta, nolabait, balorazio orokorra “ordezkatzeko” baitute, oso pisu txikiak dira balorazio okerragoak aurki ditzakegun talde bakarrak. Esate baterako, bizitegi-egoera okerragoan daudela aitortu dute guraso bakarreko familiek (amarekin, batez ere), EAEn errolatuta denbora txikia daramaten pertsonak eta, jakina, “paperik gabeko” atzerritar jatorriko pertsonak. Etxebizitza partekatuetan bizi diren pertsonak eta/edo familiakoak ez diren pertsona anitzeko etxebizitzetan bizi direnek ere adierazi dute bizitegi-prekarietate handiagoa dutela.

Ahalegin ekonomikoa eta etxebizitza xede gisa

EABIk, aztertzen ari garen biztanleentzat, hau da, atzerritar jatorriko pertsonentzat, etxebizitzak dakarren ahalegin ekonomikoari buruzko adierazle batzuk biltzen ditu azkenik. Ahalegin hori, jakina, egoera ekonomiko pertsonala edo familiarra osatzen duten beste ahalegin batzuen arabera bada ere, liburuki honetako beste kapitulu batzuekin errepikapenak saihesteko, etxebizitza-gastuen deskribapenak soilik aztertuko ditugu, berez adierazgarriak izan baitaitezke. Lehenengo adierazlea zuzeneko galdera da, hau da, etxebizitza eskuratzeko soilik zenbateko gastua dakarkien pertsonen ordainpeko edukitze-modalitateetan (hileko hipoteka edo alokairua).

7. taula. Atzerritar jatorriko pertsonen batez besteko hileko gastua (eurotan) etxebizitzan eta ahalegin erlatiboa, edukitze-erregimenaren arabera

	Etxebizitza partzialki ordaindua	Alokairua	Partekatua	Guztira (ordainketarekin)
Pertsonak guztira	34.680	134.518	18.494	187.692
Batez beste	617,4	542,0	316,2	533,2
Ertaina	520,0	550,0	300,0	512,0
Aldaketa koef. (%)	57,4	32,3	42,9	43,3
Gehienez	2.300	1.500	900	2.300
1. kuartila	400	440	250	400
3. kuartila	700	650	370	650
% Etxebizitza-gastua/diru-sarrerak (batez bestekoa)	26,5	37,8	31,2	35,0
% Etxebizitza-gastua/guztizko gastuak (batez bestekoa)	30,1	37,8	32,7	35,9

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

7. taulan ikusten den bezala, gastu ekonomikoari dagokionez, etxebizitzaren hileko batez besteko kostua 533 eurokoa da pertsona bakoitzeko, nahiz eta batez besteko horren inguruan aldaketa handiak izan (% 43,3ko koefizientea), aitortutako kostua 2.300 eurora irits baitaiteke. Gutxien ordaintzen duen % 25a, 400 eurotik behera dago, eta hileroko gehien ordaintzen duen laurdena 650 eurotik gora. Atzerritar jatorriko pertsonen aitortutako hileko diru-sarrerak eta gastuak ere kontuan hartuta, kalkulatu ahal izan dugu etxebizitza bat eskuratzeko hileko ordainketa familiarren hileko diru-sarreraren % 35 dela (batez beste), eta kolektibo horrentzako hileko gastu guztien % 35,9⁷.

⁷Etxebizitza ordaintzeko zailtasunak identifikatzen dituzten nazioarteko estandarrak finkatzeko erabiltzen dira diru-sarreraren gaineko etxebizitza-gastuaren ratioak (hainbat mailatan). Hala, adibidez, oso zabaldua dago etxebizitzaren "eskuragarritasun-atalasearen" kostuak diru-sarreraren % 30 izan behar duela eta "gainkargaren" edo gainzorpetzearen atalasea % 40tik gora (ELGA, 2021:5). Kasu honetan, hipotekaren edo alokairuaren kostuarekin bakarrik kalkulatu ahal izan dugu tasa, etxebizitzaren erabileraren gainerako gastu arruntak kontuan hartu gabe. Adierazle horiek irakurtzea konplexua da, gainkostu portzentual berak ez baitu gauza bera esan nahi errenta

Logikoaenez, pertsona guztientzat duen pisuagatik (% 71,7), alokairuko etxebizitzaren ordainketak globalaren antzekoagoak diren emaitzak sortzen ditu, baina sakabanatze txikiagoarekin (gehieneko kostua 1.500 euro arte soilik eta aldakuntza-koefizientea % 32): 542 euroko batez besteko gastua etxebizitza alokatzeagatik atzeritar jatorriko pertsonentzat⁸.

Hipoteka baten ordainketa balio desberdin samarretan mugitzen da, baina ez oso desberdinetan, eta horrek aditzera ematen du kolektibo horrek zenbateko zailtasunak dituen etxebizitza eskuratzeko. Modalitate horrek hilean 2.300 euro arteko batez besteko kostua ematen du gehienez, eta aitortutako gastuaren sakabanatze handiena erakusten du, hain zuzen ere balio altuagoetan dauden kasuengatik. Etxebizitza jabetzan eskuratzek 617 euroko gastua sortzen du batez beste, nahiz eta edukitze-erregimen horretan bizi diren pertsonen erdiak baino ez lukeen 520 euroko batez besteko gastua gaindituko. Azkenik, etxebizitza partekatuaen kostu kalkulatuak bizitegi-modalitate horren irudi trinkoagoa ematen du, eta hilean 316 euroko gastua eragiten du batez beste, erosketaren kostuaren erdia gutxi gorabehera. Kasuen % 75ek hilean ez dute 370 euro baino gehiago ordaintzen etxebizitza partekatu bakoitzeko.

Ikusten dugu, halaber, etxebizitza ordaintzeak dakarren karga erlatiboa handiagoa dela alokairuan bizi diren pertsonentzat, batez beste, dituzten diru-sarreraren % 37,8 erabiltzen baitute alokairua ordaintzeko. Etxebizitza partekatua izango litzateke bigarren formatua egin beharreko ahaleginaren arabera (diru-sarreraren % 31), eta ahalegina benetan txikiagoa bada (diru-sarreraren % 26,5, batez beste) bakarrik eskuratu daiteke etxebizitza jabetzan.

Kostu horiei aurre egiteko zailtasunak beste adierazle batzuekin ere identifikatu ditu berariaz EABIk, eta emaitzek adierazten dute biztanleria horren ehuneko handi batera irits daitezkeela (8. taula): % 12,3k adierazi dute diru-sarrera nahikorik ez dutela bizi diren etxebizitza-gastuak soilik estaltzeko; % 14,9k hipoteka edo alokairua noizbait ordaindu gabe utzi dute urtebetean (% 5,3k behin bakarrik eta % 9,6k behin baino gehiagotan), eta % 16,4 etxebizitzaren gastu arrunten fakturak ordaintzen atzeratu da edo ordaindu gabe utzi ditu (% 5,1ek behin bakarrik eta % 11,3k hainbat aldiz).

EAEko biztanle guztiak kontuan hartuta, 2018. urte berean, Foessa txostenak kalkulatu zuen % 9koa zela etxebizitzarekin lotutako gastuak ordaintzeko behar adina diru ez zuten egoiliarren ehunekoa, eta etxeen % 2 sarri samar atzeratu egin zirela hipotekaren edo alokairuaren ordainketan (Foessa 2019:130),

baxuagoa duten pertsonentzat, eta zenbatutako familiaren batez besteko diru-sarrerak dezente aldatzen baitira.

⁸2018an, alokairuko etxebizitza libreen batez besteko kostua (hileko batez besteko errenta) 1028,4 eurokoa zen Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldeen arabera zertxobait aldatzen bada ere: 861,5 Araban, 962,2 Gipuzkoan eta 1229,6 Bizkaian. Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritzak. *Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta*.

hau da, atzerritar jatorriko kolektiboarentzako baino zailtasun-intzidentzia nabarmen txikiagoa.

Aurreko ebidentziekin batera, gainera, atzerritar jatorriko biztanleriaren gehiengoak (% 69,4) adierazi dute hileko diru-sarreraren % 30 baino gehiago bideratzen dutela etxebizitzara (gastu guztiak barne), hau da, eskuragai ez dituzten etxebizitzetan bizi direla.

8. taula. Atzerritar jatorriko biztanleak, etxebizitzaren kostuari aurre egiteko zailtasunen eta jatorriaren arabera (%)

	Diru-sarrera nahikorik ez argiaren, telefonoaren, zaborraren, uraren, berokuntzaren eta komunitatearen gastuak ordaintzeko	Hipoteka edo alokairua ez ordaintzea edo berandu ordaintzea	Argiaren, uraren, gasaren eta bestelako erregaien fakturak ez ordaintzea edo berandu ordaintzea	Hileko diru-sarreraren %30 baino gehiago etxebizitzagastuetarako erabiltzen du (hipoteka, alokairua, komunitatea, ura, argia, gasa)
Mendebaldeko EB	4,2	5,6	5,5	42,9
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	4,2	8,2	7,3	66,0
Magreb	23,3	24,4	26,6	72,0
Argentina, Txile, Uruguai	2,9	6,0	5,2	56,2
Kolonia, Ekuador, Peru	5,8	12,1	10,0	73,4
Bolivia	10,1	26,9	36,5	81,0
Paraguai	4,3	10,7	14,3	70,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	7,9	8,6	9,8	70,9
Latinoamerikako gainerako herr.	8,6	8,3	12,1	55,0
Txina	0,0	3,5	0,8	68,6
Senegal	20,7	17,6	19,4	77,4
Afrikako gainerako herrialdeak	37,3	28,6	35,7	93,7
Munduko gainerako herrialdeak	13,3	15,5	14,4	72,2
Guztira	12,3	14,9	16,4	69,4

Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

8. taulan ikusten den bezala, adierazle guztietan aldaketak daude etxebizitzak dakarren ahalegin ekonomikoan, eta aldaketa horiek nahiko bereizgarriak dira jatorri geografikoaren arabera aztertzen baditugu. Argi eta garbi identifikatzen dira arazo gehien dituzten kolektiboak, eta tasa globalen gainetik nabarmentzen dira: Afrikako gainerako herrialdeetako ia pertsona guztiek (% 93,7) eta Senegalekoek (% 77,4) gehiegizko ahalegin ekonomikoa egiten dute etxebizitza izateko, eta zati handi batek ezin dio aurre egin horri (Afrikako gainerako herrialdeetako pertsonen % 37,2k ez du gastuetarako, eta % 28,6 atzeratu egin da ordainketetan). Magrebeko herrialdeetako biztanleria ere zailtasun horien eragin-balio altuenetan dago, nahiz eta gehiegizko ahaleginaren eragina batez bestekoan kokatzen den (% 72). Adierazle horietan irudi okerragoa izateagatik

nabarmetzen den azken taldea Boliviako pertsonena da: % 81ek diru sarreren % 30 baino gehiago bideratzen du etxebizitzara, % 26,9k noizbait ezin izan dio hileko ordainketari aurre egin (ia tasa orokorra bikoiztuta), eta % 36,5ek zailtasunak izan ditu etxebizitzaren gastu arruntak ordaintzeko ere, hau da, atzerritar jatorriko biztanleria osoarekiko eragina halako bi baino gehiago. Talde horiek guztiak, bolumenaren arabera, aztertutako kolektiboaren herena baino gehixeago dira (% 34).


Beste muturrean, etxebizitza ordaintzeko zailtasun horietan indize txikiak dituzten kolektiboak ere ondo identifikatzen dira: Mendebaldeko EBko herrialdeetan dute jatorria, batez ere, gehiegizko ahaleginarekiko esposizio txikiena dutenek (% 42,9). Ondoren, ez ordaintze-tasa oso txikiak dituzte, halaber, Argentinakoek, Txilekoek eta Uruguaikoek, % 56,2rekin, (banakatu ez diren Latinoamerikako gainerako herrialdeak bezalaxe). Errumaniako eta ekialdeko EBko gainerako herrialdeetako pertsonak ere esan daiteke tasa globalen azpitik daudela alderdi guztietan.

Oraingoan ere, Txinako komunitatearen bizitegi-estrategien berezitasuna erakusten dute adierazleek; izan ere, etxebizitza eskuratzeko ahalegin ekonomiko handia egin arren (% 68,6), ia erabat kaudimenduna da gastu horri aurre egiteko: familia bakar batek ere ez du adierazi gastuak estaltzeko diru-sarrera gutxi dituenik, eta gastu arruntak (% 0,8) edo hileko kuota (% 3,5) ez ordaintzearen eragina anekdotikoa eta oso txikia da kolektibo osoarentzat.

Etxebizitzarekin loturiko arazo ekonomikoen intzidentziaren tarteko maila orokorra honako hauek dute: Brasilgo, Venezuelako eta Dominikar Errepublikako kolektibo amerikarrek, Paraguaikoak, eta Kolonia, Ekuador eta Peruk osatutako kolektibo handienak. Azken kolektibo hori, EAEn lehenbizi finkatu dena izaki, heterogeneoagoa da, eta migrazio-ibilbideetan eta, beraz, egoitza-estrategietan hainbat estadio izan ditzake.

Azkenik, atzerritar jatorriko biztanleek etxebizitzari dagokionez etorkizunean izango dituzten itxaropenei buruzko ohar interesgarriren bat jasotzeko aukera ere ematen du EABIk. Datuek erakusten duten bezala, immigrazioa geratzeko etorri da, eta, 2018rako, 16 urteko eta hortik gorako pertsonen % 84,1ek adierazi dute 5 urtera EAEn geratzeko asmoa dutela. Ehuneko horrek, bestalde, gora egin du etengabe EABlrekin neurtzen denetik (% 75,9 2010ean eta % 80,1 2014. urtean). Etxebizitzari begira dituzten itxaropenei buruz galdetuta, 8. grafikoan jaso dira erantzunak.


8. grafikoa. EAEn geratzeko asmoa duten atzerritar jatorriko biztanleak (16 urte eta gehiago), etxebizitzari buruzko itxaropenen arabera (2010-2018) (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Kolektibo horren ia erdiak (% 47k) espero dute 5 urtera bizitegi-egoera hobea izatea edo, besterik gabe, aldatzea. Hala ere, 2010ean askoz ere handiagoa zen (% 60) espero zen bizitegi-mugikortasuna. Interesgarriena da 2018rako pertsona horien % 18,6k adierazi dutela etxebizitza bat erosteko asmoa dutela, eta, horien artean, % 13,5 bakarrik bizi dela jabetzako etxebizitza batean. Hau da, pertsona horietako gehienek etxebizitza bat erosi nahi dute emantzipatzeko edo beste bizitegi-mota batzuk uzteko, prekarioenak barne.

9. grafikoa. EAEn geratu nahi duten atzerritar jatorriko biztanleen (16 urte eta gehiago) profilak, etxebizitza erosteko itxaropenen arabera (%)



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta..

Kolektibo osoaren erosteko itxaropenaren % 18,6ko tasa globalaren gainetik, zenbait profil nabarmentzen dira, batez ere jatorriaren arabera (9. grafikoa): Errumaniako pertsonen eta ekialdeko EBko gainerako herrialdeetako pertsonen artean, laurdenak baino gehiagok (% 26,5) etxebizitza erosteko asmoa adierazi dute, bai eta nahiko egonkorak diren Latinoamerikako hainbat herrialdeetako pertsonak ere (Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru eta beste berriago batzuk, esate baterako Paraguai). Hain zuzen ere, badira bi talde, erroldatze-antzinatasunaren arabera, multzo osoak baino tasa handiagoak dituztenak: EAEn 8-9 urte daramatzaten pertsonak, baina baita oraintsuago heldu direnak ere, hemen geratu nahi dutela argi dutenak. EAEn erroldatuta 2-3 urte daramatzaten % 22,7k adierazi du etxebizitza erosteko asmoa duela.

Etxebizitza erosteko itxaropen handiagoa izatearekin lotuta dauden beste elementu batzuk ere badira, familia-egonkortasun handiagoarekin (seme-alabak dituzten bikoteak), lan-egonkortasunarekin (badute lana) eta administrazio-egonkortasunarekin (nazionalitate espainiarra lortu dute) zerikusia dutenak gehienetan. Bizitegi-esperientziaren elementu bereizgarriren batek ere areagotu egiten ditu etorkizunean etxebizitza erosteko itxaropenak, hala nola jatorrizko herrialdean etxebizitza izatea, hobetu daitekeen etxebizitza batean bizitzea eta gomendatutakoa baino ahalegin ekonomiko handiagoa egitea (diru-sarreraren % 30-40), baina, gainerako kasuetan bezala, hedapen-muga batzuen barruan betiere (% 20-24).

Etxebizitzaren alderdi horrekin loturiko itxaropenak, logikoa denez, ekonomiaren eta familiaren egonkortasunari dagokionez itxaropen orokorragoen baitan dauden arren, argi dago, dagoeneko EAEn bizi diren atzeritarrentzat eta atzeritar jatorriko nazionalizatuentzat jabeen herrialde honetan etxebizitza ez dela behar bat soilik, baizik eta haien finkatze-proiektuen parte den asmoa.

Bibliografia

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia (2019) *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera 2018. Principales resultados*, Eusko Jaurlaritzak. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_epie/es_def/data/Informe-de-resultados-de-EPIE-2018.pdf.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. *Encuesta de condiciones de vida 2019 y 2014*. https://www.eustat.eus/estadisticas/tema_76/opt_1/tipo_1/ti_encuesta-de-condiciones-de-vida/temas.html#el

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. *Estadística Municipal de Viviendas*. https://www.eustat.eus/estadisticas/tema_274/opt_1/tipo_1/ti_estadistica-municipal-de-viviendas/temas.html#el

FOESSA (2019) *Informe sobre Exclusión y desarrollo social en el País Vasco. Resultados de la Encuesta sobre integración y necesidades sociales 2018*. Fundación Foessa. <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2019/11/PAIS-VASCO-VIII-Informe-FOESSA.pdf>

FOESSA (2019b). *VIII Informe sobre exclusión y desarrollo social en España*, Fundación Foessa. <https://www.foessa.es/viii-informe/>

FOESSA (2019c). *2019 Focus. Vulneración de derechos: vivienda*, Fundación Foessa. <https://www.foessa.es/main-files/uploads/sites/16/2019/06/Focus-Vivienda-FOESSA.pdf>

IOÉ Colectivo (2005) *Inmigración y vivienda en España*. Observatorio permanente de la inmigración. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Estatistika Organo Berezia. *Encuesta sobre Necesidades y Demanda de Vivienda 2019 y 2017*. Eusko Jaurlaritza. <https://www.euskadi.eus/estadistica/tablas-estadisticas-de-la-encuesta-de-necesidades-y-demanda-de-vivienda-de-euskadi-2019/web01-s2ing/es/>

OECD (2021) *Building for a better tomorrow: Policies to make housing more affordable*, Employment, Labour and Social Affairs Policy Briefs, OECD. <http://oe.cd/affordable-housing-2021>



Atzerritar jatorriko biztanleen osasuna eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea Euskadin: bilakaera, jatorriaren arabera desberdintasunak eta desberdintasun sozialak

Antía Domínguez-Rodríguez ■ ESOMI; OPIK
Yolanda González-Rábago ■ UPV/EHU; OPIK

Osasuna, “erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera gisa ulertuta, eta ez soilik gaitzik edo gaixotasunik ez izatea” (OME, 2014), funtsezko elementua da pertsonen bizitza osoa garatzeko dituzten aukerak ulertzeko. Gainera, osasun-maila gorena izatea oinarrizko giza eskubidea da (OME, 2014). Osasunerako eskubide horrek barne hartzen du “behar adinako kalitateko osasun-arretarako zerbitzuetarako sarbide egokia, onargarria eta eskuragarria” (OME, 2017).

Biztanle migratzaileen osasunari buruzko ezagutza, haien ongizatearen adierazpena den aldetik, eta pertsonen bizitzako beste hainbat arlo zehazteko duen gaitasuna kontuan hartuta, oso interesgarria da biztanleria migratzailearen egoera eta harrera-gizartean integratzeko prozesuak modu integralean ulertzeko. Horren harira, osasuna eta osasun-arretarako sarbidearen azterketari ekiteak, denbora-ikuspegiarekin eta ekitate-ikuspegiarekin, aukera ematen du haren egoeraren bilakaera aztertze eta kolektibo migratzailearen barruan osasunaren arloan dauden desberdintasun sozialen berri emateko.

Osasuna gizarte-eredu batetik ulertzeak esan nahi du ulertzea osasuna ez datorrela soilik pertsonen ezaugarri fisiologikoetatik, baizik eta osasuna baldintzatzen duten hainbat faktore sozialetatik. Osasunaren gizarte-determinatzaileen eredutik, bizitza- eta lan-baldintzen emaitza da osasuna, bai eta pertsonen beren ingurunearekin dituzten harremanen eta bizi diren baldintza sozioekonomiko, kultural eta ingurumenekoen emaitza ere (Whitehead & Dahlgren, 2007). Gainera, gizarte-determinatzaile horiek modu desberdinean banatzen dira gizarte-taldeen artean, hierarkia sozialean duten posizioaren arabera, eta desberdintasun sozialak eragiten dituzte osasun-arloan (Osasun Desberdintasunak Murrizteko Espainiako Batzordea, 2012).

Migrazio-estatusa, hau da, migratzailea izatea, desberdintasun-ardatza da berez osasunean, eta, beste batzuekin batera (generoa, gizarte-klasea edo adina), osasun-egoera desberdinean jartzen ditu migratzaileak, bai bertako biztanleekin alderatuta, bai biztanleria migratzailearen beraren barruan ere. Biztanleen osasuna baldintzatzen duten ohiko elementuez gain, hala nola beren hezkuntza-maila edo bizi dituzten baldintza ekonomikoak, biztanleria migratzailearen kasuan egoera eta prozesu sozial espezifikoek eragina dute osasunean, hala nola diskriminazio-esperientziek edo askotariko administrazio-egoerek, horiek bizitzako hainbat eremutan eragin handia baitute eta osasunean desberdintasunak eragin baititzakete (Rodríguez-Álvarez, González-Rábago, Borrell, & Lanborena, 2017).

Bestalde, osasun-sistema da osasunaren beste determinatzaile bat, baina ez garrantzitsuena. Osasun-sistemen jarduna populazioaren osasun-emaitzen % 25 baino ez dela uste da, baina funtsezkoa da prozesu patologikoetan sartu diren pertsonak egoera osasuntsuetara bihurtzeko, bai eta gaixotasunen garapenaren prebentziorako eta osasuna sustatzeko ere. Osasun-estaldura unibertsalak bermatzen du pertsona guztiek, diskriminaziorik gabe, osasun-arreta egokia, eraginkorra eta kalitatezkoa jasotzeko aukera izatea (Utzet & Giné, 2019). Osasunerako eskubideak osasun-zerbitzuak modu eraginkorren eta ekitatiboan eskuratzeko aukera dakar, baina sistema unibertsalean eta doakoetan ere desberdintasunak izaten dira gizarteko taldeen artean. Fenomeno horri *alderantzizko arretaren legea* esaten zaio, eta, horren arabera, osasun-arreta ona izatea laguntzen zaien herritarren beharrekiko alderantziz aldatzen da (Hart, 1971).

Hala, kapitulu honen helburua da atzerritar jatorriko biztanleen osasunaren eta osasun-zerbitzuetarako sarbidearen ikuspegia eskaintzea Euskadin, denbora-ikuspegiarekin eta osasun-arloko ekitate-ikuspegiarekin, jatorrizko taldeen araberrako desberdintasunak kontuan hartuta. Halatan, bi helburu espezifiko ezarri dira: 1) 2014-2018 urteen artean osasun-egoerak eta osasun-zerbitzuetarako sarbideak izan duten bilakaera aztertzea, bai estali gabeko osasun-premiei eta sarbide-oztopoei dagokienez, bai hainbat laguntza-mailatan (lehen mailako arreta, arreta espezializatua, larrialdiak) jasotako osasun-

arretari dagokionez, jatorri-taldeen eta sexuaren arabera; eta 2) Osasun-egoera orokorrean eta osasun-arreta jasotzeko aukerari dagokionean 2018an dauden desberdintasun sozialen egoera aztertzea, sexuaren arabera.

Bi zati nagusi ditu kapituluak, helburuekin bat datozenak: lehenbiziko zatian deskripzio-azterketa egin da, eta bertan erakutsiko dugu nola banatzen eta nola azaltzen diren aldagaiak bi urteetan eta bi sexuetan; bigarren zatian, berriz, osasunean eta osasun-arreta jasotzeko aukeran 2018an dauden desberdintasun sozialak aztertu dira, sexuaren arabera. Gainera, lehenbiziko zatia hiru ataletan banatu da: biztanleriaren osasun-egoera; estali gabeko behar medikoak eta osasun-sisteman sartzeko zailtasunak; eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea: lehen mailako arreta, arreta espezializatua eta larrialdiak. Hori guztia 2014tik 2018ra bitartean izandako bilakaera eta jatorriaren arabera kontuan hartuta. Bigarren zatian, berriz, bi atal besterik ez dira bereizi: desberdintasun sozialak osasun-egoeran; eta desberdintasun sozialak osasun-zerbitzuak eskuratzeko orduan, 2018. urteari dagokionez. Azkenik, ondorio labur batzuekin amaituko dugu.

Atzerritar jatorriko biztanleen osasun-egoera: 2014tik 2018ra izandako bilakaera, eta aldeak jatorriaren arabera

Lehenik eta behin, osasunaren egoera aztertzeko, norberak duen osasunaren pertzepzioa erabili dugu, bai eta arazo kronikoen edo adinaren ondorioz eguneroko bizitzako jarduerak egiteko dituzten mugak ere. Lehenengo kasuan, bi kategoriatan birkodetu dugu aldagaia: osasun ona (norberak duen osasunaren pertzepzioa, ona edo oso ona) eta osasun txarra (norberak duen osasunaren pertzepzioa, hala-holakoa, txarra edo oso txarra). Eguneroko jarduerak egiteko mugak aztertzeko, mugaren bat dutenen edo inolako mugarik ez dutenen artean banatu da.

Gainera, azterketa honetarako jatorrizko herrialdearen arabera banatu dugu biztanleria, eta bederatzi talde sortu ditugu azkenean: Mendebaldeko EB; Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk; Magreb; Argentina, Txile, Uruguai eta Paraguai; Kolonia, Ekuador, Peru eta Bolivia; Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublikak eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak; Txina; Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak; Munduko gainerako herrialdeak.

Oro har, osasun-egoera ona dute EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek, eta gehienek (% 90etik gora ia jatorri guztietan) osasun-arazo kronikoengatik edo adinagatik ez dute inolako mugarik eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.

Osasun ona edo oso ona dutela adierazi duten pertsonen proportzioa erakusten digu 1. taulak, bai eta 2014 eta 2018 urteetan inolako mugarik ez duten pertsonen proportzioa ere, sexuaren arabera eta jatorrizko taldeen arabera bereizita.

Osasunean dauden genero-desberdintasunei erreparatzen badiegu, emakumeek, oro har, beren jatorrizko taldeetako gizonen baino osasun okerragoa dute. Hala ere, egoera horrek salbuespen batzuk ditu, esate baterako jatorri afrikarreko emakumeen kasuan, bai Magrebekoak, bai Saharaz hegoaldeko Afrikakoak, haiek osasun onaren prebalentzia handiagoa erakutsi baitute Afrikako gizonen baino 2014an, edo Ekialdeko Europako eta Txinako emakumeen kasuan, gizonen baino osasun hobea baitute 2018an.

Eguneroko jarduerak egiteko mugarekin loturiko genero-desberdintasunak aztertzean, emakumeek gizonen baino proportzio handiagoan dute mugaren bat. Hala ere, kasu honetan salbuespen gehiago daude, emakumeen osasunari mesede egiten diotenak. Horien artean, Magrebeko, Txinako, Senegalgo eta Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak nabarmentzen dira 2014an, osasun-arazoengatik inolako mugarik ez duten ehuneko handiagoa baitute jatorri bereko gizonen baino. 2018an, berriz, Errumaniako eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako, Brasilgo, Venezuelako, Dominikar Errepublikako eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako emakumeak nabarmentzen dira, gizonen 2 puntu baino gehiagoko aldearekin.

2014 eta 2018 urteen artean izandako osasun-bilakaerari dagokionez, bi urte horien artean osasunak okerrera egin duela ikusten da, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, norberak duen osasunaren pertzepzioan eta, neurri txikiagoan bada ere, baita eguneroko jarduerak egiteko mugan ere. Norberak duen osasunaren pertzepzioari dagokionez, bi sexuetan jaitsierarik handiena Mendebaldeko EBko biztanlerian gertatu bada ere (7 puntu baino gehiago), nabarmentzekoa da, halaber, Brasilgo, Venezuelako, Dominikar Errepublikako eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako gizonen artean izandako jaitsiera; izan ere, 2014an, % 91,4k osasun ona edo oso ona zuten; 2018an, berriz, % 84,5ek. Afrikar emakumeen artean ere jaitsiera izan da: 2014an, Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeen % 92,2k eta Magrebeko emakumeen % 84,5ek osasun ona edo oso ona zuten, eta ehuneko hori % 82,5era eta % 71,5era jaitsi da, hurrenez hurren, 2018an. Hala ere, salbuespen batzuk badaude, esate baterako norberak duen osasun pertzepzioa handitu egin da Kolonbiako, Ekuadorreko, Peruko eta Boliviako eta Txinako biztanleen artean.

Gizonen artean eguneroko jarduerak egiteko inolako mugarik ez duen biztanleriaren ehunekoaren jaitsierarik nabarmenenak Mendebaldeko EBkoen, Ekialdeko EBkoen (Errumanianagusiki) eta munduko gainerako herrialdeetako en artean izan dira, 2,6, 2 eta 3 puntuko aldeekin, hurrenez hurren. Bestalde, Afrikako emakumeak dira (Magrebekoak, Senegalekoak eta Afrikako gainerako

herrialdeetakoak) eguneroko jarduerak egiteko mugan gorakada handiena izan dutenak, 7 puntu baino gehiagokoa, hain zuzen ere. Gainerako jatorrietan, alde txikiak daude 2014 eta 2018 urteen artean eguneroko jarduerak egiteko mugak dituzten pertsonen ehunekoan, eta, nolana ere, denbora tarte horretan murriztu egin da osasun-arazoengatik mugaren bat duten biztanleen kopurua.

1. taula. Osasun onaren (ona edo oso ona) eta eguneroko jarduerak egiteko mugarik ezaren prebalentzia adinaren arabera estandarizatu¹, jatorrizko taldeen eta sexuaren arabera. 2014 eta 2018

		2014		2018	
		Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Osasunaren autobalorazioa	Mendebaldeko EB	94,7	92,1	86,8	84,8
	Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	86,3	80,4	80,9	85,7
	Magreb	82,6	84,5	83,1	71,5
	Argentina, Txile, Uruguai eta Paraguai	96,6	91,5	91,4	87,8
	Kolonia, Ekuador, Peru eta Bolivia	85,0	84,5	91,7	86,0
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak	91,4	84,8	84,5	83,5
	Txina	93,4	90,3	94,8	96,9
	Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak	91,2	92,2	89,0	82,5
	Munduko gainerako herrialdeak	90,5	85,4	87,7	88,3
	Mendebaldeko EB	99,1	96,2	96,5	97,1
	Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	96,8	98,0	94,8	97,3
	Magreb	91,4	96,3	93,8	89,1
Arazo kronikoak	Argentina, Txile, Uruguai eta Paraguai	98,8	97,8	99,0	98,1
	Kolonia, Ekuador, Peru eta Bolivia	95,6	95,3	96,5	95,9
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak	93,5	94,8	93,9	96,6
	Txina	95,2	98,4	98,6	99,3
	Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak	93,5	96,1	92,5	87,2
	Munduko gainerako herrialdeak	98,3	97,8	95,3	94,7

Iturria: Geuk egina, EABI 2014 eta EABI 2018 oinarri hartuta

¹Prebalentziak adinaren arabera estandarizatu dira, populazioaren adin-banaketa desberdinaren ondorioz osasunean eta osasun-sistemarako sarbidean desberdintasunik ez dadin taldeen artean.

Estali gabeko behar medikoak eta osasun-sisteman sartzeko zailtasunak: bilakaera 2014tik 2018ra

Aztertu beharreko bigarren aldagai-multzoa osasun-sistamarako sarbideari buruzkoa da, estali gabeko osasun-premiei dagokienez: estali gabeko behar medikoak osasun-txartelik ez izateagatik edo ordezeko mediku-asegururik ez izateagatik ezin direlako medikuarengana joan, bai eta migratzailea izateagatik sisteman sartzeko zailtasunak, edo zailtasun ekonomikoengatik sendagaiak erosteko zailtasunak.

Hala, lehenik eta behin, argi dago egoera horiek oso ezohikoak direla, eta biztanleriaren ehuneko oso txiki batek dituela horrelako beharrak estali gabe (2. taula)².

Bai gizonen bai emakumeen kasuan, 2014 eta 2018 urteen artean, murriztu egin da osasun-premiak zituzten edo osasun-sisteman sartzeko nahiz botikak erosteko zailtasunak zituzten biztanleen kopurua. Izan ere, 2014an ia % 1ek adierazi zuen beharra izan arren ezin izan zela medikuarengana joan osasun-txartelik edo bestelako aseguruak ez zuelako, eta 2018an ia Ora jaitsi da ehuneko hori.

Osasun-arreta jasotzeko edo hitzorduak eskatzeko edo bestelako kudeaketak egiteko zailtasunei dagokienez, gizonen artean % 1,7tik % 2,4ra igo da ehunekoa, baina ez emakumeen kasuan, haietan % 2,4tik % 1,9ra jaitsi baita.

Botikak eskuratzeari dagokionez, 2014 eta 2018 artean hobera egin duela dirudi; izan ere, 2014an, baliabiderik ez izateagatik biztanleen % 6 pasatxok utzi zion botikak erosteari, eta gizonen % 1,4ek eta emakumeen % 2,4k, berriz, 2018an.

2. taula. Biztanleriaren ehunekoa, adinaren arabera estandarizatua, estali gabeko behar medikoak, osasun-sistemara iristeko zailtasunak edo botikak erosteko zailtasun ekonomikoak dituztenak, sexuaren arabera. 2014 eta 2018

	2014		2018	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Beharra estali gabe	1,1	1,3	0,1	0,0
Sartzeko oztopoak	1,7	2,4	2,4	1,9
Botikak	6,6	6,2	1,4	2,4

Iturria: Geuk egina, EABI 2014 eta EABI 2018 oinarri hartuta

² Kasu kopuru txiki horrek zaildu egiten du jatorrizko taldeen arabera banatzea. Horregatik, kasu horretan ez da bereizketarik egin.

Osasun-zerbitzuetarako sarbidea: lehen mailako arreta, arreta espezializatua eta larrialdiak. Bilakaera 2014tik 2018ra eta aldeak jatorriaren arabera

3. taulan, osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzko aldagaiak (lehen mailako arreta, arreta espezializatua eta larrialdiak) azaltzen dituzten emaitzak ageri dira. Kasu horretan, bi kategoriatan birkodetu dira aldagaiak: azken urtean kontsultaren batera joan izana edo azken urtean kontsultara joan ez izana. Gainera, osasun-sistemaren erabilera pertsona bakoitzaren osasun-egoerak baldintzatu dezakeenez, beharrezkotzat jo da osasun-egoera horren eragina neutralizatzea osasun-zerbitzuak eskuratzeko orduan dauden desberdintasunei buruzko emaitzetan. Horretarako, erregresio logistikoa egin dugu, eta, ondoren, odd ratioak prebalentzia bihurtu ditugu. Azterketa hau egiteko, emaitzak bederatzi jatorrizko taldeetan banatuta ikusiko ditugu berriz ere.

Oro har, EAEko emakume migratzaileek gizonen baino sarbide handiagoa dute hiru laguntza-maila horietan, bai 2014an, bai 2018an. Aztertutako urte horietan behera egin du lehen mailako arreta eskuratzeko aukerak, bai gizonen kasuan (2014an % 76 izatetik 2018an % 69,7 izatera), bai emakumeen kasuan, emakumeek jaitsiera txikiagoa izan badute ere, 3 puntu besterik ez. Gizonen artean mediku espezialista izateko aukerak gora egin du aztertutako aldiak, % 37,7tik % 39,1era. Hala ere, 2014. urtean emakumeen % 57,1ek zuen mediku espezialistarengana joateko aukera, baina 2018an % 53,9ra jaitsi da ehuneko hori. Larrialdietara joateko aukerari dagokionez, gorakada orokorra izan da bi sexuetan: 2014an, gizonen % 23,7k eta emakumeen % 32k jo zuten larrialdietara, eta 2018an, berriz, gizonen % 26,5ek eta emakumeen % 33,3k.

Hala, emakumeek hiru laguntza-mailetara iristeko ere prebalentzia handiagoa dute jatorrizko talde guztietan, aztertutako bi urteetan, bi salbuespenekin larrialdietara jotzeko aukerari dagokionez: Argentinako, Txileko, Uruguaiako eta Paraguaiako biztanleria 2018an eta beste jatorri batzuetakoa (munduko gainerako herrialdeak) 2014an. Izan ere, nabarmentzekoa da lehen mailako arretan eta arreta espezializatuan gizonen eta emakumeen artean ehuneko 15-30 puntuko aldea dagoela jatorrizko zenbait taldetan.

Jatorriaren araberako aldeak kontuan hartuta, txinatar jatorriko biztanleak nabarmentzen dira, hiru laguntza-mailetakoko edozeinetan sarbide txikiena dutenak baitira, bi urteetan eta bi sexuetan. Lehen mailako arretaren kasuan, sarbidean ez dago alde handirik jatorrizko taldeen artean. Zehazki, 2018an, Saharaz hegoaldeko biztanleria nabarmentzen da gizonen artean, lehen mailako arretarako sarbide handiagoa duelako, osasun-zerbitzu horretara jo duten lautik hiru baitira. Emakumeen artean, Magrebekoak nabarmentzen dira, bai eta Mendebaldeko EBkoak ere. Arreta espezializatuari dagokionez, Saharaz hegoaldeko emakumeak nabarmentzen dira, mediku espezialistari

konsulta egin dioten emakume guztien % 70,2 baitira, bai eta Mendebaldeko EBkoak (% 56,6) eta magrebtar jatorriko emakumeak ere (% 60,1). Gizonen artean, aipatzekoa da, Argentinatik, Txiletik, Uruguaitik eta Paraguaitik etorritako gizonen % 47,1ek kontsultaren bat izan dutela espezialistekin, bai eta Brasilgo, Venezuelako, Dominikar Errepublikako eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako gizonen (% 43,1) eta magrebtarrek ere (% 42,3). Azkenik, larrialdietako arretari dagokionez, Magrebeko biztanleriaren ehuneko nabarmenaren da berriro ere, larrialdietan artatu diren gizonena (% 31,6) nahiz emakumeena (% 51), bai Saharaz hegoaldeko emakumeena ere (% 43,1).

2014tik 2018ra bitarteko bilakaerak erakutsi du behera egin duela jatorrizko talde batzuen lehen mailako arretarako sarbideak, hala izan baita europarren (EB eta Ekialdeko Europa), Magrebekoen, Saharaz hegoaldeko Afrikakoen edo Andeetako nahiz Latinoamerikako hegoaldeko herrialdeetako pertsonen kasuan. Beste talde batzuek, berriz, hala nola Brasildik, Venezuelatik, Dominikar Errepublikatik, Latinoamerikako beste herrialde batzuetatik eta Txinatik etorritakoek, handitu egin dute azken urtean lehen mailako arreta gutxienez behin kontsultatu dutenen proportzioa.

Arreta espezializatuari dagokionez, 2018an handiagoa izan da laguntza-maila hori izan duten pertsonen ehunekoak, 2014. urtearen aldean, Magrebeko, Saharaz hegoaldeko Afrikako, Hegoaldeko herrialdeetako, Brasilgo, Venezuelako, Dominikar Errepublikako eta Latinoamerikako beste herrialde batzuetako gizonen kasuan. Aitzitik, beste jatorrizko talde batzuetako (Europakoak edo Txinakoak) gizonen kasuan, murriztu egin da mediku espezialistarengana jo dutenen kopurua. Emakumeen artean, bilakaera bestelakoa izan da: espezialistarengana gehiagotan joan baitira Mendebaldeko EBko, Txinako, Magrebeko eta, bereziki, Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeak (ehuneko 20 puntuko igoera), eta jatorri latinoamerikarreko emakumeen kasu guztietan behera egin du, batez ere Andeetako herrialdeetakoetan (11 puntu).

Azkenik, larrialdietara jo dutenei dagokienez, gorakada handia izan da Mendebaldeko EBko, Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako biztanleen artean, are handiagoa emakumeen artean. Magreben kasuan, gorakada horrek esan nahi du 2018an emakumeen % 51 joan direla larrialdietara azken urtean, % 43,1 Saharaz hegoaldeko emakumeen kasuan eta % 36,3 Mendebaldeko EBko emakumeen kasuan. Beste talde batzuetan, aldiz, nabarmen murriztu da larrialdietarako sarbidea, esate baterako Ekialdeko Europako eta Andeetako herrialdeetako pertsonetan. Azken horietan murrizketa hori handiagoa izan da gizonen kasuan. Errumaniako eta Ekialdeko Europako beste herrialde batzuetako biztanleen kasuan murriztu egin da larrialdien erabilera; 2014an, hiru lagunetik bat baino gehiago joan ziren larrialdietara urtean behin gutxienez, eta 2018an, berriz, bost lagunetik bat.

3. taula. Azken urtean lehen mailako arretako kontsultara, mediku espezialistarengana eta larrialdietara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizatuta, sexuaren arabera. 2014 eta 2018

	2014		2018			
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak		
Lehen mailako arreta	Guztira	76,0	88,4	69,7	84,9	
	Mendebaldeko EB	73,5	92,1	64,1	88,0	
	Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	77,7	89,2	61,3	79,4	
	Magreb	82,5	88,5	71,1	93,6	
	Argentina, Txile, Uruguai eta Paraguai	74,3	87,9	72,5	77,7	
	Kolonia, Ekuador, Peru eta Bolivia	78,0	91,6	66,0	86,4	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak	64,0	84,8	71,6	85,8	
	Txina	56,8	68,0	64,9	71,2	
	Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak	77,7	97,6	76,9	87,5	
	Munduko gainerako herrialdeak	73,5	82,5	65,9	89,1	
	Guztira	37,7	57,1	39,1	53,9	
	Mendebaldeko EB	42,8	55,7	32,7	56,6	
	Arreta espezializatua	Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	37,3	49,7	33,3	49,3
Magreb		38,9	57,6	42,3	60,1	
Argentina, Txile, Uruguai eta Paraguai		42,4	59,6	47,1	52,1	
Kolonia, Ekuador, Peru eta Bolivia		35,8	61,6	34,6	50,1	
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak		34,7	61,5	43,1	57,8	
Txina		30,2	37,1	26,3	45,4	
Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak		31,4	50,0	40,0	70,2	
Munduko gainerako herrialdeak		36,1	53,4	33,7	57,0	
Guztira		23,7	32,0	26,5	33,3	
Mendebaldeko EB		21,2	25,5	27,1	36,3	
Larrialdiak		Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	32,3	38,0	19,0	22,6
		Magreb	23,0	41,0	31,6	51,0
		Argentina, Txile, Uruguai eta Paraguai	18,1	28,7	29,8	26,6
	Kolonia, Ekuador, Peru eta Bolivia	28,7	36,6	22,9	34,5	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak	13,6	30,9	23,8	31,6	
	Txina	12,0	13,0	12,2	17,4	
	Senegal eta Afrikako gainerako herrialdeak	17,4	28,5	26,8	43,1	
	Munduko gainerako herrialdeak	33,1	19,2	28,7	31,2	


Iturria: Geuk egina, EABI 2014 eta EABI 2018 oinarri hartuta

Desberdintasun sozialak osasun-egoeran

Osasun-egoeran dauden desberdintasunak aztertzeko, osasunaren autobalorazioa erabili da intereseko aldagai gisa (beren osasuna ona edo oso ona dela uste duten pertsonak kontuan hartuta), egoera sozioekonomikoaren bi aldagairen arabera: hezkuntza-maila eta zailtasun ekonomikoak. Lehenengo kasuan hiru kategoriatan birkodetu da aldagaia: derrigorrezko ikasketak edo txikiagoak (analfabetoak, derrigorrezko ikasketak amaitu gabe eta derrigorrezko ikasketak amaituak); bigarren mailakoak (Bigarren mailakoak amaituak eta LHI (erdi maila) amaitua); eta goi-mailakoak (LH II (goi maila) amaitua, unibertsitate-ikasketak erdi bukatuak, goi-mailako unibertsitate ikasketak amaituak).

1. grafikoan ageri dira atzerritar jatorriko biztanleriaren kasuan norberak duen osasunaren pertzepzioan, hezkuntza-mailaren arabera gizonentzako eta emakumeentzako dauden desberdintasunak 2018rako. Hala, espero genuen gradiente soziala ikusi dugu, hau da, biztanleriaren ikasketa-maila handitu ahala, hobe da haien osasun-egoera, bai gizonetan, bai emakumeetan. Desberdintasun hori handiagoa da emakumeen artean; izan ere, ia 9 puntuko aldea dute hezkuntza-muturren artean (% 90,2 goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, eta % 81,5 ikasketa txikiagoak dituztenen artean); gizonen artean, berriz, ia 8 puntukoa da alde hori (% 92,7 eta % 85,1, hurrenez hurren).


1 grafikoa. Osasun onaren (ona edo oso ona) prebalentzia, adinaren arabera estandarizatua, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Osasun-arloko desberdintasunei maila sozioekonomikoko beste adierazle bat aintzat hartuta erreparatzen badiegu, hau da, zailtasun ekonomikoaren arabera (2. grafikoa), ikusiko dugu emakumeen artean gradiente sozial bat dagoela; izan ere, zailtasun ekonomikorik ez duten emakumeek osasun-egoera hobea dute, hezkuntza-mailaren araberako desberdintasunena baino are arrakala handiagoarekin, 18 puntuko aldearekin. Hala, zailtasun ekonomikorik ez duten emakumeen artean % 90,7k osasun ona du, eta ehuneko hori % 72,6ra jaisten da oinarrizko premiak estaltzeko zailtasun ekonomikoak dituzten emakumeen artean. Hala ere, gizonen artean gradientea ez da hain handia, eta eguneroko bizitzan oinarrizko premiak dituztenak badira ere osasun onaren prebalentzia txikiena dutenak (% 77,7), zailtasunik ez dutenek prebalentzia apur bat handiagoa dute ustekabeko gastuei aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituztenek baino (% 89,7 eta % 89,2, hurrenez hurren).

2 grafikoa. Osasun onaren (ona edo oso ona) prebalentzia, adinaren arabera estandarizaturia, zailtasun ekonomikoaren eta sexuaren arabera. 2018




Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Desberdintasun sozialak osasun-zerbitzuan sarbidea izateko orduan

Azterketa hau egiteko, berriz ere osasun-laguntzarako sarbidetzat hartu dugu azken urtean noizbait kontsultara (lehen mailako arretara, arreta espezializatura edo larrialdietara) joan izana, orain arte erabilitako bi aldagai sozioekonomikoen arabera: hezkuntza-maila eta zailtasun ekonomikoak. Osasun-laguntzarako sarbideari buruzko deskripzio-azterketan egin zen bezala, kasu honetan ere neutralizatu zen osasun-egoerak sarbideari buruzko emaitzetan duen eragina.

Lehen mailako arretako zerbitzuetarako sarbidean hezkuntza-mailaren arabera dauden aldeak aztertzean, ez da alde handirik nabari. Gizonen kasuan, ia ez dago alderik goi-mailako ikasketak dituztenen eta ikasketak-maila txikiagoa dutenen artean (% 67,9 vs. % 68,7). Emakumeen artean ere ez dago ia alderik azken urtean lehen mailako arretako medikuarengana jo duten pertsonen proportzioan: % 85,4 hezkuntza-maila txikien artean, eta % 84,3 ikasketak-maila handien artean.


3 grafikoa. Azken urtean lehen mailako arretako kontsultara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizaturik, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Patroi bera ikus dezakegu 4. grafikoa lehen mailako arretari dagokionez zailtasun ekonomikoen arabera, eta ez dago desberdintasun handirik laguntza-maila horretan.


4 grafikoa. Azken urtean lehen mailako arretako kontsultara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizatu, zailtasun ekonomikoen eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Mediku-arreta espezializatuari dagokionez, gizonen artean hezkuntza-maila apalenekoak dira laguntza-maila horretarako sarbide txikiena dutenak (% 33,3), eta hezkuntza-maila handiagoa duten pertsonen (% 44,2) nahiz goi-mailako ikasketak dituztenen (% 37,8) aurrean. Emakumeen kasuan, bigarren mailako ikasketak dituztenak izan dira espezialistaren kontsultara gutxien joan direnak (% 52,7), eta, ondoren, ikasketa txikiagoak dituztenak (% 55,1). Goi-mailako ikasketak dituztenak dira laguntza espezializatu gehiagotan izan dutenak (% 57,4).


5 grafikoa. Azken urtean arreta espezializatuko kontsultara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizaturia, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Etxekoen unitatearen zailtasun ekonomikoen arabera desberdintasunei dagokienez, ez dirudi gizarte-eredu argirik dagoenik arreta espezializatura jotzeko orduan. Gizonen artean, ustekabeko gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztenak dira mediku espezialistei kontsulta gutxien egin dietenak (% 32,3), ehuneko 10 puntu baino gehiagoko tartera oinarrizko premiak betetzeko zailtasun handienak dituztenengandik (% 43,4), eta 6 puntuko aldearekin zailtasun ekonomikorik ez dutenengandik (% 38,9). Emakumeen kasuan, zailtasun ekonomiko handienak dituztenak dira espezialistarengana gutxien joan direnak, % 53,3, gainerakoengandik tarte txikira.


6 grafikoa. Azken urtean arreta espezializatuko kontsultara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizatu, zailtasun ekonomikoen eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Larrialdiko arretan ere ez dirudi sarbide-eredu sozialik dagoenik hezkuntza-maila desberdineko biztanleen artean. Gizonen artean, bigarren mailako ikasketak dituztenak dira larrialdiak gehien erabili dituztenak, guztizkoaren ia % 30 joan baita noizbait larrialdietara inkesta egin aurreko azken urtean, ikasketa-maila txikiena eta handiena dutenetatik 4 puntutik gorako tartera. Bestalde, emakumeen artean ere ez dago desberdintasun nabarmenik, ia puntu bateko aldea besterik ez baitago ikasketa-maila txikieneko emakumeen (% 34,2) eta bigarren mailako ikasketak dituztenen (% 32,8) artean.


7 grafikoa. Azken urtean larrialdietako kontsultara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizaturik, hezkuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Etzekoen unitatearen zailtasun ekonomikoaren arabera desberdintasunak dagokienez, gradiente sozial argiagoa ageri da, batez ere emakumeen artean. Hala, oinarritzko premiak betetzeko zailtasunak dituztenak proportzio handiagoan joan dira larrialdietara (% 37,1), zailtasun txikiak dituztenen (% 34,6) eta zailtasun ekonomikorik ez dutenen (% 30,5) aldean. Bestalde, gizonen artean ere nabari da patroia, baina muturren artean soilik: zailtasun ekonomikoaren bat dutenen artean % 28-29k joan diren larrialdietara, eta % 23,4k, berriz, inolako zailtasun ekonomikorik ez dutenen artean.

8 grafikoa. Azken urtean larrialdietako kontsultara joan diren biztanleen ehunekoa, adinaren arabera estandarizaturik, zailtasun ekonomikoaren eta sexuaren arabera. 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2018 oinarri hartuta

Ondorioak

Emaitzek erakusten dute EAeko atzerritar jatorriko biztanleen osasunak okerrera egin duela, jatorriaren arabera salbuespen batzuekin. Hala, okerrera egite horrekin batera, azken urtean behera egin du, gizonen artean, lehen mailako arretarako eta mediku espezialistarako sarbideak. Hala ere, larrialdietarako sarbideak gora egin du azken urtean.

Osasun-egoerak eta osasun-zerbitzuetarako sarbideak desberdintasunak dituzte jatorriaren arabera, eta desberdintasunak daude migratzaileen artean. Era berean, emakume migratzaileek, oro har, beren jatorrizko talde bereko gizonek baino osasun okerragoa dutela ematen du. Izan ere, badirudi Magrebeko eta Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeak direla, bai eta Brasilgo, Venezuelako, Dominikar Errepublikako eta Latinoamerikako beste herrialde batzuetako emakumeak ere, osasun orokor okerragoa dutenak eta eguneroko jarduerak egiteko muga handiagoak dituztenak. Osasun-laguntzarako sarbideari dagokionez ere, txinatar biztanleriaren taldea nabarmentzen da, laguntza-maila guztietan eta bi urteetan sarbide txikiagoa izan baitu, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Emaitza horiek azpimarratzen dute jatorrizko taldeak kontuan hartu behar direla biztanleria migratzaileari buruzko ezagutzan aurrera egiteko, haien errealitate desberdinak kontuan har daitezen.

Bestalde, osasun-txartelik edo bestelako asegurririk ez izateagatik estali ez diren mediku-beharrak, edo migratzaile izateagatik sisteman sartzeko edo arazo ekonomikoengatik botikak erosteko zailtasunak murriztu egin ziren aztertutako aldian, eta ia erabat desagertu zen osasun-bazterketa mota hori (datu hauek bil ditzaketen egoeren inguruan bai behintzat).

Lehen mailako arretako zerbitzuetarako sarbidea murriztu egin da 2014 eta 2018 artean, batez ere gizonen artean. Arreta espezializatuan, berriz, igoera txiki bat izan da gizonen artean, baina beherakada emakumeen artean; eta premiazko arretan, erabilerak gora egin du bai gizonen bai emakumeen kasuan. Nolanahi ere, bi urte horietan eta hiru laguntza-mailetakoko edozeinetan, emakumeak dira kontsulta gehien egin dituztenak.

Osasun-egoeran dauden desberdintasun sozialen azterketak espero zen gradiente soziala erakutsi du, eta, gainera, hori nabarmenagoa da emakumeen artean. Beraz, ikusten da desberdintasun sozial horiek kolektibo migratzaileen artean gertatzen direla, bertako biztanleen artean gertatzen diren bezala, eta desberdintasun bikoitza eragiten dutela: Migratzaile izateagatik eta eskala sozialagatik, eta gainera, emakumeen artean hirukoitz bihurtzen da desberdintasun hori.

Laguntza-maila desberdinetarako sarbidean dauden desberdintasun sozialei dagokienez, emaitzek ez dute gradiente sozioekonomiko argirik erakutsi, ez

hezkuntza-mailari dagokionez, ezta etxekoen unitatearen zailtasun ekonomikoei dagokienez ere. Larrialdietako arretan baino ez dirudi alde nabarmenik dagoenik, eta badirudi egoera ekonomiko okerrean dauden pertsonak proportzio handiagoan joaten direla larrialdietara. Eraitza horiek kontrastatu egiten dute populazio orokorrak osasun-zerbitzuetara eta, zehazki, arreta espezializatura jotzeko izan ohi dituen desberdintasun sozialen ereduarekin (Morteruel & Martin, 2020). Nahiz eta desberdintasun horiek komunak diren populazio orokorraren artean, bai eta biztanleria migratzailea eta bertakoa alderatzen direnean ere, eraitza horiek adierazten digute biztanleria migratzailearen barruan ez dagoela desberdintasun handirik osasun-zerbitzuetarako sarbidean. Izan ere, biztanleria migratzaileak baldintza sozioekonomiko antzekoagoak ditu, eta, oro har, okerragoak, biztanleria osoa edo bertako biztanleriaren eta migratzaileen taldeen arteko aldeak aztertzen ditugunean baino.

Horrela, gerta daitezkeen desberdintasun sozioekonomikoak ez ezik, migrazio-prozesuarekin zerikusia duten beste faktore batzuk ere aintzat hartu beharko lirateke, horiek eragina izan baitezakete osasun-laguntzan sarbide ekitatiboa izateko. Horren harira, osasunaren kontzeptualizazioan eta osasuna artatzeko moduan, egoera administratiboa edo desberdintasun kulturalak bezalako kontuetara gehiago hurbiltzea garrantzitsua izango litzateke biztanleria migratzaileak osasun-zerbitzuetan duen sarbidea zenbatesteko eta ulertzeko.

Bibliografia

- Comisión para Reducir las Desigualdades Sociales en Salud en España (2012) Propuesta de políticas e intervenciones para reducir las desigualdades sociales en salud en España. *Gaceta Sanitaria*, 26, 182–189.
- Hart, Julian (1971) The inverse care law. *Lancet*, 1, 405–412. <https://www.sciencedirect.com/science/article/pii/S014067367192410X>
- Morteruel, Maite eta Martin, Unai (2020) *En Euskadi, el acceso a la atención especializada y a los servicios sanitarios no cubiertos totalmente por el sistema público depende del nivel socioeconómico de la población*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud.
- Osasunaren Mundu Erakundea (2014) *Documentos básicos 48.a edición*. <https://apps.who.int/gb/bd/PDF/bd48/basic-documents-48th-edition-sp.pdf?ua=1#page=7>
- Osasunaren Mundu Erakundea (2017) *Salud y derechos humanos*. <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/human-rights-and-health>

Rodríguez-Álvarez, Elena, González-Rábago, Yolanda, Borrell, Luisa N. eta Lanborena, Nerea (2017) Perceived discrimination and self-rated health in the immigrant population of the Basque Country, Spain. *Gaceta Sanitaria*, 31(5), 390–395. <https://doi.org/10.1016/j.gaceta.2016.12.014>

Utzet, Mireia eta Giné, Anna (2019) *¿Por qué es tan importante contar con un sistema sanitario público, universal, gratuito y de calidad?* <https://www.oseki.eus/areas/sistemas-sanitarios-%0Apublicos/>

Whitehead, Margaret eta Dahlgren, Göran (2007) *Concepts and principles for tackling social inequities in health: Levelling up Part 1*. World Health Organization. http://www.euro.who.int/__data/assets/pdf_file/0010/74737/E89383.pdf



Etorkinak hezkuntza-sistemaren bidez gizarteratzea Euskadin?

Izaskun Andueza Imirizaldu

Marcela Bejarano Riveros

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Azken hiru hamarkadetan, Euskal Autonomia Erkidegoak gora egin du etengabe atzerritar jatorriko egoiliarren ehunekoan. Udal-eroldaren erregistroaren arabera, 2021eko urtarrilaren 1ean atzerritarra zen erkidegoan bizi ziren biztanleen % 11,1. EAEko 15-29 urteko gazteen % 15,2 atzerritar jatorrikoak dira (Gazteen Euskal Behatokia et al., 2021). Hezkuntza-sarbideari dagokionez, 2020-2021 ikasturtean EAEko biztanleen % 8,7 ziren Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskolatutako ikasle atzerritarrak, eta ehuneko hori antzekoa zen aurreko ikasturteetan ere (Valdés et al., 2021). Eusko Jaurkitzaren 2015/2016 ikasturteko txostenean (2017), zuzendu egin zen ikasle atzerritarren ordezkari handiagoa zela Erdi Mailako LHn (% 9,5) eta HLPPn (% 31,69). Azken datu horrek erakusten du gehiegizko ordezkari dagoela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradu-titulua lortu ez duten ikasleentzako programetan, eta horrek adierazten du hainbat erronka dakartzala berekin Euskadiko hezkuntza-geletan aniztasuna handitzeak, eta erronka horiek integrazioarako, partaidetzarako eta gizarte-kohesiorako dakartzaten erronken isla dira aldi berean.

Etorkinen integrazio soziala da Euskadik aurre egin behar dion erronka sozial handietako bat, etorkinak hartzen dituen edozein gizartek bezala. Hezkuntza-sistema da sistemaren tresna nabarmenetako bat gaur egun helburu hori lortzen laguntzeko, bai eta etorkizunean integartzeko ere. Mekanismo integratzaile gisa duen birtualtasuna indartu egiten du sistema publikoa, nahitaezkoa eta doakoa izateak. Horrek, a priori, elkargune bihurtzen du; berdinen arteko harremanetarako eta antzeko baldintzetan; elkar ezagutzeko eta bertako hizkuntzak ikasteko aukera ematen du, horrek guztiak dakarren ahalmen

integratzaile guztiarekin. Baina zenbateraino gozatu du atzerriko etorkinen gizarteratzeak sistemaren ahalmen integratzaile horretaz? Integrazio-espazio bihurtu al da, ala segregazio soziala bultzatzen duen mekanismoa izan da?

Kapitulu honen bidez, datuak eman eta gogoetak egin nahi dira, atzeritar jatorriko biztanleria EAeko hezkuntza-sisteman nola txertatzen ari diren eta azken hamarkadetan nola gertatu den ikusteko eta horren emaitza sozialak ezagutzeko. Helburu interesgarria bezain desafiatsuak, lan honetan erabilitako datu-iturri nagusia den “Etorkin atzeritarrei buruzko inkestaren” (EABI) datuak oinarri hartuta.

Neurri batean, ematen duen informazio motagatik du interesa. Datu eksklusiboak ematen ditu, hezkuntza-arloarekin lotutako beste iturri batzuetatik lortu ezin direnak, hala nola: hezkuntza-esperientzian zehar ezarri diren harreman-motak, xehetasun berdingabeak Euskadiko hizkuntzak ikasteko prozesuei buruz edo hezkuntza-sistema berezi hori osatzen duten hizkuntza-ereduen artean aukeratzeko orduan jaso zuten orientazioari buruz, besteak beste. Interesgarria da, halaber, hezkuntzako datu espezifikoak beste datu orokorrago batzuekin gurutzatzeko aukera ematen duelako, hala nola aisialdian dituzten harreman-motekin edo bertako pertsonekin integartzeko izan ditzaketen zailtasunekin. Interesgarria eta erakargarria da, era beren, aztergai dugun kolektiboaren definizioagatik.

Pertsonen nazionalitatearen eta/edo jatorriaren araberako datuak erakusten dituzten beste iturri batzuetan ez bezala, EABIk atzerriko nazionalitatea duten edo zuten pertsonak biltzen ditu, eta pertsona horien senitartekoei buruzko datuak ere ematen ditu. Beraz, hezkuntzaratzea aztertzei aukera ematen du, atzeritarren hezkuntzaratzea ez ezik, espainiar nazionalitatea izateak “atzeritar” biztanleen berezko gizarte-bizipenak ezkutatzerako eraman ditzakeen pertsonena ere. Eta hala egiten du gaur egun ikasten ari direnekin, baina baita noizbait Euskadiko hezkuntza-sistematik igaro direnekin ere.

Erronkek datuak biltzeko tresnarekin berarekin dute zerikusia: galdetegi bikoitza (banakakoa eta familiakoa), kolektibo horren gizarte-egoera orokorra jaso nahi duena. Ez da, horrenbestez, beren hezkuntza-egoera aztertzei galdetegi eksklusiboa, baizik eta eremu horri buruzko galdera-kopuru mugatua du, eta ez du aukerarik ematen azterlan espezifikoago batean beharko liritekeen beste alderdi batzuetan sakontzeko.

Muga posible horietatik haratago, nabarmendu egin nahi dugu beste iturri batzuk osatzeko eta eztabaida zaharrei eta erronka berriei buruz hausnartzeko datu berriak eskaintzeko ematen duen aukera. Lan honen bidez erantzun nahi ditugun galderak honako hauek dira: Nola sartu da kolektibo hori hezkuntza-sisteman azken urteotan? Nolakoa izan da hizkuntza ofizialak ikasteko prozesua? Nolakoak izan dira esparru horretan ezarri dituzten harremanak? Eta zer

ikasketa-maila lortu dute sistema horretatik igarotzean? Horretarako, azterketa artikulatua egin dugu sistema hainbat hizkuntza-eredutan egituratua dagoela aintzat hartura, pertsonen jatorriaren arabera egon daitezkeen ñabardurei erreparatu diegu eta sexuaren aldagaia ere kontuan hartu dugu.

Oso galdera zehatzak dira, eta, horiei esker, hausnartu ahal izango dugu zer neurritan lagundu duen hezkuntza-sistemak kolektibo hori gizartean integratzen. Bestalde, ikaskuntza batzuk emango dizkigu kolektibo hori hezkuntza-sistematik pasatzean metatutako esperientziari buruz, eta esperientzia horrek balioko du agintariei, esparruko profesionalei eta familiei informazioa emateko, errendimendu akademikoa eta hezkuntza-integrazioa hobetzeko baldintzak nola hobetu daitezkeen jakiteko.

Integraziorako/bizikidetzarako aukeren hurbilketa teorikoa: aukeren testuingurua?

Esplorazio-analisi gisa ekingo diogu azterketa honi, atzerritarrak hezkuntza-sisteman nola sartu diren eta biztanleria horren integrazio sozialean zer neurritan lagundu duen ala ez duen lagundu aztertzeke. Literaturak interes handia eskaini dio gai horri (Heyting, Kruithof, & Mulder, 2002), eta hemen esparru oso espezifiko batetik abiatuta hurbildu nahi dugu hartara.

Integrazio soziala terminoa oso erabilia dela (Laparra-Navarro & Martínez de Lizarrondo, 2003) eta adiera ugari izan ditzakeela (Gómez Crespo, Barbosa Rodríguez, López-Caniego Lapeña, & Martínez Aranda, 2005) aintzat hartuta, ikuspegi kultural hutsetik (Berry, 1980) harago jo nahi izan dugu lan honetarako. Honako adiera hau hartu dugu kontuan: integrazioa gutxiengo bat gizarte-multzoz zabalago batean sartzeko prozesua da eta elkarren arteko egokitzapen-ahalegina eskatzen du. Haren bidez, gutxiengoak gizarte hartzaillearekin bat egiten du baldintza, eskubide, betebeharrak eta aukera berdinekin, eta horrek ez du esan nahi jatorrizko kulturak galdu behar direnik. Gainera, gehiengoak onartu eta barneratu egiten ditu aipatutakoa posible izateko beharrezkoak diren aldaketa arau-emaeleak, instituzionalak eta ideologikoak (Malgesini & Giménez, 2000).

Zehaztu eta mugatu egin behar dira elkarri egokitzeko prozesu horretan hezkuntza-sistemak nola lagun dezakeen aztertzeke erabiliko diren terminoak, EABIren galdetegiak emandako informazioaren bidez. Gure ustez, hezkuntza-sistemak gizartean integratzen laguntzen du, etorkinei lurraldeko bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskaintzen dien funtsezko aukeratik abiatuta; izan ere, aukera ematen die jatorri desberdineko pertsonekin, bertakoak barne, harremanak ezartzeko, a priori baldintza, eskubide, betebeharrak eta aukera berdinetan. Eta,

azkenik, aukera ematen die prestakuntza jasotzeko, kualifikazio-maila handitu eta lan-merkatu kualifikatuenean lan egiteko gaitasuna emango diena.

Azterlan honetan, Carlos Gimenezek garatutako soziabilitateari buruzko teoriaren ondoriozko kontzeptualizaziotik hartu dugu, zehazki, hezkuntza-arloko harreman-alderdiei buruzko atala aztertzeko hiru soziabilitate-egoera idealen ideia. Hortik sortzen da hezkuntza-espazioen definizioa elkartzeko, berdinen arteko harremanak ezartzeko eta integrazio hori bultzatzeko leku potentzial gisa, hauxe da, autore horrek bizikidetzeta-espazio gisa izendatzen dituenak dira horiek (Giménez Romero, 2005).

Desberdinen arteko topaketak bultzatzea, elkarrengana hurbiltzen laguntzea, harreman naturalak ezartzea, nortasun komunak sortzea eta abar ahalbidetu dezaketen balizko leku horiek, des-topagune bilaka daitezke baldintza desorekatuetan gertatzen badira. Harremanak behartuak eta etsaitasunezkoak diren espazio eta elkar jotzen duten nortasunak garatzea elikatzen duten espazio bihur daitezke, inolaz ere. Ezkutuan eta, ziur aski, sotilki, elkar baztertzeo jarrerak lantzen ari diren lekuak. Soziabilitatearen teoriak ezarritako etsaitasun-egoeren parekoa izango litzateke hori.

Edo litekenagoa da, hezkuntzaratze hori gertatzen ari den moduaren arabera, sistemak leku paraleloak, bereziak, egon daitezen bultzatzea eta indartzea, elkar baztertze hori eragiten ez dutenak, baina ezta Euskadiko gazteen artean integrazioa eraikitzeo beharrezkoak diren elkarreraginerako, identifikazio komunerako eta kulturen arteko harremanetarako aukerak ere. Koexistentzia hutseko espazioak izango lirateke.

Hezkuntza-sisteman sartzeko moduari buruzko azterketari esker, ikusiko dugu ikastetxeak benetan topaguneak edo des-topaguneak diren edo bizitza paraleloetara eramaten duten bideak diren. Hainbat kultura-jatorritako ikasleen artean nagusiki ezartzen diren harreman-motei buruzko datuak emango dizkigu, bai eta kolektibo horrek hezkuntzan txertatzeko izan ditzakeen integrazio-arazoei buruzkoak ere. Aukeratutako hizkuntza-ereduari edo tokiko hizkuntzen ezagutzari buruzko datuak ere funtsezkoak dira egungo gizartea nola ehuntzen ari den eta etorkizuna nola taxutuko den diagnostikatzeko. Horri guztiari esker, gogoeta egin ahal izango dugu esparru horretan politika publiko berriak sartzeko beharri edo egokitasunari buruz, politika horien ahalmen integratzaile guztia aprobeitatu dadin, baina berekin doazen segregazio sozialaren arriskueta erori gabe betiere.

Azkenik, garrantzitsua da aipatzea Euskal Autonomia Erkidegoan etorkinak eskolaratzeari buruzko aurretiazko azterlanek EAEko hizkuntza ofizialen ikaskuntzarekin lotutako erronkak eta aurrerapenak deskribatu dituztela nagusiki (Etxague et al., 2010; Ibarra-Bustinza, 2012; Etxeberria et al., 2018). Horrez gain, sumatu da irakasleek zailtasunak dituztela kulturarteko

hezkuntzarako trebetasunetan, bai eta familia etorkinen inplikazioan ere seme-alaben hezkuntza-prozesuetan parte hartzeko. Horrek zerikusia du bertako adingabeen eta adingabe etorkinen artean eskola-errendimenduan dauden desberdintasunekin (Etxebarria, et al., 2010; Etxebarria eta Intxausti, 2013; Elosua, 2019). Etxebarria eta Elosegui (2010) autoreek laburbildu dutenez, ikasle etorkinak EAEn gizarteratzeko oztopoen arrazoi nagusiak honako hauek dira: ikastetxe publikoetan zentralizatzea, hizkuntza ofizialak ikasteko mugak, errendimendu akademiko txikia, irakasleek gaitasun nahikoak ez izatea, aurreiritzi negatiboak eta gizarte-barterketa, ikasleen kulturarekiko eta jatorrizko hizkuntzarekiko axolagabekeria eta atzerritarrei buruzko legedian murrizketak areagotzea. Aurrekoa oinarri hartuta, nahiz eta alde zuzeneko azterlanek kohesio sozialaren, integrazioaren eta arrakasta akademikoaren zailtasunetan sakondu duten, hemen aurkeztutako azterketak aukera ematen du integrazio sozialarekin, genero-desberdintasunekin eta jatorriarekin hertsiki lotutako elementuetan sakontzeko, eta, hartara, azterketa sakonago bat egiteko integrazio sozialaren, hezkuntzarako sarbidearen, atxikipenaren eta amaiera akademikoaren mugei buruz.

Zer esaten digute EABlko datuek eskola-integrazioari buruz?

Atzerriko etorkinak hezkuntza-sisteman nola sartu diren aztertzeko, gutxienez hiru lanketa bereizi behar dira. Hasierako sarrera-azterketa, gaur egun Euskadiko hezkuntza-sisteman ikasten ari diren pertsonen profil demografikoa, haien jatorriak, egiten ari diren ikasketa-motak eta izan ditzaketen integratio-arazoak erakusten dituena. Horri esker, egungo esparruaren eta egoeraren xehetasunak ezagutu ditzakegu.

Bigarrenik, eta Euskadin noizbait ikasketa arautuak egin dituzten atzerritar jatorriko etorkinen hezkuntzaratzea nola gauzatu den sakondu aurretik, hezkuntza-sistema horretan urteetan parte hartu duen kolektiboari buruzko datuak behar ditugu.

Eta, azkenik, azterketa espezifikoko eta analitikoago hori behar dugu, hezkuntzaratze hori nola gertatu den eta hezkuntzaratze horrek zer emaitza sozial ekarri dituen jakiteko.

Atzerriko etorkinak gaur egun Euskadiko hezkuntza-sisteman sartzea

EABIren bidez hartutako atzerriko etorkinen multzoari buruzko lehen argazkiak erakutsi digu 2018an kolektibo horretako 60.639 lagun ari zirela EAEn ikasketaren bat egiten, hau da, etorkinak ziren 10 lagunetatik ia 3 (% 28,7). Gehienek sistema arautuaren barruan ikasten zuten (% 95,1), eta erdiak baino gehiagok (33.039) Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako hasierako etapetan; ia 20.000 bigarren mailako edo LHko ikasketak egiten ari ziren, eta 4.617 unibertsitate-ikasketetan (ikasten ari zen etorkin atzeritarren % 8).

Argazki horri haur-hezkuntzako ikastetxe edo haurtzaindegiren batera joaten ziren 5 urtetik beherako 12.432 haurrak gehitu beharko litzaizkioke; adingabe horien % 70,8 ziren. Gainerako 10 haurretatik 9k adierazi zuten ez zeudela eskolatuta familiak hala nahi izateagatik. Hala ere, adierazi behar da 639 kasutan plazarik eza aipatu zela derrigorrezko hezkuntzaren aurreko etapan eskolatu ez izanaren arrazoi gisa (adingabeen % 3,6).

1. taula. Atzerriko etorkinak hezkuntza-sisteman sartzearen ezaugarriak

Gaur egun ikasketa arautuak egiten al dituzu?			Zer ikasketa-mota egiten dituzu?				Haur-hezkuntzako ikastetxeren batera, haurtzaindegira edo antzekoren batera joaten al zara?			
Ikasketa arautuak	Arautu gabeko ikasketak	Ez da ikasten ari	Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	LH	Unibertsitate-ikasketak	Bai	Ez, familiak nahiago duelako	Ez, plazarik ez dagoelako	Ez, beste arrazoi batzuenatik
57.642	2.997	150.570	33.039	13.782	6.203	4.617	12.432	4.465	639	31
27,3	1,4	71,3	57,3	23,9	10,8	8,0	70,8	25,4	3,6	0,2

Iturria: Txostengileek egina. EABI 2018

Hezkuntza-sistamarako sarbidea ez da berdintasunezkoa aztertzen ari garen biztanleria osatzen duten kolektiboen aniztasun handiaren artean. Jatorria aldagaiari soilik erreparatuta, izugarri handiak dira aldeak. Magrebetik, Afrikako gainerako herrialdeetatik edo Txinatik etorritako pertsonen dagokionez, % 40 inguru ari ziren 2018an hezkuntza-sisteman ikasten. Balio horiek bikoiztu eta hirukoiztu ere egiten dituzte hezkuntza-sisteman sartzeari dagokionez Mendebaldeko EBtik edo Latinoamerikako herrialde gehienetatik etorritako pertsonen dituzten ehunekoak.

Emaiza horiek lotura estua dute pertsona horien bizikidetzaren guneen tamainarekin. Hurrengo taulak erakusten du hezkuntza-sisteman sartzeko mailen eta bizikidetzaren gunearen batez besteko tamainaren artean dagoen lotura hori eremu geografiko desberdinetako populazioetan.

2. taula. Ikasketaren bat (arautuak edo arautu gabeak) egiten ari diren etorkinen ehunekoa, jatorrizko eremuaren eta bizikidetzatza-gunearen batez besteko tamainaren arabera. 2018. urtea

Jatorrizko eremua	Gaur egun ikasten (%)	Bizikidetzatza-gunearen batez besteko tamaina
Afrikako gainerako herrialdeak	42,7	4,03
Magreb	40,8	4,10
Txina	35,7	4,47
Bolivia	32,9	3,66
Senegal	31,8	3,37
Munduko gainerako herrialdeak	31,6	3,94
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	31,0	3,60
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	24,1	2,98
Paraguai	21,2	2,72
Kolonia, Ekuador, Peru	19,8	3,35
Argentina, Txile, Uruguai	19,1	3,23
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	17,1	2,59
Mendebaldeko EB	14,8	2,81


Iturria: Txostengileek egina. EABI 2018

Halaber, sexua aldagaia ezinbestekoa da hezkuntza-sisteman sartzeko dauden desberdintasunak agerian uzteko. Oro har, gizonak emakumeek baino maila handixeagoak dituzte (% 31,8 eta % 26,2, hurrenez hurren), baina banaketa hori oso desberdina da pertsonen jatorriaren arabera. Sekzioen arteko azterketak erakutsi du Latinoamerikatik etorritako biztanleen hezkuntzaratzea nabarmen maskulinizatua dagoela, hau da, ikasten ari diren pertsonen proportzioa nabarmen handiagoa da gizonen kolektiboan emakumeen kolektiboan baino. Sexuaren arabera desberdintasun hori nabarmena da “Latinoamerikako gainerako herrialdeetako”¹ pertsonen artean (% 27,8 eta % 12,8); Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika kolektiboan, gizonen proportzioa emakumeena baino bi aldiz handiagoa da (% 36,1 eta % 17,9, hurrenez hurren) edo Bolivian eta Paraguain. Kontrako joera dago Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen artean. Izan ere, emakume senegaldarrek gizonak baino

¹ Kontuan izan behar da “Latinoamerikako gainerako herrialdeak” edo “Afrikako gainerako herrialdeak” kategoriak hondar-kategoria gisa eraiki direla, eta categoria horietan sartu direla eremu geografiko horietako gainerako kategorietan sartu ez diren herrialdeak. Beraz, “Afrikako gainerako herrialdeak” kategorian Magrebeko eta Senegaleko herrialdeetatik ez datozen pertsonak sartu dira. Eta “Latinoamerikako gainerako herrialdeak” kategorian, berriz, jatorriz Argentinakoak, Txilekoak, Uruguaiakoak, Kolonbiakoak, Ekuadorrekoak, Perukoak, Paraguaiakoak, Brasilgoak, Venezuelakoak, Dominikar Errepublikakoak edo Boliviakoak ez diren latinoamerikarrak.

proportzio handiagoan egiten dituzte ikasketak (% 39,8 emakumeek, eta % 28,2 gizonek); bai eta “Afrikako gainerako herrialdeetako” emakumeek ere (% 46,3 vs. % 39).

1. grafikoa. EAEn ikasketak egiten ari diren atzeritar jatorriko biztanleen proportzioa, jatorriaren eta sexuaren arabera



Iturria: Txostengileek egina. EABI 2018

Gaur egun Euskadiko hezkuntza-komunitatean dauden etorkinak deskribatzeko atal honekin jarraituz, atzera begirako ikuspegia eskaini nahi dugu, biztanleria hori hezkuntza-sisteman sartzearen bilakaerari buruzko zenbait joera interesgarri aztertzeko. Alde batetik, beherakada txiki bat nabari da bai kopuruan (1.423 lagun gutxiago), bai ikasten ari diren etorkinen multzoan dauden pertsonen proportzioan (2014ean % 31,8 izatetik 2018an %28,7 izatera). Baina aldaketa nabarmenena da 2014tik 2018ra bitartean ikasketa arautuek izandako goranzko joera nabaria; aldi horretan, beherakada nabarmena izan zuten arautu gabeko ikasketek. Lau urtean, 6.496 lagun gehiago ari ziren ikasketa arautuak egiten; 51.146 lagun izatetik 57.642 lagun izatera pasa baitziren. Arautu gabeko ikasketek, berriz, beherakada handia izan zuten, 7.919 lagun gutxiago 2018an.

3. taula. Etorrinen ikasketa arautuen eta arautu gabeko ikasketen bilakaera

	Datu Absolutuak			Datu Erlatiboak		
	Ikasketa arautuak	Arautu gabeko ikasketak	Ez da ikasten ari	Ikasketa arautuak	Arautu gabeko ikasketak	Ez da ikasten ari
2018	57.642	2.997	150.570	27,3	1,4	71,3
2014	51.146	10.916	133.183	26,2	5,6	68,2

Iturria: Txostengileek egina. EABI 2014 / 2018

Hezkuntza-sistema arautuan eta arautu gabeen sartzeko prozesuaren bilakaera xeheago aztertzean, pertsonen jatorria eta sexua aldagaiekin gurutzatuta, bi oharkizun argi nabari dira. Lehenengoa eta nabarmenena da bilakaeran dauden aldeak oso desberdinak direla jatorriaren arabera. Kasu batzuetan, hezkuntza-sisteman (arautua zein arautu gabea) sartzeko mailaren beherakada izugarria izan da Latinoamerikako jatorrizko kolektibo gehienetan (Argentina, Txile eta Uruguai; Kolonbia, Ekuador eta Peru, etab.); baina baita Senegaletik etorritako biztanlerian ere. Horren harira, Txinak izan duen kontrako joera nabarmentzen da, 2014 eta 2018 artean goranzko joera erakutsi baitu.

Eta bigarrena da sexua aldagaiak ere nabarmen markatu duela biztanleria horrek hezkuntzan izan duen sarreraren bilakaera. Kolektibo gehienetan, aztertutako aldiaren izan diren aldaketek antzeko joera erakutsi dute bi sexuetan, baina emakumeen eta gizonen arteko aldeak oso handiak dira horietako askoren artean. Horren erakusgarri dira Latinoamerikako gainerako herrialdeetako, Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako, Paraguaiko edo Magrebeko gizonen eta emakumeen bilakaeran ageri diren ehuneko hamar puntutik gorako aldeak.

4. taula. Ikasten ari den biztanleriaren bilakaera, jatorriaren eta sexuaren arabera. 2014. eta 2018. urteak

	Ikasketak egiten ditu, arautuak edo arautu gabeak																									
	Mendebaldeko EB		Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk		Magreb		Argentina, Txile, Uruguai		Kolonbia, Ekuador, Peru		Bolivia		Paraguai		Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika		Latino-amerikako gainerako herrialdeak		Txina		Senegal		Afrikako gainerako herrialdeak		Munduko gainerako herrialdeak	
	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	Emakumea
2014	19,8	26,5	32,8	30,5	37,1	44,4	31,9	32,5	35,1	23,0	43,4	26,4	37,0	15,8	38,1	30,0	25,6	22,3	29,2	25,5	37,0	50,7	34,8	35,8	39,2	40,2
2018	12,9	17,0	30,2	31,7	41,1	40,5	21,9	16,8	22,8	17,8	42,9	27,0	29,0	18,6	36,1	17,9	27,8	12,8	38,3	33,1	28,2	39,8	39,0	46,3	32,8	30,4

Iturria: Txostengileek egina. EABI 2014 / 2018

Gaur egun dauden eskola-integratioko arazoak ezagutzea

Azkenik, 2018an EAEn ikasten ari ziren pertsonen hezkuntzaratzearen aurkezpen orokorraren eta karakterizazioaren atal honekin amaitzeko, gertatzen ari daitezkeen eskola-integratioko arazoetan jarriko dugu arreta. Komeni da aldagai horri buruzko azalpen-ohar txiki bat sartzea. Alde batetik, hiru plano bereizi behar dira gizartean integratzeko arazoei dagokienez. Lehenengoa plano faktikoa izango litzateke eta sortzen diren arazoei erantzungo lieke. Bigarrenak pairatzen dituzten pertsonen sentitzen dituzten arazoei erantzungo lieke; eta

hirugarrena, hemen eskainiko duguna, azaldutako edo adierazitako arazoen esparrua izango litzateke. Idealki hiru planoen artean elkarrekikotasuna dagoela pentsa genezakeen arren, errealitatea konplexuagoa izan ohi da, eta tarteko beste aldagai batzuk barneratzen ditu, batzuetan hiru maila horien arteko erlazioan nabarmen eragiten dutenak. Beraz, gerta liteke norbaitek eskola-integrazioko arazo jakin bat izatea, eta horretaz ez jabetzea, eta, beraz, galdetzen diotenean ez aipatzea. Era berean, gerta daiteke ikastetxean norbait baztertua izatea, baina jendaurrean onartu nahi ez izatea. Beraz, nahiz eta gertatutakoaz jabetu, gerta daiteke jendaurrean onartu nahi ez izatea.

Bestalde, datu horiek biltzeko moduari buruzko ohar metodologiko osagarri bat gehitu behar dugu. Datuak familiei egindako galdetegitik datoz, eta, bertan, 16 urtetik gorako pertsonen etxean bizi diren familiako kideen eskola-integrazioari buruz eman dute erantzuna. Iturri hori oso fidagarria bada ere zenbait galdera errazetan, hala nola zer ikasketa egiten duten edo ikasketak baliozkotuta dituzten ala ez; ez da hain fidagarria eskola-integrazioko arazoei buruzko galderan. Horrek zerikusia du informazio hori ematen ari dena hirugarren pertsona bat izatearekin; izan ere, baliteke pertsona horrek ez jakitea gainerako bizikideak bizitzen ari diren esperientziari buruzko xehetasun askorik. Kasu honetan, gainera, lehen aipatutako plano eta faktore guztiek eta bizikideen arteko komunikazio mailak baldintzatzen dute plano faktikoaren eta elkarrizketatuek adierazitakoaren arteko elkarrekikotasuna. Beraz, eskola-integrazioko arazoak aintzatesteko, beharrezkoa da hirugarren pertsona horiek egoerak de facto “ezagutzea”, kasu batzuetan ez baitute zertan gertatu.

Balio bezate adierazitako ohar horiek gure interpretazioa argudiatzeko, hau da, aipatutako arazoei buruz azaldutako datuek hezkuntza-sisteman gertatzen ari daitezkeen egiazko integrazio-arazoak minimoki islatu eta, beraz, gutxietsi egin ditzaketela. Dena den, atzerritar jatorriko etorkinek izan ditzaketen zailtasunetara hurbiltzeko eta horiek aztertzeko bide interesgarria dira, inolaz ere.

2018ko EABIren datuen arabera, unibertsitate-hezkuntzaren aurreko etapetan ikasketa aratuak egiten ari diren pertsonen % 73,9k adierazi du ez duela inolako arazorik eskolan integratzeko. Adierazpen positiboa, proportzionalki handiagoa dena nesken kasuan (% 78,7 eta % 68,8, hurrenez hurren). Hala ere, adierazi ditugun oharrak kontuan hartu behar dira, interpretatu behar baita agian gutxiespena dagoela datuen atzean, inork ez baitu adierazi arazoak dituela erlijioarekin zerikusia duten arrazoiengatik edo elikadura-kontuengatik. Ikastetxeetan etorkin asko egotearen arazoa gutxitan aipatu izana (kolektibo horren balizko pilaketa eta eskola-segregazioa), beraz, ezin da interpretatu ikastetxe edo hizkuntza-eredu jakin batzuetan ikasle etorkinen gehiegizko pilaketarik ez dagoela, esate baterako, hezkuntza-koexistentziako egoera baten “problematizazio” eza tartean egon baitaiteke.

Kontuan hartzen badugu 16 urtetik gorako pertsonen eman dituztela unibertsitate aurreko etapetan ikasten ari diren pertsonen eskola-integrazioari buruzko galdera horren erantzunak, badakigu erantzun gehienak hirugarren pertsonen eman dituztela. Horrek azaltzen du gehien eta nabarmenen adierazi den arazoa eskola-atzerapena izatea (adierazpenen % 53), arazo hori errazago hautematen baitute protagonistak ez diren subjektuek. Hizkuntzekiko arazoak dira gehien aipatu den hurrengoa, adierazpenen % 21,6rekin eta, kasu honetan, arazo horrek islatzen duen fideltasun mailatik haratago, balio digu ulertzeko hizkuntzaren gaia kolektiboa gehien kezkatzen duenetako bat dela eta azterketa zehatzagoa behar duela.

Jatorriaren arabera eskola-integrazioko arazoetara hurbiltzeko azken begiradak datu aipagarri batzuk eskaini dizkigu. Lehenik eta behin, badira kolektibo batzuk ia ez dutela eskola-integrazioko arazorik adierazi dutenak, esate baterako Paraguai (% 98k dio ez duela inolako arazorik arlo horretan); Argentina, Txile, Uruguai (% 86,8) eta kasu deigarriena: Magreb, % 88,2k adierazi baitu ez duela integrazio-arazorik. Arlo horretan eta, bereziki, kolektibo horrekin esku hartzen dugun esperientziagatik, datu hori deigarria izateaz gain, kezkarria ere bada (Lasheras Ruiz & Andueza Imirizaldu, 2014a, 2014b, 2014c, 2018; Lasheras Ruiz, Andueza Imirizaldu, & Jabat Torres, 2020).

Jakinda gai erlijiosoekin lotutako arazoak sortzen direla (hiyab erabiltzearekin edo halal janariarekin lotuak), bai eta elikadurarekin lotutako arazoak ere (batez ere nesken artean), galdetegiaren emaitzetan ez adierazteak, zerikusirik bai ote du senideak arazo horien jakitun ez izatearekin? Zenbateraino jabetzen ote dira edo ezagutzen ote dituzte gurasoek edo senide helduek adingabeak eskolan integratzeko izaten ari diren arazoak? Gazte etorkinek bizi ditzaketen arazoen gutxiespen orokor horretatik abiatuta sortzen den eszenatokia bereziki kezkarria izango litzateke familiakoek berek ez ezagutzearen ondorioz gertatuko balitz. Hipotesi hutsak, gure ustez, azterketa bat eskatzen du, hurbileko senideek eskola-integrazioko balizko arazoei buruz izan dezaketen ezagutza-mailan sakontzeko eta horren inguruan adingabeek, haien familiek eta ikastetxeek egiten duten kudeaketa ezagutzeko.

5. taula. Etorkinek adierazitako eskola-integrazioko arazoak, jatorriaren eta sexuaren arabera

Jatorrizko eremu geografikoa / Sexua	Eskola-integrazioko arazoak									
	Arazorik ez	Eskola-atzerapena	Baztertea	Eskola-absentismoa	Arazoak hizkuntzarekin	Arazoak erlijioarekin	Elikadura-arazoak	Etorkin asko	Beste	Eskola-integrazioko arazoak guztira
Mendebaldeko EB	83,9	2,1	1,4	0,0	1,4	0,0	0,0	0,0	0,0	4,9
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	86,1	2,9	0,0	0,0	0,6	0,0	0,0	0,0	0,0	3,5
Magreb	88,2	5,9	0,0	1,5	1,5	0,0	0,0	0,0	0,0	8,8
Argentina, Txile, Uruguai	86,8	0,8	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,8
Kolonbia, Ekuador, Peru	71,5	7,8	4,6	0,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	14,4
Bolivia	40,9	12,4	3,3	0,0	10,4	0,0	0,0	2,5	0,0	28,7
Paraguai	98,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	56,7	10,6	0,0	0,6	0,0	0,0	0,0	4,6	0,0	15,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	58,1	4,5	2,8	0,0	2,8	0,0	0,0	0,0	0,0	10,1
Txina	81,7	1,2	0,0	0,0	0,9	0,0	0,0	0,0	0,0	2,1
Senegal	73,3	1,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,4
Afrikako gainerako herrialdeak	74,7	2,5	2,8	0,0	1,4	0,0	0,0	0,0	1,4	8,0
Munduko gainerako herrialdeak	90,9	0,7	0,0	0,0	0,6	0,0	0,0	0,0	0,0	1,2
Guztira	73,9	53,0	14,8	2,1	21,6	0,0	0,0	7,1	1,4	100,0
Gizonak	68,8	52,4	8,6	3,5	29,0	0,0	0,0	6,6	0,0	61,1
Emakumeak	78,7	53,9	24,5	0,0	10,0	0,0	0,0	8,0	3,5	38,9

Iturria: Txostengileek egina. EABI 2018

Atzerriko etorkinek hezkuntzaren arloan metatutako esperientzia

Aurreko atalean, Euskadiko hezkuntza-sisteman txertatutako atzerritar jatorriko biztanleriaren azterketa deskribatzailea izan dugu ardatz, edozein motatako ikasketak egiten ari diren pertsona guztiak barne hartuta, haien adina edozein dela ere. Atal honetan, berriz, desberdin samarra, baina aldi berean nabarmen desberdina den biztanlerian oinarrituko gara: 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleria, EAEn ikasketa arautuak egiten ari dena edo noizbait egin dituen. Aldea nabarmena da, kasu honetan ez baita kontuan hartu 16 urtetik beherako pertsonen esperientzia; bai, ordea, noizbait Euskadiko hezkuntza-sistema araututik igaro diren guztiena.

Datuak lortzeko erabilitako galdetegiak berak eragin du aztergai den populazioa aldatzea. Aurreko datuak *EABLren familia-galdetegitik* datoz. Inkesta egin zitzaizen pertsonen (16 urtetik gorakoak) beren bizikidetzaren unitateko kide guztiei buruzko oinarritzko datuak galdetu zitzaizkien hartan. Horregatik, eskaini ahal izan ziren 5 urtetik beherakoak haurtzaindegietara joateari buruzko edo arautu gabeko ikasketak egiten ari zirenei buruzko datuak, esate baterako. Galdetegi haren bidez bildutako informazioak hirugarren pertsona bizikideei buruzko datuak barne hartzen zituenez, ez zen ia galdetu beren hezkuntza-esperientziaren ezaugarriei buruz, hala nola ikaskideekin zituzten harremanei buruz, baina aukeratutako hizkuntza-ereduei buruz ere ez zen galdetu. Galdera horiek jaso ditu galdetegi honek, eta inkestatutako pertsonen zuzenean galdetu zaie Euskadin izandako hezkuntza-ibilbidean zehar eduki ahal izan dituzten zailtasunei buruz. Horri esker, hurbilgotik ezagutuko dugu hezkuntza-sisteman sartzea egiaz nola izan den, eta beharreko elementuak izango ditugu hasieran planteatu dugun galderari erantzuteko; hau da, hezkuntza-sisteman sartzeak nola lagundu du ala ez kolektibo hori, gizartean, oro har, integratzen?

Hezkuntzaratze hori gertatzen ari den moduari buruzko alderdi kualitatibo zehatzenetan murgildu aurretik, hurbilketa bat eskainiko dugu erreferentziako biztanleria osora.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da 2018an 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko 35.663 lagun genituela, beren bizitzako uneren batean EAEn hezkuntza-sistemaren barruan ikasi zutenak. Erreferentziazko populazioaren % 21,6 ziren horiek, beheranzko joera txiki batekin 2010eko % 22,6arekin eta 2014ko % 23,1ekin alderatzen badugu.

Jatorrizko lurraldeari dagokionez, sistema arautuan termino absolutuetan esperientzia handiena izan zuen kolektiboa Kolonbia, Ekuador eta Perutik etorritakoa zen, 7.550 lagun baitziren, hauxe da, Euskadiko hezkuntza-sisteman esperientzia zuten etorkinen % 21,2. Hurrengo handiena Magrebetik etorritakoa izan zen, 5.523 lagun, hauxe da, % 15,1. Beste muturrean daude

Senegaleko (508) eta Txinako (689) kolektiboak; horien presentzia ez da iristen EAEn ikasketa arautuetan esperientzia dutenen % 2ra.

Berriro ere, sexuaren eta jatorriaren arabera desberdintasunei xeheago erreparatuta, desberdintasun handiak ikusi ditugu kolektibo batzuetan. Kasurik nabarmenenak Latinoamerikako pertsonen artean gertatuko lirateke; batez ere, Boliviako kolektiboan, non EAEn ikasketa arautuen esperientzia duten gizonen proportzioa jatorri bereko emakumeen ehunekoa baino 27,5 puntu handiagoa baita; edo Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleen artean, haietan ere aldea 28,2 puntukoa baitzen gizonen alde; edo Argentina, Txile, Uruguai kolektiboan eta Brasilen, 14 puntu gutxiagorekin emakumeak gizonak baino.

6. taula. 16 urteko edo gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleria, ikasketa arautuetan esperientzia duena, jatorrizko eremu geografikoaren eta sexuaren arabera. 2018. urtea

Jatorrizko eremua	Euskadin ikasketa arautuetan esperientzia duten biztanleak						
	Guztira			Emakumea		Gizona	
	Abs.	% ver.	% hor.	Abs.	% hor.	Abs.	% hor.
Mendebaldeko EB	3.205	9,0	23,1	1.682	25,8	1.523	20,7
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	2.426	6,8	15,0	1.705	17,1	721	11,7
Magreb	5.523	15,5	22,1	1.609	19,3	3.914	23,5
Argentina, Txile, Uruguai	1.950	5,5	29,0	844	22,7	1.106	36,7
Kolonia, Ekuador, Peru	7.550	21,2	26,5	5.131	26,2	2.419	27,0
Bolivia	2.823	7,9	26,2	1.307	17,6	1.516	45,1
Paraguai	907	2,5	15,5	675	14,4	232	19,7
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	3.209	9,0	25,1	1.886	21,2	1.323	33,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	3.138	8,8	19,5	1.564	12,7	1.574	41,0
Txina	689	1,9	18,5	379	19,3	310	17,5
Senegal	508	1,4	12,3	85	11,0	423	12,6
Afrikako gainerako herrialdeak	2.141	6,0	23,2	1.275	27,5	866	18,9
Munduko gainerako herrialdeak	1.592	4,5	13,0	986	16,9	606	9,5
Guztira	35.661	100,0	21,6	19.128	20,2	16.533	23,4

Iturria: Txostengileek egina. EABI 2018

Pertsona horiek Euskadiko hezkuntza-sisteman lehen aldiz sartu zireneko ikasketa-mailari buruzko datuek erakutsi digutenez, pertsona horien herena baino ez zen sartu Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako hasierako etapetan (% 36,5). Pertsona horiek gaur egun dutena baino hogeit hamar puntu txikiagoa da ehuneko hori (% 57,3), eta horrek adierazten du sistemarentzat berarentzat erronka handia izan dela hezkuntza-ibilbidearen erdian iristen diren pertsonak integratzeko. Erdia baino gehiago DBHn (% 26,6) edo bigarren hezkuntzan / LHn (% 27,3) sartuak ziren. % 9,5 ziren zuzenean unibertsitate-ikasketetan sartu ziren ikasleak. 2010ekoaren ia berdina da ehuneko hori, eta desberdina, berriz, 2014koarekin alderatzen badugu; izan ere, sisteman unibertsitateko etapen sartzeko ehunekoak (% 17,4) nabarmen handiagoak ziren 2010ekoak (% 10) eta 2018koak (% 9,5) baino.

Unibertsitate-etapan sartzeko ehunekoaren beherakada orokorra izan bada ere 2014 eta 2018 urteen artean, maila handiagoak nabari dira zenbait kolektibo espezifikotan. Murrizketa ehuneko 20 puntutik gorakoa da EBko Mendebaldeko herrialdeetako biztanleen artean eta Argentina/Txile/Uruguaitik etorritakoen artean. Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikatik iritsitako kolektiboa -12,6 puntutan dabil, eta - 7,6 eta - 8,6 ehuneko puntuen artean, berriz, Txinatik eta Munduko gainerako lurraldeetatik etorritako pertsonen ehunekoak.

Unibertsitate-etapan sartzeari dagokionez, 2010 eta 2018 urteetako datuen artean itxuraz nabari den analogiak bilakaera-motak estaltzen ditu pertsonen jatorriaren arabera. Hala, 2010 eta 2018 artean ehuneko 5 puntutik gorako beherakadak nabari dira EBko mendebaldeko herrialdeetatik, Magrebetik, Boliviatik, Afrikako gainerako herrialdeetatik eta Munduko gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleriaren kasuan; Txinaren kasuan, berriz, % 3,9.

2018an, aldiz, proportzioa 2010ekoa baino ehuneko 4 - 5,7 puntu handiagoa da Argentina/Txilen/Uruguai, Kolonbia/Ekuador/Peru kolektiboetan, Paraguain eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikan, eta ehuneko 10 - 11 puntu handiagoa Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetako eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetako biztanleriari dagokienez. Paraguaireren eta Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublikaren kasuan izan ezik, aipatutako jatorrizko taldeetan, hezkuntza-sisteman unibertsitate-etapan sartu direnen proportzioa % 10etik gora mantendu zen 2018an. % 15 eta % 19,1 arteko mailalara ere iritsi zen Ekialdeko EBtik, Argentina/Txile/Uruguaitik eta Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik etorritako biztanleen kasuan.

Ondorengo taulan, kolektibo horietako pertsonak sartu zireneko mailari buruzko datuen bilakaera ageri da, jatorrizko eremuaren eta sexuaren arabera. Aldagai horiek gurutzatzea interesgarria da batez ere derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetako datuak aztertze orduan: bigarren hezkuntza eta LH eta zuzenean unibertsitatean sartzea. Etapa horietan matrikulatzeko edo ez matrikulatzeko aukera dute pertsonak, eta sexuaren aldagaia aztertuta, erabaki

horien atzean egon daitezkeen genero-desberdintasunak erakuts diezazkiguke. Aurreko etapetan, eskolatzea derrigorrezkoa denez, Lehen Hezkuntzan, Haur Hezkuntzan eta DBHn sexuaren arabera egon daitezkeen aldeak desberdintasun demografiko gisa interpretatzen dira, hezkuntzaratzean islatzen direnak.

Derrigorrezkoaren ondoko etapetan sartzeari dagokionez, datu interesgarri batzuk nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu kolektibo gehienetan emakumeen proportzioa handiagoa dela Euskadin beren hezkuntza-espereentzia unibertsitate-etapan hasi dutenen artean. Salbuespena dira Mendebaldeko EBtik, Kolonbia, Peru eta Ekuadorretik, eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritako gizonak, proportzioan jatorri bereko emakumeak gaituzten baitituzte zuzenean unibertsitatean sartzeari dagokionez. Bestalde, deigarria da Senegaletik etorritako inor ez dela sartu Euskadin bigarren hezkuntzaren ondorengo etapetan. Txinatik etorritako gizonak ere ez dute egin, bai ordea emakumeek, bigarren hezkuntzan/LHn nahiz unibertsitatean sartu baitira haiek. Hain zuzen ere, Txinatik, Paraguaitik eta Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuetatik etorritakoetan ez dago Euskadin goi-mailako hezkuntzan ikasketak hasi dituen gizonik.

Azkenik, esan behar da emakumeak direla ia kolektibo guztietan derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan gehien sartzen direnak, bai unibertsitatean sartzeari dagokionez, bai bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako etapetan. Ondorioz, atzerritar jatorriko emakumeen % 43,4 EAEko hezkuntza-sisteman derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapetan sartu ziren lehenengo aldiz, eta gizonen kasuan, berriz, % 29,3 sartu ziren une horretan. Emakumeek Euskadiko lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak izatea, edo rol sozialetan egon daiteken aldea, gizonak neurri handiagoan hartu ahal izan baitute beren gain familiak bizirauteko beharrezko baliabideez hornitzeko erantzukizun hori, egon daitezke atzerritarren etorkin multzoan sexuaren arabera dauden desberdintasun garbi horien atzean.

7. taula. Ikasketa arautuetan esperientzia duten 16 urteko edo gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak EAEko hezkuntza-sisteman zein mailatan sartu diren, jatorrizko eremu geografikoaren eta sexuaren arabera. 2018. urtea

Zein mailatan sartu zinen lehen aldiz EAEko hezkuntza-sisteman?					
Jatorrizko eremua	Sexua	Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	DBH	Bigarren Hezkuntza / LH	Unibertsitate-ikasketak
Mendebaldeko EB	Gizona	81,4	4,5	2,3	11,8
	Emakumea	79,6	4,0	11,9	4,5
	Guztira	80,4	4,3	7,3	8,0
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	Gizona	35,4	23,6	41,1	0,0
	Emakumea	27,8	17,9	27,0	27,2
	Guztira	30,0	19,6	31,2	19,1
Magreb	Varón	19,4	49,6	28,9	2,0
	Mujer	43,4	30,4	15,8	10,4
	Total	26,4	44,0	25,1	4,5
Argentina, Txile, Uruguai	Gizona	43,2	12,7	30,1	14,0
	Emakumea	17,6	14,2	45,0	23,2
	Guztira	32,1	13,3	36,5	18,0
Kolonbia, Ekuador, Peru	Gizona	37,2	27,2	16,5	19,1
	Emakumea	22,6	33,2	35,6	8,6
	Guztira	27,3	31,3	29,5	12,0
Bolivia	Gizona	58,6	29,9	10,4	1,1
	Emakumea	33,3	15,6	49,7	1,5
	Guztira	46,9	23,3	28,6	1,3
Paraguai	Gizona	28,6	42,9	28,6	0,0
	Emakumea	1,3	29,2	62,2	7,3
	Guztira	8,3	32,7	53,6	5,4
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	Gizona	48,3	31,0	14,7	6,0
	Emakumea	26,3	28,8	34,0	10,9
	Guztira	35,4	29,7	26,0	8,9
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	Varón	45,6	1,4	41,3	11,6
	Mujer	23,2	3,4	55,0	18,4
	Total	34,5	2,4	48,2	15,0
Txina	Gizona	83,2	16,8	0,0	0,0
	Emakumea	75,5	7,9	3,7	12,9
	Guztira	79,0	11,9	2,0	7,1
Senegal	Gizona	22,0	78,0	0,0	0,0
	Emakumea	25,9	74,1	0,0	0,0
	Guztira	22,7	77,3	0,0	0,0
Afrikako gainerako herrialdeak	Gizona	42,0	38,4	15,7	3,9
	Emakumea	40,8	43,7	15,4	0,0
	Guztira	41,3	41,6	15,6	1,6
Munduko gainerako herrialdeak	Gizona	26,6	33,5	32,8	7,1
	Emakumea	25,8	28,6	23,7	21,9
	Guztira	26,1	30,5	27,2	16,3
Guztira	Gizona	41,3	29,5	21,8	7,5
	Emakumea	32,4	24,1	32,1	11,3
	Guztira	36,5	26,6	27,3	9,5

Esparru orokorra erakusten duten datu horiekin, pertsona horiek hezkuntza-sisteman nola integratu diren sakontzeko moduan gaude.

Sistemaren egituraketa, hizkuntza-ereduetatik abiatuta, eta egon daitekeen eskola-segregazioa

Integrazio sozialak, ezinbestean, gutxieneko komunikazio eta elkarreragin bat eskatzen du harrera-populazioaren eta etorkinen artean; eta elkarreragin hori ahalbidetzen duten hizkuntza komunak jakitea nahitaezko baldintza da desiratutako integrazio hori lortzeko. Beraz, lurraldeko hizkuntzetako bat gutxienez jakitea da, neurri handi batean, etorkinen gizarteratzearen bilakaera markatzen duen baldintza, eta hezkuntza-sistemak pertsonen gizarteratze-prozesuari egiten dion ekarpen handienetako bat da. Baina eguneko ordu askotan espazio berean bizitzeak, sistema horrek elkarreraginerako eta harremanetarako eskaintzen dituen aukerek, integrazioa bultzatzeko aparteko gaitasuna duen tresna bihurtzen dute.

Hala ere, Euskadiko hezkuntza-sistema, Nafarroakoa bezala, hainbat hizkuntza-ereduren bidez egituratzen da, eta aukera eskaintzen da A ereduan gaztelania hutsean ikasteko (atzerriko hizkuntzak eta euskara irakasgaiak izan ezik), D ereduan euskara hutsean ikasteko (atzerriko hizkuntzak eta gaztelania irakasgaiak izan ezik) eta B ereduan euskara eta gaztelania konbinatzeko (Jaurilaritza, 1983). Ereduen arabera bereizitako sistema bat, integrazio sozialaren ikuspuntutik begiratuta, erronka bat izan daiteke berekin daraman partzelazioagatik eta eragin dezakeen segregazioagatik. Sistemaren egituraketak balio izan al du hezkuntza-segregazioa errazteko eta, beraz, EAEn hezkuntzaratzea eta gizarteratzea mugatzeko?


Kezka hori buruan izanda erabaki dugu etorkinak zein hizkuntza-eredutan sartzen diren ardatz hartuta aztertzea eskola-integrazioa.

Euskadin, eskura ditugun azken matrikulazio-datuen arabera, 2021/22 ikasturtean, ikasleen % 94k lurraldeko hizkuntza ofizialetako batean egiten zituzten unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko ikasketak. Hamarretik ia 7k D ereduan ikasten zuten (% 67,9), eta gainerakoak antzera banatzen ziren A ereduan (% 14,4) eta B ereduan (% 17,1) (<https://www.eustat.eus>).

Eustatek emandako matrikulazio-datuak oso baliagarriak dira hezkuntza-sistemarako sarbidea aztertzeko, batez ere matrikulatutako ikasle guztien datuak ematen dituelako. Behin betiko matrikulazioari buruz eskura ditugun azken datuak 2019/20 ikasturtekoak dira, eta, horri esker, lehenengo hurbilketa hau egin dezakegu eskola-integrazio edo eskola-segregazio horren azterketara. Atzerriko eta Espainiako nazionalitatea duten ikasleen matrikulak alderatzen baditugu, ikusiko dugu, oro har, bi kolektiboetan nagusiki euskaraz ikastea

hobesten dela, atzerriko nazionalitatea duten ikasleen ia erdiak hala aukeratu baitu, bai eta gainerako ikasleen %68k ere. Alde handia dago euskarak presentzia anekdotikoa duen edo presentziarik ez duen ereduaren aldeko apustuan; izan ere, atzerriko 10 ikasletik 3 daude horretan, eta Espainiako nazionalitatea duten biztanleen %14k bakarrik aukeratu du. Atzerriko nazionalitatea duten ikasleen artean A ereduaren aldeko ehuneko 20 puntuko aldea eta euskal eredu eskuratzeko 20 puntuko aldeak agerian uzten dute alde hori, oraindik ere nabarmena, atzerriko biztanleen artean hizkuntza-ereduak aukeratzeko. Datu horiek alde nabarmenak erakutsi dizkigute, baina ezkutatu egiten dituzte Espainiako nazionalitatea duten atzerriar jatorriko ikasleen edo ondorengoen aukerak.

2. grafikoa. EAEn unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, hizkuntza-ereduaren eta nazionalitatearen arabera. 2019/2020 ikasturtea




Iturria: Txostengileek egina, Eustat 2021 oinarri hartuta

EABIren inkestak datu osagarriak ematen ditu, eta datu horiek lagunduko digute pertsonen jatorriaren arabera (nazionalitatea edozein dela ere) eredu desberdinak aukeratzeko hori hobeto zehazten. Era berean, begirada diakronikoagoa eta historikoagoa ematen digu hezkuntzan txertatze eta integratze hori nola gertatu den jakiteko. Horregatik, berriro ere jakin behar dugu Eustatek eskaintako argazki sinkronikoa eta egungoa guztiz desberdina dela hemendik aurrera aurkeztuko diren EABIko datuek islatutako argazki diakroniko eta multzokoarekin alderatuta. Kasu honetan, 16 urtetik gorako atzerriar jatorriko etorkin guztiak hartu dira kontuan, gaur egun EAEn unibertsitatez kanpoko ikasketak egiten ari direnak edo noizbait egin dituztenak. Horrenbestez, duela 20 urte ikasketak egin zituzten pertsonak sartzen dira, adibidez, gaur egun hezkuntza-sistematik kanpo daudenak. Hezkuntza-sistematik igaro diren atzerriar jatorriko etorkin guztien atzera begirako ikuspegi metatua eskaintzen du, baina ez ditu kontuan hartu gaur egun hezkuntza-sisteman dauden 16 urtetik beherako biztanleak, ez eta Euskadin goi-mailako hezkuntzan ikasketak hasi zituztenak ere.

Datu-iturri horrek Eustatek emandakoaren oso bestelako irudia ematen digu, non oro har ikusten den historikoki eta atzerritar jatorriko ikasle guztientzat A ereduaren aukerak lehentasuna izan duela gehienentzat. 2018ko inkestako datuen arabera, % 67,3k A ereduak aukeratu zuen, 2014koa baino ehuneko nabarmen txikiagoa (% 87,5). Horrek erakusten du eredu horrek beheranzko joera nabarmena duela D (% 15 +) eta B (% 6 +) ereduaren alde. Kontuan hartuta D ereduak pisu handia duela Euskadin, eta atzerritar jatorriko etorkinek proportzionalki ez dutela sarrera handirik eredu horretan, Euskadin hezkuntza-eremuan egon daitekeen segregazio historikoaren hipotesia zehazten hasi da. Aurretiko azterketek, halaber, egiaztatu dute oztopoak daudela integrazioan eta segregazio instituzionala EAEko etorkinek hezkuntzan duten sarbidean (Alkorta eta Shershneva, 2021).

3. grafikoa. Euskadin 16 urtetik gorako atzerritar etorkinek aukeratutako hizkuntza-ereduaren bilakaera. 2014. eta 2018. urteak



Iturria: Txostengileek egina. EABI 2014/ / 2018

Hezkuntza-sistemaren azterketari dagokionez, oso interesgarria da jakitea, baretik, hezkuntza-erakundeek berek nolabait eragingo ote zuten hizkuntza-ereduari buruzko erabaki horiek hartzean, hizkuntza-eredu baterantz edo besterantz bideratuko zituzten ala ez. Aurkezten diren datuak hezkuntza-sisteman unibertsitate-ikasketen aurreko mailetan sartu ziren ikasleei dagozkie.

Jasotako orientazio-mailari buruzko datuek gorabehera nabarmenak ageri dituzte galdetegia egin zen urtearen arabera. Nekez aldatzen dena honako hau da: inolako orientaziorik ez dutela izan dioten pertsonak eta A ereduaren bideratutakoak batzen baditugu (hau da, esan daiteke “euskara irakas-hizkuntza duten ereduera ez bideratzea” dela hori), ehunekoak % 90 ingurukoak dira kasu guztietan. Horrek frogatzen du hezkuntza-sistemak berak ia ez dituela orientatu euskaraz ikasteko aukera ematen duten ereduaren sar zitezten. Ziur aski, gehiengoaren ereduak, euskal ereduak, ez bideratzeko erabaki instituzional horien atzean, non Euskadiko bertako biztanle gehienak eskolatzen diren, zerikusia izango luke epe laburrean hezkuntza-sistema berri batean eskolatzea lortzearekin. Ez dugu ahaztu behar sistemarentzat izugarri

erronka handia dela % 57,3 lehen hezkuntzaren ondorengo etapetan sartu izana sisteman. Hala ere, aukeratutako ereduari buruzko erabaki horien atzean egon daitezkeen arrazoiak alde batera utzita, eta ikastetxeek eredu baterantz ez bideratzeko edo, izatekotan ere, gaztelaniazko eredurantz bideratzeko egindako hautua alde batera utzita, horrek eskola-integrazioaren ikuspegitik izan dituen emaitzak aztertuko dira hemen.

8. taula. Atzerriko 16 urteko edo gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, hizkuntza-eredu jakin batean sartzeko jasotako orientazioaren arabera. 2010, 2014, 2018 urteak

Urtea / Sexua	Orientazioa hezkuntza-sisteman sartzean				Orientazioa Euskara	
	Orientaziorik ez	Orientazioa eredu zehatz baterantz			Ez	Bai
		A	B	D		
2010	42,7	44,2	8,4	4,8	86,8	13,2
2014	30,4	62,2	4,6	2,8	92,6	7,4
2018	59,2	27,2	7,8	5,8	86,3	13,7
Gizona	55,2	64,3	13,4	22,3	84,1	15,9
Emakumea	62,7	70,2	15,9	13,9	88,0	12,0

Iturria: Txostengileek egina. Datuak EABI 2010/2014/2018

Pertsonen sexuaren arabera jasotako orientazioari dagokionez, ez da alde handirik ikusten. Joerak berdinak dira bi sexuetan, nahiz eta badirudi emakumeek orientazio txikiagoa jaso dutela aukeratu beharreko hizkuntza-ereduari buruz, eta, jaso dutenean, orientazio handiagoa hartu zutela A eta B ereduarentz. Beraz, joerak hain antzekoak izanik eta desberdintasunak hain txikiak izanik, uler daiteke orientazioa berdina izan dela bi sexuentzat, eta datuen arteko aldea beste ezusteko faktore batzuen ondorio izan daitekeela.

Oraingoan ere, pertsonen jatorrizko eremuak aintzat hartuta erreparatzen badiogu hizkuntza-ereduetan izan duten sarbideari, lehentasun heterogeneo batzuk aurkituko ditugu. Oro har, A ereduak da herrialde guztietan lehenetsi dena, Senegalen izan ezik, han B ereduak pisu handiagoa izan baitu (% 54,8) A ereduak (% 37) eta D ereduak (% 8,2) baino. Gaztelania hizkuntza duten herrialdeek apustu sendoa egin dute A ereduaren alde, Paraguairen % 100 eta Argentina Txile eta Uruguairen % 63,8 bitarteko balioekin. Salbuespena Boliviako pertsonak izan dira, oso antzeko ehunekoak baitituzte A ereduan (% 42,2) eta D ereduan (% 40,4).

Boliviatar jatorriko pertsonak dira, Mendebaldeko EBko eta Txinako eskualdeetatik etorritakoekin batera, D ereduan hezkuntzaratze-ehuneko handienak dituztenak, Txinan % 32,2 eta Mendebaldeko EBn % 45,1 artean.

Jatorriz Afrikakoak diren pertsonen artean, haien ama-hizkuntzak Euskadiko egungo bi hizkuntza ofizialen desberdinak direnean, bi joera desberdin nabari dira. Alde batetik, Senegaleko pertsonak egongo lirateke, eta, esan bezala, euskara irakas-hizkuntza duten ereduak aukeratu dituzte % 63an; eta, bestetik, Magrebekoak eta Afrikako gainerako herrialdeetakoak daude, gaztelania hutsezko ereduaren alde egin dutenak, % 78ko balioarekin Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritako pertsonen kasuan eta % 69,8rekin Magrebetik etorritakoen kasuan. Azken kolektibo horren artean, D eredia, bertako hizkuntza ikasteko aukera ez ezik, gehiengoak egindako ereduari sartzeko aukera ere ematen duena, % 6,3k baino ez dute aukeratu, eta eredu hori proportzionalki gutxien hautatu duen herrialdeetako bat da.

9. taula. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleak, jatorrizko eremuaren eta ikasitako hizkuntza-ereduaren arabera

Jatorrizko eremu geografikoa	Hizkuntza-eredua		
	A	B	D
Mendebaldeko EB	50,3	4,6	45,1
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	60,3	10,8	28,9
Magreb	69,8	23,9	6,3
Argentina, Txile, Uruguai	63,8	23,7	12,5
Kolonia, Ekuador, Peru	72,7	10,5	16,8
Bolivia	42,4	17,2	40,4
Paraguai	100,0	0,0	0,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	71,2	26,2	2,6
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	68,1	0,0	31,9
Txina	45,6	22,2	32,2
Senegal	37,0	54,8	8,2
Afrikako gainerako herrialdeak	78,0	9,3	12,7
Munduko gainerako herrialdeak	91,2	0,0	8,8
GUZTIRA	67,3	14,7	18,0
Gizona	64,3	13,4	22,3
Emakumea	70,2	15,9	13,9

Iturria: Txostengileek egina, 2018ko EABIko datuak oinarri hartuta

Hizkuntza-ereduetan hizkuntzak ikastea

Euskadiko hezkuntza-sistema ikasketen irakas-hizkuntzaren arabera hainbat eredutan banatua dagoenez, egokia litzateke eredu horien arabera banatuta aztertzea hizkuntzen ikaskuntza. Horren harira, EABIk interes handiko datuak ematen ditu, besteak beste, honako hauek: hezkuntza-sisteman lehen aldiz sartu zirenean zein hizkuntza-maila zuten, hizkuntzak ikasteko zenbat denbora behar izan duten, hezkuntza-etapan hizkuntzekin zein arazo izan dituzten, eskatutako hizkuntza-maila lortzeko eskola-laguntzarik eza sumatu duten eta, azkenik, pertsonak EAEko hizkuntza ofizialen inguruan zein ezagutza-maila duten.

Horiek guztiak aztertuta, ikus dezakegu A ereduan izena eman zuten pertsonen artean, hau da, atzerriko etorkin guztien % 67,3, zati txiki batek bakarrik (% 17,7) ez zuela gaztelania ulertzen autonomia-erkidego honetako zentro batean lehen aldiz matrikulatu zenean. Hizkuntza ez zekitenen herenak (% 35,5) adierazi du gaztelaniarekin arazoak izan dituela hezkuntza-garaian, eta zati txiki batek baino ez du onartu behar den gaztelania-maila lortzeko eskola-laguntzarik ez duela sentitu (% 14). Gaztelaniaz ez zekiten pertsonak kalkulatu dute 8,3 hilabete behar izan zituztela, batez beste, hizkuntza hori ikasteko. Hori bai, esan daiteke, gaztelania ikasteari dagokionez arrakasta ziurtatuta dagoela; izan ere, matrikulatzeko unean gaztelaniaz ez zekitenen eta A ereduan ikasi zutenen % 98,9k onartu dute gutxienez nahikoa ikasi dutela gaztelania. Hizkuntza ikastea ez dago soilik eskolaratzearen baitan, baina funtsezko elementua da hori ulertzeko.

A ereduak gaztelania ikasteko prozesuan izan duen arrakasta hori ez dator bat euskara irakasteko ezintasun logikoarekin. A ereduan ikasi zuten pertsona gehienek ez zuten euskara ulertzen lehen aldiz matrikulatu zirenean (% 97,8), eta hizkuntza horretan ezagutza-maila nahikoa lortu dutenen ehunekoa oso txikia izan da (% 13). Pertsona horien kalkuluen arabera, batez beste 7 hilabete gehiago kosta zaie euskara ikastea gaztelania ikastea baino, eta hezkuntza-prozesuan euskararekin arazoak izan dituztela esan duten pertsonak gaztelaniarekin arazoak izan dituztela adierazi dutenen ia bikoitza dira (% 27,9 eta % 14, hurrenez hurren). Hori bai, eskatzen den hizkuntza-maila lortzeko eskola-laguntzarik eza sentitu izanaren pertzepzioa antzekoa da bi hizkuntzetan. Baina kontuan hartu behar da A ereduan eskatzen diren gaztelania- eta euskara-mailak oso desberdinak direla, eta, horren ondorioz, alde handia dago eredu horretan ikasi dutenen artean lortutako gaztelania-mailan (% 98,9) eta euskara-mailan (% 13).

10. taula. Atzerritar jatorriko 16 urteko eta gehiagoko biztanleek hizkuntzak jakitea eta ikastea, ikasitako hizkuntza-ereduaren, sexuaren eta jatorriaren arabera. 2018

Zein hizkuntza-eredutan ikasi duten	Ez zuen hizkuntza ulertzen		Ikasteko behar izan zituen hilabeteak		Hizkuntza nahikoa jakitea		Arazoak hizkuntzarekin		Hizkuntza-maila lortzeko eskola-laguntzarik eza	
	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara	Gaztelania	Euskara
A	17,7	97,8	8,3	15,1	98,9	13,0	35,5	27,7	14,0	14,9
B	26,9	94,6	3,9	13,9	97,2	61,0	16,2	44,5	0,0	23,2
D	29,8	86,6	10,1	14,5	91,9	93,9	34,0	45,7	0,0	21,6
Guztira	19,9	96,3	8,0	14,6	97,9	25,8	32,6	31,2	9,8	16,4
Gizonak	23,1	95,8	8,5	12,4	96,0	28,1	37,1	34,2	11,8	19,4
Emakumeak	17,1	96,6	7,4	16,1	100,0	23,7	27,1	28,4	7,3	13,7
Mendebaldeko EB	24,8	84,2	10,2	24,7	100,0	30,6	18,9	14,5	13,8	9,0
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	49,7	100,0	6,1	18,2	100,0	40,8	46,7	34,9	10,7	22,1
Magreb	41,4	95,3	8,2	14,3	95,2	23,5	25,0	36,6	11,3	22,3
Argentina, Txile, Uruguai	2,4	97,5	3,0	8,0	100,0	37,1	0,0	23,2	0,0	7,0
Kolonia, Ekuador, Peru	0,0	97,8	0,0	0,0	0,0	20,5	0,0	29,4	0,0	11,2
Bolivia	0,0	97,7	0,0	0,0	0,0	45,6	0,0	52,1	0,0	27,1
Paraguai	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	2,1	0,0	46,6	0,0	32,5
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	5,2	95,2	2,4	0,0	100,0	16,1	44,4	26,7	0,0	9,1
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	0,0	100,0	0,0	0,0	0,0	18,7	47,8	11,4	0,0	14,9
Txina	68,3	92,7	18,4	19,5	93,6	42,2	42,9	45,2	13,5	16,2
Senegal	54,1	95,5	7,6	11,9	96,7	20,2	31,4	36,4	6,5	16,1
Afrikako gainerako herrialdeak	49,3	100,0	4,6	3,6	100,0	27,0	39,5	37,9	6,1	26,0
Munduko gainerako herrialdeak	45,0	97,6	7,7	12,5	97,8	18,0	32,6	32,1	6,2	6,8

Iturria: Txostengileek egina, 2018ko EABIko datuak oinarri hartuta

D ereduari matrikulatutako ikasle etorkin atzerritarren emaitzak, hizkuntzak ikasteari dagokionez, erabat desberdinak dira A ereduari ikasitakoekin alderatuta. Egia bada ere ikasle horietako gehienek ez zutela euskara ulertzen hezkuntza-sisteman lehen aldiz sartu zirenean (% 86,6), ereduari pasatzean ia guztiek lortzen dute hizkuntza horren ezagutza-maila nahikoa (% 93,9). A ereduari euskara ikastearekin gertatzen denarekin kontra, D ereduari

irakas-hizkuntza euskara izateak ez du galarazten gehienek gaztelania-maila nahikoa eskuratzea (% 91,9). Ikasle horiei batez beste bi hilabete gehiago kostatzen zaie gaztelania ikastea A eredukoei baino. Eredu honetan hizkuntza nagusia euskara den arren, ikasle horiei lau hilabete gehiago kostatzen zaie euskara ikastea gaztelania ikastea baino. Hezkuntza-prozesuan, euskararekin (% 45) gaztelaniarekin (% 34) baino arazo gehiago dituztela adierazi dute, eta azpimarratu dute kolektibo horren artean ez dutela sentitzen behar den gaztelania lortzeko eskola-laguntza falta hori, baina bai D ereduan ikasi duten ikasleen % 21,6k aitortu du euskara ikasteko eskola-laguntza falta hori sentitu duela. Hau da, oro har, euskara ikastea gaztelania ikastea baino gehiago kostatzen da D ereduan matrikulatutako pertsonentzat, baina esan daiteke urtebete baino gehixeago igaro ondoren (14-5 hilabete) ia guztiek ikasten dituztela euskara (% 93,9) eta gaztelania (% 91,9).

Azkenik, hizkuntza ofizialak ikasteari dagokionez, B ereduan matrikulatutako ikasleak dira (gutzizkoaren % 14,7), batez beste, bi hizkuntzak ikasteko denbora gutxien behar dutenak. D ereduan matrikulatutako ikasleen antzeko datuak hartu dira abiapuntutzat hasieran zituzten gaztelania-mailari (% 26,9) eta euskara-mailari (% 94,6) dagokienez, baina deigarria da eredu horretan gaztelania oso azkar ikastea (4 hilabete) eta D ereduan behar denaren (14 hilabete) antzeko denbora behar izatea euskara ikasteko. Hezkuntza-sisteman sartzean euskararekin zailtasunak izan dituztela eta eskatutako maila lortzeko eskola-laguntzarik eza sentitu dutela dioten ikasleen mailak D ereduko ikasleenen oso antzekoak dira. Hala ere, gaztelaniarekin arazoak izan dituztela dioten ikasleen ehuneko askoz ere txikiagoa da B ereduko ikasleen artean (% 16,2). Hizkuntzen ikuspuntutik begiratuta, D ereduarena baino adierazle okerragoa eskainiko lukeen balio bakarra euskararen ikaskuntzarena izango litzateke. Kasu horretan, % 61ek adierazi du euskara-maila nahikoa duela, eta hori nabarmen gailenduko litzateke A ereduan ikasita lortzen dutenen % 13arekin alderatzen badugu, baina alde handia egongo litzateke D ereduan lortutako arrakastatik (% 93,9).

Hizkuntzen ikaskuntza sexuaren arabera aztertzen badugu, ikusiko dugu hizkuntzak ez zekizkiten neskek batez beste hilabete bat gutxiago behar zutela gaztelania ikasteko; hala ere, lau hilabete gehiago behar izan zituzten euskara ikasteko. Emakumeek diote gizonen baino arazo txikiagoak izan dituztela bi hizkuntzekin hezkuntzaren alorrean, eta neurri txikiagoan sentitu dute laguntza falta hori hizkuntzak ikasteko. Datu gordinek diote neskek mutilek baino hobeto ikasi dutela gaztelania, baina euskara gutxiago dakitela. Badirudi hizkuntza-eredu desberdinek hizkuntzak ikasteko eskaintzen dituzten aukerak egon daitezkeela alde txiki horien atzean; izan ere, lehen ikusi den bezala, A ereduan ikasi duten nesken proportzioa mutilena baino sei puntu handiagoa da (% 70,2 eta % 64,3, hurrenez hurren), eta D ereduan ikasi duten eta euskara-maila nahikoa lortu duten mutilen proportzioa, berriz, 9 puntu handiagoa da mutilen artean (% 13,9).

Hizkuntza-ereduen aukeraketa da hizkuntzak ikasteko prozesuen arteko aldea benetan markatzen duen aldagaia. Euskadiko hezkuntza-sisteman sartzean gaztelaniaz gutxien zekiten kolektiboen artean zeuden Txina, Mendebaldeko EB, Magreb eta, oro har, Afrikako herrialdeak. Ez da kasualitatea, halaber, kolektibo horiek izatea gaztelania-maila nahikoak lortzeko zailtasun handienak izan zituztenak eta hizkuntza hori ikasteko laguntza ezaren sentsazio handiena izan zutenak.

Euskara ikasteari dagokionez, egia bada ere atzerriko kolektibo guztiek oso ezjakintasun-maila handia zutela hizkuntza horretan, aldea nabari da hizkuntza hori ikasteko behar den denboran. Oro har, denbora gehiago behar izan zuten ama-hizkuntza gaztelania ez beste bat zuten pertsonak, ziur aski bi hizkuntzak aldi berean ikasten ari zirelako. Bereziki, mendebaldeko EBtik (batez beste 24 hilabete behar izan zituzten), Txinatik (19,5 hilabete) eta Ekialdeko EBtik (18,2 hilabete) etorritakoek. Oraingoan ere, euskara ikasteko prozesuen emaitzak ondo ulertzeko, kontuan hartu behar ditugu aukeratutako hizkuntza-ereduak. Horrela, gehienbat D ereduari matrikulatu direnak dira (Mendebaldeko EB, Bolivia eta Txina), halaber, euskararen ezagutzaren ehuneko onenak dituztenak; baina, era berean, horiek dira ikasteko zailtasun handiagoak izan dituztela adierazi dutenak eta ikasteko laguntza falta hori neurri handiagoan sumatu dutenak.

Ikastetxeak, kulturen arteko harremanak errazteko

Hezkuntza-eremuaren bertuteetako bat harrera-lurraldean hitz egiten diren hizkuntza ofizialen ikaskuntza errazteko gaitasuna bada, beste bat da esparru horretatik kanpo beren ingurune hurbilenekoak ez diren beste pertsona batzuekin harreman-sarea zabaltzeko aukerak eskaintzeko duen gaitasuna. Hau da, jatorri soziokultural desberdineko pertsonekin harremanak izateko aukera ematen du, eta bertute hori bereziki interesgarria da sozialki askotarikoak diren testuinguruetan.

Hezkuntza-sistema hainbat hezkuntza-eredutan banatzeak duen arriskua da ikasle etorkinak hezkuntza-eremu jakin batzuetara bideratzeko balio izatea, bertako gazte gehienak joaten direnetatik bereiz, eta mugatuta gelditzea kulturen arteko harremanak ezartzeko gaitasun hori. EABlren galdetegiak emandako informazioak laguntzen du gai hori aztertzen. Guztizko datuak hartuta, ez da erlazio endogamikoaren balio handirik ikusi. 16 urtetik gorako etorkin atzerritarren % 8k bakarrik adierazi du hezkuntza-eremuan harremana soilik edo nagusiki beste atzerritar batzuekin izan duela, eta % 7,2k bere jatorri edo kultura bereko pertsonekin. Harreman endogamiko hori ia ez da gertatu D ereduari matrikulatutako pertsonen artean, eta B ereduari gutxiagotan gertatu da A ereduari baino.

Ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan pilatzeak, itxuraz, izan dezake bere kontrapartida positiboa. Izan ere, murriztu egin ditu etorkinak bakartuta sentitzeko edo ikaskideek jatorri etniko edo kulturalagatik baztertuak izateko aukerak. D eredutik pasa diren ikasleen % 15,6k eta % 19,2k identifikatu dituzte bakartze- eta baztertze-baldintza horiek. A eta B ereduetan esperientzia duten pertsonak identifikatutakoak baino askoz ere handiagoak dira balio horiek, bi kasu horietako bakar batean ere ez baitu % 10 gainditu.

Hezkuntzaren testuinguruan ezartzen diren harreman-joerek badute beren isla gero pertsonak aisialdian izaten dituzten harreman-motetan. Horrenbestez, D ereduko ikasleek neurri handiagoan adierazi dute era guztietako pertsonekin dituztela harremanak (% 90,8) eta ez dutela inolako arazorik bertako pertsonekin gizartean integratzeko (% 100). B ereduan ikasi duten pertsonak dira integratzeko zailtasun handienak dituztenak (% 6,4) eta soilik harreman endogamikoak dituztenak (% 15,4).

Sexua aldagaiaren azterketaren arabera, emakume etorkinek neurri handiagoan jasaten dituzte bakartze- eta bazterketa-egoerak hezkuntza-eremuan; eta haiek dira, halaber, bertako biztanleekin integratzeko zailtasun handiagoak dituztenak. Hala ere, sexuaren araberako aldeak ez dira oso esanguratsuak.

Aldeak bai dira garrantzitsuak pertsonen jatorriaren arabera aztertzen badugu. Horri dagokionez, deigarria da hezkuntza-arloko harreman endogamikoak ohikoagoak izatea Afrikatik etorritako pertsonen artean. Aldea gainerako kasu guztietan baino ehuneko hamar puntu handiagoa da gutxienez. Oro har, aukeratutako hizkuntza-ereduaren eta ezarritako harreman-motaren arteko elkarrekotasuna mantendu egin da kasu guztietan. Horren ondorioz, gehienbat A edo B ereduetan eskolatu diren kolektiboek probabilitate handiagoa dute ikastetxean harreman endogamikoak izateko eta ikastetxe horiek etorkin-kopuru handia izateko, baina baita D ereduan ari direnek baino baztertze eta bakartze gutxiago izateko ere. Era berean, oro har, A ereduan ikastea aukeratu dutenek arrisku handiagoa dute beren familietako kideekin edo jatorri/kultura bereko kideekin soilik izateko harremanak eta gizartean integratzeko zailtasunak izateko. Badira zenbait salbuespen logika horri jarraitzen ez diotenak. Alde batetik, Afrikako gainerako herrialdeetako kolektiboa da A ereduan gehien sartu den kolektiboetako bat (% 78) eta haien % 30ek adierazi du etorkin kopuru handia zuela ikasten ari zen ikastetxeak, eta, era berean, kolektibo hori da eremu horietan bakartze- eta bazterketa-maila handienak dituenak. Talde horren egoera bereziki kezagarria da; izan ere, gero gizartean integratzeko balio ia txarrenak gehitzen zaizkie hezkuntza-eremuko datu horiei.

11. taula. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleen gizarte-harremanak ikastetxeetan eta ikastetxeetatik kanpo, ikasitako hizkuntza ereduaren, sexuaren eta jatorriaren arabera

Zein hizkuntza-eredutan ikasi duten	Harremanak hezkuntza-eremuarekin				Gaur egun aisialdian dituzten harremanak		Gaur egungo integrazio soziala bertako pertsonekin
	Harremanak soilik edo batez ere atzerritarrekin	Ikastetxean etorkin ugari	Bakartzea	Baztertzea	Harremanak bakarrik familiarekin/jatorri/kultura berekoekin	Era guztietako pertsonekin	Bai, integratzeko zailtasunak ditut
A	9,4	19,2	7,0	6,9	13,9	84,4	2,5
B	5,5	20,5	6,7	9,5	15,4	84,6	6,4
D	0,0	9,1	15,6	19,2	8,3	90,8	0,0
Guztira	8,0	18,2	7,9	8,5	13,4	85,2	2,6
Gizonak	8,3	21,3	7,2	7,9	12,6	86,6	2,2
Emakumeak	7,7	15,4	8,5	9,0	14,2	83,8	3,0
Mendebaldeko EB	0,0	2,3	7,7	7,2	5,3	94,7	0,0
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	6,8	11,8	8,7	0,0	14,2	85,8	0,0
Magreb	19,7	20,3	3,2	3,2	6,7	90,1	3,2
Argentina, Txile, Uruguai	0,0	18,2	0,0	0,0	4,3	95,7	1,9
Kolonbia, Ekuador, Peru	4,3	18,2	8,9	10,4	8,6	91,4	2,2
Bolivia	6,9	17,5	10,5	11,1	19,1	76,0	1,3
Paraguai	4,9	13,4	8,1	15,9	16,2	83,8	0,0
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	9,5	34,2	6,0	6,0	19,5	80,5	4,0
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	3,5	3,5	11,4	11,4	13,1	86,9	3,4
Txina	0,0	12,0	9,7	17,0	18,9	81,1	2,3
Senegal	17,2	46,7	3,5	7,9	22,4	77,6	3,5
Afrikako gainerako herrialdeak	17,7	30,0	19,3	21,5	31,2	65,4	10,3
Munduko gainerako herrialdeak	3,3	26,6	4,9	10,3	31,6	62,6	0,0

Iturria: Txostengileek egina, 2018ko EABIko datuak oinarri hartuta

Lortutako ikasketa-mailak

Azkenik, azterketa honek alderdi akademiko hutsak hartu nahi ditu kontuan. Aurreko logikarekin jarraituz, ikasi duten hezkuntza-ereduaren arabera azterketarekin hasiko gara. Alde horretatik, bi alderdi nabarmendu behar dira: lehenengoa; A eredu ikasleak dira emaitza positiboak eskaini dituztenak, eskatzen den hezkuntza-maila lortzeko eskola-laguntzarik ez izatearen sentsazio txikiagoa dutelako, eta, batez ere, ikasketa-maila handiagoa lortu dutelako. Eta bigarrena, kezagarria da D eredutik pasa diren ikasleek lortutako ikasketa-maila txikia. % 42,7 derrigorrezko ikasketetan geratu zen, % 70,6 asko jota bigarren hezkuntzakoetara iritsi zen, baina % 5,3k bakarrik amaitu zituen unibertsitate-ikasketak. Balio horiek guztiak bereziki A eredu ikasleek lortutakoak baino askoz ere txikiagoak dira, baina baita B ereduak baino txikiagoak ere.

Bai egia da D eredu ikasi dutenek unibertsitate-ikasketak egiteko gogo handiagoa dutela, baina egindako ikasketen emaitzekin lotzen baditugu, desio eten edo zapuztu gehiago dituen kolektiboa da hori. Unibertsitatean ikasi nahi duten A eredu pertsonen erdiak (% 36,1) unibertsitate-ikasketak amaitzea lortu du (% 16,8). Hala ere, proportzioan, D eredu ikasi nahi zuten 8 lagunetik batek bakarrik (% 46,5) lortu ditu (% 5,3). B eredu pertsonen artean lortutako nahiaren proportzioa 8tik 2koa da.

Generoaren ikuspegitik begiratuta, neskek mutilek baino pixka bat gutxiago sentitzen dute laguntza falta ikasketetan, unibertsitatera iristeko gogo handiagoa dute (mutilek baino ehuneko 15 puntu gehiago) eta neurri handiagoan lortzen dute unibertsitate-ikasketak izatea (mutilek baino % 8 gehiago).

Jatorrizko eremuen arabera azterketa egiten badugu, ikusiko dugu, inolako zalantzarik gabe, Senegaleko kolektiboa dela EAEko hezkuntza-sistematik pasa denean lorpen akademiko txikiak izan dituenak. % 77,6 gehienez ere derrigorrezko ikasketekin geratu zen eta inor ez zen iritsi unibertsitateko ikasketak egitera. Kolektibo hori ez zen izan hezkuntza-maila lortzeko laguntzarik ezaz gehien kexatu zena, baina bai unibertsitate-ikasketak egiteko interesik adierazi ez zuen talde bakarrenetakoa. Txinako jatorriko pertsonak ere ikasketa-maila okerrera lortu duten taldeetako bat dira, horien % 61,4k derrigorrezko ikasketak lortu baitituzte gehienez ere. Kasu honetan ere ez da unibertsitate-ikasketak egiteko interes handia erakutsi duen taldea (% 22), baina kolektiboaren zati txiki batek bai amaitu ditu hirugarren mailako ikasketak (% 9,5).

Oro har, Afrikako, Txinako, Boliviako eta Kolonbiako, Ekuadorreko eta Peruko pertsonak dira unibertsitate-ikasketa gutxien lortu dituztenak. Beste muturrean daude EBtik heldu diren pertsonak. Eta, hain zuzen ere, nabarmendu behar da Mendebaldeko EBtik etorritako pertsonen kasua, ez bakarrik unibertsitate-

ikasketa amaituen balio handienak lortu dituztenak direlako, baizik eta, gainera, D ereduan ikasketak gehien egin dituen kolektiboa delako ere. Beraz, hautsi egin da aurretik ereduaren eta lortutako ikasketa-mailaren artean zegoen logika orokor hori. Hala ere, joera hori bete-betean ikusten da Boliviatik eta Txinatik etorritako pertsonen artean, D ereduan ikasle gehien matrikulatu dituzten herrialdeak baitira (% 40,4 eta % 32,2, hurrenez hurren), Mendebaldeko EBko herrialdeen ondoren (% 45,1).

12. taula. 16 urteko eta gehiagoko atzerritar jatorriko biztanleen ezaugarri akademikoak, ikasitako hizkuntza-ereduaren arabera

Zein hizkuntza-eredutan ikasi duten	Hezkuntza-maila lortzeko eskola-laguntza falta	Unibertsitate-ikasketak egin nahi izatea	Lortutako ikasketa-maila		
			Unibertsitate-ikasketak	Gehienez bigarren mailakoak	Gehienez derrigorrezkoak
A	5,4	36,1	16,8	45,1	24,8
B	10,2	36,5	9,0	66,9	29,0
D	8,3	46,5	5,3	70,6	42,7
Guztira	6,2	38,0	14,7	50,1	27,2
Gizonak	7,2	30,4	10,8	32,0	53,4
Emakumeak	5,3	45,6	18,2	22,9	47,1
Mendebaldeko EB	5,9	56,8	24,6	50,2	38,3
Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	0,0	57,5	22,5	66,8	24,0
Magreb	14,1	31,3	10,6	50,6	29,2
Argentina, Txile, Uruguai	0,0	0,0	23,8	25,7	13,7
Kolonia, Ekuador, Peru	3,6	50,4	9,3	45,7	27,4
Bolivia	10,4	38,8	7,8	60,8	27,0
Paraguai	2,3	28,1	11,9	42,8	17,2
Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika	6,0	32,5	21,3	40,3	18,8
Latinoamerikako gainerako herrialdeak	3,5	18,3	20,7	36,0	26,8
Txina	2,7	22,0	9,5	88,1	61,4
Senegal	5,3	0,0	0,0	98,0	77,6
Afrikako gainerako herrialdeak	7,4	37,5	9,5	67,4	12,7
Munduko gainerako herrialdeak	5,3	52,4	20,4	42,4	28,4

Iturria: Txostengileek egina, 2018ko EABIko datuak oinarri hartuta

Ondorioak

EABIk hezkuntzari buruz emandako datuen azterketari esker, funtsezko hainbat elementu ezagutu ahal izan ditugu 16 urtetik gorako atzerritar etorkinen kolektiboa Euskadiko hezkuntza-sisteman historikoki nola sartu den jakiteko.

Datu horien arabera, esan daiteke kolektibo horren sarrera gainerako biztanleriarenaren oso bestelakoa izan dela abiapuntuko funtsezko alderdi batzuetan. Alde batetik, ezaugarri bereizgarria da, inolaz ere, 2/3 lehen hezkuntzatik gorako etapetan sartzea hezkuntza-sisteman. Bestalde, sisteman lehen aldiz sartzean % 20k gaztelania ez ulertzea, eta % 96,3k euskaraz ez jakitea, horixe da ezaugarri bereizgarrietan bigarrena, eta bi ezaugarri horiek hirugarrenean eragina izango zuten segur aski: kontrako lehentasuna, ikasketak egiteko hizkuntza-eredua aukeratzeko orduan. Kolektibo horrek gaztelaniaz ikastearen aldeko apustua egin zuen gehienbat (A eredia, % 67,3), bertako biztanleek, berriz, ikasketak euskaraz egiteko joera argia dute (D eredia, % 67,9).

Eskolatu aurreko hiru abiapuntu horiek markatu dute, neurri handi batean, beren hezkuntza-prozesuaren bilakaera, eta, hein batean, baita gerora gizartean integratzeko prozesua ere. Hori izango litzateke bigarren ondorio orokorra, aintzat hartuta hizkuntza ofizialak ikasteko prozesuen emaitzak, hezkuntza-esparruan ezarritako gizarte-harremanak eta lortutako emaitza akademikoak. Hiru aldagai horiek funtsezkotzat hartzen dira kolektiboaren integrazio sozialerako.

Hizkuntza ofizialen ikaskuntzari dagokionez, egiaztatu da, gaztelania ikastea ia bermatuta dagoela hizkuntza-eredu guztietan (% 97,9); euskara ikastea, berriz, maila horietan, D ereduan bakarrik dago ziurtatua (% 93,9), eta euskara ikasteko aukera gutxiago daude B ereduan (% 61) eta, batez ere, A ereduan (% 13). D ereduaren arrakasta, euskara ikastea errazteko gaitasunari dagokionez, bereziki aipagarria da kontuan hartzen badugu gehienek (% 86) ez zutela euskara ulertzen erkidego honetan ikasten hasi zirenean.

Hala ere, datuek agerian utzi dute euskara ikasteak erronka handiagoak dakarziela ikasleei, edozein hizkuntza-eredutan ikasita ere. Batez beste, hilabeteetan ia bi aldiz gehiago kostatzen zaie ikastea (14,6 eta 8), eta ikasteko arazo handiagoak izaten dituzte euskara irakas-hizkuntza gisa erabiltzen duten ereduetan. D eta B ereduak ikasleen ia erdiek diote euskararekin arazoak izan dituztela (% 45,7 eta % 44,5, hurrenez hurren). Gainera, egiaztatu da bi eredu horietako 10 ikasletik 2k baino gehixeagok aitortu dutela eskola-laguntza falta sentitu dutela eskatutako euskara-maila lortzeko. Ez da gauza bera gertatzen gaztelaniarekin: A ereduko ikasleen zati txiki batek bakarrik identifikatu du laguntza falta hori (% 14). Kolektibo horren hezkuntzaratzearen emaitza orokor gisa, egiaztatu da sistemak bi hizkuntza ofizialak ikasteko aukera eman duen

arren, aztertutako kolektiboaren % 25,8k bakarrik lortu zuela euskara maila nahikoa.

Hizkuntza ofizialak ikasteko oztopoei dagokienez, emaitzek erakutsi dute hizkuntza-ereduek rol garrantzitsua dutela eta emaitzen bitarteko direla hizkuntzen ikaskuntzan. Beste autore batzuek ere aipatu dute hori, hala nola Ibarra - Bustinza (2012), Etxeberria et al. (2018), Etxague (2010) eta Etxebarria eta Elosegui (2010) autoreek.

Eskolatzeko hizkuntza-eredu desberdinak aukeratzeak, ezinbestean, eskola-segregazioa ekarri du, ikasle etorkinak eta bertakoak de facto bereiztea. Esan daiteke, azken hamarkadetan, batez ere eremu berezietan eskolatu direla, eta galdu egin dela hezkuntza-eremuak egiazko bizikidetzaren eremu bihurtzeko, berdinen artean harremanak ezartzeko eta nortasun partekatua sortzeko aukera.

Hala ere, EABIren datuek ondorioztatzen dute, oro har, ikasle etorkinek ez dutela sentitu etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatu direnik (% 18,2k soilik). Datu horren arrazoia izan daiteke ikastetxeek hainbat eredutako ikasleak hartzen dituztela, eta horregatik, halaber, hizkuntza-ereduak argi berezita (eta ikasgela desberdinen) dauden arren, inkestatutako pertsonen ez dute erlazio endogamikoaren balio handirik erakutsi hezkuntza-eremuan (% 8k soilik).

EABIk erakusten du elkarreragin soziala eta harreman sozial endogamikoaren garapenean zerikusia dutela ikasitako hezkuntza-ereduaren arabera izandako hezkuntza-esperientziak. Beraz, bertako biztanle gehien dituzten ereduetan (D ereduak) ikasten dutenek balio handiagoak dituzte beste jatorri batzuetako pertsonekin harremanak sortzeko dagokienez (% 91,7), eta horiek dira aisialdian bertako biztanleekin gizarteratzeko zailtasunik ez dutela dioten bakarrak (% 100). Hori bai, beren arraza, erlijio edo kulturagatik bakartze- eta baztertzemaita handienak dituzte hezkuntza-eremuan, A eta B ereduak ikasleekin alderatzen baditugu.

D ereduaren arrakasta, bi hizkuntzen ikaskuntza errazteko eta askotariko pertsonekin sozializatzeko aukerak sortzeko gaitasunari dagokionez, ez dator bat eskolako errendimenduan erakutsitako porrotarekin. Emaitza okerrenak eman dituen ereduak da, kolektiboaren % 42,7k lortu baitu gehienez ere derrigorrezko maila. Eta eredu horrek eragin ditu frustrazio handienak unibertsitate-ikasketak egiteko nahia ez betetzeari dagokionez. Proporzionaliki, unibertsitate-ikasketak egin nahi zituzten eredu horretako 8 lagunetik batek bakarrik lortu ditu ikasketak horiek; B eta A ereduak, berriz, 2/8 eta 4/8 da proportzioa, hurrenez hurren.

Inkestaren emaitzen azterketatik atera den beste ondorio argi eta garrantzitsu bat honako hau da: nahiz eta hezkuntza-eredua hautatzeak garrantzi handia izan duen kolektiboaren gizarteratze-aukeretan, sistemak berak

eta hura ordezkaten duten erakundeek kasu gehienetan ez dietela eredia aukeratzeko orientabiderik eman (% 60). Deigarria da % 5,8 soilik bideratu izana eredu nagusira, D eredura. Nahita egindako politika ote da hezkuntza-prozesuetan segregazioa eta isolamendua bultzatzeko eta bertako ikasleekiko interferentziarik ez eragiteko? Ezetz pentsatu nahi dugu, baina argi dago orientazioa erabakigarria izan daitekeela ikasle atzerritarrak bertako ikasleekin batera egoteko eruedetan matrikula daitezen bultzatzeko.

2018an EAEn ikasten ari ziren biztanle etorkinei buruzko argazkiak ematen dizkigun datuen arabera, kolektibo horrek iraganean metatutako esperientziari buruzko analisi diakronikoak eskaini digunaren oso bestelako abiapuntuan gaude, inolaz ere. 5 urtetik beherakoen % 70 eskolatuta daude; ikasketa arautuak egiten ari diren pertsonen % 50 haur edo lehen hezkuntzako hasierako etapetan daude. Horrek erakusten du azken urteetan hezkuntza-sisteman hasi diren etorkinen ondorengoak bertakoen antzeko baldintzetan hasi direla, eskolatzeko uneari eta gutxienez hizkuntza ofizial bat jakiteari dagokienez behintzat. Matrikulazio-datuek ere erakusten dute D eredian sartzeko joera handitzen ari dela (% 49,4 2021ean), eta horrek berekin daramatza harremanetarako eta euskara ikasteko aukera guztiak. Datuen arabera, azken urteetan sartzen ari diren ikasleen profila eta hezkuntzan sartzeko modua bestelakoak dira lehen belaunaldia sartu zen moduarekin alderatzen badugu.

Azterlanaren arabera, gainera, hezkuntza-sisteman sartzea ez da berdina kolektibo osoan, eta, batez ere, eragin handia du jatorria aldagaiak; izan ere, zenbait kasutan, batez ere Senegaletik eta Afrikako gainerako herrialdeetatik etorritakoek balio okerragoak dituzte, bai eskola-errendimenduan, bai hezkuntza- eta gizarte-integrazioan. Une batzuetan sexuaren arabera aldeak hautematen badira ere, oro har, aldagai horrek ez du jatorriak bezain garrantzi handia hartzen, baina aldeak erakusten ditu integrazio sozialaren mailan (oro har, gizonena baino nabarmen okerragoa) eta arrakasta akademiko handiagoan.

Etorkinak sistema horretatik pasatzean metatutako esperientziaren ikaskuntza baliagarria izan dadila alor horretako agintariei eta profesionalei jakinarazteko prebentzio-neurriak hartu behar direla agerian jarritako erronka horiei aurre egiten laguntzeko. Izan ere, galdetutako pertsonen % 73,9k adierazi badute ere beren bizikideek ez dutela eskola-integrazioa arazorik aipatu, errendimendu akademiko txikia emaitza kezkarria da, eta horixe da hezkuntza-sistemak etorkizunean izango duen erronka nagusietako bat. Eskola-atzerapenean islatutako zailtasun hori da gehien aipatu dena (aipatutako arazoen % 53), eta ondoren hizkuntzekiko arazoak (% 21,6).

Hezkuntza-sistemak jatorri desberdinetako ikasleak espazio berean biltzea lortzea, hizkuntza-ereduen araberrako segregazio hori egin gabe, horixe da sistemaren beste erronketako bat. Bi erronka horiek aldi berean eman daitezen lortzeko, ahalegin handiak egin behar dira euskara barne hartzen duten

ereduetan matrikulatzen diren ikasleei laguntzeko, ez bakarrik hizkuntza hori ikasteko, baita maila akademikoan ere, bertako biztanleen antzeko helburu akademikoak lortu ahal izateko.

Horrez gain, ez dugu ahanzi behar Euskadin, aurreko azterketek islatutakoaren arabera, antzeman dela irakasleek zailtasunak dituztela kulturarteko hezkuntzarako trebetasunetan, bai eta familia etorkinen inplikazioan ere seme-alaben hezkuntza-prozesuetan parte har dezaten. Horrek zerikusia du bertako adingabeen eta adingabe etorkinen artean eskola-errendimenduan dauden desberdintasunekin (Etxeberria, et al., 2010; Etxeberria eta Intxausti, 2013; Elosua, 2019). Beraz, emaitza akademikoak hobetzeko, ikasleei laguntza emateaz gain, irakasleak trebatu egin beharko dira testuinguru integratzailea ahalbidetuko duten kulturarteko estrategietan (Rivera-Vargas, 2020; Goenechea, 2016). Horrek lagunduko luke hezkuntza-eredu guztietan historikoki azaleratu diren bakartze- eta baztertze-egoera motibatuak saihesten, baina, bereziki, bertako biztanleriarekin elkarreragin handiena zuen ereduan (D eredua). Gainera, aipatutako emaitzen arabera, familien inplikazioa handitu egin beharko litzateke.

Azkenik, gai honi buruzko beste azterketa batzuen ondorioak ekarri nahi ditugu gogora. Azterketa horien arabera, bigarren belaunaldiko etorkinek lan- eta hezkuntza-aukera hobeak izaten dituzte, baina, oro har, jatorrizko parekoen azpitik egoten jarraitzen dute betiere (Aparicio, 2007). Eta bigarren belaunaldiek aukera handiagoa dute goi-mailako hezkuntzara iristeko, baina faktore sozioekonomikoak hezkuntzan txertatzeko baldintzatzaile garrantzitsu izaten jarraitzen du (Herrera-Cuesta, 2021). Horri dagokionez, azpimarratu behar dugu laguntza ekonomikoak bermatu behar zaizkiela arrazoi horiengatik unibertsitate-ikasketak egin ezin dituztenei. Horixe izango litzateke bidea Euskadiko hezkuntza-sistemak ez ezik, Europak ere duen beste erronketako bati aurre egiteko (European Education and Culture Executive Agency et al., 2019).

Bibliografia

- Alkorta, Eider eta Shershneva, Julia (2021) Perfiles del alumnado de origen extranjero en centros con elevada presencia de escolares inmigrantes en el País Vasco. *Empiria. Revista De metodología De Ciencias Sociales*, (51), 15–43. <https://doi.org/10.5944/empiria.51.2021.30806>
- Aparicio, Rosa (2007) The Integration of the Second and 1.5 Generations of Moroccan, Dominican and Peruvian Origin in Madrid and Barcelona. *Journal of Ethnic and Migration Studies*, 33, 1169-1193. <https://doi.org/10.1080/13691830701541713>

- Berry, John. W. (1980). Social and Cultural Change. In H. C. Triandis eta R. Brislin (Ed.), *Handbook of Cross-cultural Psychology. Vol.V* (211–279 or.). Allyn and Bacon.
- Elosua, Paula (2019) Factores de rendimiento e inmigración. Impacto de variables individuales y escolares, *Cultura y Educación*, 31(1), 15-30. <https://doi.org/10.1080/11356405.2018.1551653>
- Etzague, Xabier, Cenoz, Jasone eta Uria, Marisol (2010) Inmigración, lenguas oficiales y educación en el País Vasco, *Segundas Lenguas e Inmigración en red*, 4, 6-20. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4060255>
- Etxebarria, Felix eta Elosegui, Kristina (2010) Integración del alumnado inmigrante: obstáculos y propuestas, *Revista Española de Educación Comparada*, 16, 235-263. <http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/bibliuned:reec-2010-16-5110/Documento.pdf>
- Etxeberria, Felix eta Intxausti, Nahia (2013) La percepción de los tutores sobre la implicación educativa de las familias inmigrantes, *Revista Española de Orientación y Psicopedagogía*, 24 (3), 43-62. <https://www.redalyc.org/pdf/3382/338230795004.pdf>
- Etxeberria, Felix, Garmendia, Joxe, Murua, Hilario eta Arrieta, Elisabete (2018) Acogida del alumnado inmigrante recién llegado en la escuela inclusiva. El caso de Cataluña, País Vasco y Francia, *RES Revista de Educación Social*, 27, 93-119. https://eduso.net/res/wp-content/uploads/2018/08/acogidaaluinmi_res_27.pdf
- European Commission/EACEA/Eurydice (2019) *Integrating students from migrant backgrounds into schools in Europe: national policies and measures*. Eurydice Report. Publications Office of The European Union. <https://data.europa.eu/doi/10.2797/012849>
- Eusko Jaurlaritz (2017). *La realidad de la infancia y adolescencia vasca en cifras: informe diagnóstico 2016*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_observ_infancia/es_publica/adjuntos/INFORMEDIAGNOSTICO_cast.pdf
- Etxeberria, Felix, Karrera, Iñaki eta Murua, Hilario (2010) Competencias interculturales del profesorado con alumno inmigrante en el País Vasco, *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 13 (4), 79-94. <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/handle/11162/80628>

- Giménez Romero, Carlos (2005) Convivencia: Conceptualización y sugerencias para la praxis. Puntos de Vista: *Cuadernos del Observatorio de las Migraciones y la Convivencia Intercultural de la Ciudad de Madrid* (OMci), 1, 7–31. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=2478063>
- Goenechea, Cristina (2016) La escuela pública de la España multicultural: de privilegios y muros invisibles, *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 85 (30.1), 111-119. <http://hdl.handle.net/11162/124382>
- Gómez Crespo, Paloma, Barbosa Rodríguez, Fernando, López-Caniego Lapeña, María Dolores eta Martínez Aranda, María Adoración (2005) La integración: conceptualización y análisis, *Puntos de Vista: Cuadernos Del Observatorio de Las Migraciones y La Convivencia Intercultural de La Ciudad de Madrid* (OMci), (3), 7–29. <http://dialnet.unirioja.es/servlet/extart?codigo=2478067>
- Herrera-Cuesta, Damián (2021) El acceso de los hijos de inmigrantes a la Educación Superior en España ¿una cuestión de origen étnico o de origen social?, *Revista de Sociología de la Educación* (RASE) 14 (31), 391-406. <https://ojs.uv.es/index.php/RASE/article/view/21217>
- Heyting, Frieda, Kruihof, Bernard eta Mulder, Ernst (2002) Education and social integration: On basis consensus and the cohesion of society. *Educational Theory*, 52(4), 381. <https://www.proquest.com/scholarly-journals/education-social-integration-on-basis-consensus/docview/214140331/se-2?accountid=28166>
- Ibarra-Bustanza, Joseba (2012) Integración lingüística del alumnado inmigrado. *Textos de Didáctica de la Lengua y la Literatura*, 18 (61), 9-21. <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/handle/11162/29359>
- Ikuspegi (2021) *Población de origen extranjero en la CAE 2021*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan81casOK.pdf>
- Jaurilaritza, E. DECRETO 138/1983, de 11 de Julio, del Departamento de Educación y Cultura, por el que se regula el uso de las lenguas oficiales en la enseñanza no universitaria en el País Vasco (1983). <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1983/07/8301433a.shtml>
- Laparra-Navarro, Miguel eta Martínez de Lizarrondo, Antidio (2003) Integración y Políticas de Integración. In M. Laparra (Ed.), *Extranjeros en el Purgatorio. Integración Social de los Inmigrantes en el Espacio Local* (21–60 or.). Edicions Bellaterra S.L.
- Lasheras Ruiz, Rubén eta Andueza Imirizaldu, Izaskun (2014a) *Diagnóstico social sobre convivencia en Falces*. <https://labur.eus/2jSwy>

Lasheras Ruiz, Rubén eta Andueza Imirizaldu, Izaskun (2014b) *Diagnóstico social sobre convivencia en Larraga*. <https://labur.eus/3hgHL>

Lasheras Ruiz, Rubén eta Andueza Imirizaldu, Izaskun (2014c) *Diagnóstico social sobre la convivencia en Cintruénigo*. <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/3382435F-6937-4335-B087-15CF191A05D2/289963/Cintruenigoconvive.pdf>

Lasheras Ruiz, Rubén eta Andueza Imirizaldu, Izaskun (2018) *Diagnóstico Social sobre convivencia en Etxabakoitz*. Ayuntamiento de Pamplona / Iruñeko Udala. <http://www.pamplona.es/sites/default/files/2019-06/Etxabakoitzconvive.pdf>

Lasheras Ruiz, Rubén, Andueza Imirizaldu, Izaskun eta Jabat Torres, Edurne (2020) *Diagnóstico sobre convivencia en Burlada*. Propuesta para un Plan de Acción Municipal. Ayuntamiento de Burlada.

Malgesini, Gabriela eta Giménez, Carlos (2000) *Guía de Conceptos sobre Migraciones, Racismo e Interculturalidad*. Catarata.

Rivera-Vargas, Pablo (2020) *Integración de la población migrante en España: limitaciones y posibilidades de las disposiciones jurídicas*. <https://migrantes.mineduc.cl/wp-content/uploads/sites/88/2020/05/Integraci%C3%B3n-de-la-poblaci%C3%B3n-migrante-en-Espa%C3%B1a-limitaciones-y-posibilidades-de-las-disposiciones-jur%C3%ADdicas.pdf>

Valdés, Manuel T., Sancho-Gargallo, Miguel Ángel eta de Esteban Villar, Mercedes (2021) *Indicadores comentados sobre el estado del sistema educativo español 2021*. <https://www.fundacionareces.es/recursos/doc/portal/2018/03/20/indicadores-2021-web.pdf>



Parte-hartzea, gizarte-harremanak eta integrazioaren pertzepzio subjektiboa

Oier Ochoa de Aspuru Gulin

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Atzerritar jatorriko pertsonak gizarte hartzailletan integratzea dimentsio anitzeko prozesu gisa definitzen da, eta hainbat faktorek esku hartzen dute eta elkarri eragiten diote prozesu horretan. Oleagak (2020), Zaragozako Adierazpenean (2010) eta Godenau et al. (2014) ikerketan oinarrituta, enplegua, gizarte-ongizatea, gizarte-harremanak eta herritarrak aipatzen ditu integrazioa neurtzeko kontuan hartu beharreko dimentsio gisa. Beste autore batzuek parte-hartzea ere sartu dute kontuan hartu beharreko dimentsio gisa (Zapata et al., 2013, Martiniello, 2005), gizarte batean parte hartzea funtsezko elementua baita gizarte horretan parte hartzen duten pertsonak integratzeko edo baztertzeko (Subirats et al., 2004).

Lan honetan integrazioaren dimentsioetako biren azterketa eta erlazioa landuko ditugu: gizarte-harremanak eta parte-hartzea. Bi dimentsio horiek estu lotuta daude kapital sozialaren kontzeptuarekin eta kapital sozial handiagoa atzerritar jatorriko pertsonen integrazio handiagoarekin lotzen dituen hipotesiarekin (Fernández-Suarez eta Cano-Ruiz, 2018). Horren harira, lan honen helburu nagusia da jakitea parte-hartze sozial eta politikoak nola eragiten duen atzerritar jatorriko biztanleriaren gizarte-harremanen aniztasun-mailan eta integrazioaren pertzepzio subjektiboan. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) kasu zehatza hartuko dugu ardatz, Eusko Jaurlaritzak egiten duen Etorikin Atzerritarrei buruzko Inkestako (EABI) datuak erabilita. Hain zuzen ere, atzerritar jatorriko biztanleen parte-hartzea eta gizarte-harremanak aztertzeko garrantzi handiko alderdiak daude inkesta horretan jasotako gaien artean. Inkestaren ustiapenetik abiatuta, bi ikerketa-hipotesi balioztatuko edo ezeztatuko ditugu. Alde batetik, *elkarteetan zenbat eta gehiago parte hartu, orduan eta handiagoa*

izango da EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen gizarte-harremanen aniztasuna; eta bestetik, gizarte-harremanen aniztasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da atzerritar jatorriko biztanleek EAEn duten integrazio-sentimendua.

Gizarte-harremanak, parte-hartzea eta integrazioa

Gizarte-harremanak funtsezko elementuak dira gizartearen kohesio sozialean. Nola erlazionatzen garen, norekin erlazionatzen garen, norekin erlazionatu gaitzekoen edo zertarako erlazionatzen garen, alderdi horiek guztiek aukera ematen digute kohesio sozialaren maila harremanaren ikuspegitik eta kapital sozialaren ikuspegitik definitzeko. Bourdieuk (1986) dioenez, baliabide errealen edo potentzialen metaketa da kapital soziala, eta, horrekin batera, elkar aintzatesteko harreman gutxi-asko instituzionalizatuen sare iraunkorra du. Definizio hori oinarri hartuta, Fernández-Suarez eta Cano-Ruiz (2018) autoreek kapital sozialaren rola aztertzen dute, bai askotariko harremanak sortzeari dagokionez, bai kontrol sozialari dagokionez.

Kapital sozialak rol protagonista betetzen du bi zentzutan. Alde batetik, talde desberdinen artean harremanak sortuz, lotura ahulez osatutako familiaz kanpoko sareen bidez (bridging social capital) interkonexio sozialeko dinamikak indartuz (Grannovetter, 1973). Bestalde, taldeen barne-kohesioa indartuz (bonding social capital), kontrol soziala gauzatzen duten egitura itxien bidez (Coleman, 2001). (627-628. or.).

Autoreek aipatzen duten rol dual horri esker, hobeto uler dezakegu kapital sozialak zer eginkizun duen atzerritar jatorriko pertsonen integrazioan. Berez, kapital sozial handiagoa eta harreman-sare handiagoa izateak ez du zertan integrazio-maila handiagoa ekarri behar. Gizarte-harreman horien ezaugarrien, irekitasun-mailaren edo aniztasunaren arabera, kapital soziala modu positiboan edo negatiboan erlazionatuko da integrazio-mailarekin.

Parte-hartzeari dagokionez, adostasun akademiko zabala dago integrazio-prozesuetan duen eginkizun positiboaz, aukera ematen baitu herritar guztiak garatzeko (De Lucas, 2007), eskubideak zabaltzeko (Schuck, 2018) eta gizarte integratuagoak eta kohesionatuagoak indartzeko (Odmalm, 2005), aniztasun-testuinguruetan (Kymlicka, 1995). Alde horretatik, parte-hartzeari buruzko azterlanak honako hauetan oinarritzen dira: arauen dimentsioa aztertzea –parte hartzeko prozedurak eta boterea birbanatzeko borondatea–, parte-hartzearen ondorioak –ahalduntzea eta kapital soziala handitzea–, parte hartzeko gailuen diseinu tekniko eta ezarpena –eztabaidarako eta parte hartzeko prozesua–, eta parte-hartzea ikuspegi sektorialetik aztertzea

–sexuaren, iraunkortasunaren edo interseksionalitatearen arabera parte hartzea, besteak beste– (Martínez-Palacios, 2018).

Horren harira, Martínez-Palaciosek aipatzen dituen sektore-eremuei immigrazioa gehitu beharko genieke. Hala ere, azken urteetan atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze soziala eta politikoa aztertzeke interesa handitu den arren (Rex et al., 1987; Zapata et al., 2013; Vermeulen, 2010), urteetan ez da analisi-fokua izan, Martinellok (2005) dioen bezala, urteetan zehar etorkin langileak *aldi baterako gonbidatuzat* hartu baitira harrera-gizarteetan, eta ez politikoki aktiboak izatea espero den herritar potentzial gisa; hau da, gizartearen zuten rola soilik ekoizpena eta lanera mugatzen zela uste zen.

Parte-hartzea etorkinen integrazio-prozesuarekin lotzeko moduetako bat erabakiak hartzeko prozesuei lotutako parte-hartze sozialean oinarritzen da (Entzinger, 1999). Etorkinen parte-hartze sozial eta politikoen maila baldintzatuta dago, bai etorkinaren ezaugarriengatik, bai gizarte-hartzaileen testuinguruengatik. Migrazio- eta integrazio-politikek etorkinen parte-hartze sozial eta politikorako aukera-eremuak sortzen dituzten harrera-testuinguruan, parte-hartzearen maila handiagoa izango da. Besteak beste, lege-esparruak eta parte hartzeko programen diseinuak hitz egingo genuke, bai eta diskurtsoez, kontsultatu eta erabaki beharreko gaiez eta parte-hartze konbentzionalak (hauteskundeak, erakunde politikoak, parte hartzeko prozesuak, etab.) eta ez-konbentzionalak ere (mobilizazioak, grebak, manifestazioak, desobediencia zibila, etab.) (Zapata et al., 2013). Ikusten dugu, beraz, harrera-testuinguru hori, alde batetik, arau- eta erakunde-elementuek definitzen dutela; baina, bestetik, gizarteak berak ere bai, maila indibidualean zein kolektiboan, aniztasunak bere errealitate eta prozesu sozialean duen barneratze-mailaren arabera. Etorkinen ezaugarriek dagokienez, hainbat azterlanek erakutsi dute etorkinaren jatorri sozialak eta profil soziodemografikoak eragina dutela parte-hartzean, bai eta aurretiko sozializazio politikoak, kapital sozialak, hizkuntzak, migratzeko moduak, daraman denborak eta gizarte hartzailean duen egoera sozioekonomikoak ere (Ruedin, 2016; Zapata et al., 2013).

Bestalde, gaurengogizarteenezaugarriak, inolaz ere, elkartearen sarea. Kultura- eta aisialdi-elkarteak, kirol klubak, erlijio-erakundeak, hezkuntza taldeak eta abar gizartearen parte hartzeko guneak dira. Horiek ez dute hainbesteko loturarik Entzingerrek (1999) hizpide duen erabaki-hartzeari buruzko partaidetzarekin, bai ordea gizartearen bizitza sozial eta komunitarioaren zati handi bat egituratzen den gizarte-muskuluarekin, eremu horretan sortzen baitira gizarte-partaidetzarako eta gizarte-harremanetarako espazioak. Elkarte-sare zabal eta askotarikoa duen gizarte komunitate-bizitza bizi eta aberatsa duen gizarte da (Pena & Sánchez, 2018; Ariño 2004). Alde horretatik, etorkinak integratzeko prozesuen ikuspegitik begiratuta, alderdi garrantzitsua da kolektibo horrek elkarte-sarean duen parte-hartze sozialaren maila ezagutzea (Vecino, 2010).

Atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze asoziatiboa eta politikoa


Elkarte-sarea eta erakundeetan edo taldeetan parte hartzea dira pertsonen beren komunitatean eta ingurune hurbilean parte hartzeko dituzten bideetako bat. Atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, horrelako topaguneek garrantzi handia hartzen dute, harremanetarako eta kapital sozialerako funtsezko iturri baitira.

EABIk bildutako datuei erreparatuta, 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleek parte hartzen duten erakundeak ageri dira 1. grafikoan. Ikus dezakegunez, 2018an, % 19,3k zioen aisialdiko elkarteetan edo taldeetan parte hartu duela; gainerako erakundeetan, berriz, parte-hartzea askoz ere txikiagoa da: % 6,9k kirol-klubetan; % 6,9k hezkuntza- eta/edo kultura-erakundeetan; % 4,3k, erlijio-erakundeetan; eta % 4,1ek etorkinen talde informaletan. Bestalde, parte-hartzea hutsaren hurrengoa da alderdi politikoetan (% 0,4) eta auzo-elkarteetan (% 1,1). Datu horiek erakusten digutenez, atzerritar jatorriko biztanleen parte-hartzea jolas eta aisialdiko elkarteetan oinarritzen da batez ere, hala nola kirol-klubetan edo kultura-taldeetan, izaera sozial edo politikoagoa duten erakundeen aldean.

Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu aldatu egin direla atzerritar jatorriko biztanleen partaidetza-dinamikak. 2010ean, aisialdiko taldeek (% 23,3) jarraitzen zuten jendea maizen ibiltzen zen erakundeak izaten, baina azken urteetan pisua galdu dute –% 4ko jaitsiera—. Antzeko zerbait gertatzen da kirol-klubekin (% 9,5 2010ean) eta erlijio-erakundeekin (% 7,9 2010ean), horietan murriztu egin baita parte hartzen duten atzerritar jatorriko pertsonen kopurua. Bestalde, hezkuntza- eta kultura-taldeetan parte hartzen duten pertsonen kopurua ehuneko 2,5 puntu handitu da zortzi urteko epean.

Hala, ikusten dugu migrazio-prozesuak aurrera egin ahala eta biztanleria migratzaileak bere egoera egonkortu duen heinean, aldatzen joan dela migratzaileek euskal gizartean parte hartzeko modua. Hasiera batean, parte-hartze hori asistentzialagoa zen, migrazioaren lehen uneetako zailtasunekin loturik, hala nola erakunde erlijiosoena eta haiek eskaintzen duten laguntzarena. Hala ere, pertsona migratzaileak finkatu ahala, beste eremu eta esparru batzuetara aldatu da haien parte-hartzea, hala nola, hezkuntza- eta kultura-taldeetara.

1. grafikoa. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen parte hartzea, elkarte edo erakunde motaren arabera (%), 2010-2014-2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Datu horien arabera, 2018an EAEn bizi ziren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsona guztien % 27,6k parte hartzen zuen elkarte, sindikatu edo talde politikoren batean¹. Atzerritar jatorriko pertsonen buruz hitz egitean, akats ohikoenetako bat da migratzaileak talde guztiz homogeneo gisa aztertzea, kolektiboaren barruan gertatzen diren esperientziak eta egoerak kontuan hartu gabe. Hori dela eta, 1. taulak atzerritar jatorriko biztanleriaren parte-hartzeari buruzko datuak aurkezten ditu, beste aldagai batzuen arabera: sexua, jatorrizko eremua, eta egoera administratiboa eta ekonomikoa.

Sexuaren arabera, ikus dezakegu gizonen artean emakumeena baino handiagoa dela elkarte-, sindikatu- edo politika-sarean parte hartzen dutenen ehunekoa. Hala, 2018an, emakumeen % 25,6k hartzen zuen parte talderen batean; gizonen artean, berriz, % 30,2ra iristen zen ehuneko hori.

Bestalde, jatorriari dagokionez, senegaldar jatorriko biztanleria gainerakoen gaineratik nabarmentzen da parte-hartzearen maila handiagatik, kolektiboaren batez bestekoa ia ehuneko hamar puntutan gainditzen baitu –% 37,2 eta % 27,6, oro har–. Senegaldik urrun samar, baina hala ere batez bestekoaren gaineratik ditugu Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublika (% 35,8), baita Argentina, Txile eta Uruguai ere (% 34,3). Guztiz alderantzizko egoeran,

¹Elkarteetan, sindikatuetan edo talde politikoetan parte hartzeaz hitz egitean, gutxienez erakunde horietako batean parte hartzen duten atzerritar jatorriko pertsonen multzoaz ari gara.

Paraguaiko (% 16,2) eta Txinako (% 19,4) biztanleek dituzte partaidetza-kuota txikiak.

1. taula. Elkarte, sindikatu edo talde politikoren batean parte hartzen duten 16 urtetik gorako atzeritar jatorriko biztanleak, sexuaren, jatorrizko eremuaren, legezko egoeraren eta egoera ekonomikoaren arabera (%), 2010-2014-2018

		2010		2014		2018	
		Taldeetan parte hartzea		Taldeetan parte hartzea		Taldeetan parte hartzea	
		Bai	Ez	Bai	EZ	Bai	Ez
Sexua	Gizonezkoa	35,7	64,3	27,5	72,5	30,2	69,8
	Emakumezkoa	26,7	73,3	21,3	78,7	25,6	74,4
Jatorrizko eremua	Mendebaldeko EB	34,6	65,4	21,4	78,6	32,6	67,4
	Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	20,8	79,2	24,0	76,0	20,3	79,7
	Magreb	35,0	65,0	22,0	78,0	26,8	73,2
	Argentina, Txile, Uruguai	42,3	57,7	30,7	69,3	34,3	65,7
	Kolonbia, Ekuador, Peru	25,4	74,6	21,3	78,7	26,1	73,9
	Bolivia	37,4	62,6	21,5	78,5	26,9	73,1
	Paraguai	30,7	69,3	26,3	73,7	16,2	83,8
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	27,3	72,7	24,1	75,9	35,8	64,2
	Latinoamerikako gainerako herr.	26,8	73,2	20,6	79,4	25,0	75,0
	Txina	14,3	85,7	21,0	79,0	19,4	80,6
	Senegal	58,2	41,8	52,0	48,0	37,2	62,8
	Afrikako gainerako herrialdeak	48,4	51,6	35,9	64,1	27,8	72,2
	Munduko gainerako herrialdeak	26,6	73,4	23,3	76,7	32,7	67,3
	Legezko egoera	Espainiako nazionalitatea	36,7	63,3	26,6	73,4	31,2
Etengabeko egoitza		29,2	70,8	23,3	76,7	24,2	75,8
Aldi baterako egoitza		28,1	71,9	24,1	75,9	30,1	69,9
Irregularra		37,1	62,9	20,1	79,9	30,1	69,9
Beste egoera bat		0,0	0,0	22,8	77,2	20,1	79,9
Egoera ekonomikoa	Pobrea	32,2	67,8	25,2	74,8	26,7	73,3
	Pobre samarra	32,3	67,7	19,1	80,9	29,8	70,2
	Moldatzen	28,5	71,5	24,9	75,1	25,0	75,0
	Erosoa edo oparoa	34,7	65,3	25,4	74,6	31,1	68,9
Guztira			69,1	24,2	75,8	27,6	72,4

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.


Legezko egoerari dagokionez, parte-hartze handiagoa zuten espainiar nazionalitatea lortu zutenek (% 31,2), aldi baterako bizilekua zutenek (% 30,1) eta egoera irregularrean zeudenek (% 30,1). Bestalde, arlo ekonomikoan, ikusten da gehien parte hartzen zutenak zirela pertsona pobre samarrak (% 29,8) edo, aitzitik, egoera eroso lortu zutenak (% 31,1). Datu horiek ikusita, esan daiteke zenbait profilen artean handiagoa dela parte-hartzea. Alde batetik, egoera administratibo eta ekonomiko kaskarragoan dauden atzerritar jatorriko pertsonen profila dugu, eta horiek laguntza eta babes-sare bat aurkituko lukete parte-hartze aktiboan. Bestalde, legezko egoera egonkortu eta ongizate-maila eroso lortu ondoren, beste erakunde batzuetan parte hartzeko aukera duten migratzaileak daude, hala nola jolas-, hezkuntza- edo kultura-erakundeetan:

1. Profila: egoera administratibo kaskarrean dauden eta zailtasun ekonomikoak dituzten atzerritar jatorriko pertsonak.
2. Profila: Espainiako nazionalitatea eta egoera ekonomiko oparoa duten atzerritar jatorriko pertsonak.

Arreta aisialdiko elkarteetan jarrita, 2. grafikoak aukera ematen digu talde horiek nola osatuta dauden eta haien barruan zer lotura mota sortzen diren jakiteko. Datuek erakusten duten bezala, 2018an talde horietan parte hartzen zuten pertsonen % 78,2k talde horietan era guztietako pertsonekin zuten harremana, bertakoekin zein atzerritik etorritakoekin. Bestalde, era horretako taldeetan parte hartzen zuten pertsonen % 19,5ek bere jatorri edo kultura bereko pertsonak soilik osatutako taldeetan hartzen zuten parte.

Horren harira, eta datu horiek ikusita, argi dago elkarte edo talde horiek elkargune garrantzitsuak direla bertako eta atzerriko biztanleen artean. Izan ere, lehenago aipatu dugun bezala, era horretako taldeak aisialdirako espazioak izan ohi dira, eta elkartzen diren bertako nahiz atzerriko pertsonen giro lasaian izan ditzakete harremanak.

2. grafikoa. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen gizarte-harremanak aisialdi-taldeen barruan (%), 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.


Atzerritar jatorriko pertsonen gizarte-harremanak

Aisialdiko elkarteen barruan sortzen diren harremanez haratago, atzerriko pertsonak beste eremu eta espazio batzuetan sortzen dituzten lotura eta harreman sozialak ere aztertu behar ditugu. EABIk horri buruz ematen dizkigun datuei erreparatzen badiegu –3. grafikoa–, 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsona gehienak bertako pertsonekin nahiz atzerritar jatorriko pertsonekin erlazionatzen dira beren aisialdian. Zehazki, 2018an, atzerritar jatorriko pertsonen % 67,9k era guztietako pertsonekin zuten harremana, eta horrek esan nahi du % 7,6ko igoera izan dela EABlren lehenbiziko edizioko datuekin alderatuta (guztizkoaren % 60,3 2010ean).

Aldi berean, ikusten dugu atzerritar jatorriko pertsonen % 18,4k familiakoekin baino ez duela harremanik aisialdian. Horrenbestez, atzerritar jatorriko hamar pertsonatik bik, gutxi gorabehera, beren aisialdian senideekin bakarrik dute harremana. Hala ere, zifra hori nabarmen murriztu da 2010etik, erkidegoan bizi ziren atzerritar jatorriko biztanleen herena baitzegoen egoera horretan.

Bi datuek 2010etik 2018ra arte izan duten bilakaerak –alde batetik, bertako pertsonetik harremanen gorakadak, eta, bestetik, familia-harremanen beherakadak– erakusten du bertako biztanleriaren eta migratzaileen arteko harremanak aldatu egin direla, eta migrazio-prozesuak aurrera egin ahala, badirudi areagotu egin direla bi kolektiboen arteko harremanak.

3. grafikoa. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen gizarte-harremanak aisialdian (%), 2010-2014-2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Atzerritar jatorriko biztanleek beren aisialdian dituzten harremanetan sakonduz, 2. taulak harremanen datuak aurkezten ditu beste aldagai batzuk kontuan hartuta, hala nola sexua, jatorrizko eremua eta egoera administratiboa eta ekonomikoa. Sexua aintzat hartzen badugu, gizonezkoen artean (% 69,1) zertxobait handiagoa da bertakoekin zein atzerrikoekin harremanak dituzten pertsonen ehunekoa. Bestalde, emakumeen artean nabarmen handiagoa da harremana familiakoekin bakarrik duten emakumeen ehunekoa (% 3,9 handiagoa).

Aitzitik, jatorri bakoitzak dituen gizarte-harremanei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu 2018an Mendebaldeko Europatik (% 86,9) eta Argentinatik, Txiletik eta Uruguaitik (% 85,0) etorritako biztanleak zirela, alde handiarekin gainera, beren aisialdian harreman-aniztasun handiena zutenak. Bi kasuetan, era guztietako pertsonekin harremana dutela adierazi duten pertsonen ehunekoa batez bestekoaren gainetik dago, ehuneko ia 20 puntutan. Jatorri horiekin batera, bertakoekin zein migratzaileekin harreman sakonak dituzten beste talde batzuk kolonbiarrak, ekuadortarrak eta perutarrik dira (% 78,1), baita Euskadira Errumaniatik eta ekialdeko Europako beste herrialde komunitario batzuetatik iritsi diren pertsonak ere (% 72,5). Aldiz, txinatarrak dira beren sare sozialetan aniztasun txikiena dutenak (% 30,9); eta, maizenik, hurbileko eta gertuko senideekin soilik izaten dute harremana (% 47,1).

Puntu honetan, eta, aldeak alde, bi estatistika-eragiketa erabat desberdinak baitira, mahai gainean jarri besterik ez dugu atzerritar jatorriko biztanleek dituzten gizarte-harremanen eta euskal biztanleriak kolektibo desberdinekiko erakusten duen sinpatia-mailaren arteko paralelismoa. Ikuspegik egindako pertzepzioei eta jarrerei buruzko azken Barometroaren (2021) datuek erakusten digutenez, gizarte-harreman gehien dituzten jatorriak dira, hain zuzen ere, euskal biztanleek atseginen eta begikoen dituztenak. Esate baterako, Mendebaldeko Europa (% 86,9k era guztietako pertsonekin dituzte harremanak eta 6,6 sinpatia-puntu), Argentina (% 85 harremanetan eta 6,7 sinpatia-puntu), Kolonbia, Ekuador eta Peru (% 78,1 harremanetan eta 6,6 sinpatia-puntu).

Sexuaren eta jatorriaren arabera desberdintasunak alde batera utzita, gizarte-harremanetan ere aldeak ikusten ditugu, lege-egoeraren eta egoera ekonomikoen arabera. Lehenengo kasuan, Espainiako nazionalitatea lortu duten pertsonen % 75,5ek era guztietako pertsonekin dute harremana aisialdian. Nazionalitatea lortzeko baldintza nagusietako bat da Estatuan denbora jakin batean jarraian bizi izana. Alde horretatik, logikoa da nazionalitatea lortu duten pertsonak izatea harreman gehien dituztenak bertako jendearekin zein migratzaileekin.

Datu ekonomikoei dagokienez, egoera ekonomikoen eta gizarte-harremanen arteko lotura erakusten digu 2. taulak. Hala, ikusten da egoera prekarioan dauden pertsonak direla beren familiako pertsonekin –pertsonekin eta

pobre samarren % 21,9 eta % 24,2– edo beren jatorrikoekin eta kulturakoekin –pertsonekin % 21,9– harreman handiagoa izateko joera dutenak. Aldiz, ere guztietako pertsonekin harreman handiagoa dute egoera ekonomiko eroso edo oparoan daudela adierazi duten atzerritar jatorriko pertsonen (% 73,3).

2. taula. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen gizarte-harremanak aisialdian, sexuaren, jatorrizko eremuaren, legezko egoeraren eta egoera ekonomikoaren arabera (%), 2018

		Nire familiako pertsonekin bakarrik	Nire jatorriko edo kulturako pertsonekin bakarrik	Inoiz ez nire jatorriko edo kulturako pertsonekin	Era guztietako pertsonekin	
Sexua	Gizonezkoa	16,2	14,2	0,5	69,1	
	Emakumezkoa	20,1	11,3	1,6	67,0	
Jatorrizko eremua	Mendebaldeko EB	8,6	4,0	0,5	86,9	
	Errumania eta ekialdeko EBko beste herrialde batzuk	19,6	7,2	0,7	72,5	
	Magreb	19,7	21,7	1,7	56,9	
	Argentina, Txile, Uruguai	11,4	3,6	0,0	85,0	
	Kolonbia, Ekuador, Peru	14,5	6,8	0,5	78,1	
	Bolivia	25,3	15,2	2,9	56,7	
	Paraguai	23,0	14,1	1,2	61,7	
	Brasil, Venezuela, Dominikar Errep.	19,0	3,4	0,7	76,9	
	Latinoamerikako gainerako herr.	21,0	10,6	1,6	66,8	
	Txina	47,1	22,0	0,0	30,8	
	Senegal	11,1	34,5	1,3	53,1	
	Afrikako gainerako herrialdeak	16,7	16,0	1,6	65,8	
	Munduko gainerako herrialdeak	21,6	24,8	1,7	51,9	
	Legezko egoera	Espainiako nazionalitatea	16,3	7,2	0,9	75,5
		Etengabeko egoitza	19,7	14,2	0,9	65,2
Aldi baterako egoitza		19,6	18,4	3,8	58,1	
Irregularra		18,2	26,7	0,0	55,1	
Beste egoera bat		29,3	9,7	4,9	56,1	
Egoera ekonomikoa	Pobrea	21,9	21,9	1,4	54,8	
	Pobre samarra	24,2	14,2	0,0	61,5	
	Moldatzen	19,2	11,8	1,3	67,6	
	Erosoa edo oparoa	14,7	10,8	1,1	73,3	
	Guztira		12,5	1,2	67,9	

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Planteatu dugun lehenengo hipotesira itzulita, hau da, gizartean zenbat eta partaidetza handiagoa izan, orduan eta harreman-aniztasun handiagoa, hain zuzen ere bi elementu horiek lotzen ditu 3. taulak: 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen elkarteetan, sindikatuetan eta talde politikoetan duten parte hartzea eta aisialdian dituzten harremanak.

2018ko datuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu erakundeetan parte hartzen duten atzerritar jatorriko pertsona gehienek era guztietako pertsonen konpainiaz gozaten dutela beren tarte libreetan. Konparazio batera, taldeetan parte hartzen duten pertsonen % 75ek bertakoekin zein atzerritarrekin harremanak dituzten bitartean, ehuneko hori % 65,2ra jaisten da beren komunitatean aktiboki parte hartzen ez dutenen kasuan. Aitzitik, denbora librea familiako pertsonekin bakarrik betetzen duten pertsonei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu hor alderantzikatu egiten dela egoera. Hau da, elkarteetako, sindikatueta edo talde politikoetako kide ez diren pertsonak harremanak beren familia-inguruneke pertsonekin izateko joera handiagoa dute (% 21,5), euskal elkarte-sarean sartuta daudenek baino (% 10,3). Gainera, ikusten da harreman horiek esanguratsuak direla estatistikaren ikuspegitik begiratuta, eta, beraz, parte-hartzearen eta gizarte-harremanen arteko erlazioaz hitz egin dezakegu.

2018ko datuak inkestaren aurreko edizioetakoekin alderatzen baditugu, interesgarria da ikustea urteen joanean zer-nolako aurrerapena eta bilakaera izan den. Hiru kasuetan erlazio estatistikoki esanguratsua dagoela kontuan hartuta, ikusten da 2010eko datuekin alderatuta, parte-hartzeak duen pisua nabarmen murriztu dela gizarte-harremanekiko. 2010ean, parte hartzen zuten pertsonen % 70,3k era guztietako pertsonekin zuten harremana, eta talde horietan parte hartzen ez zuten pertsonen % 55,8k; horrek esan nahi du % 14,8ko aldea dagoela. Parte hartzen dutenen eta parte hartzen ez dutenen arteko alde hori % 9,7ra eta % 9,8ra jaitsi zen 2014an eta 2018an, hurrenez hurren. Beraz, ikus dezakegu, elkarte, sindikatu edo talde politiko batean parte hartzea migratzaileek bertako biztanleekin dituzten harremanak zeharkatzen dituen ezaugarria den arren, parte-hartze horrek gero eta garrantzi txikiagoa duela eta, gero eta harremanetarako espazio gehiago daudela talde horiez haratago.

Parte-hartzearen eta harremanen arteko lotura hori zehatzago aztertzen badugu, ikusiko dugu estatistikoki esanguratsuak diren desberdintasun horiek mantendu egiten direla sexuaren eta jatorrizko eremuaren aldagaiak gurutzatzean. Lehenengo kasuan, parte hartzearen –edo ez parte hartzearen– eta gizarte-harremanen aniztasun handiago edo txikiagoaren arteko lotura hori bete egiten da bai gizonen kasuan, bai emakumeen kasuan. Jatorrizko eremuari dagokionez, erlazio hori esanguratsua da Bolivian, Txinan eta Errumanian eta Ekialdeko Europako beste herrialde komunitario batzuetan jaiotako biztanleen kasuan.

3. taula. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleriak elkarte, sindikatu edo talde politikoren batean parte hartzearen eta aisialdian dituzten gizarte-harremanen arteko erlazioa (%), 2010-2014-2018

		Nire familiako pertsonekin bakarrik	Nire jatorriko edo kulturako pertsonekin bakarrik	Inoiz ez nire jatorriko edo kulturako pertsonekin	Era guztietako pertsonekin
2010	Bai	18,6	7,2	3,8	70,3
	Ez	35,8	7,9	0,4	55,8
	Guztira	30,5	7,7	1,5	60,3
2014	Bai	14,5	9,5	4,5	71,5
	Ez	27,2	9,9	1,0	61,8
	Guztira	24,2	9,8	1,9	64,2
2018	Bai	10,3	13,7	1,0	75,0
	Ez	21,5	12,1	1,2	65,2
	Guztira	18,4	12,5	1,2	67,9

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Biztanleria migratzailearen eta bertakoaren arteko harremanetan sakontzen jarraitzen badugu, EABIk aztertzeke aukera ematen digun beste alderdi bat da atzerritar jatorriko biztanleek bertako biztanleekin harremanak izateko dituzten zailtasunak. 4. taulan ageri den bezala, 2018an, 16 urtetik gorako migratzaileen % 3,3k zioten arazoren bat zutela euskal herritarrekin loturak ezartzeko; gehiengehienek (% 87,9k), ordea, ez zuten harremanak izateko inolako arazorik.

Gizarte-harremanekin gertatzen den bezala, alde estatistikoki esanguratsuak erakusten ditu erakundeetan parte hartzearen eta bertako pertsonekin harremanak izateko zailtasunen arteko gurutzaketak. Hala, ikusten dugu elkarte, sindikatu edo talde politikoren batean parte hartzen duten atzerritar jatorriko pertsonen arazo gutxiago dituztela bertakoekin sozializatzeko eta harremanak izateko, horixe baita 2018an parte hartu duten migratzaileen % 90,5en kasua. Aitzitik, era horretako taldeetan ez dauden pertsonen artean, ehuneko % 86,8ra jaisten da, hau da, ehuneko 3,7 puntuko aldea dago.

Erlazio horretan sakonduz, ikusten dugu desberdintasun esanguratsu horiek mantendu egiten direla bai sexuaren aldagaian, bai jatorrizko eremuaren aldagaian. Alde batetik, atzerritar jatorriko gizonen artean, elkarriz lotuta daude parte-hartzea eta bertako biztanleriarekin harremanak izateko zailtasunak. Horixe da, halaber, Magrebeko biztanleen kasua, harreman-arazorik ez dutela diotenen arteko aldea % 12,1ekoa baita aktiboki parte hartzen dutenen eta parte hartzen ez dutenen artean.

4. taula. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleek elkarte, sindikatu edo talde politikoren batean parte hartzearen eta bertako biztanleekin harremanak izateko dituzten zailtasunen arteko erlazioa (%), 2010-2014-2018

		Ez dut arazorik	Ez, ez dut horrelako harremanik bilatzen	Ez, baina nahiago dut nire inguruko edo kulturako jendearekin egon	Bai, integratzeko zailtasunak ditut
2010	Bai	94,6	1,0	1,2	3,3
	Ez	90,0	2,4	2,3	4,4
	Guztira	92,0	2,0	2,0	4,0
2014	Bai	89,5	1,9	4,5	4,1
	Ez	89,6	3,5	2,2	4,8
	Guztira	89,6	3,1	2,7	4,6
2018	Bai	90,5	4,1	2,4	2,9
	Ez	86,8	7,4	2,3	3,4
	Guztira	87,9	6,5	2,3	3,3

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Atzerritar jatorriko biztanleriaren integrazioaren pertzepzio subjektiboa


Atzerritar jatorriko kolektiboak elkarteetan, sindikatuetan eta talde politikoetan duen parte-hartzea eta horrek gizarte-harremanekin duen lotura aztertu ondoren, aztertu nahi dugun beste alderdi bat da gizareratze-sentimendua. Zehazkiago, gizarte-harremanen eta pertsona horien integrazio-pertzepzio subjektiboaren artean erlaziorik ote dagoen ikusi nahi dugu. Hau da, eguneroko harremanetan aniztasun handiagoa edo txikiagoa izateak zenbateraino eragiten duen atzerritar jatorriko pertsonak euskal gizartean integratuta sentitzeko orduan.

Berriro ere EABIn jasotako datuetatik abiatuta, 16 urtetik gorako atzerritarren integrazioaren pertzepzio subjektiboaren batez bestekoa erakusten du 4. grafikoak. Bertan, 1ek esan nahi du ez dagoela batere integratua eta 5ek oso integratua dagoela. Ikus dezakegunez, 2018an, erkidegoan bizi ziren atzerritar jatorriko biztanleak nahiko integratuta sentitzen ziren, 5etik 4,1 punturekin. Gainera, nabari da integrazio-sentimendu hori hobetu egin dela 2010etik, 0,1 puntu igo baita 2018an, aurreko bi urteekin alderatuta (2010 eta 2014).

Datu horretatik harago, kolektibo migratzailearen integrazio-sentimendua sexuaren arabera aztertzeko aukera ere ematen digu 4. grafikoak. Hala, ikusten dugu gizonen kasuan (4,2) emakumeak (4,1) baino zertxobait integratuago


daudela euskal gizartean, nahiz eta azpimarratu behar den integrazio-maila hori oso altua dela bi kasuetan.

4. grafikoa. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen integrazioaren pertzepzio subjektiboaren batez bestekoa, sexuaren arabera (1-5 eskala), 2010-2014-2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

5. grafikoa. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen integrazioaren pertzepzio subjektiboaren batez besteko haztatua, jatorrizko eremuaren arabera (1-5 eskala), 2018



Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Sexuaren araberako desberdintasunak kontuan hartzeaz gain, aintzat hartu beharreko beste alderdi bat integrazioaren pertzepzio horretan jatorrizko eremuaren arabera egon daitezkeen aldeak dira. 5. grafikoko datuek erakusten dute argentinarrak, txiletarrak eta uruguaitarrak jatorriko pertsonen dutela integrazio subjektiboaren maila handiena, 5etik 4,4 puntu. Horien ondoren, batez bestekoa baino integrazio-maila handiagoa adierazi duten beste kolektibo batzuk dira mendebaldeko Europako herrialderen batean jaiotakoak (4,3 puntu), bai eta kolonbiarrak, ekuadortarrak, perutarrek eta paraguaitarrak ere (4,3 puntu).

Beste muturrean, ikusten dugu integrazioaren pertzepzioa txikiagoa dela txinatar jatorriko (3,6 puntu) eta Saharaz hegoaldeko pertsonen artean, bai senegaldarrak (4 puntu) bai beste herrialde batzuetakoak izan (3,7 puntu).

Datu horien argitan, badirudi integratuen sentitzen diren kolektiboak kulturalki eta historikoki euskal gizartetik hurbilen daudenak direla, hala nola Latinoamerikako eta Europako biztanleak. Aitzitik, gutxiago integratuta daudela sumatzen duten jatorriak kulturalki euskal kulturatik oso urrun dauden jatorriak dira, oso urrun dauden unibertso sinbolikoak dituztenak.

16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen integrazioaren pertzepzioa dituzten gizarte-harremanekin lotzen badugu –5. taula–, datuek erlazio positiboa erakusten dute bi aldagai horien artean. 2018an, batez besteko haztatuak erakusten du era guztietako pertsonekin, bertakoak nahiz migratzaileak izan, harremanak dituzten pertsonak integratuago sentitzen direla (4,3 puntu) atzerritar jatorriko gainerako pertsonak baino (4,1 puntu). Aitzitik, ikusten da integrazioaren pertzepzio hori txikiagoa dela harremana bakarrik familiako pertsonekin (3,8 puntu) edo beren jatorri eta kultura bereko pertsonekin (3,9 puntu) dituzten pertsonen kasuan.

5. taula. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen aisialdiko gizarte-harremanen eta integrazioaren pertzepzio subjektiboaren batez besteko haztatuaren arteko erlazioa, sexuaren arabera (1-5 eskala), 2018

	Integrazioaren pertzepzioa	Gizonen IP	Emakumeen IP
Nire familiako pertsonekin bakarrik	3,8	3,8	3,7
Nire jatorriko edo kulturako pertsonekin bakarrik	3,9	3,9	3,8
Inoiz ez nire jatorriko edo kulturako pertsonekin	4,1	4,7	4,0
Era guztietako pertsonekin	4,3	4,3	4,3
Guztira	4,1	4,2	4,1

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Horrela, deskribapen hutsez, datu horiek pentsarazten digute zuzena dela planteatzen genuen abiapuntuko hipotesia, hau da, gizarte-harremanak eta integrazio-maila elkarrekin lotuta daudela. Azken finean, kontaktuen eta gizarte-harremanen sarea handiagoa bada, pentsa daiteke integrazio-maila handiagoa izango dela harrera-gizartean. Horrenbestez, pentsatzekoa da hemen daramaten denbora lotuta egon daitekeela integrazio-maila handiagorekin; izan ere, sustraitze-denbora zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoak eta konplexuagoak izaten dira sortzen diren sare sozialak.

Datu horiek sexuaren arabera bereizten baditugu, desberdintasun interesgarri batzuk aurkituko ditugu. Izan ere, emakumeen kasuan batez bestekoaren antzekoa da integrazioaren pertzepzioa; gizonen kasuan, aldiz, aisialdian beren

jatorriko eta kulturako pertsonekin harremanik ez dutenek askoz ere integrazio-sentimendu handiagoa dute (4,7 puntu).

Gizarte-harremanen eta integrazio-mailaren arteko erlazioan sakontzen jarraitzen badugu, EABIn jasotako datuak erlazionatzeko aukera ematen digun beste alderdi bat da gizarte-harremanena, eta biztanleria migratzaileak berak bertako eta atzerriko biztanleei buruz egiten duen balorazioa. Hautemandako pertzepzio subjektiboarekin gertatzen den bezala, 16 urtetik gorako atzeritar jatorriko biztanleek bi kolektiboek buruz egiten duten balorazioaren batez bestekoa erakusten du 6. taulak. Bertan, 1 oso balorazio negatiboa da, eta 5 oso positiboa.

Biztanleria migratzaileak bertako biztanleriari buruz egiten duen baloraziotik hasita, oro har positiboa dela ikusten da, 5etik 4,1 puntuko balorazioa batez beste. Balorazio horren gaineratik, ikusten da era guztietako pertsonekin harremanak dituzten atzeritar jatorriko pertsonak eta beren jatorri eta kultura bereko pertsonekin inoiz harremanik ez dutenak direla bertakoei balorazio onena ematen dietenak (4,2 puntu). Datu horiek pentsarazten digute bertako biztanleriari buruz iritzi onena duten pertsonak direla, hain zuzen ere, aisialdian bertakoekin harreman handiena dutenak.

Bestalde, atzeritar jatorriko biztanleek beren kolektiboari buruz egin duten balorazioari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu, oro har, nahiko balorazio positiboa dela (3,8 puntu), nahiz eta bertako biztanleena baino pixka bat beherago dagoen. Gizarte-harremanen mailaren arabera, balorazio hori positiboagoa da harremanak beren jatorri eta kultura bereko pertsonekin bakarrik dituzten pertsonen artean (3,9 puntu) eta harremana bertakoekin eta atzeritar jatorrikoekin dutenen artean berdin (3,8 puntu). Justu kontrakoa gertatzen da beren jatorri eta kultura bereko beste pertsona batzuekin harremanik ez duten pertsonekin, pertsona horiek erakusten baitute migratzaileen balorazio subjektiborik negatiboa (3,4 puntu).

Azkenean, datu horiek erakusten digutena da erlazio bat badagoela harremanen eta kolektiboek buruz dugun balorazioaren artean. Esan ohi den bezala, "egotearen egoteaz maitasuna sortzen da", eta EAEn bizi diren atzeritar jatorriko biztanleen kasuan, hori egia dela dirudi. Pertsonak modu positiboagoan baloratzen dituzte beren eguneroko bizitzan harremanak dituzten pertsonak eta denbora librearekin igarotzen dutenak, bertakoak nahiz atzerrikoak izan.

Berriz ere, sexuaren arabera, beren jatorri eta kultura bereko pertsonekin harremanik ez duten gizonak dituzte baliorik altuenak, eta aise gainditzen dute bertako biztanleriaren (4,7 puntu) nahiz migratzaileen (4,2 puntu) batez besteko balorazioa.

6. taula. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen aisialdiko gizarte-harremanen eta bertako biztanleei eta migratzaileei begira egiten duten balorazioaren batez besteko haztatuaren arteko erlazioa, sexuaren arabera (1-5 eskala), 2018

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
	Bertakoak	Atzerritar jatorrikoak	Bertakoak	Atzerritar jatorrikoak	Bertakoak	Atzerritar jatorrikoak
Nire familiako pertsonekin bakarrik	4,0	3,6	4,1	3,6	3,9	3,6
Nire jatorriko edo kulturako pertsonekin bakarrik	3,9	3,9	4,0	3,9	3,9	3,9
Inoiz ez nire jatorriko edo kulturako pertsonekin	4,2	3,4	4,7	4,2	4,0	3,2
Era guztietako pertsonekin	4,2	3,8	4,1	3,8	4,2	3,8
Guztira	4,1	3,8	4,1	3,8	4,1	3,8

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Azkenik, interesgarria da EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek gizarte-harremanen arloan etorkizunera begira dituzten itxaropenak aztertzea. 7. taulan ikusten den bezala, 2018an, hurrengo bost urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzen jarraitzeko asmoa zuten 16 urtetik gorako pertsona migratzaile guztietatik % 88,4k adierazi zuten harremanak modu berean eta ordura arte izandako gizarte-talde bereberekin izaten jarraitzeko asmoa zutela. Bestalde, % 7,2k argi utzi zuen bertako jendearekin harreman handiagoa izateko interesa; beste % 3,6k, berriz, adierazi zuen jatorrizko eremu edo kultura bereko pertsonekin zituzten harremanetan sakondu nahi zituztela.

Etorkizuneko itxaropen horiek atzerritar jatorriko biztanleek gaur egun dituzten gizarte-harremanekin lotzeak bi aldagaien arteko erlazio estatistikoki esanguratsua erakusten digu. Hala, ikusten dugu harremanak beren familiako pertsonekin bakarrik dituzten pertsonak gehiago adierazi dutela bertako pertsonekin harremanak izaten hasteko eta izateko asmoa (% 14,3), bai eta beren jatorrizko eremu edo kultura bereko beste pertsona batzuekin ere (% 7,2). Era berean, gaur egun bertako jendearen eta migratzaileen konpainiaz gozatzen duten pertsonen artean, % 91,6ra igo da etorkizunean ere "orain arte" bezalako harremanak izaten jarraituko dutela uste dutenen ehunekoa.

Erlazio hori xehetasun handiagoz aztertzen badugu, ikusiko dugu esanahi hori mantentzen dela sexuaren eta jatorrizko eremuaren aldagaia gurutzatzen dugunean. Alde batetik, sexuaren arabera, estatistikoki esanguratsua den harreman hori mantendu egiten da emakumeen kasuan, baina ez gizonen kasuan. Bestalde, gizarte-harremanak eta itxaropenak ere erlazionatuta daude Mendebaldeko Europar Batasuneko, Magrebeko, Kolonbiako, Ekuadorreko, Peruko, Paraguaiko, Brasilgo, Venezuelako, Dominikar Errepublikako eta Senegalgo biztanleen kasuan.

7. taula. Datozen 5 urteetan EAEn geratzeko asmoa duten 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleen harreman-aniztasunaren eta gizarte-arloko itxaropenen arteko erlazioa (%), 2018

	Orain arte bezala jarraitu	Nire eremuko edo kulturako pertsona gehiagorekin harremanak izan	Bertako jendearekin harremanetan hasi	Nire eremuko edo kulturako pertsonengandik urrundu
Nire familiako pertsonekin bakarrik	77,8	7,2	14,3	0,7
Nire jatorriko edo kulturako pertsonekin bakarrik	87,1	3,8	8,4	0,7
Inoiz ez nire jatorriko edo kulturako pertsonekin	87,2	0,0	7,7	5,0
Era guztietako pertsonekin	91,6	2,6	5,1	0,7
Guztira	88,4	3,6	7,2	0,8

Iturria: Geuk egina, EABI 2010, 2014 eta 2018 oinarri hartuta.

Ondorioak

Azterketa honetan, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleek dituzten gizarte-harremanak aztertu ditugu, eta arreta berezia jarri dugu hainbat elementutan, hala nola parte-hartzean, harremanen aniztasunean eta integrazio-sentimenduan. Elkarrekin, sindikatuetan edo talde politikoetan parte hartzeari dagokionez, EABIren emaitzek erakusten dute atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze handia dutela horrelako erakundeetan. Izan ere, 16 urtetik gorako pertsonen herenak, gutxi gorabehera, modu batean edo bestean parte hartzen du beren komunitateetan. Zehatz esateko, datuek erakusten digute migratzaileek izaera ludikoko erakundeetan parte hartzeko joera handiagoa dutela, elkarte sozial eta politikoen kaltetan.

Bestalde, gizarte-harremani dagokienez, migratzaileen kolektiboak era guztietako pertsonekin izaten ditu harremanak aisialdian. Izan ere, urteak igaro ahala eta migrazio-prozesuak aurrera egin ahala, atzerritar jatorriko biztanleek beren zirkuluak zabaltzen dituzte, eta gero eta harreman handiagoa dute migratzaileekin nahiz bertako pertsonekin.

Integrazio-mailari dagokionez, aztertutako informazioak euskal gizartearen nabarmen integratuta dagoen atzerritar jatorriko biztanleria erakusten du. Datu horietan sakonduz, profilen azterketak alde handiak erakusten dizkigu integrazio subjektiboaren mailan, jatorriaren arabera. Horrela, termino historikoetan eta kulturaletan euskal biztanleriarengandik hurbilen dauden jatorriek euskal gizartearen integratuago sentitzen direla adierazi dute, sinbolikoki eta kulturalki urrutien daudenekin kontrajarrita.

Analisi hau gidatu duten bi hipotesietara itzulita, lortutako datuen arabera, frogatuztat jo ditzakegu bi hipotesi horiek. Alde batetik, ikusi dugu atzerritar jatorriko biztanleek ezartzen dituzten gizarte-harremanak nabarmen aldatzen direla erakunde sozial eta politikoetan duten partaidetza-mailaren arabera. Hala, beren ingurunean modu aktiboan parte hartzen duten pertsonen harreman sozial askotarikoagoak dituzte aisialdian, eta harreman handiagoa dute bai bertakoekin bai beste migratzaile batzuekin. Era berean, parte-hartzearen eta bertako pertsonen harremanak izateko zailtasunen arteko korrelazioa ere egiaztatu dugu. Kasu honetan, egiaztatu dugu taldeetan eta erakundeetan parte hartzen duten pertsonen arazo gutxiago dituztela euskal herritarrekin harremanak izateko.

Gure bigarren hipotesiari dagokionez, hau da, gizarte-harremanak zenbat eta askotarikoagoak izan, orduan eta handiagoa da integrazio-sentimendua, datuek lotura positiboa erakutsi digute bi elementu horien artean. Oro har, ikusten da atzerritar jatorriko pertsonen aisialdian bertakoekin nahiz migratzaileekin izaten dituztenean harremanak, pertsona horiek integrazio-sentimendu handiagoa dutela euskal gizartearen, bai eta bertakoekiko nahiz migratzaileekiko ikuspuntu positiboagoa ere.

Bibliografia

- De Lucas, Javier (2007) Integración política, participación y ciudadanía: un balance, *Entelequia* 4, 271-282.
- Entzinger, Han (1999) *Immigrants' political and social participation in the integration process. In Political and social participation of immigrants through consultative bodies*. Directorate of Social and Economic Affairs Council of Europe Publishing, (9-40 or.). Council of Europe Publishing.
- Fernández, Belen eta Cano, Esther (2018) Capital social y redes políticas de las asociaciones de inmigrantes en Galicia. *Papers*, 103 (4), 625-649. <https://doi.org/10.5565/rev/papers.2509>
- Godenau, Dirk, Rinken, Sebastian, Martínez de Lizarrondo, Antidio eta Moreno, Gorka (2014) *La integración de los inmigrantes en España: una propuesta de medición a escala regional*. Ministerio de Empleo y Seguridad Social.
- Ikuspegi (2021) *Barómetro 2021. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2021/bar2021_cas.pdf

- Kymlicka, Will (1995) *Multicultural Citizenship: A Liberal Theory of Minority Rights*. Clarendon Press.
- Martiniello, Marco (2005) *Political participation, mobilisation and representation of immigrants and their offspring in Europe*. Willy Brandt Series of Working Papers in International Migration and Ethnic Relations, School of International Migration and Ethnic Relations. <http://muep.mau.se/handle/2043/1495>
- Odmalm, Pontus (2005) *Migration policies and political participation. Inclusion or intrusion in Western Europe?* Palgrave Macmillan.
- Oleaga, José Antonio (2020) *Índice sintético de inclusión e integración: un instrumento para el diseño de políticas públicas*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua
- Rex, John, Joly, Daniele eta Wilpert, Czarina (1987) *Immigrant Associations in Europe*. Aldershot.
- Ruedin, Didier (2016ko urtarrilaren 21-22). *The Political Participation of Immigrants*. Annual Conference of the Swiss Political Science Association, Basel, Suitza.
- Subirats, Joan (2004) (Dir.) *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Fundación La Caixa.
- Schuck, Peter H. (2018) *Citizens, Strangers and In-Betweens*. Routledge.
- Martinez Palacios, Jone (2018) ¿Qué significa participar? Reflexiones sobre la construcción de las imágenes de la participación. *Papers*, 102 (3), 367-393. <https://doi.org/10.5565/rev/papers.2319>
- Vecina, Carlos (2010) Tejido asociativo, convivencia intercultural y desarrollo comunitario. *Migraciones*, 28, 227-243.
- Vermeulen, Floris (2010) Organisational Patterns: Surinamese and Turkish Associations in Amsterdam, 1960-1990. *Journal of Ethnic and Migration Studies*, 5 (5), 951-973.
- Zapata, Ricard, Gabrielli, Lorenzo, Sánchez, Elena eta Jaulin, Thibaut (2013) *The political participation of immigrants in host countries: An interpretative framework from the perspective of origin countries and societies*. Technical Report, Migration Policy Centre, INTERACT, 2013/07. <https://cadmus.eui.eu/handle/1814/29565>



Bizikidetza, hautemandako diskriminazioa eta estereotipoak

Julia Shershneva Zastavnaia

Peio Salazar Martínez de Iturrate

Taide Arteta Esnal

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Arbuioa eta diskriminazioa baliteke oso oztopo garrantzitsuak izatea atzerritar jatorriko pertsonak harrera gizartean integratu daitezen. Hori horrela, modu askotan gauza daitezke: etorkinak gertakari gaitzesgarriekin eta zerbitzuak neurri gabe erabiltzearekin lotzen dituzten komentario xenofobo eta arrazistak; bakartze eta gaitzespen fisikoko egoera larriagoak, bai eta erasoak ere.

Horri dagokionez, diskriminazio-egoerak neurtu eta hautematea beste zailtasun garrantzitsu bat da, ez baitituzte askotan salatzen, eta horrek, alde batetik, arbuioa eta diskriminazioa nolabait normalizatzea dakar, eta, bestetik, haiek kuantifikatzea eragozten du. Horregatik, inkesten bidez bizipen diskriminatzaileak neurtzeak garrantzi berezia hartzen du. Ildo horretan, Etorikin Atzerritarrei buruzko Inkesta (EABI) oso tresna erabilgarria da, gaitzespena eta diskriminazioa eremu guztietan neurtzen baititu zenbait galdera multzoren bitartez. Gainera, beste egoera batzuez ere galdetzen du, eta egoera horiek, zuzenean diskriminatzaileak ez badira ere, atzerritar jatorriko pertsonak etorkina izateagatik desabantaila egoeran dauden errealitateen berri jasotzeko aukera ematen dute.

Hala, kapitulu honen helburua zera da: atzerritar jatorriko pertsonak pairatzen dituzten arbuio eta diskriminazio bizipenak ez ezik, pertsona horien bizikidetza eta gizarte harremanak ere aztertzea. Testua bi multzo nagusitan egituratuta dago. Lehenengoan, atzerritar jatorriko pertsonak beste kolektibo batzuekin dituzten harremanak aztertzen dira, bai eta kolektibo horiei buruz zer balorazio

egiten duten ere. Horri esker, gizarte eta bizikidetzaren giroa ezagutuko dugu etorkinen beraien ikuspegitik. Bestalde, bigarren zatian, atzerritar jatorriko pertsonen bizi izan dituzten arbuio eta diskriminazio esperientziak aztertzen dira, bai oro har, bai lan eta hezkuntza eremuak zehazki jorratuta.

Aldagai biko esanahiko analisi estatistiko bat egin da (*Chi square*) egoera horiek jasateko arrisku handien eta txikien duten pertsonen profilak lortzeko. Analisi horri esker, estatistikoki adierazgarriak diren aldeak antzeman daitezke zenbait ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuren arabera (hala nola jatorria, sexua eta etxeko egoera ekonomikoa).

Bizikidetzaren eta gizarte harremanak

Kontaktuak eta harremanak bertakoekin eta herrikideekin

Inkestatutako pertsonen bertako pertsonetako eta herrikideetako harremanei buruz zer balorazio egiten duten aztertuko dugu lehenik. 1. taulan ikus daitekeenez, bertako biztanleekin integartzeko zailtasunari buruz dauden datuen arabera, atzerritar jatorriko pertsonen % 87,9k horrelako arazorik ez dutela adierazi dute. Antzeko egoera gertatzen da jatorri eta/edo kultura bereko pertsonen eta/edo taldeekin integratzean, arazorik ez dutela adierazten baitute % 87,5ek. Gainera, bertakoekin (% 6,5) edo jatorri eta/edo kultura bereko pertsonen (% 9,5) harremanik bilatzen ez dutela adierazten duten pertsonen ehuneko oso txikia da. Azkenik, integartzeko arazoak dituzten atzerritar jatorriko pertsonen dagokienez, integartzeko arazo gehiago dituzte bertakoekin (% 3,3) kultura edo jatorri berekoekin baino (% 1,4).

1. taula. Harremanak bertakoekin eta jatorri eta/edo kultura bereko pertsonenekin, 2018, %


	Harremanak bertako pertsonenekin	Harremanak herrikideekin
Ez dut arazorik	87,9	87,5
Ez, ez dut horrelako kontakturik bilatzen	6,5	9,5
Ez, baina nahiago dut nire eremuko edo kulturako jendearekin egon	2,3	1,6
Bai, integartzeko zailtasunak ditut	3,3	1,4

Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

2010. eta 2014. urteekin alderatuta zer bilakaera egon den kontuan hartuta, 1. grafikoko datuek bakartzeko joera handiagoa erakusten dute, gora egin baitu bertako biztanleekin harremanik bilatzen ez dutela adierazi dutenen ehunekoak (2010ean % 2 izatetik 2018an % 6,5 izatera igaro da). Herrikideetako harre-

manei dagokienez, ordea, integrazio arazorik ez dutela diotenen ehunekoak egonkor iraun du, gutxi gorabehera.

1. grafikoa. Bertako pertsonekin (goian) eta jatorri eta/edo kultura bereko pertsonekin (behean) integratzeko zailtasunak, 2010-2014-2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Atzerriko jatorriko pertsonen jatorriari dagokionez, 2. grafikoa ikus daiteke txinatar jatorrikoek adierazten dutela gehien bertako pertsonekin harremanak izateko arazoak dituztela (% 62k baino ez dute adierazten ez dutela arazorik). Arazo hori desagertu egiten da jatorri bereko pertsonekin integratzeko orduan, eta, era berean, talde horretan dago, orobat, honako hau adierazten dutenen ehuneko handiena: integrazio arazorik ez badute ere, nahiago dute beren kulturako jendearekin egon (% 17,5).

Integratzeko zailtasun handien duten taldeen artean Afrikarekin lotutako jatorrikoak daude; bertakoekin harremanik bilatzen ez dutela adierazten dutenen ehuneko handia dago horien artean, txinatarrei dagokienez baino neurri handiagoan.

Antzeko jatorri edo kulturako pertsonekin integratzeari dagokionez, «Ez dut arazorik» erantzuna talde guztietan nagusi bada ere, gainerako erantzunen artean honako hau nabarmentzen da: «Ez dut horrelako kontakturik bilatzen», batez ere Munduko gainerako herrialde (% 18,5), Magreb (% 14,4) eta Boliviako (% 14) pertsoneri dagokienez.

2. grafikoa. Bertako pertsoekin eta jatorri eta/edo kultura bereko pertsoekin integratzeko zailtasunak, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Inkestatutako pertsonen sexuari dagokionez, ia ez dago alde adierazgarririk emakumeen eta gizonen artean; ez, ordea, jatorri geografikoa eta sexua kontuan hartuz gero. Magrebtarrena aski kasu argia da, emakumeek neurri handiagoan (% 20,7) adierazten baitute gizonek (% 10,4) baino ez daudela prest bertako pertsoekin harremanak izateko. Alde bera dago boliviarraren artean, baina txikiagoa da oraingoan (emakumeen % 10,9 eta gizonen % 1,8).

Egoera ekonomikoaren ondoriozko integratzeko arazoei buruz galdetuta, lotura ikusten da egoera ekonomiko txarragoaren eta bertako pertonekin eta, neurri txikiagoan, jatorri edo kultura bereko pertonekin harremanak izateko arazo handiagoen artean. Gabezia egoerari dagokionez, bertakoekin integratzeko arazorik ez duten pertsonen ehuneko handiagoak ikusten dira gabeziak pairatzen ez dituztenentzat (% 89) edo gabezia partziala pairatzen dutenentzat (% 88), dimentsio anitzeko gabezia pairatzen dutenentzat baino (% 81). Bertako pertonekin harremanik ez izateko joera, nahiz eta oso txikia izan, handiagoa da egoera ekonomiko txarragoa duten kolektiboetan. Lotura hori ez da neurri berean betetzen herrikideenganako jarreraren.

Datozen urteetako gizarte harremanei buruzko itxaropenak

Jarraian, atzerritar jatorriko pertsonen datoen bost urteetan gizarte harremanei buruz zer itxaropen dituzten aztertuko dugu. Zehazkiago, galdeketan epe luzera EAEn geratu nahi duten pertsonen galdetzen zaie ea zer jarrera duten hala bertakoekin nola jatorri eta/edo kultura bereko pertsonen gizarte harremanei dagokienez. Datuak orokorrean aztertuz gero (2. taula), ikusten da pertsona gehienek (% 88,4) hurrengo bost urteetan orain arte bezala jarraitzeko asmoa dutela adierazten dutela. Haien % 11,6k baino ez dute adierazten aldaketak egin nahi dituztela; aldaketen artean, bertakoekin harreman handiagoa izateko asmoa nabarmentzen da (% 7,2). Sexuaren arabera, emakume gehiagok adierazi dute gizonek baino bertako pertonekin harremanak hasi nahi dituztela (% 8,4 eta % 5,7, hurrenez hurren); gizonak, berriz, emakumeak baino gehiago agertzen dira orain arte bezala jarraitzearen alde (2. taula).


2. taula. Datozen urteetako gizarte harremanei buruzko itxaropenak, sexuaren arabera, 2018, %

	Gizona	Emakumea	Guztira
Orain arte bezala jarraitzea	% 90,5	% 86,9	% 88,4
Nire eremuko edo kulturako pertsona gehiagorekin harremanak izatea	% 3,5	% 3,6	% 3,6
Bertako pertonekin harremanak hastea	% 5,7	% 8,4	% 7,2
Nire eremu edo kulturako pertsonengandik urruntzea	% 0,3	% 1,1	% 0,8
Guztira	% 100,0	% 100,0	% 100,0

Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Aurreko urteekiko bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da bertakoekin gizarte harremanak hasteko asmoa adierazten duten atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoak nabarmen egin duela behera (% 12,9 2010ean, eta % 7,2 2018an), eta horrekin batera, jatorri bereko pertonekin baino ez dituztela harremanak izan nahi diotenen ehunekoak, aldiz, gora egin duela. Joera horiek bat datoz aurreko aldagaien ikusitakoekin, nolabaiteko beherakada baitago bertako pertonekin integratzeko asmoei dagokienez.

3. grafikoa. Datozen urteetako gizarte harremani buruzko itxaropenak, 2010-2014-2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorri geografikoaren arabera alderatuz, 4. grafikoa txinatar jatorriko pertsonen kasua nabarmentzen da, beste pertsona batzuekiko harremana aldatzeko joera handiagoa baitute, batez ere bertakoekin harreman handiagoa izateko (% 16,5). Europako mendebalde, Paraguai eta Senegalekoak dira harremanak aldatzeko joera txikien erakusten duten taldeak, eta orain arte bezala jarraitu nahiago baitute. Gainerako taldeetan % 85 eta % 90 artean dago orain arte bezala jarraitzeko asmoa. Halaber, deigarria da boliviarr jatorriko pertsonen % 4,1ek datozen bost urteetan herrikideengandik aldendu nahi izatea (serie osoko daturik altuena).

4. grafikoa. Datozen urteetako gizarte harremani buruzko itxaropenak, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta


Sexuari dagokionez, alde estatistikoki adierazgarri handienak Senegalgo emakumeen eta gizonen artean daude; emakumeak askoz ere prestago daude harremanak aldatzeko, batez ere bertakoekin dituztenak handitzeko (% 17 emakumeak eta % 3 gizonak). Latinoamerikako zenbait talderen kasuak (Argentina, Txile, Uruguai, Kolonbia, Ekuador eta Perukoak izan ezik) Senegalaren antzekoak dira, baina proportzio txikiagoan. Aldeak daude, orobat, txinatarren artean: emakumeek interes handiagoa dute hala bertakoekin (% 18 eta % 14, hurrenez hurren) nola herrikideekin (% 5 eta % 2) dituzten harremanak areagotzeko. Magrebeko emakumeek ere adierazten dute beren harremanak aldatzeko joera handiagoa, batez ere herrikideekin (emakumeen % 8 eta gizonen % 3); hala ere, harremanak gutxitu nahi dituzten emakumeen proportzioa ere aipatzeko modukoa da.

Alderdi ekonomikoei dagokienez, beste aldagai batzuetan ez bezala, ez dago lotura handirik maila ekonomikoaren eta gizarte harreman batzuekin edo besteekiko aurretiko jarreraren artean. Etxekoen egoera ekonomikoaren autopertzepzioaren aldagaian dago alderik handiena; izan ere, gizarte harremanak aldatzeko asmoa agertzen duten pertsonen % 20k baino gehiagok pobretzat jotzen dute beren etxeko egoera (egoera eroso edo oparoa duten pertsonen kasuan, aldiz, %8koa da ehuneko hori); batez ere bertako pertsonekin harremanetan jartzeko, eta neurri txikiagoan, beren komunitate nazionalakoekin.

Bertako biztanleen eta etorkinen balorazioa

Atal honetan, atzeritar jatorriko pertsonen bertako biztanleei zein etorkinei buruz zer balorazio egiten duten aztertuko dugu. 5. grafikoan ikus daitekeenez, atzeritar jatorriko biztanleek balorazio positiboa egiten dute, oro har, beren ingurune hurbilenean bizi diren pertsona guztien gainean. Hala ere, bertako biztanleei buruz egindako balorazioa atzeritarrei buruz egindakoa baino positiboagoa dela ikusten dugu. Zehazki, % 58,1ek eta % 28,2k balorazio positiboa eta oso positiboa egiten dute bertako kolektiboari buruz, hurrenez hurren, eta % 49,6k eta % 17k, berriz, balorazio positiboa eta oso positiboa egiten dute EAEn bizi diren etorkinei buruz. Azkenik, ia ez dago bi kolektiboetako bakar bat ere negatiboki baloratzen duen pertsonarik; % 29,2, baina, axolagabe ageri dira etorkinen aurrean, eta % 12, berriz, bertakoen aurrean. Sexuaren arabera, ez da alde adierazgarririk antzeman erantzunetan emakumeen eta gizonen artean.


5. grafikoa. Atzerriko eta bertako biztanleen balorazioa, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorriaren arabera (6. grafikoa), bertakoekiko axolagabeago agertzen den kolektiboa Afrikako gainerako herrialdeetako da (% 26,1). Ondoren Magrebekoak (% 16,9) eta Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikakoak (% 14,4) daude. Balorazio positiboei dagokienez, jatorriz argentinar, txiletar eta uruguaitarrak direnek dute balorazio oso positiboen tasarik handiena (% 42,3). Horren ondoren datoz Kolonbia, Ekuador eta Perukoak (% 37,2) eta Mendebaldeko EBkoak (% 33,1). Txina, aldiz, balorazio positiboko ehuneko handienak dituen jatorrietako bat bada ere, balorazio oso positiboa gutxien duen kolektiboa da (% 14,1), Afrikako gainerako herrialdeekin batera.


6. grafikoa. Bertako pertsonen balorazioa, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Etorkinen balorazioari dagokionez, Txinatik etorritako pertsonen kasua nabarmentzen da, talde horrek baino ez baitu ematen balorazio berriak negatibo handirik (% 15,6, batez bestekoa % 3,7 izanik). Atzerriko jatorria duten gainerako kolektiboekiko axolagabetasun handien agertzen dute, berriz ere, Afrikako gainerako herrialdeetakoek (% 43,8), eta ondoren, Argentina, Txile eta Uruguaiakoek (% 36,4), Boliviakoek (% 34) eta Paraguaiakoek (% 33). Azkenik, Senegal da, alde handiz, atzeritar jatorriko biztanleak positiboaren baloratzen duen jatorria (% 86,3 positiboa eta oso positiboa), Magreben atzetik (% 73).


7. grafikoa. Etorkinen balorazioa, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Egoera ekonomikoari dagokionez, maila ekonomikoaren eta bertako nahiz atzerriko biztanleei buruz egindako balorazioaren arteko harremana ikusten da. Etxeko egoera ekonomikoa erostzat eta oparotzat jotzen duten pertsonak egiten dute balorazio nabarmen positiboagoa pobregoen aldean (% 33k balorazio oso positiboa egiten dute, eta % 20,1k, berriz, etxe pobreetakoaren artean, bertako pertsonen buruz; eta % 21,7k eta % 13,2k, hurrenez hurren, etorkinei buruz).

8. grafikoa. Atzerriko eta bertako jatorriko pertsonen balorazioa, 2010-2014-2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Azkenik, bilakaerari dagokionez, bertako biztanleen balorazioa ia aldatu ez bada ere, atzeritar jatorriko pertsonen gainerako kolektiboetara buruzko pertzepzioak hobera egin du. Hala bada, handiagoa da balorazio positiboaren ehunekoa (% 56,4 ziren 2010ean, eta % 66,5 dira 2018an), eta txikiagoa, aldiz, balorazio axolagabeena (% 38,7 eta % 29,2).

Diskriminazioa eta arbuioa

Bigarren kapitulu honetan, diskriminazioari eta arbuioari buruzko datuak aztertuko ditugu, hala orokorrean nola zenbait eremuri dagokienez. Horrez gain, bizi dituzten diskriminazio esperientzia zehatzagoak aztertuko ditugu, bai eta bertako biztanleen artean zabalduen dauden estereotipo batzuekiko esposizioa ere (estereotipo horiek etorkinak eta gizartearen gaitzesgarritzat iriztitako jokabide eta gertaerak lotzen dituzte).


Gizarte arbuioa atzeritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik

Jarraian, atal honetan, atzeritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik dauden arrazakeria eta gizarte arbuioaren arazoetara buruzko datuak aztertuko ditugu, bi galderaren bidez. Alde batetik, EABlak etxeko ezaugarri horien ondorioz dauden gizarte arbuioaren arazoetara intzidentzian jartzen du arreta; beste alde batetik, banaka egindako galdera sorta bat aztertuko dugu. Galdera horiek atzeritar jatorriko pertsonen banaka bizi izandako estereotipoak, aurreiritzietan oinarritutako komentarioak eta diskriminazio egoerak aipatzen dituzte.

Lehenengoari heltzen badiogu, honako hau ikusten da: 2018an atzeritar jatorriko etxeko % 16,6k adierazten dute bizikidetzaren unitateko pertsonaren batek arbuioa jasan duela atzeritar izateagatik edo bere arraza edo erlijioagatik.

Datu hori nabarmen aldatzen da jatorriaren arabera; hala bada, Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Senegaldik etorritako pertsonak dira arazo hori gehien jasan dutenak (% 35,2 eta % 32,3, hurrenez hurren). Ondoren, Latinoamerikako gainerako herrialdeetatik (% 21,9), Txinatik (% 21,5), Kolonbia, Ekuador eta Perutik (% 19,2) etorritakoak daude (horiek ere batezbestekoaren gainetik). Aldiz, kontrako muturrean daude Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetatik (% 9,9) eta Argentina, Txile eta Uruguaitik (% 10,3) datozenak.


9. grafikoa. Atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik gizarte arbuioa izan dituzten familia unitateetako atzerritar jatorriko biztanleak, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Bilakaerari dagokionez, 2018an holakorik pairatu zuten bizikidetza unitateen tasa 2010ean baino txikiagoa izan bada ere (-% 12), 10. grafikoa gorakada ikusten da 2014. urtearekin alderatuta (+% 4,7). Jatorriaren arabera, atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik gizarte arbuioa izatearen pertzepzioak gora egin du ia jatorri guztietan, baina honako hauetatik datozen pertsonen eragin die bereziki: Txinatik (+% 19,3), Paraguitik (+% 7,7) eta EBko mendebaldeko herrialdeetatik (+% 7,2) etorritakoei eragin die. Hala ere, jatorriz Boliviakoak (-% 4,4) edo Errumaniakoak eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuetakoak (-% 11) diren pertsonen dagokienez, egoera nabarmen hobetu da, 2010ean baino arbuio txikiagoa dutela adierazi baitute.

10. grafikoa. Etxean atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik gizarte arbuioa izan dituzten familia unitateetako atzerritar jatorriko biztanleak, 2010-2014-2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Azkenik, 11. grafikoan, etxean atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik gizarte arbuioaz dagoen pertzepzioari buruzko datuak sexuaren arabera aurkezten dira. Tasa orokorra aldatzen ez bada ere (% 16 gizonetan eta % 17 emakumeetan), jatorriaren eta sexuaren arabera alde adierazgarriak ikusten dira. Hala, atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik gizarte arbuioa handiagoa da jatorri guztietako emakumeen kasuan, honako hauetan izan ezik: Magreb, Paraguai eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak, azken horietan arbuioa pairatutako gizonen ehunekoa handiagoa baita emakumeena baino. Hala, ikus dezakegunez, emakumeek gizonak baino neurri handiagoan hautematen dute arbuioa Senegalen (+% 8,3), Kolonbia, Ekuador eta Perun (% 6,1 gehiago gizonak baino), Bolivian (+% 5,9) eta Errumanian (+% 4,3).

Alderantzizko egoera dago, halere, Latinoamerikako gainerako herrialdeetan (-% 6,8), Paraguain (-% 5,3) eta Magreben (-% 3,5), horrelakoetan gizonak, oro har, emakumeek baino gizarte arbuio handiagoa hautematen baitute atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik.

11. grafikoa. Etxean atzerritarra izateagatik edo arraza edo erlijioagatik gizarte arbuioa arazoak izan dituzten familia unitateetako atzerritar jatorriko biztanleak, sexuaren eta jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta


Etxeko egoera ekonomikoari dagokionez dauden aldeei helduz gero, atzerritarra izateagatik, arraza edo erlijioagatik pairatutako gizarte arbuioa nabarmen ohikoagoa da gabezia ekonomikoko egoera larriak dituztela dioten etxeetan (% 23,2 oinarrizko alderdien gabeziari dagokionez, eta % 11, aldiz, gabeziarik gabeko etxeetan). Era berean, oinarrizko premiak asetzeko (% 22,5) edo ustekabeko gastuei aurre egiteko (% 19,5) zailtasuna duten etxeetan neurri handiagoan pairatzen dute arazo hori inolako zailtasunik ez dutenetan baino (% 10,8).

Arrazakeria, xenofobia edo marjinazio arazoak

Jarraian, atzerritar jatorriko EAEko pertsonen arrazakeriarekin edo xenofobiarekin lotuta bizi izan dituzten esperientziak, banakako galdetegian jasotakoak, aztertuko ditugu. Hala, bederatzigarren arbuio edo diskriminazio egoera edo arazori buruzko datuak bildu ditugu. Jantzkerari buruzko mespretxuzko komentarioak jasan beharri dagozkio horietako batzuk, edo immigrazioa eta sozialki gaitzesgarriak diren ezaugarriak lotzen dituztenak dira (delinkuentzia, osasun zerbitzuen saturazioa, gizarte laguntzei neurrigabe baliatzea), bai eta diskriminazio jokabideak ere, hala nola atzerritarrak izateagatik identifikatuak izatea, garraio publikoan haiekiko kontaktua saihestea, immigranteen iritzia kontuan ez hartzea edo irain arrazistak jasatea.

12. grafikoan ikus daitekeenez, atzerritar jatorriko biztanle guztien % 61,7k arbuio edo diskriminazio egoera horietakoren bat pairatu dutela adierazten dute (% 34,5ek maiz eta % 27,2k noizbait); % 38,3k, berriz, ez dute azalduetako egoeretakorik jasan.

12. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio, edo marjinazio arazoak, guztira, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Lehenik eta behin, etorkina izateagatik mespretxuzko komentarioak jasan behar izateari lotutako egoeretan jarriko dugu arreta. 13. grafikoan ikus daitekeenez, komentariarik ohikoena gizarte laguntzei ustezko abusuari buruzkoa da –% 55ek noizbait entzun dute gutxienez (horien % 29,2k maiz)–; ondoren, osasun zerbitzuen ustezko saturazioa dago (% 23,4k maiz entzun

dute, eta % 21,5ek noizbait), bai eta delitu jarduerak eta/edo jarduera sozialki gaitzesgarriak egitea leporatzen dieten iruzkinak (% 22,9k maiz, eta % 14,9k noizbait). Erlijio edo nazionalitate jakin batekoak izatea identifikatzen duten janzkera erabiltzeagatik mespretxuzko eta/edo larderiako komentarioak entzutea, aldiz, ez da hain ohikoa, etorkinen % 75,4k ez baitute halakorik bizi izan (% 9,6k maiz bizi izan du, eta % 15ek, berriz, noizbait).


13. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak, arazo mota zehatzaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Datu hori euskal gizartean gehien agertzen diren estereotipoekin alderatzen badugu –Ikuspegik EAEko biztanleek immigrazioarekin dituzten jarrerari buruz urtero egiten duen galdeketaaren arabera (*Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak 2021*)–, ikusiko dugu datuak bat datozela atzerritar jatorriko biztanleek gehien entzuten dituzten estereotipoekin. Hala, gizarte laguntzez neurrigabe baliatzeari buruzko komentarioa nabarmentzen da gehien EAEko gizartearen irudikapenetan, eta atzerritar jatorriko pertsonak gehien entzuten duten komentarioa da, orobat.

14. grafikoa. Arrazakeria eta xenofobia arazoak eta estereotipoak, EABI 2018 eta Barometroa 2021, %




Iturria: Geuk egina, EABlan eta Ikuspegi 2021ean oinarrituta

Estatus ekonomikoari dagokionez, aitortutako egoera ekonomikoaren arabera egoera horiekiko zer esposizio duten egiaztatzen badugu, ikusiko dugu aipatutako lau arazoetan lotura argia dagoela haien maiztasunaren eta zailtasun ekonomiko handien duten kolektiboen artean.

Egoera ekonomikoaz gain, fenomeno horietan jatorriak esku hartzen du, halaber. Hala ere, horri dagokionez, errealitatea konplexuagoa da, kolektibo gehiago daudelako eta guztiek ez dute era berean pairatzen estereotipo horiekiko esposizioa. Jarraian, horietako bakoitza aztertuko dugu, jatorriaren arabera egoera horiek pairatzeko arrisku handien duten kolektiboak aintzat hartuta.

Lehen egoerari dagokionez (atzeritar jatorriko pertsonen gizarte laguntza neurrigabe baliatzea egozten zaie), Latinoamerikako jatorria dutenek entzun dute gehien estereotipo hori. Ondoren, Afrikako herrialdeetatik etorritako kolektiboak daude (Senegal, Afrikako gainerako herrialdeak eta Magreb), eta Txinako jatorria dutenei eragiten die gutxien arazo horrek.

15. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: gizarte laguntzak, jatorriaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorri atzeritarreko pertsonak delinkuentziarekin eta jokabide gaitzesgarriekin lotzen dituzten komentarioak jasateari dagokionez, berriz ere, Latinoamerikako kolektiboak dira horrelako iruzkinak gehien entzuten dituztenak, baina oraingoan, Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako pertsonak jasaten dute hori gehien, Bolivia, Kolonbia, Ekuador eta Perukoekin batera. Afrikako gainerako herrialdeei dagokienez, etorkinei delitu jarduerak maiz egitea egozten

dieten komentarioak entzun dituzten pertsonen ehuneko oso handia ez bada ere, uneren batean horrelakoak entzun dituzten pertsonen batura handienetako bat da.


16. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: delinkuentzia, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Joerak bere horretan dirau osasun publikoaz neurrigabe baliatzeari buruzko komentarioen kasuan: Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikakoak (% 43,3), Boliviakoak (% 35,2), Kolonbia, Ekuador eta Perukoak (% 34,5) dira osasun zerbitzu publikoak saturatzeagatik egozten dieten erantzukizunaren inguruko kritikak maiz jasan behar izaten dituztela dieten kolektiboak. Berriz ere, Txinako herritarrek pairatzen dute gutxien arazo hori, hango jatorria dutenen % 88,9k horri buruzko komentariarik ez dutela jasan behar izan adierazten baitute, eta, ondoren, Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetakoak daude (% 76,3).


17. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: osasun zerbitzuak, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Erljio edo nazionalitate jakin batekoak izatea identifikatzen duen janzkera erabiltzeagatik mespretxuzko eta/edo larderiazko komentarioei dagokienez, gehien eragindako kolektiboa Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikakoa dela ikusten badugu ere —era horretako iruzkinak maiz entzun dituzten pertsonen tasa handiagoa baitute (% 19,5)—, Afrikako jatorrietan dago intzidentzia metatu handiena.

18. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: janzkera, jatorriaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Azkenik, 19. grafikoan diskriminazio eta arbuio egoera batzuei buruzko datuak daude, hala nola bilera batean atzerritarra izateagatik iritzia kontuan ez hartzea, irain arrazistak edo xenofoboak jasatea, atzerriko jatorria izateagatik identifikatzera behartuta egotea, norbaitek garraio publikoan ondoan eseri nahi ez izatea edo zerbitzu publiko edo pribatuetako bestelako tratu txarren bat jasatea.

Oro har, era horretako egoeren intzidentzia txikiagoa da immigrazioa estereotipo desberdinekin lotzen duten komentarioak jasan behar izatearena baino; izan ere, egoera horiek inoiz jasan ez dituzten pertsonen ehunekoa oso handia da, % 80tik gora kasu guztietan. Xehetasunei erreparatuz gero, egoerarik zabalduena irain arrazistak edo xenofoboak pairatzea dela ikusten dugu; hala,% 3,4k maiz bizi izan dituzte horrelakoak, eta % 13,8k, noizbait. Ondoren, «Polizia edo segurtasun zerbitzu desberdinek atzerriko jatorria izateagatik identifikatzera behartzen dizute» dago; izan ere, % 3,3ri maiz gertatzen zaie eta % 9,4ri noizbait. Beste muturrean, bilera batean haien iritzia kontuan ez hartzea dago; hori gertatu zaie inoiz pertsonen % 5,3ri, eta maiz, berriz, % 1,3ri.


19. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazo zehatzak, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorriari dagokionez, Boliviako, Afrikako gainerako herrialdeetako, Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako eta Magrebeko jatorria dutenei eragiten die gehien, eta azken horrek du intzidentzia metaturik handiena (% 21,4ri noizbait edo maiz gertatu zaie).


20. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: identifikazioa, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

2018ko EABlak egoera honetaz galdetzen du, orobat: pertsonaren batek jatorriatik haren ondoan jarri nahi ez izatea garraio publikoan edo itzarongela batean, jatorriatik. Jatorriaren arabera, Senegalek eta Afrikako gainerako herrialdeek neurri handiagoan adierazten dute noizbait gertatu zaiela edo maiz gertatzen zaiela (Senegalekoen % 23,9 eta Afrikako gainerako herrialdeetako % 28,8). Ondoren daude Magrebekoak (% 19,4).


21. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: arbuioa garraio publikoan, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Bilera batean jatorriatik haien iritzia kontuan ez hartzeari dagokionez, berriz ere ikusten dugu horrelakoak jasan dituzten pertsonen jatorriak hauek direla: Afrikako gainerako herrialdeak, Senegal, Magreb eta Bolivia.


22. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: ez ikusiarena egitea bilera batean, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Irain arrazistak eta xenofoboak jasotzea da diskriminazio egoera ohikoena, eta horretan ere badaude alde nabarmenak jatorriaren arabera. Senegaleko jatorria dutenetan dago hori maiz pairatzen duten pertsonen ehunetik handiena (% 13,7), baina Afrikako gainerako herrialdekoen kasua nabarmentzen da, talde horretan baitago tasa metaturik handiena (pertsona horien % 47,7k esan dute noizbait eta maiz irain arrazistak jasan dituztela).

23. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: irain arrazistak, jatorriaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Azkenik, inkestan galdetu da ea zerbitzu publiko edo pribatuetan bestelako tratu txarrik jasan duten. Holakorik maiz gertatzen zaien pertsonen ehunetara jatorri guztietan txikia bada ere (% 20tik beherakoak kasu guztietan), intzidentzia metatua handiagoa da Afrikako gainerako herrialdeei dagokienez (% 19,5), eta,

ondoren, Boliviakoei dagokionez, jatorri horretakoen % 16,1ek zerbitzu publiko edo pribatuetan tratu txarrak jasan dituztela adierazi baitute.

24. grafikoa. Arrazakeria, xenofobia, arbuio edo marjinazio arazoak: zerbitzuetan tratu txarra izatea, jatorriaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Horrela, etorkinak eta jokabide eta gertakari gaitzesgarriak lotzen dituzten aurreiritzietan oinarritutako komentarioak jasan behar izateari dagokionez, hori gehien pairatutako pertsonak Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako jatorria eta Kolonia, Ekuador, Peru eta Boliviako jatorria dutenak direla ondoriozta dezakegu, eta, neurri txikiagoan, Afrikako gainerako herrialdeetako eta Magrebekoa dutenak. Hala ere, diskriminazio jokabideak, lehenik eta behin, Afrikako gainerako herrialdeetan, Senegalen, Magreben eta Bolivian nabarmentzen dira. Txinako jatorria dutenak dira, ordea, kapitulu honetan aztertutako arazoek gutxien eragindakoa, batez ere komentario xenofobo desberdinekin zerikusia dutenei dagokionez. Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialdeetako eta Paraguaiko eta EBko mendebaldeko herritarretan badaude, halaber, eragindako pertsonen ehuneko txikiak.

Hautemandako lan diskriminazioa

Atal honetan, atzerritar jatorriko pertsonen azken 12 hilabeteetan jasandako lan diskriminazioaren pertzepzioari buruzko datuak aztertuko ditugu. Lehenik eta behin, lanean jasandako diskriminazio orokorra aztertuko dugu. Zehazki, azken 12 hilabeteetan jasandako hiru diskriminazio motaz galdetu da: arrazaren, jatorriaren edo kolorearen, nazionalitatearen eta erlijioaren arabera. 25. grafikoa ikus daitekeenez, atzerritar jatorriko biztanleen % 4,8k diskriminazio motaren bat jasan dute lanean. Sexuaren arabera, emakumeen ehuneko handixeagoa da gizonena baino (% 5,7 eta % 3,7, hurrenez hurren).

25. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan hautemandako lan diskriminazioa, motaren eta sexuaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

25. grafikoa adierazten diren arrazoen artean, nazionalitateagatiko diskriminazioa (% 3,8) eta arraza, jatorri edo koloreagatiko diskriminazioa (% 3,7) dira zabalduenak, eta emakumeek adierazten dute gehienbat arrazoi horiengatik diskriminatuta sentitzen direla. Dirudienez, erlijioagatiko diskriminazioa ez da oso ohikoa atzeritar jatorriko pertsonen artean, pertsonen % 1,1ek baino ez baitute adierazi.

Jatorriaren arabera, arrazaren, jatorri etnikoaren edo kolorearen arabera diskriminazioaren pertzepzioari dagokionez, Afrikako gainerako herrialdeetakoak ohartzen dira gehien diskriminazio horretaz (% 16,9). Kolonbia, Ekuador eta Perukoen artean ehuneko handiak daude, halaber, hala arrazaren, jatorri etnikoaren edo kolorearen arabera hautemandako diskriminazioan (% 9,8), nola nazionalitatearen arabera hautemandakoan (% 9,4). Txina, Argentina, Txile eta Uruguakoek gutxien adierazten dute, ordea, diskriminatuak sentitzen direla.

26. grafikoa. Lan eremuan hautemandako diskriminazioa, diskriminazio motaren arabera, jatorria aintzat hartuta, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Egoera ekonomikoaren arabera desberdintasunei erreparatzen badiegu, oinarritzko premiak asetzeko zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak dira lan diskriminazio handiena jasaten dutenak.

Orain, lantokian gertatzen diren diskriminazio egoerak aztertuko ditugu. 27. grafikoan ikus dezakegunez, lanpostu bereko beste pertsona batzuek baino soldata txikiagoa izatea nabarmentzen da (% 7); diskriminazio hori adierazi zuten gehien aurreko bi erreferentzia urteetan, eta % 1 egin du behera 2014koarekin alderatuta.

Aitzitik, lanpostuarekin lotutako zenbait diskriminazio egoerak gora egin dute 2014. urtearekin alderatuta, bereziki honako hauek: atzeritarrak izateagatik zeregin okerragoetara baztertuta izatea (2014an % 2,9, eta 2018an, % 5,3), bai eta enplegatzaileen aldetik tratu umiliagarria jasotzea ere (2014an % 2,8, eta 2018an, % 4,1), eta lankideek bakartzea edo arbuiatzea (2014an % 1,4, eta 2018an, % 3).


27. grafikoa. Lanpostuan hautemandako diskriminazio egoerak, 2010-2014-2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Sexuaren arabera aldeei dagokienez, 28. grafikoan ikus daiteke emakumeek lanpostuarekin lotutako diskriminazio tasa handiagoak dituztela diskriminazioa gertatzen den ia molde guztietarako, batez ere enpresaburuaren erabakiz modu irregularrean lan egiteari dagokionez (% 5,6 eta % 2,2, hurrenez hurren) eta enpresaburuaren aldetik tratu umiliagarria jasateari dagokionez (% 5,2 eta % 2,7, hurrenez hurren). Halaber, honako hauek maizagoetan pairatzen dutela ere hautematen dute: lanpostu berean beste pertsona batzuek baino soldata txikiagoa izatea (% 8,1 emakumeak, eta % 5,7 gizonak); atzeritarrak izateagatik zeregin okerragoetara baztertuak izatea (% 6,3 emakumeak, eta % 4 gizonak), eta lankideek arbuiatzea eta bakartzea (% 3,6 emakumeak, eta % 2,3 gizonak).


28. grafikoa. Lanpostuan hautemandako diskriminazio egoerak, sexuaren arabera, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

29. grafikoa ikusten dugunean, lan eremuarekin zerikusia duten zenbait egoeratan bizi izandako pertzepzioan eremu geografikoaren arabera dauden alde argiez ohartzen gara. Afrikar jatorriko pertsonak, zehazki Saharaz hegoaldeko Afrikakoak, gainerako jatorrietakoen gainetik nabarmentzen dira, neurri handiagoan adierazten baitute lanpostuan diskriminazioak jasan dituztela (kasu guztietan, enpresaburuaren erabakiz modu irregularrean lan egitea izan ezik, % 10 eta % 20 artean daude, eta jatorriaren arabera gainerako taldeak ez dira % 10era iristen ia kasu bakar batean ere). Ehuneko txikiak Europako Mendebaldeko eta Txinako taldeetan daude, ia ez dutela diskriminaziorik jasaten baitirudi.


29. grafikoa. Lanpostuko diskriminazio egoerak, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Egoera ekonomikoa kontuan hartuta, berriz ere hautematen da joera hau: zenbat eta egoera ekonomiko okerragoa izan, orduan eta lan diskriminazio handiagoa hautematen da. Joera hori askoz argiagoa da gabeziako eta zailtasun ekonomikoko egoerei begiratzuz gero (30. grafikoa); hala bada, lanpostu bereko beste pertsona batzuek baino soldata txikiagoa nabarmentzen da, hain zuzen ere egoera ekonomiko okerrean dauden atzerritar jatorriko pertsonentzat (% 18 eta % 16, hurrenez hurren).

30. grafikoa. Lanpostuko diskriminazio egoerak, gabeziaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Halaber, aztertuz gero, ikusiko dugu lanpostuko diskriminazio egoeren ehunekoak handiagoak izaten direla etxeko egoera pobre edo pobre samar gisa deskribatzen duten pertsonen artean, eta egoera ekonomiko eroso edo oparoa dutenek, berriz, arrisku txikiagoa dute horrelako arazoak jasateko.


Gizarte harremanak eta diskriminazioa hezkuntzaren eremuan

Hezkuntza eremuari dagokionez, EABI 2018an aniztasunarekin lotutako zenbait arazo planteatzen dira. Hau da, ikasle etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatzea, harremanak ikasle atzerritarrekin soilik edo nagusiki izatea, ikasleekin arazoak izatea arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik (bakartzea eta arbuioa), eta, azkenik, harremanak jatorri edo kultura bereko beste ikasle batzuekin soilik edo nagusiki izatea.

Lehenengoari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu atzerritar jatorriko biztanle guztien % 16,9k hezkuntza sisteman sartzean ikasle etorkin asko zituen ikastetxe batean eskolatu zituztela adierazten dutela (31. grafikoa). Sexuaren

arabera, alde nabarmenak daude, gizonei neurri handixeagoan eragiten baitie arazo horrek (% 20,4 eta % 13,9, hurrenez hurren).

31. grafikoa. Ikasle etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatzea, sexuaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorriaren arabera, alde nabarmenak daude; hala bada, Senegal da baiezko erantzunen tasa handiena duen jatorrizko herrialdea (% 46,7). Ondoren, 10 puntu baino gehiagora, Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika (% 31,1), Afrikako gainerako herrialdeak (% 29,1) eta Munduko gainerako herrialdeak (% 25,1) daude. Kolonia, Ekuador eta Peru, Boliviarekin batera, atzerritar jatorriko biztanleen batez bestekotik gertu daude (% 17,5 eta % 17,3, hurrenez hurren).

Bestalde, EBko mendebaldeak (% 2,2) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeek (% 3) batezbestekoa baino askoz ehuneko txikiagoak dituzte. Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk aintzat hartuta, % 9,6k diote ikasle etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatu direla; aldiz, txinatar jatorriko pertsonak % 11,2 dira, Paraguaiakoak % 12,7, eta Argentina, Txile eta Uruguaitik etorritakoak, % 14,9.

32. grafikoa. Ikasle etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatzea, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Azkenik, bilakaerari dagokionez, gora egin du 2010etik seme-alabak ikasle etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatu dituztela dioten atzerritar jatorriko pertsonen ehunekoak; 2014tik 2018ra bitartean % 1,7ko beherakada txikia egon da halere (33. grafikoa).


33. grafikoa. Ikasle etorkin asko dituen ikastetxe batean eskolatzea, 2010-2014-2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

EABI 2018ak aztertzen ditu, orobat, hezkuntza esparruko ikasleen arteko harremanak, eta bereizi egiten ditu harremanak bakarrik edo nagusiki beste ikasle atzerritar batzuekin izatea eta norberaren jatorri eta kulturakoekin izatea. 34. grafikoa ikus daitekeenez, % 7,8k harremanak ikasle atzerritarrekin baino ez dituzte; % 6,9k, berriz, harremanak beren jatorri edo kulturako ikasleekin baino ez dituztela adierazten dute, eta bi galderetan ez dago sexuaren arabeko alde nabarmenik.

34. grafikoa. Ikasleen arteko harremanak hezkuntzako eremuan, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorriaren arabera, 35. grafikoa erakusten du egoera horiek honako jatorria dutenetan agertzen direla gehien: Senegal (% 17,3 jatorri berekoekin eta % 17,2

ikasle atzerritarrekin), Magreb (% 17,3 jatorri berekoekin eta % 20,4 ikasle atzerritarrekin) eta Afrikako gainerako herrialdeak (% 12,8 jatorri berekoekin eta % 17,4 ikasle atzerritarrekin).

Hala ikasle atzerritarrekin nola beren jatorrikoekin harreman eksklusibo neurri txikiagoan dute, berriz, Txinako jatorria dutenek (kasu horretan ez da baiezkorik erregistratu), Errumania eta EBko beste herrialde batzuetakoek (% 5,5 ikasle atzerritarrekin) eta Latinoamerikako jatorria dutenek, haien ehunekoak batezbestekoaren azpitik baitaude.

35. grafikoa. Ikasleen arteko harremanak hezkuntzako eremuan, jatorriaren arabera, 2018, %




Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Profilei dagokienez, zailtasun ekonomikoak eta larritasun desberdineko gabezia egoerak dituzten pertsonen baiezko erantzunen ehuneko nabarmen handiagoak dituzte ustekabeko gastuei aurre egiteko edo oinarritzko premiak betetzeko zailtasunik ez dutenek edo gabezia egoeran ez daudenek baino.

Azkenik, 36. grafikoa baiezko erantzunen ehunekoaren bilakaera dago, baina jatorrizko ikasleekiko harreman eksklusiboari buruzko galdera ez da 2018ra arte egin. Horrela, harremanak atzerritar jatorriko ikasleekin bakarrik edo nagusiki dituztela dioten pertsonen ehunekoak 2010etik aurrera igo dela ikusten dugu: urte horretan % 4,1 izatetik, 2014an % 7,4 eta 2018an % 7,8 izatera.


36. grafikoa. Ikasleen arteko harremanak hezkuntzako eremuan, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Ondoren, ikasleek arraza, erlijio edo kulturagatik izaten dituzten bakartze eta arbuio arazoak aztertuko ditugu. 37. grafikoa ikus daitekeenez, 2018an atzerritar jatorriko ikasleen % 7,7k arbuio arazoak izan zituzten gainerako ikasleekin arraza, erlijio edo kulturagatik, eta % 7,2k diote bakartuak izan direla arrazoi beragatik. Bi galdera horiei erantzutean ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean.


37. grafikoa. Bakartze eta arbuio arazoak ikasleekin arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik, sexuaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Jatorrizko eremuan arabera, Afrikako gainerako herrialdeetatik datozenen ehunekoak nabarmentzen dira, batezbestekoa halako hiru baitira (% 21,1ek arbuioa jasan dute, eta % 19k, bakartzea). Ondoren, Txina eta Paraguai daude, % 15,8k eta % 15ek jasan baitute arbuioa, hurrenez hurren. Kontrako muturrean Argentina, Txile, Uruguaiakoak (zeinek arazo hori pairatzen ez duten) daude, eta Errumania eta beste EBko beste herrialde batzuetakoak; azken horiek ez dute arbuiorik jasan, baina bakartzea bai haien % 7k.


38. grafikoa. Bakartze eta arbuio arazoak ikasleekin arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik, jatorriaren arabera, 2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

2018ko datuak EABlaren aurreko aldietan bildutakoekin alderatuz gero, arraza, erlijio edo kulturagatik hezkuntza eremuan bakartze eta arbuio arazoaren berri ematen duten pertsonen ehunekoak gora egin duela ikusten da; hori horrela, 2010eko batezbestekoa % 5 izatetik 2018an % 7 izatera igaro da, eta 2014koa da daturik txikiena (%4, batez beste).

39. grafikoa. Bakartze eta arbuio arazoak ikasleekin arrazagatik, erlijioagatik edo kulturagatik, 2010-2014-2018, %



Iturria: Geuk egina, EABlan oinarrituta

Azkenik, ezaugarri sozioekonomikoei dagokienez, hezkuntza eremuan gertatzen diren beste arazo batzuei dagokienez bezala, gehien eragindako pertsonak oinarritzko premia ekonomiko handienak dituzten eta gabezia larri edo arineko egoeran daudenak dira, eta zailtasun ekonomikorik ez dutenek ematen dituzte, ordea, baiezko erantzunen ehuneko txikiak.

Ondorioak

Kapitulu honetan, batetik, atzerritar jatorriko pertsonen bizikidetzeta eta gizarte harremanak aztertu ditugu, eta, bestetik, hainbat eremutan bizi izandako diskriminazio eta arbuio egoerak. Jarraian, azterlanaren ondorio garrantzitsuenak laburbilduko ditugu.

Lehenik eta behin, atzerritar jatorriko pertsonen hala bertakoekin nola herrikideekin integratzeko duten zailtasuna aztertuko dugu. Hala, datuen arabera, galdetutako ia pertsona guztiek, 10etik 9k, ez dute arazorik bi kolektibo horiekin integratzeko. Hala ere, jatorriaren arabera, alde nabarmenak ikusten dira datuetan; hala bada, txinatar jatorriko pertsonen gainerako kolektiboek baino neurri handiagoan adierazten dute arazo mota hori pairatzen dutela. Gainera, jatorri horietakoek adierazten dute gehien nahiago dutela beren kulturako jendearekin egon, integrazio arazorik ez duten arren. Egoera ekonomikoa da integrazioan eragiten duen beste aldagai bat; izan ere, zailtasun ekonomiko handienak dituzten eta beren etxea pobretzat jotzen duten pertsonen dute zailtasun gehien hala bertako biztanleekin nola etorkinekin integratzeko.

Ildo beretik, atzerritar jatorriko pertsonen bertako biztanleei buruz egiten duten balorazioa oso positiboa da, eta axolagabetasun handiagoz baloratzen dituzte, ordea, atzerritar jatorriko biztanleak; azken datu horrek behera egin du azken zortzi urteetan, halere. Herrialde hauetakoek baloratzen dituzte positiboan bertako biztanleak: Argentina, Txile eta Uruguai, bai eta Kolonia, Ekuador, Peru eta EBko Mendebalde. Saharaz hegoaldeko herrialdeetakoek, ordea, axolagabetasun handiagoz baloratzen dituzte. Etorkinen balorazioari begiratzen badiogu, Txinakoak nabarmentzen dira, hango jatorria dutenak baitira balorazio negatibo handia egiten duten bakarrak; gutxiengo batek baino ez du aukera hori hautatzen, halere. Senegalekoek positiboan baloratzen dituzte, ordea, EAEn bizi diren beste etorkinak.

Atzerritar jatorriko pertsonen datozen bost urteetako gizarte harremanei buruz dituzten itxaropenei dagokionez, ia gehienek orain arte bezala jarraitu nahi dute, batez ere gizonek; emakumeek, berriz, neurri handiagoan espero dute bertakoekin harremanak hastea. Txinatar jatorriko pertsonen ere egiten dute horrelako harremanen alde; EBko Mendebaldekoek eta Paraguaikoek, ordea, nahiago dute orain arte bezala jarraitu. Horrez gain, nabarmentzekoa da orain arte bezala jarraitu nahi dutela dioten pertsonen kopuruak gora egin izana, eta behera, berriz, bertako pertsonen harremanak hastea espero dutenen kopuruak.

Hautemandako diskriminazioari dagokionez, gutxi gorabehera atzerritar jatorriko pertsonen % 16k adierazi dute gizarte arbuioa esperientziak bizi izan dituztela atzerritarra izateagatik edo beren arraza edo erlijioagatik. Hala ere, Saharaz hegoaldeko Afrikako eta Senegaleko jatorrikoen artean, datu hori

heren bat baino gehiagokoa da. Ildo horretan, Senegal, Kolonbia, Ekuador, Peru, Bolivia eta Errumaniako emakumeek gehiago pairatzen dituzte era horretako egoerak gizonek baino; Paraguai eta Magrebekoei dagokienez, aldiz, kontrakoa gertatzen da.

EAEko gizartean atzerritar jatorriko pertsonen inguruan errotuen dauden estereotipoen artean gizarte laguntzen ustezko gehiegizko erabilera dago; estereotipo hori entzuten dute gehien atzerritar jatorriko pertsonak, eta onarpen handiena du, halaber, bertako biztanleen artean, Ikuspegiren Barometroak emandako datuen arabera. Gainera, lotura argia dago etxeko egoera ekonomikoaren eta horrelako iruzkin estereotipatuak jasotzeko probabilitatearen artean: zenbat eta zailtasun ekonomiko handiagoa, orduan eta maizago jasan behar izaten dituzte iruzkin xenofoboak. Kolektiboak jatorriaren arabera kontuan hartuta, Latinoamerikako pertsonak (batez ere, Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Bolivia) eta afrikar jatorrikoak (Saharaz hegoaldeko Afrika eta Senegal) dira honako estereotipo hauek gehien jasan ohi dituenak: laguntzez neurrigabe baliatzea, osasun publikoa saturatzea eta delitu jarduerekin edo sozialki gaitzezgarriekiko lotura egozteak. Afrikar jatorriko pertsonak janzkerari eta erlijio praktikei buruzko estereotipoari dagokionez baino ez dute esposizio handiagoa Latinoamerikakoek baino. Txinatar jatorriko pertsonak kontrako egoeran daude kasu guztietan, eta alde nabarmena dute gainerakoekin. Jatorri europarra duten pertsonak arrisku txikiagoa dute horrelako iruzkinik jasotzeko.

Ildo beretik, atzerritar jatorriko pertsonak gehien hautematen duten diskriminazio egoera irain arrazistak eta xenofoboak jasatea da. Egoera hori ohikoagoa da Saharaz hegoaldeko Afrikatik, Senegaldik eta, neurri txikiagoan, Brasildik, Venezuelatik eta Dominikar Errepublikatik etorritako pertsonen kasuan. Bigarren egoera ohikoena atzerritarra izateagatik identifikatua izatea da; azken hori neurri handiagoan pairatzen dute Magrebetik datozen pertsonak. Saharaz hegoaldeko afrikar jatorriko pertsonak, berriz, gehiago pairatzen dute garraio publikoan haiekiko kontaktua saihestea edo jatorriagatik haien iritzia kontuan ez hartzea.

Galdetegiak lanaren arloko diskriminazio jorratzen zuen, orobat. Azken 12 hilabeteetan lanean jasandako hiru diskriminazio arrazoietatik –arrazak, jatorri edo koloreagatik, nazionalitateagatik eta erlijioagatik–, lehenengoa da ohikoena; batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikako jatorria dutenek pairatzen dute, eta emakumeek neurri handiagoan gizonek baino.

Zehazkiago, atzerritar jatorriko pertsonak lanean pairatzen duten diskriminazio nagusia lanpostu bereko beste pertsona batzuek baino gutxiago kobratzea da. Diskriminazio horren intzidentziak behera egin du aurreko urteekin alderatuta. Beheranzko joera bera gertatu da, baina neurri apalagoan, atzerritarra izateagatik mailaz igotzeko ezintasunaren diskriminazioari dagokionez. Hala ere, aurreko

urteekin alderatuta gehien igo den laneko diskriminazioaren arrazoa hauxe da: atzerritar jatorrikoak izateagatik zeregin okerragoetara baztertua izatea.

Sexuaren aldagaia kontuan hartuta, emakumeen egoera gizonena baino okerragoa da, batez ere bi egoera hauei dagokienez: enpresaburuaren erabakiz kontraturik gabe lan egitea eta enpresaburuak tratu umiliagarria ematea. Emakumeek ere adierazten dute gizonak baino maizago pairatzen dituztela zenbait diskriminazio, hala nola lanpostu bereko beste pertsona batzuek baino soldata txikiagoa izatea, atzerritarrak izateagatik lan okerragoetara baztertuak izatea, lankideek arbuia eta bakartzea, eta arraza edo jatorri etnikoagatik eta nazionalitateagatik diskriminazioa jasatea.

Egoera ekonomikoei dagokienez, lotura argia dago, berriz ere, egoera ekonomiko okerragoen eta lan diskriminazioko tasa handiagoen artean. Lan diskriminazioak jatorriaren arabera kontuan hartuta, alde handiak ikusten dira taldeen artean. Lan diskriminazio handiena adierazten duten kolektiboen artean, Afrikako jatorria dutenak nabarmentzen dira, batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikakoak, lan diskriminazioko ehuneko handiagoak baitituzte aintzat hartutako forma gehienetan, eta, era berean, adierazten dute diskriminazioa neurri handiagoan jasaten dutela beren kolore edo arrazagatik jatorri geografiko edo erlijioagatik baino. Jatorriaren arabera, Europako mendebalde eta Txinakoei dute egoerarik onena, ia ez dutela lan diskriminaziorik jasaten adierazten baitute.

Azkenik, hezkuntzako eremuan, atzerritar jatorriko biztanle guztien % 17k edo uste dute hezkuntza sisteman sartzean ikasle etorkin asko zituen ikastetxe batean eskolatu zituztela; ehuneko hori handiagoa da gizonei dagokienez. Egoera hori Senegalekoekin gertatzen da batez ere, jatorri horretakoekin ia erdiek adierazten baitute egoera hori bizi izan dutela. Alde handi samarrarekin bada ere, arazo horrek gehien eragindakoen artean daude Brasil, Venezuela eta Dominikar Errepublikako jatorria dutenak, baita Saharaz hegoaldeko Afrikako gainerako herrialdeetakoak ere.

Hezkuntza eremutik atera gabe, harremanak atzerritar jatorrikoekin eta norberaren jatorri bereko ikasleekin baino ez dutenak ez dira % 7 baino gehiago, baina Senegalekoetan daude, berriz ere —eta haiekin batera Magreb eta Saharaz hegoaldeko gainerako herrialdeetakoetan—, ehuneko handienak. Bilakaerari dagokionez, harremanak atzerritar jatorriko ikasleekin baino ez dituztelako pertzepzioak gora egin du aztertutako azken urteetan. Azkenik, atzerritar jatorriko biztanle gehienek ez dute bakartze eta arbuio arazorik pairatzen hezkuntzako eremuan arraza, erlijio edo kulturagatik, baina % 7k gutxi gorabehera bai jasaten dutela. Azken kasu horretan, Saharaz hegoaldeko Afrikako jatorria dutenak nabarmentzen dira; izan ere, aurretik aipatutako arazoekin bezala, batezbestekoaren oso ginetik daude haien ehunekoak.

Laburbilduz, honako ondorio hau atera dezakegu: datuak asko aldatzen badira ere, profil batzuk behin eta berriz agertzen dira askotariko arbuio, diskriminazio eta xenofobia egoerek gehien eragindakoen artean. Lehenik eta behin, Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta Senegaldik etorritako pertsonak dira; horrelakoek arrisku handiagoa dute iruzkin arrazistak eta xenofoboak jasotzeko, bai eta askotariko diskriminazio eta arbuio motak ere, hala lan eremuan nola hezkuntzakoan. Latinoamerikako jatorria dutenen artean, Brasil, Venezuela, Dominikar Errepublika eta Boliviakoek hautematen dute gehien diskriminazioa, hainbat eremutan eta askotariko arazoirengatik. Gainera, etxeko egoera ekonomikoa zeharka ageri da zenbait diskriminazio eta arbuio egoera neurri handiagoan jasateko arriskuarekin lotutako faktore gisa, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonen edo etxeko egoera pobretzat jotzen dutenek pairatzen baitituzte gehien horrelakoak. Txinako jatorri dutenak, berriz, kontrako muturrean daude, handik etorritakoek baitituzte diskriminazio tasarik txikiak. Haren atzetik daude EBko mendebaldeko herrialdeak eta Errumania eta EBko ekialdeko beste herrialde batzuk, diskriminazio intzidentzia txikiarekin.

10



Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna

José Antonio Oleaga Páramo ■ Begirune Fundazioa

XXI. mendeak aldaketa ugari ekarri dizkigu (teknologian, kliman, osasunean, antolakuntzan, lan-arloan, harremanetan, mugikortasunean, gobernantzan eta abarretan) eta egoera aldakorak denbora txikian (2008ko krisi ekonomikoa, 2020ko osasun-pandemia, Ukrainaren inbasioa, etab.). Etorkizunari begira dagoen ziurgabetasuna da, inolaz ere, mende hasiera horren ezaugarri nagusia.

Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsua da migrazioaren gaia, dituen aldaera guztietan: motibazio ekonomikoko immigrazioa, iragaitzazko migrazioa, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen migrazioa eta abar.

Euskadi, gaur egun, abegi- eta harrera-gizartea da atzerritar jatorriko pertsonentzat. Euskal gizartea gizarte erakargarria gara beste latitude batzuetako pertsonentzat, ez bakarrik gure orainagatik, baizik eta proiektatzen dugun etorkizunagatik. Beraz, immigrazioaren arloan lan egiten eta ikertzen dugunon zeregin eta kezka nagusietako bat da nola irits gaitzkeen Euskadin bizi garen pertsona guztiak erabat gizarteratzera.

Inklusioaren eta Integrazioaren Indize Sintetikoa tresna analitikoak eskuratzeko ahaleginaren emaitza da, tresna horiek kalitatezko informazioa emango baitigute atzerritar jatorriko pertsonak eta euskal gizartea murgilduta dauden integrazio-prozesuak nola garatzen ari diren jakiteko.

Indize hori Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestak (EABI 2018) emandako azken datuetan oinarritua dago, eta argi pixka bat eman nahi du eta tresna erabilgarria izan nahi du atzerritar jatorriko pertsona guztien integrazio-prozesuak hobetzeko gizarte-politikak diseinatzeko. Indize horrek pertsonen eta gizarte-taldean integrazio-prozesuaren egoerari buruzko informazio zehatza emango digu, eta integrazio prozesuan zailtasun gehien dituztenak eta/edo integrazio-prozesua hasi berria dutenak detektatuko ditu. Ideia da emaitzek aukera ematea gizarte-politikak eraginkortasun eta efizientzia handiagoz bideratzeko informazioa lortzeko, oztopo horiek kendu ahal izateko eta Euskadin bizi diren pertsona guztien integrazioa bultzatzeko.

Integrazio sozialaren eredu kontzeptualak

Egin dugun integrazioaren indize sintetikoak EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen integrazio sozialaren maila neurtu nahi du. Eta integrazio soziala diogunean, beste latitude batzuetako pertsonak etortzean abian jartzen den prozesuari buruz ari gara, honako honetan oinarrituta: “etorkinak finkatzeak berekin dakar bertako pertsonetara interakzioa, harrera-gizarteko ohiturekin eta erakundeekin gero eta gehiago ohitzea, eta halako gizarte-aldaketa batzuk egitea, batzuk eta besteak inplikatzeko dituztenak, nahiz eta agian neurri desberdinean izan” (Schierup eta Alund, 1986; *In* Martínez de Lizarrondo et al. 2016: 292).

Honela ulertzen dugu integrazioa terminoa: osotasun bat eratzeko ekintza da, zatiei buruz ari garenean (RAEk definitzen duenaren arabera). Integrazio sozialak, gure ustez, prozesu bat adierazten du, zeinean pertsona migratzaileak eta euskal herritarrak harremanak izatera eta elkarreraginean jardutera behartuta dauden berdintasun-maila handiagoan edo txikiagoan, oso bat eratzeko, euskal gizarte berria hain zuzen, askotarikoa eta kulturartekoa, elkarren arteko elkarreraginaren prozesu dialektikoaren emaitza.

Egia da, segur aski, migratzaileek beren aldetik gehiago jarri beharko dutela prozesu interaktibo horretan, baina egia da, halaber, ahalegin partekatua eskatzen duela.

Gure indizearen lanketa testuinguruan kokatzeko, migrazio-ereduetan integrazio soziala historikoki deskribatzeko erabilitako hiru teoria orokorrak edo ereduak gogoratuko ditugu.

- Integrazio sozialeko eredu asimilazionistak aldeztu duen prozesuaren arabera, kanpotik datozen etorkinek uko egin behar diote beren jatorrizko ondare kultural, sozial eta psikosozial osoari, eta haren ordean, harrera-gizartean nagusi diren kultura-jarraibideak berenganatu. Prozesu horretan aditza ematen da norabide bakarrekoa dela integrazio soziala, murgiltzekoa.

- Eredu asimilazionistaren alternatiba eredu multikulturalista da. Eredu horrek ez die etorkinei eskatzen beren jatorrizko kulturari uko egiteko, kultura horri eusteko aukera ematen die, baina betiere harrera-gizartearen kultura edo kultura-ildoan aniztasuna arriskuan jartzen ez badu edo haiekin lehiarik sortzen ez badu. Kontua da kultura guztiak aldi berean izatea, baina ez elkarri eragitea. Jakina, rol nagusia harrera-gizartearen kulturak izango du.
- Azkenik, hirugarren eredu generalista dugu, kulturartekotasuna, multikulturalismoari kulturen arteko interakzioaren faktore errealistena gehitzen diona. Baina, gainera, demokratikoa da, kolektiboari posizioak ematen baitizkie, ez baliokideak, baina bai aintzatetsiak. Eredu horrek gizarte bat osatzen duten kulturen arteko (bertakoa eta etorkinak) prozesu interaktibo gisa deskribatzen du integrazio soziala. Integrazio soziala egunero eraikitzen den prozesua da, eta kultura berrien etorrerak aldatu egiten du harrera-gizartearen jatorrizko kultura.

Baina teoria generalista horiek, beste kritika posible batzuen artean, akats bat dute, hauxe da, etorkin guztiak ezaugarri berdinak dituztela pentsatzea, harrera-gizarteak homogeneousat hartzen ditu eta integrazio-prozesu berdinetan sartzen dira. Gainera, harrera-gizarte monolitikoa dela pentsatzen du, baina kontua da kultura-ildoan, ohituren, tradizioen, mundu-ikuskeren, erlijioen, kapital sozialen, talde-identitateen eta abarren nahaste gutxi gorabehera koherente batek osatzen duela harrera-gizarte. Horri gehitu behar diogu etorkinak heterogeneoak direla eta haien integrazio-erritmoak ere hala direla.

Berrikiago, integrazio-prozesuaren segmentazioa eta asimetria azpimarratzen dituzten eredu kontzeptualak ditugu.

- Portes (1989, 2000) soziologoaren *asimilazio segmentatuaren* teoria. Hainbat integrazio-prozesu eta -modu gisa deskribatzen da integrazioa. Portesek, ikuspegi kontzeptualari dagokionez, hiru integrazio-estrategia edo -modu nabarmentzen ditu: 1) arau-egitura nagusietan edo sozialki partekatuenetan sartzea; 2) segmentu prekarizatuenetan sartzea; 3) antzeko jatorria duten ondo kokatutako gizarte-taldeetan sartzea, jatorrizko kultura-jokamolde batzuei eutsiz. Teoria horretan, jatorrizko gizarte-sareak dira gakoa.
- Freeman ikertzailearen *integrazio bereziaren* ikuspegia (1986, 2004). Hipotesia da etorkinen integrazioa zenbait eremu edo dimentsio independentetan garatzen dela, eta dimentsio horiek dinamika desberdinei jarrai diezaiekete. Nabarmentzen du lau dimentsiotan oinarritzen dela integrazio sozialaren prozesua: estatua (herritartasun-adierazleak), merkaturak (lan-adierazleak), gizarte-ongizatea (bizi-

kalitatearen adierazleak) eta kultura (kultura-adierazpenaren adierazleak).

- Bosswick eta Heckmann (2006) autoreen *harreman-sistema*. Autore horiek elkarrekin lotura duten oinarriko lau dimentsioz osatutako sistema integral gisa ulertzen dute integrazioa, aurreko autoreak ez bezala, hark lau azpiprozesu independenteren emaitzat hartzen baitu. Egile horien iritziz, integrazio prozesu bat arrakastatsua izateko, oreka eta egonkortasuna egon beharko du prozesu hori osatzen duten dimentsioen prozesu partzialetan. Honako hauek dira dimentsio horiek: egiturazko integrazioa (herritartasuna, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, etab.), integrazio kulturala (akulturazioa, gaitasun bikulturalak, jatorria eta helmuga), integrazio interaktiboa (gizarte-sareak, lagunak, ezkontzak, etab.) eta integrazio identitarioa (identifikazioa, kide sentitzea, etab.)

Integrazio sozialaren indizea egitea

Gurea bezalako integrazio sozialaren indize sintetikoa gizarte-zientzietan erabiltzen den konstruktua metodologikoa da, gai berari lotutako adierazle askotatik datorren informazioa laburbildu nahi denean. Aipatu dugun EABI 2018 inkestak EAEn bizi diren atzerriar jatorriko biztanleen errealtate sozialaren 500 adierazle baino gehiago ditu; indize sintetiko batek honako galdera honi erantzun nahi dio “eta, laburbilduz?”

Indize sintetikoaren bidez, pertsona bakoitzari balio bakar bat esleitzen diogu integrazio sozialaren prozesuan, eta pertsona bakoitza zenbakizko continuum batean kokatzen da. Pertsona bakoitzak continuum horretan duen kokapena, balio handiagoa edo txikiagoa izatea, indizea osatzen duten adierazleetan dituen erantzunen edo balioen arabera izango da.

Ikuspegi metodologikotik indize bat hainbat modutan egin badaiteke ere ikerketa sozial aplikatuan, indize sintetikoa terminoa bigarren mailako analisi faktoriala aplikatuz (osagai nagusien bi analisi faktorialen sekuentzia) lortzen dena izendatzeko erabili ohi da literatura zientifikoan.

Gure kasuan, Integrazio Sozialaren Indize Sintetikoa lortzeko, Etorikin Atzerriarrei buruzko Inkestaren (EABI) galdeketa eta haren datu-baseak emandako informazioa hartu dugu oinarri. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Erakundearen estatistika-lan ofiziala da inkesta hori. Azterketa-lan horrek hiru ediziotako (2010, 2014 eta 2018) datuak ematen baditu ere, gure indizea 2018ko EABI-n lortutako datuetan

kalkulatu eta aplikatu dugu, hau da, azken estatistika-lanean argitaratutako datuak erabili ditugu.

Inkesta horrek informazio handia ematen du atzerritar jatorriko biztanleen errealitate sozialaren adierazle pertsonal eta familiar askori buruz. Horietako batzuetan oinarrituta, integrazio sozialaren indize sintetikoa egin dugu, prozesu horretan galdetutako pertsona bakoitzaren egoera balio bakar batean laburbiltzen duena.

- 2018ko EABI: 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko 2.418 lagun benetako lagina. Horrek esan nahi du +/-% 1,20 gehieneko lagin-errorearekin lan egin dela, 165.153 laguneko unibertso estimatuan¹. EBenetako lagin horrek etxebizitzan edo establezimenduan atzerritar jatorriko pertsonak dituzten 2.418 bizikidetz-unitatetatik (Em = +/-% 4,62, 95.651 etxeko unibertso balioetsiarentzat) etorritako atzerriko 4.732 laguni buruzko informazioa ematen du (Em = +/-% 2,15, 211.208 laguneko biztanleria balioetsiarentzat).

Fitxa teknikoak bereizi egiten ditu 16 urtetik gorako pertsonen osatutako lagina eta atzerritar jatorriko pertsonaren bat bizi den bizikidetz-unitateen lagina; azken horietan, unitate bakoitzean bizi diren atzerritar jatorriko pertsona guztien informazioa jaso da.

Integrazioaren indize sintetikoa egiteko, 2018an lehen laginak emandako datuekin egin dugu lan, hau da, 16 urtetik gorako atzerritarrek osatzen duten laginarekin. Lagin horiosozabala da, eta hari aplikatutako galdetegiak 120 galdera baino gehiago ditu; horrek 500 aldagai inguru sortzen ditu datuen fitxategian. Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio-maila ezagutzeko eta indizea egiteko, aldagai horien aukeraketa bat egin dugu Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiko adituen, UPV/EHUko irakasleen eta/edo Ikuspegiko ikertzaileen arteko bilera batean. Aukeratutako aldagai horiek Zaragozako Adierazpenaren (2010) lau dimentsioekin izan behar zuten zerikusia: 1) lan-munduan eta prestakuntzan integratzearekin lotutako alderdiak; 2) integrazioa gizarte-ongizatearen ikuspegitik; 3) integrazioa gizarte-harremanen eta -elkarrekintzen ikuspegitik; eta 4) integrazioa herritartasun-eskubideen ikuspegitik.

¹Lagin-akatsai eta balioetsitako unibertsoei buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organoak emandakoak dira.

Etapa hauei jarraitu diegu integrazio sozialaren indizea eraikitzeko:

1. **Aldagai garrantzitsuak aukeratzea aztertutako esparru kontzeptual bakoitzean.** Hasieran batean, integrazioaren zenbait alderdirekin lotutako adierazle hauek detektatu eta aukeratu genituen: enpleguarekin eta prestakuntza-mailarekin lotutako 17, gizarte-ongizatearekin zerikusia zuten 24, gizarte-harremanekin lotutako 20 eta herritartasunarekin lotutako 9. Guztira, 70 aldagai.
2. **Aldagaiak birkodifikatzea.** Aukeratutako 70 aldagaiak berriz kodetu genituen, eta tarte-aldagai bihurtu genituen, hala behar genuenean. Aukeratutako aldagaien izaera askotarikoa dela kontuan hartuta (aldagai nominal dikotomikoak, hainbat modalitatetako aldagai nominalak, tarte-aldagaiak eta arrazoi-aldagaiak), haietako batzuk birkodetzea erabaki genuen, azkenean aldagai guztiak aldagai bitarrak, tarte-aldagaiak eta arrazoi-aldagaiak izan zitezen.
3. **Egindako datu-baseari esploratzeko osagai nagusien faktore analisisa aplikatzea.** Esploratzeko asmoz aplikatu zen lehen faktore-analisi hau. Aldagai erredundanteak kendu nahi genituen, elkarrekiko erlazio txikia zutenak eta/edo gutxi diskriminatuko zutenak (bariantza txikia azaltzen dute guztizkoan). Hala, analisisian sartutako 70 aldagaietatik 23 baztertzea erabaki genuen eta azkenean 47 aldagairekin geratu ginen².

Aldagai horiek honela banatzen dira analisiaren atariko esparruen arabera: enpleguarekin eta prestakuntza-mailarekin lotutako 15, gizarte-ongizatearekin zerikusia zuten 15, harreman sozialekin zerikusia zuten 12 eta herritartasunarekin lotutako 5.

1. grafikoan adierazi ditugu aldagai zehatzak.

²23 aldagai baztertu ditugu erredundanteak izateagatik, irudiaren aurkako korrelazio-koefizienteetan eta/edo Lagina Egokitze Neurria (MSA) banaka kalkulatzean lortutako balioetan nahi ez diren balioak dituztelako.

1. grafikoa. Atariko dimentsioak eta esleitutako aldagaiak

Atariko dimentsioak eta esleitutako aldagaiak							
Enplegua	15	Ongizatea	15	Harremanak	12	Herritartasuna	5
Z61	EAE n lan egitea	P61	Etxebizitza-erregimena	Z99	Aisialdia betetzea	Z111	Hautesk. autonomikoak
Z81	Lanaren edukia	P69	Diru-sarrerak oinarritzko.	Z100	Ais. taldetan parte hartzea	Z112	Udal-hauteskundeak
Z82	Lanpostua	P70	Etxebizitza-gastuak	Z101	Integrazio-zailtasunak	Z121	5 urterako itxaropenak
Z83	Lanean mailaz igotzea	P71	Ustekabeko gastuak		autoktonoekin	Z122	Etorbizun. itxaropenak
Z84	Lan-ordutegia	P72	Haragia jatea	Z102	Integrazio-zailtasunak	P22	Administrazio-egoera
Z85	Harremana nagusiekin	P73	+% 30 etxeb.-gastu.		etorkinekin		
Z86	Lan-erritmoa	P77	Ez-ordain., atzerapenak	Z103	Etorbikien talde		
Z87	Lan-baldintzak	P78	Argindarra, ura moztea		informalak		
Z88	Lanaren gogortasuna	P80	Familiari laguntza eskat.	Z104	Etorbikien erakundeetan		
Z89	Laneko arriskuak	P81	Laguntza ekonomikoa		parte hartzea		
Z90	Laneko estresa	P82	Gainzorpetzea	Z105	Kirol-elkarte edo -klubetan		
Z91	Ordainsaria	P83	Oinarritzko premiak		parte hartzea		
Z92	Lana-bizitza egokitzea	P86	Pobrezia-maila	Z106	Hezkuntza- eta/edo		
Z124	Enplegu-itxaropenak	P88	Gizarte-zerb. erabilera		kultura-taldetan parte hartzea		
P84	Diru-sarrerak	P90	Giz.-zerb. pribatuen erabilera	Z114	Autoktonoei buruzko balorazioa		
				Z115	Etorbiki buruzko balorazioa		
				Z118	Integrazioa euskal gizartean		
				Z128B	Gaztelania jakitea		

Iturria: Txostengileak egina

4. **Osagai nagusiak berresteko lehen faktore-analisia aplikatzea eta integrazio-indize partzialak kalkulatzeko.** 47 aldagaien multzo horri lehen mailako osagai nagusien faktore-analisia aplikatu diogu, honako helburu hauekin: aldagaiek elkarren artean zer lotura dituzten ikustea, faktoreetan edo dimentsioetan nola multzokatzen diren aztertzea, aldagai horietako bakoitza zein aldagaik osatzen duten jakitea eta guztizko bariantza azaltzeko duten gaitasuna ezagutzea.

Aldagaien korrelazio-irizpideak aztertu ditugu, eta aldagai horiek analisisian parte hartzeko baldintzak³ betetzen dituztela eta, analisi hori egiteko, aldagai asko faktore edo dimentsio kopuru txiki batera murriztu daitezkeela egiaztatu dugu. Horrenbestez, lortutako faktoreak⁴ ateratzen eta txandakatzen hasi gara. Zazpi dimentsio izan dira eta guztizko aldakortasunaren % 60,86 azaltzen dute. Horrela, atariko lau dimentsioetatik zazpi azkenekoetara igaro gara⁵.

³2018ko EABLren datu-basearen azterketan, honako hauek dira koefiziente horien balioak: erabakigarria 1,69E-018; KMO 0,947; Bartlett-en testaren esanahia 0,000; MSA Lagina Egokitzekeo Neurriaren balio guztiak 0,50 baino handiagoak dira, gehienak 1etik hurbil daude.

⁴Poza et al (2010) autoreen ereduari jarraituz, PROMAX errotaio zehharra erabili dugu, urrats honetan ez baitugu nahitaez behar faktore guztiak elkarrekiko independenteak izatea.

⁵Faktoreak atera ondoren, komunalitateen azterketak adierazten digu egokia dela zazpi dimentsio edo faktoreko soluzioa. Aldagai batzuk balio txikiak badituzte ere komunalitateetan (0,40tik beherakoak), gero konfigurazio-matrizearen saturazio koadratikoetan duten banaketak gomendatzen digu balio horiei eustea, faktoreak hobeto interpretatu ahal izateko.

Gure faktore-analisan lortutako neurriek zazpi osagitan banatzen dute integrazio soziala:

1. Lan-munduan integratzea: Lan-merkatuan sarbidea izateari eta oraingo zein iraganeko lan-baldintzekin gustura egoteari erreparatzen dio dimentsio honek. Hamahiru aldagaik osatzen dute.
2. Gizarte-ongizatean integratzea: atzerritar jatorriko pertsonak beren gizarte-ongizateari dagokionez, oro har, zer egoeratan dauden erakusten diguten alderdiak jasotzen ditu. Zortzi aldagaik osatzen dute.
3. Integrazio sozioekonomikoa: aurreko biak ez bezala, dimentsio hau diru-kontuetara eta alderdi krematistikoetara mugatzen da batez ere (diru-sarrerak, laguntza ekonomikoak eskatzeko beharra eta abar). Bederatzi aldagaik osatzen dute.
4. Integrazio identitarioa: faktore edo dimentsio hau euskal gizarteko kide izatearekin dago lotuta, bai eta bertakoen eta etorkinen taldeetan sartzeko zailtasunekin eta kolektibo horiei buruz egiten den balorazioarekin ere. Zazpi aldagaik osatzen dute.
5. Herritar gisa integratzea: faktore honek atzerritar jatorriko pertsonen herritarren eskubideak baliatzeari dagokionez duten egoerarekin du zerikusia. Hiru aldagaik osatzen dute.
6. Integrazio komunitarioa: faktore honek atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartze komunitarioaren maila jasotzen du. Bost aldagaik osatzen dute.
7. Bizi-itxaropenen integrazioa: pertsonen bizi-itxaropenak biltzen ditu dimentsio honek, eta euskal gizartea bere migrazio-prozesuaren amaiera edo beste etapa bat dela sentitzearekin dago lotuta. Bi aldagaik osatzen dute.

5. **Bigarren mailako osagai nagusien faktore-analisia aplikatzea eta Integrazio Sozialaren Indizea kalkulatzeko.** Bigarren analisi hau aplikatuta, indize sintetikoa sortzeko eta kalkulatzeko prozesua amaitzen da.

Bigarren mailako faktore-analisia da, aurretiko analisian ateratako zazpi dimentsioei aplikatua. Bigarren faktore-analisi honen bidez, gizabanako bakoitzaren integrazio sozial globalean dimentsioetako bakoitzak duen pisua hierarkizatu eta haztatu ahal izan dugu⁶.

Bigarren mailako faktore-analisiak honako pisu hau ematen dio faktore horietako bakoitzari: lan-munduan integratzea, % 29,95eko gaitasun esplikatzailearekin; gizarte-ongizatean integratzea, % 16,3ko gaitasun esplikatzailearekin; integrazio sozioekonomikoa, % 14,4; integrazio

⁶Aipatutako ereduari jarraituz (Poza et al., 2010), bigarren faktore-analisi honetarako VARIMAX errotaio ortogonal aukeratu dugu, lortutako faktoreen independentzia maximizatzen baitu.

identitarioa, %12,5; herritar gisa integratzea, % 11,6; integrazio komunitarioa, % 10,1; bizi-itxaropenen integrazioa, % 5,7.

Hortik aurrera, aldagai bakarreko, bi aldagaiko eta aldagai anitzeko estatistika-prozesuak aplikatu ditugu, eta honako hau baieztatzeko aukera eman digute:

1. Atzerritar jatorriko pertsonen integrazio soziala dimentsio anitzeko prozesua da, eta oinarrizko zazpi dimentsioak osatzen dute: 1) lanean sarbidea izatea eta lan-baldintzak; 2) pertsonen gizarte-ongizatearen maila; 3) haien egoera ekonomikoa eta beren familia; 4) haien dimentsio identitarioa; 5) herritar gisa integratzearekin zerikusia duten alderdiak; 6) harreman eta parte-hartze komunitarioaren esparrua; eta 7) etorkizuneko bizi-itxaropenekin lotutako gaiak.
2. Integrazio soziala prozesu segmentatua da. Dimentsio bakoitzari dagozkion zazpi indize partzialak eta integrazio sozialaren indize sintetikoak lortzeak aukera ematen du agerian uzteko pertsona batzuk (eta talde edo kategoría sozial batzuk) fase goiztiaragoetan daudela, eta beste batzuk, berriz, fase aurreratuagoetan daudela beren integrazio-prozesuetan. Beraz, datuek baieztatzen dute segmentazioa gertatzen dela integrazio sozialean.
3. Integrazio soziala prozesu asimetrikoa da. Gainera, zazpi dimentsioek elkarren arteko erlazioak dituen sistema bat osatzen badute ere, haien garapen-erritmoa ez da berdina, eta, beraz, integrazio asimetrikoak hitz egin daiteke: pertsona bera integrazio-fase desberdinetan egon daiteke aztertutako zazpi dimentsioetan. Integrazio soziala osatzen duten zazpi dimentsioen garapen-erritmoek pertsona bakoitzaren eta gizarte-talde bakoitzaren integrazio sozialaren une edo fase desberdinak eragiten dituzte, dimentsioei eta multzoari dagokienez.
4. Integrazio sozialaren modu ugari egon daitezke. Pertsona guztiek ez dute integrazio sozialeko egoera berera iritsi nahi eta iritsi behar: gutxieneko batzuk ezar badaitezke ere, batez ere izaera materialekoak, integrazio sozialaren modu ugari sortzen dituzte dimentsio desberdinetan izaten diren garapenek. Ezin dugu integrazio sozialaren modu bakar bat ezarri; era askotakoak eta askotarikoak dira atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozialak izan ditzakeen moduak, EAEn edo Espainiako Estatuan jatorria duten pertsonekin gertatzen den bezala.

Xehetasun handiagoz ikusiko ditugu ondoren.

Integrazio soziala dimentsio anitzeko sistema da

Behin baino gehiagotan alde bakarreko eta dimentsio bakarreko prozesutzat hartu izan da atzerritar jatorriko pertsonen integrazio soziala. Alde batetik, pentsatu izan da soilik etorkinengan oinarritzen dela integrazio sozialaren prozesua, integrazio hori zer testuinguru fisikotan gertatzen den eta dagoeneko testuinguru edo lurralde horretan bizi diren pertsonen duten eginkizuna alde batera utzita.

Hala ere, gaur egun argi dago, migrazio-prozesuak gertatzen direnean, integrazio prozesua bertako biztanleei eta etorkinei dagokiela. Lurralde batean bizi diren pertsona guztiek parte hartzen dute prozesu horretan, eta pertsona horien guztien elkarreragin dialektikoa behar da, parte hartzen duten guztiak benetan integratzeko. Prozesu aldeaniztuna da.

Era berean, gaur egun ez dute lekurik integrazio soziala dimentsio bakarreko mailara murrizten duten planteamenduek: integrazio soziala eraikitzeko prozesua hainbat dimentsiotan oinarritzen da. Dagoeneko esan dugu lau azterketa-eremu teoriko edo kontzeptual hartu ditugula abiapuntu, Zaragozako Adierazpenean planteatutakoak: enpleguarena, gizarte-ongizatearena, gizarte-harremanena eta herritartasunarena.

Une hartan, lau dimentsio horietan oinarritu ziren ahalegin analitikoak, batez ere integrazio-adierazle errazak eta ekonomikoak bilatzen zirelako, hau da, Europako herrialdeetako estatistika-azterketetan jadanik aurreikusita zeuden bigarren mailako informazio-iturrietan eskuragarri zeudenak.

Kontuan hartuta EAEn estatistika-lan ofizial bat dugula, EABI, hain zuzen, Zaragozako Adierazpenean hertsiki jasotakoak baino dimentsio gehiagoren adierazle gehiago biltzen dituena, gure azterketa irekiagoa izan da, proposatutako mugak gainditzen dituzten adierazleak edo aldagaiak hartu baititu aintzat.

2018ko EABIk emandako datuen tratamendu estatistikoari esker, atariko lau eremu horiek berretsi ditzakegu edo analisi-esparru edo -dimentsio berriak ezarri. Hori egin dugu, arestian azaldu dugun moduan, osagai nagusien bi faktore-analisi sekuentzialki aplikatuta. Lehena, integrazio sozialaren oinarrian dauden dimentsioak zehazteko; bigarrena, dimentsio bakoitzak integrazio sozialean, oro har, duen pisu erlatiboa ezartzeko.

Horrela, gure azterketek agerian utzi dute atzerritar jatorriko pertsonen integrazio-prozesua dimentsio anitzekoa dela, eta, gure datuen arabera, oinarritzko zazpi dimentsio osatzen dutela, lehen ere aipatu ditugunak: lanean sarbidea izatea eta lan-baldintzak; pertsonen gizarte-ongizatearen maila; haien egoera ekonomikoa eta beren familia; haien dimentsio identitarioa; herritar


gisa integratzearekin zerikusia duten alderdiak; harreman eta parte-hartze komunitarioaren esparrua; eta etorkizuneko bizi-itxaropenekin lotutako gaiak.

Beraz, uste dugu pertsona migratzaile bat (bertakoetara ere heda daitekeen arren) gizartean integratuta egongo dela, honako hauek betetzen dituen neurrian: komunitatearen eraikuntzan partaide sentitzen bada eta laguntzen badu (lana, ikasketa, etab.), bizi-baldintza material duinak baditu (ongizatea), autonomia pertsonala badu (diru-sarrerak), ingurunean parte hartzen badu eta harekiko konpromisoa hartzen badu (parte-hartzea), herritarren eskubideak baditu (herritartasuna), bizi den komunitatearen partaide sentitzen bada (nortasuna) eta bertan bizi-proiektua baldin badu (itxaropenak).

Gure datuen lehen azterketek, beraz, berretsi egiten dituzte Freeman (1986, 2004) eta Bosswick eta Heckmann (2006) autoreen ikuspegiak, adierazten baitute oinarritzko hainbat dimentsioko sistema batean oinarritzen dela integrazio soziala, hau da, dimentsio anitzeko fenomeno dela integrazio soziala. Baina, lau dimentsio proposatzen dituzten autore horiek ez bezala, gure kasuan, behin eta berriz aipatu ditugun zazpiak proposatzen ditugu:

1. Lan-munduan integratzea: lan-merkatuan sarbidea izatea eta oraingo zein iraganeko lan-baldintzekin gustura egotea.
2. Gizarte-ongizatean integratzea: atzerriar jatorriko pertsonak beren gizarte-ongizateari dagokionez, oro har, zein egoeratan dauden.
3. Integrazio sozioekonomikoa: aurreko biak ez bezala, dimentsio hau diru-kontuetara mugatzen da batez ere (diru-sarrerak, laguntza ekonomikoak eskatzeko beharra eta abar).
4. Integrazio identitarioa: euskal gizarteko kide izatearen sentimendua, bai eta bertakoen eta etorkinen taldeetan sartzeko zailtasunak eta kolektibo horiei buruz egiten den balorazioa ere.
5. Herritar gisa integratzea: atzerriar jatorriko pertsonak zein egoeratan dauden herritarren eskubideak baliatzeari dagokionez.
6. Integrazio komunitarioa: atzerriar jatorriko pertsonen parte-hartze komunitarioaren maila.
7. Bizi-itxaropenen integrazioa: pertsonen bizi-itxaropenak, eta euskal gizartea bere migrazio-prozesuaren amaiera edo beste etapa bat dela sentitzea.

2. grafikoa. Azken dimentsioak eta adierazleak (%etan haztatuak)



Iturria: Txostengileak egina

Gainera, lehen esan dugun bezala, azterketek baieztatzen digute dimentsioek integrazio sozialean duten pisu erlatiboa desberdina dela, hau da, dimentsio batzuek besteek baino pisu handiagoa dutela, oro har, integrazio sozialean⁷.

Integrazio soziala segmentatua da

Indize sintetikoak eta integrazio sozialaren indize partzialek emandako datuek erakutsitakoak bidea eman digu kanpoko (Portes, 1989, 2000) eta geure ikerketa kualitatiboei eta kuantitatiboei esker lehendik ere bagenekien zerbait finkatzeko: atzerritar jatorriko pertsonen eta taldeen integrazio sozialaren prozesuak oso desberdinak dira pertsonen eta kategoria sozialen arabera.

⁷ 2. grafikoa dimentsio bakoitzaren haztapan-faktoreak jaso ditugu, ehunekoetan.

Integrazio sozialaren prozesua argi eta garbi segmentatua dago. Ezarritako dimentsioei dagozkien zazpi indize partzialak eta integrazio sozialaren indize sintetikoa lortzeak aukera eman du agerian uzteko pertsona batzuk (eta talde edo kategoria sozial batzuk) fase goiztiarragoetan daudela, eta beste batzuk, berriz, fase aurreratuagoetan daudela beren integrazio-prozesuetan.

Hau da, badira integrazio-fase aurreratuetan dauden pertsonak (lana eta lan-baldintza onak dituztenak, bizi-baldintza onak dituztenak, diru-sarrera duinak dituztenak, euskal nortasun-sentimendua dutenak, herritarren eskubideak dituztenak, parte-hartze sozial handia dutenak eta bizi-itxaropenak Euskal Herrian finkatuak dituztenak), eta fase goiztiarragoetan dauden pertsonak (lanik gabe, bizi-baldintza txarretan, diru-sarrerarik gabe, Euskal Herriarekiko atxikimendurik gabe, herritarren eskubiderik gabe, parte hartzeko gaitasunik gabe eta itxaropen argirik gabe).

Aldagai soziodemografiko ugari daude integrazio-prozesuaren segmentazio hori gertatzeko. Hau da, aldagai batzuek diskriminatu egiten dute, eta integrazio sozialaren prozesuan posizio aurreratuagoa edo goiztiarragoa iragartzen duten aldagai gisa funtzionatzen dute (ikus 1. taula). Honako aldagai hauek dira: adina, nazionalitatea, jatorria, egoera zibila, gutxiengo erlijiosoa, ikasketa-maila, lanbidea, jarduera ekonomikoa, Espainian daramaten denbora, erroldatze-denbora edo egoera administratiboa.


1. taula. Aldagai iragarleak edo diskriminatzaileak

Integrazio sozialean aurrerapen gutxien egin duten pertsonen profila	Aldagaia	Esangura	Integrazio sozialean aurrerapen handienak egin dituzten pertsonen profila
16 urtetik 24ra	Adina	.000	25 urte eta gehiago
Atzerritarra	Nazionalitatea	.000	Espainiakoa
Saharaz hegoaldeko Afrika, Magreb, Senegal	Jatorria	.000	Argentina/Txile/Uruguai, Mendebaldeko EB, Kolonbia/Ekuador/Peru, Brasil/Venezuela/Dominikar E. , Txina
Ezkongabea	Egoera zibila	.000	Ezkondua
Erlijiosoa	Minoria	.000	Beste egoera batzuk
Ikasketarik gabe	Ikasketak	.000	Unibertsitatekoak, LH II
Kualifikaziorik gabe	Lanbidea	.000	Zuzendaritzakoak, teknikariak, langileak
Langabe egon daitekeena eta ez-aktiboa	Jarduera	.000	Lanean
2 urte baino gutxiago	Urte Espainia	.000	15 urte eta gehiago
Erroldatu gabe, 5 urte baino gutxiago	Urte errolda	.000	Betidanik, 10 urte baino gehiago
Irregularra, lan-baimenik gabeko aldi baterako bizileku-baimena, beste lege-egoera batzuk	Administ. Ego.	.000	Aldi baterako bizileku-baimena lan-baimenarekin, bizileku-baimen iraunkorra, nazionalizatuta

Iturria: Txostengileak egina

Integrazio sozialaren indize sintetikoa bezalako tresna bati esker, pertsonen eta pertsona-taldeen arteko desberdintasunak detektatu ditzakegu. Nahikoa da adibide pare bat indizearen erabilgarritasuna adierazteko. Lehenengoak (3. grafikoa) jaiotza-herrialdearen arabera segmentatzen ditu atzerritar jatorriko biztanleak: ezkerrean, integrazio sozialaren fase goiztiarrean daudenak, Afrikako gainerako herrialdeak (RA) eta Magreb (MG); eta eskuinean, posizio aurreratuagoan daudenak, Argentina/Txile/Paraguai (AG), Mendebaldeko EB (EB), Kolonbia/Ekuador/Peru (CB), Brasil/Venezuela/Dominikar Errepublika (BR) eta Txina (CH).

3. grafikoa. Integrazio sozialaren prozesuan dagoen segmentazioa, jatorriaren arabera



Iturria: Txostengileak egina


Bi muturren artean, ezkerretik eskuinera, honako hauek ditugu: Senegal (SO), Munduko gainerako herrialdeak (EM), Bolivia (BL), Paraguai (PY), Errumania eta Ekialdeko EBko beste herrialde batzuk (EB) eta Latinoamerikako gainerako herrialdeak (RL).

Beste horrenbeste gertatzen da integrazio sozialaren zazpi indize partzialak aztertzen baditugu, hau da, ezarritako zazpi dimentsioei dagozkienak⁸, integrazio sozialaren posizio segmentatuak erakusten dituztenak, baina leku-arrazoiengatik emaitzak ez ditugu kapitulu honetan sartu.

Bigarren adibidea, jatorriaz gain, sexuaren aldagaia sartzea da. 4. grafikoa ikus daitekeenez, ezkerrean geratzen dira integrazio prozesuan fase goiztiarrean dauden taldeak, eta eskuinean fase aurreratuagoan daudenak.

⁸Ikus informazio osoa Oleaga Páramo, José Antonio (2020) autorearen dokumentuan: *Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna. Basque Inclusion Integration Index BI3*. Bilbo: Ikuspegi. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.

4. grafikoa. Integrazio sozialaren prozesuan dagoen segmentazioa, sexuaren eta jatorriaren arabera



Iturria: Txostengileak egina

Posizio goiztiarragoetan daude Afrikako gainerako herrialdeetako emakumeak (MRA), Magrebeko emakumeak (MMG), Senegaleko emakumeak (MSG), Magrebeko gizonak (HMG) eta Afrikako gainerako herrialdeetako gizonak (HRA). Eta fase aurreratuagoetan daude Argentina, Txile, Uruguaiako gizonak (TRAE), EBko gizonak (MUE) eta Argentina, Txile, Uruguaiako emakumeak (MAG).

Integrazio sozialaren indizea lortu ondoren, integrazio sozialaren fase goiztiarragoetan (balio txikiagoetan) edo fase aurreratuagoetan (balio handiagoetan) dauden atzerritar jatorriko pertsonen segmentuak ezar ditzakegu. Zehazki, AID baten aplikaziotik abiatuta, lau segmentutan sailkatu dugu, dauden integrazio sozialaren fasearen arabera: oso goiztiarra, goiztiarra, tartekoa eta aurreratua. Lehenengoan, atzerritar jatorriko biztanleen % 16 ditugu.

Datuak Euskadin bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen multzo osora estrapolatzen baditugu, datu kezkarri bat ikusiko dugu: 26.416 lagun ditugu integrazio sozialaren fase oso goiztiarrean, eta 17.407, berriz, fase goiztiarrean. Guztira, EAEn bizi diren guztien % 26,5.

2. taula. 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsonen kopurua, integrazio sozialaren prozesuaren fase bakoitzean

Fasea Integrazio Sozialean	Maiztasuna	Ehunekoak	Ehuneko metatua
Aurreratua	68.826	41,7	41,7
Tartekoa	52.504	31,8	73,5
Goiztiarra	17.407	10,5	84,0
Oso goiztiarra	26.416	16,0	100,0
Guztira	165.153	100,0	

Iturria: Txostengileak egina

Integrazio-fase goiztiarrean dauden pertsonen ezaugarri bereizgarrienak honako hauek dira: langabezia dauden pertsonak dira, beren etxeko lanez arduratzen direnak, ez-aktiboak edo ikasleak, nahiz eta bizileku iraunkorreko edo aldi baterako bizilekuko administrazio-egoeran egon eta lan-baimena izan, batez ere Afrikatik datozenak dira, dela Magrebetik, dela kontinenteko gainerako herrialdeetatik, dela administrazio-egoera irregularrean daudenak.

3. taula. Egoera pertsonalak eta familiarak, integrazio-fasearen arabera

Zailtasun ekonomikoak	Fasea Integrazio Sozialean				
	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Premietarako (elikadura, jantzi-oinetakoak eta etxebizitza)	13,4	26,8	29,7	46,8	24,8
Ustekabeko gastuei aurre egiteko	25,3	34,5	27,1	36,8	30,2
Zailtasunik gabe	61,3	38,6	43,2	16,4	45,0
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Gabezia-egoera larriak	Fasea Integrazio Sozialean				
	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Dimentsio anitzekoa, oinarrizko alderdiak	8,9	17,9	18,2	37,1	17,3
Partziala, oinarrizko alderdietan	20,5	24,6	23,3	26,3	23,1
Gabeziarik ez edo ez-larriak	70,5	57,5	58,4	36,6	59,7
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Etxebizitzaren egoera	Fasea Integrazio Sozialean				
	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Ez, ez da nahikoa	2,3	5,4	4,3	11,6	5,0
Maila onargarria du, baina hobetu daiteke	30,9	37,6	38,1	44,5	36,0
Bai, maila egokia du	66,8	56,9	57,5	43,9	59,0
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Pobrezia-Aberastasuna	Fasea Integrazio Sozialean				
	Aurreratua	Tartekoa	Goiztiarra	Oso goiztiarra	Guztira
Oso pobrea	0,2	1,2	1,0	7,1	1,7
Pobrea	2,5	7,7	8,3	14,9	6,7
Pobre samarra	4,5	10,4	9,1	16,1	8,7
Moldatuz, batezbestekoaren azpitik	47,8	52,5	53,7	50,3	50,3
Batezbestekoaren gainetik, eroso	36,5	25,3	21,5	10,9	27,2
Oparoa, aberatsa, diruduna	8,6	2,9	6,3	0,7	5,3
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Txostengileak egina

Gainera, 3. taulan jasotzen den bezala, integrazio sozialaren fase oso goiztiarretan dauden pertsonak zailtasun ekonomiko handiagoak dituzte elikadura-, jantzi-, oinetako- edo etxebizitza-beharrak betetzeko, gabezia-egoera larri gehiago

izaten dituzte oinarrizko alderdietan, etxebizitzaren egoera ez da egokia izaten eta, askotan, pobrezia-egoeran egoten dira. Integrazio sozialaren prozesuan fase aurreratuagoan daudenek, berriz, ez dute zailtasun ekonomikorik, ez dute gabezia-egoera larriarik, maila egokiko etxebizitza batean bizi dira eta beren egoera pertsonala oparoa da edo, gutxienez, egoera onean bizi dira.

Integrazio soziala asimetrikoa da bere dimentsioetan

Integrazio prozesuaren oinarri diren zazpi dimentsioak identifikatu ondoren, egindako azterketek aukera eman digute pertsona bakoitzak integrazio sozialaren prozesu globalaren kontinuumean duen posizioa ezagutzeko, bai eta pertsona bakoitzak zazpi dimentsioetako kontinuumean duen posizioa ezagutzeko ere.

Hala, pertsona bakoitzak zazpi balio ditu zazpi dimentsioetako bakoitzerako, eta beste balio bat integrazio sozialaren prozesu osoan duen posizioari dagokiona.

Dimentsioen azterketari esker, egiazta dezakegu zazpi dimentsioen integrazio sozialean erritmoa asimetrikoa dela. Hau da, pertsona bera (edo pertsona-talde bat) integrazio-fase desberdinetan egon daiteke aztertutako zazpi dimentsioetan. Integrazio soziala osatzen duten zazpi dimentsioen garapen-erritmoek pertsona bakoitzaren eta gizarte-talde bakoitzaren integrazio sozialaren une edo fase desberdinak eragiten dituzte, dimentsioei eta multzoari dagokienez.

Atzerritar jatorriko biztanleak orain arte bereizi ditugun zazpi dimentsioetan duten posizioaren arabera aztertzen baditugu, atzerriko jatorriko bost pertsona-multzo ezar ditzakegu, integrazio sozialaren indize partzialetan beren posizioetan erritmo desberdina erakusten dutenak. Hau da, atzerritar jatorriko pertsonen integrazio soziala ez da simetrikoa, ezta orekatua ere, aztertutako zazpi dimentsioetan. Eta agian ez du zertan izan behar.

Egia da zazpi dimentsio horiek sistema bat osatzen dutela eta estatistikoki esanguratsuak diren erlazioak daudela haien artean, baina egia da, halaber, datuek agerian uzten dutela ez dagoela korrelazio perfekturik haien artean, eta ezin dela esan oreka dagoenik. Azken batean, pertsona edo pertsona-talde bat dimentsioetako baten integrazio sozialaren prozesuan aurreratuta egoteak ez du esan nahi gainerako dimentsioetan ere posizio aurreratuan egon behar duenik. Bateragarria da, eta datuek hala berresten dute, posizio aurreratuan egotea dimentsio batzuetan, tarteko posizioetan beste batzuetan, baita posizio goiztiarretan ere gainerakoetan.

4. taula. Integrazio sozialaren dimentsioen arteko korrelazioak

		INT_INDEX Integrazio Sozialaren Indizea	INT_LAN Integrazio- aren indize partziala lan- munduan	INT_ONGIZ Integrazio- aren indize partziala ongizatean	INT_EKON Integrazioa- ren indize partzial sozio- ekonomikoa	INT_IDEN Integrazio- aren indize partzial identitarioa	INT_HERRIT Integrazio- aren indize partziala herritartasu- nean	INT_KOMU Integrazio- aren indize partzial komunitarioa	INT_ITXAR Integrazio- aren indize partziala itxaropenetan
INT_INDEX Integrazio Sozialaren Indizea	Pearsonen korrelazioa	1	,748**	,622**	,697**	,527**	,440**	,172**	,218**
	Esang. (aldebikoa)		0,000	0,000	0,000	0,000	0,000	0,000	0,000
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_LAN Integrazioaren indize partziala lan- munduan	Pearsonen korrelazioa	,748**	1	,247**	,317**	,229**	,142**	-,049*	0,024
	Esang. (aldebikoa)	0,000		0,000	0,000	0,000	0,000	0,015	0,241
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_ONGIZ Integrazioaren indize partziala ongizatean	Pearsonen korrelazioa	,622**	,247**	1	,576**	,184**	,119**	-,041*	,046*
	Esang. (aldebikoa)	0,000	0,000		0,000	0,000	0,000	0,046	0,024
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_EKON Integrazioaren indize partzial sozio- ekonomikoa	Pearsonen korrelazioa	,697**	,317**	,576**	1	,251**	,218**	-0,004	,165**
	Esang. (aldebikoa)	0,000	0,000	0,000		0,000	0,000	0,863	0,000
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_IDEN Integrazioaren indize partzial identitarioa	Pearsonen korrelazioa	,527**	,229**	,184**	,251**	1	,230**	,072**	,140**
	Esang. (aldebikoa)	0,000	0,000	0,000	0,000		0,000	0,000	0,000
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_HERRIT Integrazioaren indize partziala herritartasu- nean	Pearsonen korrelazioa	,440**	,142**	,119**	,218**	,230**	1	,106**	,131**
	Esang. (aldebikoa)	0,000	0,000	0,000	0,000	0,000		0,000	0,000
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_KOMU Integrazioaren indize partzial komunitarioa	Pearsonen korrelazioa	,172**	-,049*	-,041*	-0,004	,072**	,106**	1	-0,03
	Esang. (aldebikoa)	0,000	0,015	0,046	0,863	0,000	0,000		0,139
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418
INT_ITXAR Integrazioaren indize partziala itxaropenetan	Pearsonen korrelazioa	,218**	0,024	,046*	,165**	,140**	,131**	-0,03	1
	Esang. (aldebikoa)	0,000	0,241	0,024	0,000	0,000	0,000	0,139	
	K	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418	2.418

Iturria: Txostengileak egina

Integrazio sozialaren dimentsioen arteko korrelazio-koefizienteei erreparatzen badiegu, esan dezakegu dimentsio gehienak esanguratsuak direla, eta esan dezakegu badela erlaziorik haien artean, nahiz eta balioak ez izan handiak, eta horrek adierazten digu ez direla lotura estuak. Are gehiago, nabarmendu dezakegu etorkizuneko itxaropenen dimentsioan (7. dimentsioa) duten posizioa

ez dagoela lotuta lan-munduan integratzean (1. dimentsioa) edo integrazio komunitarioan (6. dimentsioa) duten posizioarekin. Era berean, ez dugu ikusten integrazio ekonomikoa (3. dimentsioa) integrazio komunitarioarekin (6. dimentsioa) lotuta dagoenik.

Azken finean, dimentsioek lotura dute elkarren artean, baina ez erritmo asimetrikoak saihesteko adinakoa.

Integrazio sozialaren prozesuaren asimetria kontuan hartuta, pertsona bakoitzak zazpi dimentsioetako bakoitzean dituen puntuazioekin (posizioak) lan egitea erabaki dugu, zazpi dimentsioei dagozkien integrazio sozialaren prozesuetan antzeko egoerak dituzten pertsonen konglomeratuak ezarri ahal izateko.

K-Medien aldagai anitzeko analisia aplikatu ondoren, atzerritar jatorriko pertsonen bost pertsona-azpitalde lortu ditugu. Hala, konglomeratu bereko kideek ezaugarri berak dituzte (talde barruko homogeneotasuna), eta lortu diren bost pertsona-konglomeratuak desberdinak dira integrazio sozialaren indize partzialetan dituzten posizioei dagokienez (taldeen arteko heterogeneotasuna).

Bost konglomeratuetako bakoitzaren azterketa xehatu eta analitikoak agerian utzi du talde bakoitzak ez duela orekarik zazpi dimentsioetan; aitzitik, argi eta garbi erakutsi du zazpi dimentsioetako bakoitzean asimetriak daudela dituzten posizioetan: konglomeratuetako batek izan ezik (lehenengoa, 5. taularen ezkerretik hasita), talde horrek integrazio sozialaren posizio aurreratuak baititu dimentsio guztietan. Gainerakoek posizio asimetrikoak dituzte dimentsio horietan, posizio goiztiar samarrak batzuetan eta posizio aurreratuagoak beste batzuetan.

5. taula. Pertsonen konglomeratuak, integrazio sozialaren zazpi dimentsioetan duten posizioaren arabera

Integratzearen indize partziala...	Integratuta alderdi guztietan	Oso ondo doakit, neure erara	Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua	Lana izan ezik, ez doakit gaizki	Gaizki, oso gogorra izaten ari da
Lan-munduan	0,20822	0,53281	0,18043	-1,83500	-0,53218
Ongizatean	0,26477	0,39227	0,26338	0,30493	-2,11920
Sozioekonomikoa	0,51675	0,37516	-0,15740	-0,20550	-1,39479
Identitarioa	0,48082	0,27215	-0,77203	-0,14529	-0,49412
Herritartasunean	0,93997	0,05518	-0,35875	-0,19434	-0,40172
Komunitarioa	2,15939	-0,36880	-0,14385	-0,19025	-0,01525
Itxaropenetan	0,32009	0,31522	-1,82542	0,26227	0,06217
	18.508	79.410	19.448	22.283	25.005

Iturria: Txostengileak egina

Koloreek adierazten digute nolakoa de konglomeratu baten balioa: oso balio handia (kolore berde bizia), handia (berde argia), ertaina (laranja), txikia (more argia) edo oso txikia (more iluna).

Egoera orokor onena duentaldetik hasikogara, arestian aipatu duguna. Talde horri *Alderdi guztietan integratua* deitu diogu, eta aztertutako zazpi dimentsioetatik gehienetan integrazio-posizio erlatibo onenak dituzten pertsonen osatua dago. Talde hori osatzen duten pertsonak dira integrazio sinboliko, identitario, hiritar eta komunitarioko prozesuetan gehien aurreratu dutenak, eta, horrekin batera, euskal gizartean etorkizun-integrazio handia dutenak. Jakina, posizio onean daude laneko ongizatean eta ongizate materialean.

Talde horren ezaugarri nagusiak honako hauek dira: Mendebaldeko EBtik, Argentina/Txile/Uruguaitik, Kolonbia/Ekuador/Perutik, Brasil/ Venezuela/ Dominikar Errepublikatik etorritako pertsonak dira, administrazio-egoerari dagokionez Espainiako nazionalitatekoak dira nagusi, lana dute, 25 eta 44 urte artean dituzte batez ere, baina 45 eta 64 urte artekoak ere badira, Espainian 10 urte baino gehiago daramatzate, unibertsitateko edo bigarren mailako ikasketak dituzte, 10 urte baino gehiago edo 5 urte baino gehiago daramatzate erroldatuta, eta ez dira inolako gutxiengo etniko, kultural edo erlijiosokoak.

Beste konglomeratu batek, ezkerretik bigarrenak, *Oso ondo doakit, neure erara* izenekoak, asimetria argia erakusten du: alde batetik, aurreratuta eta egoera onean dago integrazio materialean (lana, ongizatea, alderdi sozioekonomikoa) eta identitarioan (euskal gizartearekiko hautemandako harremanak eta irudiak), eta bestetik, posizio goiztiarrean dago herritartasunean eta komunitatean lortutako integrazioan.

Konglomeratu honetan ere, lehenengo konglomeratuko pertsonen jatorrizko leku berekoak dira nagusi: Mendebaldeko EB, Argentina/Txile/Uruguai, Kolonbia/Ekuador/Peru, Brasil/ Venezuela/Dominikar Errepublika, eta honako ezaugarri hauek dituzte: lana dute, ezkonduak dira, 25 eta 44 urte artean dituzte eta 45 eta 64 urte artekoak ere badira, 10 urte baino gehiago daramatzate erroldatuak, bizitoki iraunkorra dute eta nazionalizatuak ere badira, 10 urte baino gehiago daramatzate Espainian, bigarren mailako edo derrigorrezko ikasketak dituzte, gehienek atzerriko nazionalitatea dute, eta hauek ere ez dira inolako gutxienezko kide.

Hirugarren taldea, erdikoa, *Lana izan ezik, ez doakit gaizki* izenekoak da. Konglomeratu honetako posizioek adierazten digute lan-munduan integratu ez izana dela haien gabezia handiena. Multzo honek posizio interesgarriak ditu zenbait dimentsiotan, hala nola integrazio identitarioan (asko du hobetzeko, hala ere), integrazio komunitarioan eta etorkizuneko itxaropenekin lotutakoan. Horrek esan nahi du aurrerapenak egin dituela integrazio-sentimendu subjektiboan (euskal gizarteko kide sentitzean, gizarte horretan gustura

egotean eta haren etorkizunean parte hartu nahi izatean), baina lan-munduan integrazio eskasa izatea oztopoa da, eta asko hobetu daitekeen integrazio sozioekonomikoarekin lotuta dago oztopo hori.

Konglomeratu honen osaerak behar lukeena baino gehiago jasotzen ditu ausaz zenbait jatorritako pertsonak (Txina, Paraguai eta Senegal). Gehienak atzerritar jatorrikoak dira, eta landunak, aurreko konglomeratuetan bezala, ezkonduak dira, 25 eta 64 urte bitartekoak, 5 urte baino gehiago daramatzate erroldatuak, bigarren mailako eta derrigorrezko ikasketak dituzte, administrazio-egoerari dagokionez egoitza iraunkorra dute, 10 urte baino gehiago daramatzate Espainian eta asko dira gutxiengo erlijiosoetakoak.

Laugarren konglomeratua, eskuinetik bigarrena, *Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua* izenekoa da. Konglomeratu honetan lortutako balioek adierazten digute asimetria handia dagoela integrazio-prozesuetan. Talde honetakoek posizio eta aurrerapen nabarmenak dituzte alderdi materialetan (lan-munduan eta ongizatean integratzean, batez ere), nahiz eta ez duten posizio ekonomiko sendoa; baina askoz ere gehiago dute egiteko identitatean, herritartasunean eta komunitatean integratzeko prozesuetan, eta oso integrazio txikia dute etorkizuneko itxaropenetan.

Konglomeratu hau osatzen duten pertsonak Magrebetik etorritakoak dira batez ere, emakumeen beste konglomeratu batzuetan baino presentzia askoz ere handiagoa baitute. Gehienek atzerriko nazionalitatea dute, eta pertsona ezkongabe asko dago adin txikiagokoak direlako, 16 eta 24 urte bitartekoak dira, 5 urte baino gehiagoko daramatzate erroldatuta, lanik ez duen pertsona asko dago, bigarren mailako eta derrigorrezko ikasketak dituzte eta administrazio-egoerari dagokionez bizitoki iraunkorra dute.


Azkenik, azken taldea dugu, eskuinekoa, *Gaizki, oso gogorra izaten ari da* izenekoa. Konglomerazio honetan, bai integrazio materialetan bai identitatean zein herritar-eskubideetan integratzean, posizioek adierazten digute oso egoera pertsonal eta familiar gogorrak dituztela. Ematen duenez, dimentsio komunitarioan eta etorkizuneko dimentsioan soilik dituzte posizio itxaropentsuak.

Magrebeko eta Afrikako gainerako herrialdeetako pertsona (Saharaz hegoaldeko Afrika) ugari biltzen dituelako nabarmentzen da konglomeratu hau. Gehienak atzerritar nazionalitatekoak dira, langabe potentzialak, ezkongabe asko daude tartean, batez ere 25 eta 44 urte bitartekoak, baina 45 eta 64 urte bitartekoak ere badira, 3 urte baino gutxiagoko daramatzate erroldatuta, bigarren mailako ikasketak do derrigorrezkoak dituzte edo ez dute ikasketarik, haietako askok 5 urte baino gutxiago daramatzate Espainian eta gutxiengo erlijiosoren bateko pertsona ugari daude tartean.

Konglomeratu horien tamaina ere ez da uniformea. Lagin-bolumenetatik EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanleria osoaren bolumenen zenbatespenetara pasatzeko jasotzaileak aplikatu ondoren, 5. grafikoak erakusten duen bezala, honako hau ikus dezakegu:

- *Oso ondo doakit, neure erara*: talderik ugariena da. Gure ustez, 79.410 lagunek osatzen dute konglomeratu hori, hau da, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko biztanle guztien % 48,1 dira.
- *Alderdi guztietan integratua*: gure ustez, 18.508 lagunek osatzen dute konglomeratu hori, eta, beraz, 16 urtetik gorako biztanle guztien % 11,2 dira.
- *Nahiko ondo doakit, baina ez dut ikusten neure burua*: gure ustez, 19.948 pertsona inguru biltzen ditu konglomeratu honek, hau da, aztertutako biztanleen % 12,1.
- *Lana izan ezik, ez doakit gaizki*: gure ustez, 22.283 lagunek osatzen dute, hau da, aztertutako unibertso osoaren % 13,5 dira.
- *Gaizki, oso gogorra izaten ari da*: gure ustez, 25.005 lagunek osatzen dute, hau da, Euskadin bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko pertsona guztien % 15,1 dira.

7. grafikoa. Bost konglomeratuen tamaina



Iturria: Txostengileak egina

Ikus dezakegunez, edozein ikuspegitik begiratuta ere, aztertutako biztanleriaren segmentazioa Integrazio Sozial globalaren Indize Sintetikoaren arabera eginda, edo indize sintetiko global horrek oinarri dituen zazpi dimentsio edo indize partzialekin lan eginda eta integrazio-erritmo asimetrikoak dituzten bost konglomeratu lortuta, EAEn bizi diren 16 urtetik gorako atzerritar jatorriko

biztanle guztien % 15-16tan kuantifikatu dugu gutxi gorabehera (25.000 lagun inguru) integrazio-prozesuan fase goiztiarrean dauden eta integrazio sozialaren dimentsio anitzeko prozesuetan eskasi handiak dituzten pertsonen kopurua.

Atal honen ondorio gisa esan dezakegu Bosswick eta Heckmann (2006) autoreen proposamena zehazten dutela posizio asimetriko horiek. Proposamen horrek adierazten du integrazio soziala osatzen duten dimentsioen arteko elkarrekintzek haien arteko oreka beharko luketela. Badirudi ez dela ezinbestekoa.

Integrazio soziala anizkuna da

Oro har, integrazio sozialaren prozesua azaltzen duten eredu orokorrek eta prozesu horretan segmentazio eta erritmo asimetrikoak proposatzen dituzten ekarpen berriek aditzera ematen dute integrazio sozialaren azken emaitza unibokoa dela. Badirudi adierazi nahi digutela integrazio sozialak azken agertoki bakarra duela, prozesu guztiek, beren ibilbidean asimetrikoak izanik, emaitza bera izan behar dutela, integrazio soziala izenekoa.

Hala ere, gure iritziz, eta kapitulu honetan emandako datuetan oinarrituta, pertsona guztiek ez dute integrazio sozialaren agertoki berera iritsi nahi eta/edo iritsi behar: nahiz eta gutxieneko batzuk ezar daitezkeen, batez ere materialak, integrazio sozialaren modu ugari ekar ditzakete dimentsio desberdinetako garapenek. Ezin dugu integrazio sozialaren modu bakar bat ezarri; era askotakoak eta askotarikoak dira atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozialak izan ditzakeen moduak, EAEn edo Espainiako Estatuan jatorria duten pertsonekin gertatzen den bezala.

Izan ere, erlazionatu ditugunean pertsona bati indize sintetikoan duen puntuazioaren arabera esleitu diogun integrazio sozialaren fasea eta pertsona horren euskal gizartean integratua egoteko sentimenduaren adierazpen subjektiboa (6. taula), ikusi dugu, pertsona hori edozein fasetan jarrita ere, gehienek esan dutela nahiko integratuta sentitzen direla, nahiz eta egia den integratutago sentitzen direla gure kalkuluen arabera fase aurreratuan kokatu ditugun pertsonak. Beste horrenbeste gertatzen da integrazio desberdinak dituzten bost konglomeratuak pertsonen pertzepzio subjektiboarekin erlazionatzen baditugu.

6. taula. Integrazioaren pertzepzio subjektiboa eta integrazio sozialaren indize sintetikoan esleitutako fasea

Fasea Integrazio Sozialean	Zer neurritan esango zenuke euskal gizartean integratuta zaudela?					
	Ezer ez	Oso gutxi	Gutxi	Nahiko	Oso integ.	Guztira
Aurreratua	0,3	0,6	6,5	49,6	43,0	100,0
Tartekoa	0,6	2,5	18,8	54,0	24,1	100,0
Goiztiarra	0,8	1,6	14,9	49,8	32,9	100,0
Oso goiztiarra	1,8	5,5	27,5	46,9	18,4	100,0
Guztira	0,7	2,2	15,0	50,7	31,4	100,0

Konglomeratua	Zer neurritan esango zenuke euskal gizartean integratuta zaudela?					
	Ezer ez	Oso gutxi	Gutxi	Nahiko	Oso integ.	Guztira
Integratuta alderdi...			3,9	47,3	48,8	100,0
Oso ondo, neure erara	0,2	0,7	7,6	54,7	36,9	100,0
Ondo, baina ez dut ikusten...	2,3	6,5	37,5	37,2	16,5	100,0
Lana gaizki, gainerakoa...	1,6	3,5	16,7	51,8	26,4	100,0
Gaizki, oso gogorra...	0,6	4,1	27,8	50,3	17,2	100,0
Guztira	0,7	2,2	15,0	50,7	31,4	100,0

Iturria: Txostengileak egina

Agian errealitateak pentsarazi behar digu integrazio soziala era askotara uler daitekeela, eta prozesuek, beren ibilbidean eta erritmoan asimetrikoak izanik, ez dutela zertan azkenean integrazio sozialaren modu bakar batean orekatu. Agian, pentsatzen hasi behar dugu integrazio sozialak emaitza anitzak izan ditzakeela, desberdinak atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo pertsona taldeen arabera, eta ez dutela zertan guztien arteko oreka izan behar. Esate baterako, gerta daiteke pertsona eta pertsona-talde batzuek komunitatean edo identitatean integratzeko posizio aurreraturik behar ez izatea gizartean erabat integratuta sentitzeko; edo gerta daiteke talde edo pertsona batzuek, alderdi materialetan halako posizio bat lortu ondoren, beren alderdi komunitarioak, identitarioak edo herritartasuna lehenestea. Talde arteko segmentazioa, talde barneko dimentsio anitzeko asimetria eta integrazio anizkuna ezaugarri dituen integrazio sozialaren teorian pentsatzen hasi beharko genuke beharbada.

Ondorioa

1. Alde batetik, gure integrazio sozialaren indize sintetikoaren bidez lortutako emaitzek pentsarazi digute atzerritar jatorriko etorkinen integrazio soziala honelakoa dela:

- Dimentsio anitzeko prozesua da. Hau da, oinarrizko hainbat dimentsio ditu: lanean sarbidea izatea eta lan-baldintzak; pertsonen gizarte-ongizatearen maila; haien egoera soziala eta ekonomikoa; haien dimentsio identitarioa; herritar gisa integraztearekin zerikusia duten alderdiak; harreman eta parte-hartze komunitarioaren esparrua; eta etorkizuneko bizi-itxaropenekin lotutako gaiak.
- Prozesu segmentatua da. Hau da, prozesu pertsonalak eta/edo taldekoak dira (kategoria sozialetakoak), desberdinak eta askotarikoak.
- Prozesu asimetricoa da. Hau da, pertsona eta/edo pertsona-talde bera integrazio-fase desberdinetan egon daiteke, ezarritako dimentsioen arabera.
- Prozesu anizkuna da. Hau da, integrazio sozialaren prozesua, oro har, ez da ibilbide unibokoa, ez du emaitza edo eszenatoki sozial bera hartzen. Integrazio sozialaren modu eta maila desberdinak egon daitezke.

Dimentsio anitzeko osaera, talde arteko segmentazioa, talde barneko asimetria dimentsionala eta integrazio anizkuna ezaugarri dituen integrazio sozialaren teorian pentsatzen hasi beharko genuke beharbada.

Bertako biztanleen artean euskal herritar izateko eta sentitzeko modu asko eta askotarikoak dauden bezala, uste dugu askotarikoak izan daitezkeela atzerritar jatorriko pertsonen integrazio sozialaren azken moduak.

2. Zazpi dimentsioen indize partzialetatik eta Integrazio Sozial globalaren Indize Sintetikotik lortutako datuek aurkikuntza nahikoa eskaini dizkigute, agerian utzi baitituzte sektore horretako adituen artean atzerritar jatorriko pertsonen eta/edo taldeen integrazio-prozesu asimetricoei buruz dauden intuizioetako asko.

Horien artean, zenbait adituk uste dute integrazio materiala sine qua non baldintza dela benetako integrazio sozialaz hitz egin ahal izateko, eta integrazio sinbolikoa, identitarioa, komunitarioa eta kulturala integrazio sozialaren garrantzi txikiagoko dimentsioak direla, jatorri desberdineko pertsonen arteko bizikidetza eraginkor eta harmoniatsuari begira. Zalantzarik gabe, herritarren integrazioa ezinbestekoa da, baina, agian, pentsatzen hasi behar dugu atzerritar jatorriko pertsonen integrazio material arrakastatsua eta partekatua (lanekoa, ongizatekoa eta ekonomikoa), baina baita bertakoena ere, herritarren integrazio unibertsalarekin batera, bateragarria dela integrazio sinboliko, identitario eta komunitario zatikatu,

berezi eta asimetrikoarekin, eta horrek ez diola etorkizunean mehatxurik ekarriko euskal gizarteari.

3. Bestalde, integrazioaren zazpi dimentsio partzialen indize partzialetatik eta integrazio sozial globalaren indize sintetikotik eskuratutako datuek pentsarazi digute EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen % 15-16 inguru gizarteratzeko fase oso goiztiarrean daudela (25.000 pertsona inguru), eta horiek askoz ere zailtasun ekonomiko handiagoak izaten dituzte elikadura, jantziak, oinetakoak edo etxebizitza bezalako oinarriko premiak asetzeko, bai eta gabezia-egoera larriak, behar den egoeran ez dauden etxebizitzak eta pobrezia-egoerak ere.
4. Azkenik, datuek kalteberatasunaren fokua jartzen dute, behin eta berriz, kategoria sozial oso errepikatueta eta ezagunetako pertsonengan eta pertsona-taldeengan. Integrazio sozial globalaren prozesuan fase goiztiarretan dauden pertsonak eta/edo pertsona-taldeak bereizi nahi ditugunean, edo integrazio horrek oinarri dituen dimentsioak bereizi nahi ditugunean, profil eta ezaugarri berberak agertzen dira.

Kasu egin behar diegu zailtasun handiagoak dituzten, oztopo gehiago gainditu behar dituzten, aurrera egiteko tresna gutxiago dituzten eta laguntza gehiago behar duten pertsona horiei. Afrikar jatorriko pertsonen ari gara, pertsona gazteak, gure gizartean denbora txikia daramatenak, prestakuntza-baliabide propiorik ez dutenak, asko eta asko emakumeak, lanik edo lana lortzeko erraztasunik ez dutenak, administrazio-egoera irregularrean daudenak eta abar.

Espero dugu txosten honek argi egitea errealitate sozial hori ikusteko, eta lagungarri izatea politika publikoak diseinatzeko eta ezartzeko. Integrazio sozialaren fase goiztiarrean dauden kolektibo horiei zuzendu behar zaizkie politika horiek, beren integrazio-prozesuan erritmo hobean aurrera egin dezaten. Ez dezagun ahaztu pertsona horietako gehienek oraingo eta etorkizuneko bizi-proiektuaren ametsa gure artean betetzeko itxaropena dutela.

Bibliografia

- Bosswick, Wolfgang eta Heckmann, Friedrich (2006) *Integration of migrants: contribution of local and regional authorities*. Dublin: European Foundation of the Improvement of Living and Working Conditions. https://www.researchgate.net/publication/297802930_Integration_of_Migrants_Contribution_of_Local_and_Regional_Authorities
- Conferencia Ministerial Europea sobre Integración (2010) *Declaración de Zaragoza*. Zaragoza: Presidencia española de la Unión Europea, 2010eko apirilaren 15 eta 16.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia (2011) *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera residente en la CAE (EPIE 2010)*. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/epie2010/es_epie2010/adjuntos/EPIE_2010_cas.pdf
- (2015) *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera residente en la CAE (EPIE 2014)*. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_epie/es_def/data/Informe-de-resultados-EPIE-2014.pdf
- (2019) *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera residente en la CAE (EPIE 2018)*. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_epie/es_def/data/Informe-de-resultados-de-EPIE-2018.pdf
- European Commission (2004) *European handbook of integration of policy-makers and practitioners*. Directorate General, Justice, Freedom and Security.
- (2018) *Integration of immigrants in the European Union*. Special Eurobarometer 469. <http://ec.europa.eu/commfrontoffice/publicopinion>
- Eurostat (2011) *Indicators of immigrant integration. A pilot study*. Publications Office of the European Union. <https://ec.europa.eu/eurostat/web/products-statistical-working-papers/-/KS-RA-11-009>
- Freeman, Gary P. (1986). Migration and the political economy of the Welfare State. *Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 485, 51-63.
- Freeman, Gary P. (2004). Immigrant incorporation in Western Democracies. *International Migration Review*, 38, 945-969.

- Fullaondo, Arkaitz (2017) Un acercamiento teórico y conceptual. In J. A. Oleaga (Ed.) *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal) llamadas segundas generaciones* (9-40 or.). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Godenau, Dirk, Rinken, Sebastian, Martínez de Lizarrondo, Antidio, Moreno, Gorka eta Oleaga, José Antonio (2014) *La integración de los inmigrantes en España: una propuesta de medición a escala regional*. Ministerio de Empleo y Seguridad Social.
- Ikuspegi (2020). *Población de origen extranjero en la CAE 2020. Panorámica 76*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan76casOK.pdf>
- Martínez de Lizarrondo, Antidio, Rinken, Sebastian, Moreno, Gorka eta Godenau, Dirk (2016) La integración del colectivo inmigrante en las regiones españolas. *Papers*, 101/3, 289-313.
- Oleaga, José Antonio (Ed.) (2017) *La diversidad infantil y juvenil en la CAE. Las (mal) llamadas segundas generaciones*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2G/Diversidad_infantil_juvenil_CAE.pdf
- Oleaga, José Antonio (2020) *Índice sintético de inclusión e integración social: un instrumento para el diseño de políticas públicas. Basque Inclusion Integration Index BI3*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/BI3cas.pdf>
- Portes, Alejandro eta Borocz, József (1989) Contemporary immigration: theoretical perspectives on its determinants and modes of incorporation. *International Migration Review*, 23, 606-630. <https://www.semanticscholar.org/paper/Contemporary-immigration%3A-theoretical-perspectives-Portes-Borocz/4d61ee252d2e0799c3d3724a18fe84d2b949373b>
- Portes, Alejandro (2000) Teoría de inmigración para un nuevo siglo: problemas y oportunidades. In F. Morente (ed.), *Cuadernos Étnicas. Inmigrantes, claves para el futuro inmediato* (25-60 or.). Cruz Roja-Universidad de Jaén.
- Poza, Carlos eta Fernández, José Andrés (2010) Una aproximación a la construcción de un indicador de la pobreza multidimensional. ¿Cuáles son los focos de riesgo en España? *Revista de métodos cuantitativos para la economía y la empresa*, 10, 43-72.
- Shershneva, Julia, Fernández, Iraide eta Oleaga, José Antonio (2018) Principales características de los grandes colectivos de población de origen extranjero en la CAE. In G. Moreno (koord.) *El proceso de integración del colectivo inmigrante en Euskadi* (13-59 or.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.



Epilogo. Bultzada instituzionala integrazio sozialerako

Xabier Aierdi Urraza ■ Begirune Fundazioa

Azken kapitulu honetan, immigrazioa aztergai gisa baina, batez ere, kudeaketa instituzionaleko xede gisa berreskuratzeko aukera irmoa egin da. Finkatze-immigrazioa gaur egun beste migrazio modalitate batzuek estaltzen dutela dioen tesiari eusten zaio eta apustu bikoitz bat proposatzen da: 1) esplorazio-lan bat egitea, atzerritar jatorriko biztanleak integratzeko gaur egun nagusi diren kondizioak ezagutzeko; eta 2) instituzioek hori bermatuko duten politikak ezartzea.

Migrazio-fluxuak, integrazio soziala eta aurreikusi ezinezko errealitateak

Ezusteko gertaera gehiegi jazo dira epilogo honen lehen bertsioa pentsatu zenetik. Hil ondorengo bere liburuan, *Munduaren metamorfosia* izenekoan, Ulrich Beck-ek mundua ulertzeko gero eta ezintasun handiagoaz hitz egin zuen, bi mutazio dialektikoki zitalen ondorioz: azelerazio erradikala xede eta instituzio sozialen eraldaketan eta horiek azelerazio horretan izaten zuten barne-mutazioa –metamorfosia–. Abiadura eta barne-eraldaketa. Ikuspegi horren aurrean, oso grafikoa da El Rotoren bineta bat, honako hau dioena: «Gizarte-orientatzailea naiz, norbaitek esango al dit non nagoen?».

Abagune horretan, partzialki ahuldu da ekarpen hori mamitzen duen argudioa: immigrazio *hutsari* edo *hustuari* buruz hitz egitea, adierazteko beste mugikortasun deigarriago batzuek bizitoki-immigrazioa estali dutela. Horrela, immigrazio-gertakari hori hutsaldu egiten da honako errealitate hauen aurrean: babeslekua eta asiloa, familia-erreferenterik ez duten adingabe eta gazteak eta iragate-migrazioa. Errealitate horiek oso garrantzitsuak dira giza eskubideen urraketaren ikuspegitik. Baina finkatze-immigrazioa da oharkabean pasatzen ari dena, honen gisako ikerketa eta aurkezpenetan izan ezik. Hala ere, erabakigarria izango da EAEren etorkizunean. Jakina, ez dira konpartimentu estankoak, eta joan-etorriak daude mugikortasun modalitateen artean, nahiz eta arinak izan.

Beste datu bat gehitze aldera, 2020ko otsailaren 11n, martxoaren erdialdean konfinamendua deklaratu eta maila globalean migrazio-fluxuak geldiarazi baino hilabete lehenago, Eusko Jaurlaritzak jendaurrean aurkeztu zituen gaur behin betiko aurkezten ari garen 2018ko Etorkin Atzerritarrei buruzko Inkestaren (EABI)¹ hirugarren edizioaren emaitzak. Panorama zinez zen itxaropentsua. Pandemiaren agerpenak, ordea, atzerapausoa edo geldialdia ekar zezakeen integrazio-prozesu horretan. Ordura arte, EAEn bi migrazio-ziklo jazo ziren XXI. mende hasieran: lehenak 2010era arte iraun zuen. Bigarren hamarkadaren erdialdean hasi zen berriro bigarrena, baina une horretan ustekabeko gertaera bat gertatu zen, hurrengo urteetako migrazio-saldoak eta jada finkatutakoen egonaldia baldintza zitzakeena.

2016. urteaz geroztik, oro har eta lurralde historiko bakoitzean modu desberdinean, EAErako immigrazio-fluxuak nabarmen areagotu ziren berriro ere, irregulartasun mailak jaitsi egin ziren, bai eta gerora gertatutakoak ere, erroldatzea ia unibertsala zen, eta bizilekua epe ertain eta luzean luzatzeko aitortutako lehentasuna atzerriko jatorri edo etorkiko pertsonen, gutxi gorabehera, % 90ek zuten.

Bigarren ziklo horretako azken bi urteetan, atzerriko jatorri eta/edo etorkiko pertsonen urteko immigrazio-stock positiboa 15.000-20.000 pertsonakoa izan zen. Eta halakoa izateko itxura zuen 2020an ere; izan ere, lehen hiruhilekoan, konfinamendua deklaratu eta fluxuen geldialdia gertatu arte, 6.500 atzerritar gehiago finkatu ziren. Gerora pandemiak berretsi zuenez, hau zen fluxu horien kausa: immigrante-jatorriko herritarren esku egotea funtsezko sektoretzat jotzen diren sektoreen estaldura.

Bigarren aldi horretan eztaba daezina zen, halaber, atzerriko jatorri eta/edo etorkiko biztanleriaren barne-komplexutasun gero eta handiagoa. Gero eta handiagoa zen Espainian jaio eta atzerriko nazionalitatea mantentzen duten pertsonen kopurua –20.000 inguru–, beren aurreko ahaideak, hein

¹Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko estatistikako organo bereziak (EOB) egindako behar-beharrezko estatistika-eragiketa.

handi batean, afrikarrak direlako eta espainiar nazionalitatea lortzea zail dutelako. Bestalde, 80.000 pertsona dira atzerrian jaiotakoak izanik espainiar nazionalitatea dutenak, gehienak jatorri latinoamerikarreko nazionalizatuak, eta 160.000 dira atzerrian jaiotako pertsonak.

Egoera desberdinak dira, eta tratamendu eta *ad hoc* egindako politika publikoak eta tratamendu desberdinak behar dituzte, kasu bakoitzaren kalteberatasun-egoeran oinarrituta. Honako posizio hauek, besteak beste, asko baldintzatzen dituzte integrazio-prozesuak eta -egoerak: jatorri jakin batzuk Euskal Autonomia Erkidegoaren okupazio-egituran duten (edo ez duten) egokitzapen funtzionala edota migrazio-proiektuen arrakasta oztopatzen duten zailtasun legalak.

2020an, Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak, José Antonio Oleagaren eskutik, *Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa* (Oleaga, 2020) egin zuen. Egileak azaltzen duenez, atzerritar jatorriko pertsonen integrazio soziala prozesu dimentsio anitzekoa, segmentatua, asimetrikoa eta anizkoitza da. Hori dela eta, hau iradokitzen du: «Beharbada, talde barneko segmentazioa, dimentsio anitzeko asimetria eta askotariko integrazioa ezaugarritzat dituen integrazio sozialaren teoria bat hasi beharko genuke irudikatzen». Teoria horrek ageriko dimentsio teorikoak ditu, baina, batez ere, ondorio praktikoa asko integrazio-politika forman. Integrazio-politika horiek partikularizatuak daude talde edo horien egoera jakin batzuetarako integrazio-prozesu guztietako egoera materiala/gogobetetze pertsonala/etorkizun aspirazionala *continuum*-ean².

Miguel Laparrak gizarte jakin baten *ahalmen integratzaile* gisa definitu duenaren ondorio dira integratioko *continuum*-eko posizioak. Laparraren arabera, «biztanleria immigratzailearen ezaugarriek baldintzatu egiten dute gizarteratzearen dinamika; *baina, batik batepe luzera, oraindik ere erabakigarriak dira harrera-gizartearen ezaugarriak*. Harrera-sistemak, lan-merkatura sartzeko erraztasunak, gizarte-politiken gizarteratze-ahalmenak eta biztanleriak immigrazioarekiko dituen jokabideek zehazten dute zenbaterainokoa den *gizarte jakin baten ahalmen integratzailea*» (Laparra, 2021, 11. or.) [letra etzana gurea da]. Hurrengo urteetarako erronka politikoa da gizarteratzea erraztea integrazioaren arrakastarako ezaugarri horien barruan.

Sakoneko testuinguru horren gainean, non fluxuek aurrera jarraitzen duten, immigrazioaren osaera konplexuago bilakatzen da, eta integrazio-prozesuak harrera-gizartearen ahalmen integratzailearen mende daude; garrantzitsua da gogoan izatea, nahiz eta batzuetan gertaeren aurkakoa izan, migrazioen

²Ikuspegiren indize sintetikoan, honako hauek dira dimentsio anitzeko integrazio sozial horretan aintzat hartzen diren dimentsioak eta integrazio sozial osoan duten pisua: lan-integrazioa (% 29,95), gizarte-ongizatearen integrazioa (% 16,31), integrazio sozioekonomikoa (% 14,37), integrazio identitarioa (% 12,48), herritarren integrazioa (% 11,06), integrazio komunitarioa (% 10,12) eta bizi-espektatiben integrazioa (% 5,71).

pertzepzio- eta interpretazio-esparru unibertsal bat dagoela: *Needed, but not welcome printzipioa* (badakigu funtsezkoak direla, baina ez dira sozialki ongi hartuak; ondorioz, politikoki ez gara arriskatuko). Sami Nairrek dioenez, paradoxa horretan oinarritzen da herrialde hartzaileek sustatutako politikaren zati handi bat: immigrazioa, aldi berean, premia eta mehatxua da. Irtenbidea bilatzeko begizta zaila (edo ezinezkoa?).

Premia objektiboa ez da gizartearen gaitzespenari aurre egiten ausartzen. Azken hamarraldian, Angela Merkelek soilik berretsi zuen Siriako exodoaren kasuan egin zuen politika, eta berriz egingo zuela adierazi zuen, eta, horren ondorioz, bere boto-emaile «naturalen» heren bat galdu. Paradoxa horrek atzeritar jatorriko biztanleak ikusezin bihurtzera garamatza: «irits daitezela, baina ez dadila nabaritu». Horregatik, eta gure artean, egun, oso presente dagoen lelo bat parafraseatzen: *hustutako immigrazio* batez dihardugu. Termino horren bidez adierazten dugu immigrazio-gertakariaren inguruko arreta guztia hartzen dutela errefuxiatuen krisi ziklikoak, mugak Europatik kanpora ateratzeak eragindako iragate-migrazioak eta familia-erreferenterik gabeko adingabe eta gazteekin zerikusia duten gaiek. Hori dela eta, zuhaitzek eragozten dute, edo *sine die* atzeratzen dute, basoaren gaineko kezka ikustea. Ikuspegi hori ez dagokio soilik eremu politiko-instituzionalari. Hirugarren sektoreak ere eusten dio.

Migrazio modalitate horietan giza eskubideen berehalakotasun tragikoak eta haien aurkako ageriko atentatuek argi eta garbi iluntzen dute bizileku-immigrazioaren ikusgarritasuna; izan ere, azken modalitate horrek integrazio sendo batera bideratutako politika publikoak behar ditu. Immigrazioaren politika liberala (*laissez faire, laissez passer*), hori baita benetan gauzatzen dena, etikoki ez da nahikoa eta, gainera, kaltegarria da egiturari dagokionez³.

Gizarte hartzaile ororen iruditeria ideala da *talentu-immigrazioa* erakartzea, mugimendu kontraesankor eta ezinezko batean oinarrituta: barruranzko buru argien ihesa induzitzea eta kanporanzkoa eragozteak. *Win-win* logika bat. Bitxia bada ere, hori da herrialde guztiek aldi berean garatu nahi dutena. Ikuspegi horretan, talentua oso modu kamuts eta mugatuan ulertzen da⁴. Pandemiak argi eta garbi erakutsi du *funtsezkoena* eta *talentua* gainjarri egiten direla eta koestentsiboak direla, jasotzen duten gizarteentzat gauza bera direla; izan ere, hautaketa bikoitzeko eta hirukoitzeko prozesu oso zehatzengatik, gizarte hartzaileak bere gabezien zerrenda ezartzen du eta, azkenean, benetan behar duen biztanleria etorkina finka dadila erabakitzen du. Burdinazko lege bat da; nahiz eta ikusezina izan, egiturazkoa den guztia bezala, eztabaidaezina da eta kausa sakonei erantzuten die.

³Batzuetan, esku-hartzea behar diren *stock*-ak zailtzeko baino ez da gauzatzen.

⁴Adibidez, Messi funtsezkoa eta haren ingurune hurbila finkatzeak eskatzen du funtsezko pertsona askoz gehiago erabiltzea.

Beste kontu bat da nola kudeatzen den benetako talentu hori finkatu ondoren, zer arreta jasotzen duen eta zein den bere posizioaren indarra migrazioaren gizarte-espazioan. Pandemiaren ondorengo aldian argitaratu diren azterlanek erakusten digute finkatze-immigrazioari ez zaiola arretarik jarri. Caritas/Foessak ikerketa bikain bat argitaratu zuen 2020an, izenburu esanguratsukoa: *Un arraigo sobre el alambre. La integración social de la población de origen inmigrante en España* (Iglesias, Rúa eta Ares, 2020). Duela gutxi, erakunde horrek berak argitaratu du *Informe sobre exclusión y desarrollo social en Euskadi. Resultados de la Encuesta sobre integración y necesidades sociales 2021* (Rodríguez de Blas, 2022) txostena. Euskadin, bitartean, pobreziaren eta migrazioaren inguruko adituek, monografiko honetan, integrazio prekarioa atzerritar jatorriko biztanleei eskainitako eredu dela berresten duen panorama aurkezten digute.

Aipatutako lehen txostenak adierazten digu migrazioaren errotze prekarioa edo kolokan dagoen errotzea gertatu dela. Gizarteratze-modalitate hori gorabehera, urria izan da itzulera, eta ondoriozko errotzea izan da 1) handiagoa atzerritar jatorriko emakumeen kasuan, 2), baina horrek ez du ekarri automatikoki integrazio sozioekonomiko hobea. Beraz, txostenak dioenez, dinamika horrek «hautsi egiten du ideia asimilazionista zaharra, zeinak iragartzen baitzuen integrazioa modu metatzaile eta linealean gertatzen zela gizarteko eremu guztietan». Laburbilduz, «atzerritar biztanleriaren integrazio sozioekonomikoaren prozesuak ez du errotze-prozesuaren bilakaera positibo bera izan». Ikusten da *Gastarbeiter*⁵ kontzeptuaren logika erretorikoki alde batera uzten dela baina gauzatu egiten dela soziopolitikoki. Nolanahi ere, lehen, gaur egun bezala, logika horrek huts egiten du egonaldiak iragankorrak izateko ahaleginean.

Atal horretan, ez da baliogabetzen, baina makaldu egiten da orain arte erabili dugun *egonkortasun-continuum* kontzeptuaren eskema klasikoa, zeinaren arabera egonaldi iraunkor batek lan-normalizazioa eta administrazio-erregularizazioa ekarriko bailituzke. Migrazioaren sendotzea ahuldu egin da, eta pandemiaren osteko polarizazio soziolaboralak etorkizun iluna ikustera garamatza. Polarizazio horrek berekin dakar igoera sozialeko eskailera desagertzea eta hura gutxiago integratzen duen batez ordeztea. Autobusak bere horretan jarraitzen du, baina gorantz mugitzeko igogailuak huts egiten du. Egoera horrek ikuspegi bikoitza eskatzen du: 1) jarrera arretatsua izatea, dinamika prekarizatzaile horren ondorioz txarrenei aurre egiteko, eta 2) dinamika hori egiturazkoa dela ohartzea. Izan ere, migrazioa modu prekarioan integratzeko eredu bat dator Espainiaren eredu ekonomikoarekin. Eredu horrek gehiago eragiten die atzerritarrei, baina biztanleria osoari eragiten dio. Gainera, adi egon behar da muturreko eskuin berriak sortzean eta/edo indartzean lehia etniko isilak izan ditzakeen ondorioei dagokienez. Aldi berean hartu behar dira

⁵Langile gonbidatua, baina, ahal dela, garaiz joaten jakin behar duena, eta, ahal dela, ez da harekin konpromisorik hartu behar.

kaltetutako herritar autoktonoen inklusioa eta etorkinen integrazioa bermatzeko neurriak. Ez dira bi alderdi bereizgarri, dinamika bazterkeria-eragile beraren bi aldeak baizik.

Bigarren txostenaren arabera, Euskadin atzerritar jatorriko pertsona izatea bazterkeria-faktore nagusietako bat da, eta, beraz, migratutako biztanleria da kaltetuena zenbait frontetan; izan ere, askoz gehiago eragiten diote langabeziak eta etxebizitza lortzeko eta etxebizitza barneko arazoek. Horrenbestez, «atzerritar jatorriko pertsona bat buru duten hamar etxetik ia sei bazterkeria-egoeran daude». Horrek esan nahi du Espainiako nazionalitatea duten pertsonak buru dituzten etxeek jasaten dutena baino bost aldiz handiagoa dela intzidentzia.

Liburuki horretako testuek egoera hori berresten dute. Rubén Lasherasek adierazi du enpleguaren eta okupazioaren atalean 2018an 2010eko egoerarik onenera itzuli zela, baina hobekuntza orokor hori inpaktu desberdineko esparru batean gertatu zela, jatorriaren eta nazionalitatearen arabera. Hasteko, atzerritar jatorriko kolektiboak euskal enplegu-merkatuan sartzeko egoera malkartsuagoa eta prekarioagoa izaten jarraitzen du. Presentzia handiagoa du enplegu irregularrean, hirukoiztu egiten ditu biztanleria autoktonoaren langabezia-tasak, areagotu egiten da hainbat kolektiboren kasuan, etab. Eredu orokor hori larriagotu egiten da sexuaren, jatorri geografikoaren edo adinaren arabera. Egile guztiak bat datoz honekin: migratutako kolektiboa talde homogeneotzat irudikatzeari utzi behar zaio. Azkenik, kontuan izan behar da bazterketa-errealitateak hiru desberdintasun-ardatzetan oinarrituta gurutzatzen direla –sexua, jatorria eta «arraza»– eta bazterketa-errealitateak metatu egiten direla.

Kolektiboen azterketa xehatuaren zatian, analisi hori bera agertzen da, hezkuntzaren, lanaren eta gizartearen eremuetan gaingiroki aurkezten dituzten kapitalen arabera. Jatorri batzuek, hala nola asiarrek, lan-integrazio handia aurkezten dute, baina ez soziala edo kulturala; Latinoamerikako azpi-kolektiboen egoera askotarikoa da, eta haien era askotako kapitalei eta egonaldi-urteei zor zaie, baina, oro har, enplegu-merkatu ahuldu batean sartzeko aukera ona dute; Europako kolektiboaren egoera era askotakoa da, eta Afrikako biztanleriaren egoera bereziki da ahula.

Luis Sanzok, COVIDak biztanlerian izan duen eraginari buruzko datuak eskuan, adierazi du atzerritar jatorriko biztanleriak, bere egungo nazionalitatea gorabehera, jarraitzen duela izaten talde bat ezaugarritzat duena prekaritate handiko egoeretan mantentzea. Hala, COVID-19aren pandemiaren ostean, atzerritar jatorriko pertsonen % 61,4k adierazi zuen azken urtean zailtasun ekonomikoren bati aurre egin behar izan ziola, elikaduraren, jantzien, oinetakoen edo etxebizitzaren arloko oinarrizko premien estaldurarekin edo ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunarekin lotuta, Espainiako jatorriko biztanleriaren

% 15,3ren aurrean. Egoera hori areagotu egiten da Afrikan jatorriko pertsonen artean, eta prekaritatea ez da krisiaren ondoriozkoa edo egoeraren arabera, egiturazkoa baizik, eta eragin handiagoa du seme-alabak dituzten familietan, hau da, adingabeengan. Diru-sarrerak bermatzeko sistema (DSBE, orain BGDS ere bai) ez da gai izan egoera hori iraultzeko, baina ondorio larrienen zati bat arindu du, bederen. Luis Sanzok ohartarazi duenez, «atzerritar jatorriko biztanleriari eragiten dioten pobrezia eta prekaritate sozioekonomikoko egoerak gainditzea, bereziki gazteenen eta haurren artean, erronka nagusietako bat da etorkizuneko Euskadi sendotzeko prozesuan arrakastatsua izan nahi duen gizarteratze-politika baterako».

Laburbilduz, testu multzo horretan baieztatzen da atzerritar jatorriko biztanleriaren integrazio sozioekonomikoa bereizia dela, okupazio-egituraren zatirik baxuena hartzen duela eta honako ezaugarri hauek dituela: goranzko mugikortasun sozial murriz eta mugatua; lan-estatutu oso prekarizatua, bizi-ibilbideetan kalteberatasuna sartzen duena; soldata baxuak; pobrezia intzidentzia handia; eta, estereotipo nagusiak gorabehera, babes-maila nahiko txikia. Zergapeko garbia da, baina ez du ordezkaria handirik gure gizarteko babes sozialeko mekanismoetan.

Esparru horretan, gelditu egin daiteke *egonkortasun-continuum*. Baina, migrazio-prozesuen ikuspegi instrumentalek kritika handia jasotzen duten arren eta *continuum* hori ahultzen den arren⁶, garrantzitsua da lan-integrazioaren arloan ekiten eta ekiten jarraitzea, gainerako inklusio moduen oinarritzat hartuta, baina berme bakartat jo gabe. Enplegu ahulak (Alonso, 2000) ez du gizarte indartsurik sostengatzen, eta bi ondorio negatibo izan ditzake: 1) etorkin-jatorriko biztanleriaren integrazio soziolaborala behin betiko ahultzea, eta 2) sektore autoktonoetan prekarizazioak duen eragina etnia- eta lan-lehiaren eragilea izateko aukera gutxiestea. Atzeraezina da hiru alderdiren (enplegua, biztanleria langile autoktonoa eta biztanleria langile etorkina) arabera interakzio dialektiko horri buruzko gogoeta, eta laneratzea indartzea eskatzen du, atzerritar jatorriko biztanleriaren gehiengo handi batek ez dezan ordezkari «gure herrialdeko prekaritatearen azken muga» eta sektore hori ez dadin bilakatu berak eragin ez duen sektore autoktonoen lan-desplazamendu potentzial baten ondoriozko bekatari edo jomuga. Nolanahi ere, integrazioa ez da amaitzen ganorazko laneratze fidagarri batekin; izan ere, horrek integrazio-politika sinesgarrien beste multzo batekin batera joan behar du, zeinak lotuak egongo baitira babesarekin, hezkuntzarekin, herritartasun-eskubideekin eta errotze-diskurtsoarekin. Antonio Izquierdoren esanetan, «lan-sostengu estu eta arriskugarria berrorekatzea komeni da». Estua, funtsean eskulangileak kualifikazio gutxiko enpleguetara mugatu direlako, eta arriskugarria, naziokoa

⁶Badago azken urteotan meritokrazia igoera sozialerako mekanismotzat hartzearen aurkako oso joera kritiko bat, baina jarrera zuhurrak egokiagoa dirudi; izan ere, ez meritokrazia ez egonkortasun-*continuum* ez dira erabilezin bilakatutako ikuspegiak edo esparruak.

denaren lehentasuna eta arraza-bereizkeria legitimatzen dituelako. Aitzitik, errotze-diskurtso batek azpimarratzen du biztanle iraunkorrak direla eta ez aldi baterako langileak, adopzioko eta jatorrizko etorkizuneko espainiarrak direla eta ez kanpotarren bigarren belaunaldiak. Horrenbestez, “kanpoan jaiotako espainiarrak” lirateke, barneko defizit begetatiboa konpentsatzera datozenak. Egiturazko azalpen horrek hobeto erantzuten dio neurtu daitekeen errealitateari, bai eta hautemandakoari ere. Gainera, diskurtso hori egokiagoa da migrazio-fluxuetan gertatzen diren berrikuntzak eta jarraitutasunak azaltzeko, bai enplegua sortzen den garaietan, bai suntsitzen den garaietan. Diskurtso horretan sar daiteke fluxuen aniztasuna, bai eta horietako bakoitzaren izaera desberdina ere »⁷ (Izquierdo, 2016, 150. or.).

Abiaturuko lan-oinarri horrekin batera, erraztasun legalak eman behar zaizkie bizileku-estatutuei eta lan-baimenei eta naturalizazioari, edo, gutxienez, erregularizazio ohikoagoak postulatzeke eta gauzatzeko aukera eman behar da. Nazionalitatea eskuratzeari buruzko datuek adierazten digute Espainian bizi den immigrazioaren heren batek, gutxi gorabehera, Espainiako nazionalitatea eskuratu duela, baina sarbide hori oso mugatua eta bidegabea da afrikar eta asiar jatorriko pertsonentzat, eta oso argi nabarmentzen du *hobetsitako immigrazioa* sustatzen dela. Sarri, legeria oso bidegabea da finkatuta denbora gehien daramaten kolektiboekin. Kasurik onenean, linbo juridiko batean egonarazten zaie. Erregularizazioak mekanismo txarra dira «egonkortasunera» iristeko, ez dira oso errealistak migrazioen dinamikarekin, baina beste biderik ezean ohikoagoak izan beharko lirateke, irregulartasun-poltsa izugarriak sortu arte itxaron gabe⁸. Hala ere, erregularizazioen alde irmo egiten duen Gonzalo Fanjulek adierazi duenez, «Espainiako migrazio-kudeaketarako sistema ez da egokitzen merkatuaren seinaleetara. Fluxuak kontrolatzeko pentsatuta dago, eta ez fluxuak gobernatzeko. Egia da immigrazioarekin zerikusia duten gaiak politikoki erradioaktiboak direla, baina aliantzak eta akordioak sor daitezke alderdien eta gobernu autonomikoen artean eta, era berean, enpresa-klasearen konpromisoa bila daiteke» (Fanjul, 2021, 9. or.).

⁷2008an jada, Antonio Izquierdok, liburukia zuzendu zuen egileak, eredu horren arriskuen berri eman zuen *El modelo de inmigración y los riesgos de exclusión* (Foessa, Madril) izeneko testuan. Testu hori *VI Informe FOESSA: Exclusión y desarrollo social en España 2008* txostenean zegoen jasota.

⁸Bestalde, nahiz eta kontraintuitiboa izan, une askotan irregulartasun-egoeran dauden pertsonak % 10-20 izateak adieraz dezake immigrazio-fluxuen aldeko ziklo ekonomikoetan gaudela.

Esplorazio instituzionala eta immigrazioaren kudeaketa integrala

Immigrazioa gizartearen radar tematikotik desagertzeak eta eremu politikoaren eskutik jasan duen ezkutaketak –bai eta konfinamenduan eta ondorengo faseetan ere– adieraz dezake immigrazioa ez dela arazotzat hartzen, eta, hain justu, arazotzat aurkeztu ohi da sarri. Jakina, eskura ditugun datu demoskopikoek erakusten digute immigrazioa ia ez dela aipatzen arazo garrantzitsuenen artean. Estaltze horren irakurketa ezkorrago batek adieraziko luke etorkinen egunerokoak eta haien bizi-kondizioek oso gutxi arduratzen dutela, eta haien gizarteratze-prozesua *interesik-gabeko-moduan* utzi dela haiekin funtsezko sektore guztietan dauden hutsuneak modu prekarizatuan betetzen jarraitzen den bitartean. Mota horretako kudeaketak ez dirudi biderik gomendagarriena, eta, aitzitik, irmoki babesten dugu immigrazioaren aldekoa izango den eta haren kudeaketa integrala sustatuko duen esplorazio instituzional bat proposatzea. Gure errealitate sozialean duen eta dagokion lekua birdeskribatzeko esplorazioa. Orokortze on oro eta politika on oro deskripzio on batekin hasten da. Esplorazio horrek, lehenik, aurkikuntza-testuinguru batean ikuskatu behar du alorra, non gauden jakiteko.

Immigrazioa errealitatean berriro sartzeko, mende honen hasieran eraiki ziren harrera- eta aurreokupazio-sistemak berrezartzeko eta eguneratzeko lanari ekin behar zaio berriro; izan ere, mende hasieran, herri askotan eta hainbat erakunderen eskutik immigrazio-planak, kulturartekotasun-planak, foro-proposamenak eta laguntza-sistemen proposamenak idatzi eta ezarri ziren. Hau da, helburua izango litzateke migrazioaren kudeaketaren alde egingo duen leheneratze bati ekitea, ondoren aipatzen diren gisako elementuak erabilia. Baina beste asko egon daitezke.

Printzipioz, immigrazioaren kudeaketa egiten uztearen liberalismoak dakarren ez-egite arduragabearen oinarritu gabe, eta gertaeren aurrean, erakunde bultzada iraunkor bat behar da migrazioa zentzuz jorratzeko. Bultzada hori tokiko zein Europako abagune ekonomiko eta politikoko egituren mesederako edo kalterako izango da, baina nagusitu egin behar du immigrazioaren errealitateari heltzeko borondateak. Arlo horretan garrantzitsuena da zaintza-jarrera izatea gertakari estruktural horri dagokionez; izan ere, nahi ala ez, etorkizuneko euskal gizartean bere zigilua ezarriko du. Antonio Izquierdok dioenez, «ildo horretan, bi zeregin premiazkoenak dira sarreraren erregulazioa doitzea eta lehentasunak ezartzea integrazio-prozesuetan. Eta bi helburu horietan asmatzeko oinarriak gizartearen gogo-jarrera eta gobernuaren kudeaketa dira. Horretarako, “errotze-diskurtso” bat sorrarazi behar da bertako gizartean, eta “eskumen-koordinaziorako” beste diskurtso bat administrazio publikoetan. Beste era batera esanda, *eskulan deskualifikatu* gisa planteatutako immigrazio-

politika zuzentzea eta instalazioaren gobernagarritasunaren gainean jardutea» (Izquierdo, 2016, 149. or.).

Jarraian, immigrazioaren errealitateak analitikoki jasaten duen ostrazismotik ateratzeko, informazio asko behar da, bai eta ondorengo ezagutza ere. Begirunek Senatuan egindako hitzaldi batean esan genuen Espainian 2007tik ez dela berriro argitaratu ENI (Etorkinen Inkesta Nazionala), eta hori lehen urratsa izango litzateke hainbesteko garrantziko gabezia hori betetzeko. Horri dagokionez, Euskadin, Ikuspegik eta Estatistikako Organo Bereziak (EOB) aurrerapen handiak eginak dituzte jada. Atzerritar jatorriko biztanleen kalitateari buruzko luzetarako datuak lortzeko dinamika horri eustea erakundea indartzea da, modu eraginkorragoan jardun baitaiteke ezagutza frogagarriaren gainean. Beste horrenbeste gertatzen da, gaingiroki, Nafarroan; izan ere, immigrazioari buruzko ezagutza handia dago eta gaiari heltzeko ganorazko mekanismo instituzionalak dituzte.

Komenigarria dirudi, halaber, inplizituki eta esplizituki koalizio handi bat ezartzea bultzada instituzionalaren eta gizarte-bilbearen artean, kudeaketa horri osotasunean ekiteko. Politika instituzionalek horrela izaten dute interakzioa gizarte-erakundeen lankidetzakritikoarekin. Oreak ezegonkor hori oso emankorra da, zaila izan arren. Gainera, Marco Martiniellok dioenez, aniztasuna aitortzeko modurik onena aurrekontu publikoa da, eta bere ustez, «multikulturalismoa baliabide publikoen eta birbanaketaren inguruko kontu bat da, eta, beraz, justizia sozialeko kontu bat» (Martiniello, 2000, 65. or.). Elkarri lotutako hainbat alderdi, adabaki eta plazeborik gabe, artikulatzeko programa bat da: tokiko gizartearen premiak; etorkinen ekarpena aitortzea; beharrezkoak ez diren zailtasun juridiko asko kentzea; kultura- eta gizarte-kapitalak aprobetxatzea; gizarte-babesak ematea; eta integrazio-prozesuen oinarri bermatzailea.

Europako testuinguruak ez du asko laguntzen gaur egun: eskuin erradikalak sortzen ari dira, eta pandemiak estatozentrismo baztertzalea indartu du, mugikortasunari mugak itxiz, zenbaitetan isilka eta beste zenbaitetan argi eta garbi, COVIDa uxatzeko aitzakiapean, hura ere beti «atzerritarra» baita. Lurren oinarriko nortasunen artean, Europakoa da ahulena. Manuel Castellsen arabera (Castells, 2018), Europako herritarren gehiengo bat nazionalak zein europarrak sentitzen dira, funtsezko gutxiengo bat nazionala sentitzen da soilik, eta taldetxo txiki bat baino ez da nagusiki europarra sentitzen. Haren ustez, antieuropeisten eta euroeszeptikoen artean, hauskorra da europar identitatea. Eta identitate horren ahuleziak kaltebera bihurtzen du Europar Batasunean gertatzen den edozein asaldura garrantzitsuren aurrean, dela ekonomikoa, dela geopolitikoa, dela migraziokoa⁹. Aitzitik, modu iradokitzailean, Baumanek zioen Europa *amaitu gabeko abentura* bat zela, bahiketa batean oinarritua,

⁹Idazketa amaituta, Errusiak Ukrainan egindako inbasioaren ondoriozko krisia sortu da.

eta gaineratu zuen Ongizate Estatua dela elkartasuna gorpuztearen eraikinik bikainena. Gaur egun, migrazioaren bahiketaren aurrean gaude, eta, haren ekarpena eztaba daezina izanik, ez balego bezala funtzionatzen da, eta, aldi berean, ongizatea hutsaltzen da (Bauman, 2009). Amaitu gabeko abentura, baina argi baino itzal gehiagorekin. El Rotoren beste bineta bikain batean ezin hobeto aurkezten zen dilema: «Edo mugarik gabeko Europa edo Europarik gabeko mugak».

Immigrazioa geroratutako gizarte-errealitate gisa ezkutatzearen duela gutxiko adibide bat da Espainiako Gobernuaren Prospektiba eta Estrategia Bulego Nazionalaren aparteko dokumentu hau: *España 2050. Fundamentos y propuestas para una Estrategia Nacional de Largo Plazo*. Testu horretan, immigrazioari buruzko laurogei aipamen inguru daude; horrez gain, Espainiak 2050era arte urtean 191.000 etorkin beharko dituela gehitu da, baina ez da aipamenik egiten horren kudeaketaren eta proposatzen diren integrazio-ereduen inguruan. Hala ere, osagaiak mahai gainean daude: integrazioaren platera instituzionalki, politikoki eta legalki ontzea da gauza.

Operazioak eskatzen du bultzada horren buruan kokatzea egitura politikoa, erakundeen arteko lana gauzatzeko ur-jauzi baten gisara, eta ez berriro galtzea erregu erretoriko inkontsekuentetean. Onena onaren etsaia bada eta perfektua, bien berebiziko etsaia, nahikoa da oso kontu xumeetatik hastea eta PECE I (*Plan Estratégico de Ciudadanía e Integración 2007-2010*) planaren gisako tresnak berraztertzea eta/edo leheneratzea, bai eta mende honen hasieran ezarri ziren integrazioa errazteko mekanismoak ere, eta horietan parte hartu zuten erakundeak eta pertsonak berriz sartzera. Baina, funtsean, kontua da gure etorkizunaren ezinbesteko osagai erabakigarri baten aurrean harrera-, entzute- eta kudeaketa-jarrera berreskuratzea. Jarrera behar da bideari ekiteko, ibilbidea ebaluatze eta, bidean eskuratzen den ezagutzan oinarrituta, zuzentzeko eta berritzeko.

Euskadi, etorkizuneko erronkak

Euskadira etorrira, leheneratze hori errazten duten urrats batzuk ikus daitezke, eta egun lana dagoeneko abian dela esan daiteke. Alde batetik, azken urte hauetako migrazio-stockei buruzko datuek adierazten dutenez, lurralde-babesleku¹⁰ gisa edo besterik gabe berez daukan potentzial integratzaileagatik, Euskaditik etorkin-biztanleriaren eskari fidagarri iraunkor bat formulatzen da. Etxeko eta zaintzako zerbitzuak nahiz zerbitzuen eremu orokorra behar dituen klase ertain batek bizirik eusten dio eskariaren sugarrari.

¹⁰Luis Sanzok behin baino gehiagotan aipatu du gai hori.

Bestalde, bidezko immigrazio-politika bat garatu ahal izateko, ezinbestekoak dira gizartearen elastikotasuna eta erresilientzia morala. Hala, alderdi soziopolitikoetan oinarrituta, immigrazioarekiko jarrerren alorrean, euskal gizarteak *anbibalentzia tolerante* bat agertzen du. Ikuspegiren urteko azken barometroaren arabera, 2021ean tolerantzia-indizea serie osoko baliorik altuenera iritsi zen 2007tik, 66,09 puntura, krisi pandemikoak eraginik izan gabe. Euskadiko hamar pertsonatatik ia lauk jarrera toleranteak dituzte, lauk anbibalenteak eta bi uzkur agertzen dira immigrazioaren aurrean. Tolerantziazko posizioekin eta jarrerekin lotzen diren aldagai soziodemografikoak kontuan hartzen baditugu (Ikuspegi, 2021), esan daiteke Euskadin jarrera toleranteak eta anbibalentearen zati handi batek oso posizio sendoak dituztela gizarte-egituran, eta horrek azaltzen du tolerantzia orokorraren indizeak gora egin duela krisiak izan eta atzerritar etorkinen bolumena etengabe handitu den arren. Jakina, jarrera horiek guztiak zirkunstantzia aldakorrei lotuta daude, baina oso sendoak dira haiek mantentzen dituzten oinarriak, eta ez dugu uste datozen garaietan nabarmen aldatuko direnik.

Ildo horretan, EAEko herritar gehienak erdi jakitun dira immigrazioaren fenomenoaren egiturazkoa dela eta datozen urteetan beste jatorri batzuetako pertsonak iristen jarraituko dutela. Enpleguari eta administrazio-egoera erregularrari lotutako immigrazio bat eskatzen du, eskubideak eta zerbitzuak eskuratzea egoera erregularra izateak baldintzatzen baitu¹¹. Nahiago du bizikidetzaren eredu bat non etorkinek ahalegin handiagoa egin behar duten euskal kultura-ohituretara eta -praktiketara egokitzeko. Onartzen du integrazio-prozesuak bi norabidekoak izatea eta eskatzen du bertakoak eta etorkinak egokitzeko ahalegin partekatua egitea, baina berariaz adierazi gabe eredu zinez asimilazionista baten alde egiten du. Ideologikoki, sektore toleranteenean euskal abertzaletasunari lotuago dagoen aldagai multzo bat aurkitzen dugu, abertzaletasuna, aldi berean, egitura-oinarri sendoagoetan oinarritzen delako.

¹¹Erregularizazioaren idealizazioaren aurrean, komenigarria da adieraztea egoerarik onena dela etorkinen % 20 edo % 25 irregulartasun-egoeran egotea; izan ere, horrek tokiko ekonomia bizirik dagoela adierazten du. Erabateko irregulartasunak bizitasun ekonomikoaren desagertzea adierazten du. Ez da komeni migrazioak eta susperraldi demografikoak lotzea. Immigrazioa gertakari bat da. Gainbehera demografikoa, beste bat. Lehenengoak ez du inoiz bigarrena orekatzen. Fenomeno autonomoak dira, eta, beraz, aztertu eta tratatu egin behar dira, baina, jakina, interakzio-harremanak dituzte elkarren artean. Euskadin ez dago susperraldi demografikorik, aldaketa sozioekonomikoek eta, batez ere, kulturek epe luzera gizarte-inbertsio handiekin soilik alda daitezkeen portaerak sortzen dituztelako, eta gorakada demografikoa lortuko den ziurtasunik gabe. Euskadik bere demografia berreskuratzea nahi badu, ezohiko garrantzia duten gizarte-politikekin egin beharko du, bai neurrietan, bai aurrekontuan; izan ere, epe laburrean, etorkinek bertako biztanleriaren eredu demografikoak errepikatu eta imitatuko dituzte.

Tolerantzia-indize *txiki*enak hiru profil ditu:

1. Egoeraren arabera edo koiuntura batean xenofoboak diren pertsonak: gizarte-egituraren espazio beretan atzerritar jatorriko pertsonekin lehiatzen direnak;
2. Pertsona xenofobo kalteberak: objektiboki eta subjektiboki kalteberatasun pertsonal eta sozial handieneko egoeran daudenak, segurtasunik gabe eta mehatxupear sentitzen direnak, etorkinen etorrerak ingurune-aldaketak dakartzalako aurre egiteko gai sentitzen ez direnentzat edo tresna nahikorik ez dutela uste dutenentzat;
3. Pertsona intolerante ideologikoak: edozein dibertsitate modalitatekin oso porotsuak ez diren pertsonak eta xenofobia ideologikoaren elikagai direnak.

Sendotutako arbuio-posizioetan oinarritzen ez diren dinamika xenofobo horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da adi egotea «klase zuri pobrea» deritzonak hautematen duen babesgabetasunari aurre egiteko. Putnamen hipotesiari buruz lkupegik argitaratutako testu batean, aniztasunaren ondorioz konfiantza higatzeari buruzkoan, hain zuzen, Imanol Zuberok (2010) honako hau zioen: «orobat, aniztasunak, bere horretan, ez du gizarte-konfiantza murrizten. Arazoa ez da aniztasuna, gizarte eta bizileku aldetik gutxiengoak baztertzea baizik, eta, horri loturik, ia beti, desorekak egoten dira. Bereizkerian txertaturiko aniztasunak higatzen du gizarte-konfiantza; aitzitik, *integrazioan txertaturiko aniztasunak* taldeen arteko kontaktua laguntzen du, eta helburu partekatuak eta jomuga kolektiboak planteatzeko aukera sortzen» [letra etzana gurea da].

Euskadin, tradizio ideologikoen konbergentzia dela eta –demokrazia kristaua eta askotariko sozialdemokraziak–, oinarri moral partekatuak daude immigrazio-eredu propioa proposatzeko, egitate estruktural horri aurre egiteko eta integrazioan txertaturiko aniztasun horren alde egingo duen erakundearen arteko immigrazio-politika koordinatua eta eraginkorra egiteko. Horretarako, pultsu eta bultzada instituzionala behar dira, eta aitortu behar da atzerritar jatorriko biztanleriaren gorakada *stock*-ekin hazten dela, euskal gizarteak zaintza- eta zerbitzu-sektorean dituen premiekin bat etorrira, eta industria-sektoreari dagokionez ere gero eta nabarmenagoa da. Prospekzioen arabera, Euskadin 110.000 pertsonatik gorako defizita egongo da datozen urteetan biztanleria aktiboa berritzeko. Errealitatea eta oraina hemen daude. Etorkizuna kudeatzea da kontua, euskal gizartea osatzen duen biztanleriaren berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako etorkizun bat. *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana*-k kulturartekotasunaren alde egin duen apustua norabide horretan doa. Horretarako, badirudi ezinbestekoa dela Eusko Jaurlaritzak eskumenei dagokienez tarte estrategiko bat lortzea migrazio-

gertakariaren kudeaketan, arreta berezia jarrita errotzeko eskakizunei, lan-baimenei, bizileku-baimenei, familia-elkartzeari eta harrera-eskumenari.

Denboran behin eta berriro formulatu den etorkinen oinarrizko agenda «paperak eta lana» binomioa izan da, eta horrek esan nahi du lan-integrazioa eta segurtasun juridikoa. Horri heltzea justizia-kontua da, bizilekuan oinarritutako herritartasuna egituratzeko, Euskadin 2003tik hona egin diren planen *leitmotiva*, hain zuzen.

Atal juridiko horrek aurrekontua behar du, halaber. Lehenik eta behin, kulturartekotasunean oinarritutako integrazio-eredu bat artikulatu beharko da, aldi berean berdintasunari, desberdintasunari eta interakzioari heltzen diena. Behin eta berriz ikusten ari gara *aniztasuna/integrazio soziala* binomioan, batzuetan, integrazio sozialaren helburua atzeratzen eta saihesten duen eskakizuna dela aniztasunarekiko arreta. Aniztasuna, aitortutako desberdintasuna den aldetik, integrazio sozialaren birbanaketa-gertakariaren osagarri da. Baina batez ere aniztasunean zentratzeak batzuetan mugimendu inkontzientea ekarri ohi du berekin, ziur aski, berdintasuna murrizten duena. Eta horrelakoetan tentu handiz ibili behar da, integrazio sozialik gabe ez baitago dibertsitate integratu iraunkorrik. Eta kohesiorik gabe, gainerako kolektiboekiko mesfidantza zabaltzen da lehenik; gero, erakundeekiko mesfidantza sortzen da, eta, azkenik, kide diren taldera bertara hedatzen da¹² (Putnam, 2007).

Gai ireki batzuk

la ziurtasun osoz atzerritar jatorriko pertsonak etortzen jarraituko dutela eta haien ondorengo zati bat Euskadin jaioko dela bada kontuan hartu beharreko lehen datu bat. Familia-erreferenterik gabeko adingabeek eta gazteek, errefuxiatuek eta iragate-migratzaileek jasoko duten arretarekin batera jazoko da gertakari hori. Azken horiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den errealitate bat osatzen hasi dira. Iragaitzazko ia bederatzi mila pertsonari eman zitzaien arreta Euskadin 2021ean. Mugikortasun-eredu horrek gora egingo du datozen urteetan, nahiz eta Espainiak (eta Europak) Marokorekin izango duen harremanak oso baldintzatutako gai geopolitikoak dauden tarteko. Hori da Europako mugak kanpora ateratzearen kontraprestazioetako bat. Hala ere, lau mugikortasun-moduek arreta handia eskatzen dute, baina finkatze-immigrazioa ez dute ikusezin bilakatu behar eta, izatez, lehenetsi egin behar da.

¹²Putnamek dio aniztasunak pertsonen arteko konfiantza eta kapital soziala higatzen dituela, uzurtasun-erreakzio orokor bat eragiteraino, arlo publikoa abandonatzeraino. Egin ditzakegun ñabardura eta kritika guztiak gorabehera, gure gizarteetan berehala onartzen den tesi bat da, zentzuzko gai bat balitz bezala, eta, aldi berean, gero eta gehiago islatzen da hauteskundeetan. Normaltasun-itxura horren aurka borrokatu behar dugu lehenik eta behin, gure gizarteetan gero eta zentralagoa izango den gai baten azterketan aurrera egin nahi badugu, bederen.

Enplegu-merkatuaren bilakaerak eta zerbitzuen sektorea ahultzeak eragindako kezka –atzerriko jatorriko biztanleriaren zati handi bat sektore horretan txertatuta dago– beste atal interesgarri bat da. Horren bilakaeraren araberakoa izango da erakundeek egin beharreko esku-hartzearen intentsitatea. Egoera ekonomiko eta enplegu-egoera onak inbertsio sozial txikiagoa eskatzen du, eta, bestetik, irregulartasun administratiboko egoeran dauden pertsonen tasa zertxobait handiagoa izatea. Irregulartasunak askotan adierazten du immigrazioa finkatzeko prozesua norabide egokian doala; izan ere, fluxurik ezak dinamismo ekonomikorik eza erakusten du. Baina norabideak egokia izan behar du, eta batez ere sendoa, prekaritate-dinamikak neutralizatzeko. Hori ez da erraza izango.

Erakunde-mailan ezinbestekoa dirudi kultura-aniztasuna kudeatzeko euskal eredu bat eratzea, erakundeen artean harmonizatua, Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen parte-hartzearekin. Era berean, komenigarria dirudi Migrazioko eta Asiloko, Hizkuntza Politikako eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zuzendaritza politikoen artean garrantzi bereziko harreman estrategiko bat ezartzea. Zer pentsatu handia dago ikastetxe jakin batzuetan atzerriar jatorriko ikasleen kontzentrazioei buruz, gizarte-bereizketei buruz eta hezkuntza-ildoei eta hizkuntza-ereduei buruz. Era berean, gizarteratzea eta laneratzea erraztuko duten hezkuntza-ibilbide malguak aztertu behar dira. Indartze instituzional horretan, komenigarria dirudi immigrazioko udal-teknikarien sarea Harrerarako Euskal Ereduak eratuko duen sarearekin osatzea, zeina oraindik inplementatu gabe baitago.

Hori egin aurreko *bitartean* onartu dira honako hauek: *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana* (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2022) –immigrazioa eta kultura-aniztasuna kudeatzeko eredu publikoan aurrera egiten duten hainbat neurri estrategiko jasotzen ditu–; *Migratorako euskal itun soziala* –ikuspegi inklusiboa sortzeko eta immigrazioa eta aniztasuna errespetatzen dituzten praktikak sortzeko esparru eta performazio-mekanismoa–; *Harrerarako Euskal Eredua* –erantzun instituzionalaren harmonizazio-tresna–; eta *Euskarri estrategia* –familialaguntzarik gabeko adingabe eta gazteentzat–. Halaber, *Migrazioaren eta Asiloaren Foroa* parte hartzeko organoa berritzeko oinarriak ezarri dira.

Erakunde-egitura hori, atzerriar jatorriko pertsonen elkarrekin eta haien artean lan egiten duten elkarrekin lankidetzan, immigrazioaren eta aniztasunaren eremuetan ekimen politikoa berreskuratzeko aintzat hartzeko moduko esparru gisa ezarri da. Euskadin, bada ahalegin horrekin bat egiten duen testura morala.

Ikuspegi soziologikotik, gure garaia likidotzat jotzen da, zeinak erakundeak eta gizarte-loturak ahultzea baititu ezaugarri. Horrelako egoeretan, gizarteek ez dute ez segurtasunik, ez ziurtasunik, ez konfiantzarik ematen, eta, aitzitik, hazi egiten dira ziurgabetasuna, hauskortasuna eta segurtasunik eza. Ezinbestekoak

dira erakunde indartsuak eta gertakari dimentsio anitzeko, segmentatu, anizkoitz eta asimetriko horren alderdi guztiak jorrazeko politikak eta neurriak. Instituzionaltasunik ezean, dena zoriaren, indartsuen borondatearen eta gizartearen borondate onaren edo txarraren esku geratzen da; izan ere, instituzionaltasunik ezean babesgabetasuna eta proposamen txarrak areagotzen dira. Gizartea beldurtu egiten da eta zigorgabetasun-esparruak ugaltzen dira. Guztion lana da horiek ez sortzea. Instituzionalki jorrazten ez denari gizarteak ezin dio bakarrik aurre egin. Izquierdok dioenez, instalazioaren gobernagarritasunean eragitea da kontua.

Bibliografia

Alonso, Luis Enrique (2000) *Trabajo y postmodernidad. El empleo débil*. Fundamentos.

Bauman, Zygmunt (2009) *Europa: una aventura inacabada*. Losada.

Beck, Ulrich (2017) *La metamorfosis del mundo*. Paidós.

Begirune Fundazioa (2021) *Seis claves de futuro en la gestión de la diversidad cultural*, Espainiako Senatuko Lan, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazioetako Batzordea.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (2022) *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana 2022-2025*. Eusko Jaurlaritza. https://bideoak2.euskadi.eus/2022/02/22/news_75231/VI-PLAN_INTERCULTURAL_es.pdf

Castells, Manuel (2018) *La crisis de Europa*. Alianza.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Berezia (2019) *Encuesta de la Población Inmigrante Extranjera 2018. Principales resultados*, Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informes_epie/es_def/data/Informe-de-resultados-de-EPIE-2018.pdf

— (2021) *Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2020*, Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epds_2020/es_epds2012/data/INFORME-EPDS-2020.pdf

Espainiako Gobernuaren Prospektiba eta Estrategia Bulego Nazionala (koord.) (2021) *España 2050: fundamentos y propuestas para una Estrategia Nacional de Largo Plazo*. Presidentzia Ministerioa.

- Fanjul, Gonzalo (2021) *Immigrazioaren ikuspegi errealista. Erregularizazioa, aukera bat premia-egoeran*, Usteak Ustel saila, Sakondu bilduma, ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea.
- Iglesias, Juan Rúa, Antonio eta Ares, Alberto (2020) *Un arraigo sobre el alambre. La integración social de la población de origen inmigrante en España*. Fundación Foessa.
- Ikuspegi (2021) *Barometroa 2021. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak*. Ikuspegi.
- Immigrazio eta Emigrazioko Estatu Idazkaritza (2007) *Plan Estratégico de Ciudadanía e Integración 2007-2010*. Etorkinak Integratzeko Zuzendaritza Nagusia.
- Izquierdo, Antonio (Zuz.) (2008) *El modelo de inmigración y los riesgos de exclusión*. Foessa.
- Izquierdo, Antonio (2016) *Crítica de la inmigración imaginada*. Ed. Bellaterra.
- Laparra, Miguel (2021) *Migrazio-fluxuaren joerak eta harrera-gizartearen ahalmen integratzailea*, Usteak Ustel saila, Sakondu bilduma, ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea.
- Martiniello, Marco (2000) *Salir de los guetos culturales*. Bellaterra.
- Nair, Sami (2006) *Y vendrán. La inmigración en tiempos hostiles*. Planeta.
- Oleaga, José Antonio (2020) *Inklusioaren eta integrazioaren indize sintetikoa: politika publikoak diseinatzeko tresna bat, Basque Inclusion Integration Index-BI3*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Putnam, Robert D (2007) E pluribus unum: Diversity and community in the twenty first century. The 2006 Johan Skytte Prize Lecture, *Scandinavian Political Studies*, 30(2), 137-174.
- Rodríguez de Blas, Daniel (koord.) (2022) *Informe sobre exclusión y desarrollo social en Euskadi. Resultados de la Encuesta sobre integración y necesidades sociales 2021*. Fundación Foessa.
- Zubero, Imanol (2010) *Herritarren konfiantza eta giza kapitala gizarte kulturaz niza*. Ikuspegi.



**ikus
pegi** Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración